

[JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA]

CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO  
DOCTRINA CRISTIANA

Edizio kritikoa  
**Fr. Luis Villasantek**  
prestatua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
BILBAO 1987

## D. JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA

*Cristaubaren Icasbidea*

D. Juan Antonio de Moguel es una figura que no necesita de presentación, pues su nombre es harto conocido en la literatura euskérica. El es además uno de los pioneros o iniciadores del dialecto vizcaíno literario.

La colección "Lekukoak" se ve hoy honrada con la inclusión de una obra de Moguel que hasta ahora yacía inédita. Trátase de un Catecismo extenso, pero que no está concebido como los Catecismos al uso, dirigidos más bien a niños. Moguel, en cambio, tiene ante los ojos a las personas adultas de su pueblo, a quienes quiere instruir sólida y extensamente en el conocimiento de la fe cristiana y de sus exigencias. Precede al Catecismo un Prólogo en castellano, que no tiene desperdicio, por cuanto nos revela las ideas y preocupaciones vascológicas del autor. En dicho Prólogo se afirma expresamente la dependencia de este Catecismo con respecto a otro labortano, que, aunque no se le nombra, no es difícil de identificar. Se trata del Catecismo de Lavieuxville, publicado en "Lekukoak", n.º 11.

El cotejo entre ambos confirma, efectivamente, la dependencia de Moguel respecto de Lavieuxville, pero también pone de manifiesto que la dependencia no es tan grande como la que cabría esperar. Este es un libro para adultos, donde, por lo general, las preguntas son cortas y las respuestas —del maestro— desmesuradamente largas y prolijas, al revés de lo que sucede en los Catecismos infantiles.

¿Cuál es la razón que movió a Moguel a escribir esta obra? Aparte del motivo pastoral-apostólico, sobre el que no insistimos por ser evidente —no se olvide que Moguel fue llamado "Catequista bascongado" por su amigo el P. Añibarro—; aparte de este motivo —decimos—, existe en Moguel una como obsesión o preocupación por demostrar a sus paisanos, los vizcaínos de su tiempo, la idoneidad y aptitud de la lengua vasca para servir de vehículo de expresión de las ideas. En este sentido —y en otros— este libro parece hermano gemelo del "Peru Abarca", la obra más conocida y célebre de Moguel.

Si el Peru Abarca vio la luz con 80 años de retraso, de éste hay que decir que aparece con más de 180 años de demora.

Cuando el P. Angel Madariaga OFM murió en Bidaurreta de Oñate en 1963, recogimos de su celda el manuscrito, que ciertamente no es autógrafo. En el mismo manuscrito hay constancia de que fue el P. Andrés de Ocerin-Jáuregui el que se lo dio al citado P. Madariaga y de que fue recogido en Elgoibar, donde hubo convento franciscano antes de la desamortización de Mendizábal. Muchos años más tarde supimos de otro manuscrito de la misma obra que se conserva en el Seminario de Derio y del que se nos facilitó fotocopia. Así hemos podido dar cuenta de las variantes que se observan en ambos códices.

La edición viene precedida de una amplia Introducción y seguida de un Vocabulario bastante extenso.

\* \* \*

174 6752



CRISTAUBAREN ICASBIDEA  
EDO  
DOCTRINA CRISTIANA



[JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA]

CRISTAUBAREN ICASBIDEA  
EDO  
DOCTRINA CRISTIANA


14

Edizio kritikoa  
Fr. Luis Villasante

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALIZAINDIA  
BILBAO 1987

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN  
BABESPEAN ARGITARATUA**

**PUBLICADO BAJO EL PATROCINIO DE LA  
DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA**



© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

I.S.B.N. 84-85479-44-0  
Depósito Legal BI: 1972-87

Maketazioa: R.B.U.

Fotokonposaketa: A. Vidaurrázaga  
Juan Antonio Zunzunegui, 12 bis - 48013 Bilbo

Amado Moldiztegia  
Alameda Mazarredo, 35 - 48009 Bilbo



# AURKIBIDEA

## Sarrera

I. Juan Antonio Mogel eta literatur-bizkaieraren hasierak .....	11
II. Gaur lehenbiziko aldiz argitaratzen den liburuari hurbilketa .....	25
III. Aditz trinkoen adizki-zerrenda .....	31
IV. Gure Argitarapena .....	57
V. Bibliografia .....	59

## Apéndice Crítico

1. Cotejo de variantes entre el Códice de Aránzazu (sigla A) y el de Derio (sigla D) .....	61
2. Enumeración de los principales errores de copia y textos dudosos del Códice A .....	80

## CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO DOCTRINA CRISTIANA

Prólogo al lector .....	87
Icas bide aurrecua Nun eracusten dirian Cristaubac jaquin biar dituban gauzaren batzuc, itaune ta eranzunacaz .....	93
Bigarren icasbidia .....	99

### Eracuspen onen lenengo Partia

## NUN AZALDAU, TA ADIERAZOTEN DIRIAN CRISTINAUTASUNECO EGUIAC

Lenengo icasbidia .....	101
Bigarren icasbidia .....	102
Irugarren Icasbidia. Mundubaren Asaieria .....	107
Laugarren icas bidia. Celan Anguerubac eguin cituban Jangoicuac, ta celan batzuc galdu cirian .....	108
Bostgarren icasbidia. Celan eguiña izan zan Guizona .....	109
Seigarren icasbidia. Adanen pecatu jatorrizcua derichona .....	111
Zazpigarren icasbidia. Celacua eguan Munduba Jesu Christoren etorreran, eta celan erosi guenduzan .....	112
Zortei garren icasbidia. Eleis-Ama Santia .....	116

Bederatzigarren icasbidia. Guizonaren azquenuiac, edo etorquizunac .....	119
Amargarren icasbidia. Juicioa .....	123
Amaicagarren icasbidia. Infernuba .....	125
Amabigarren icasbidia. Ceruba .....	127
Amairugarren icasbidia. Purgatoriua .....	129
Amalagarren icasbidia. Credua .....	130
Amabostgarren icasbidia. Gauza onèn gañian .....	132

### Bigarren Partia

#### NUN AGUERTUTEN DIRIAN CRISTINAUBAREN EGUINBIDIAC, TA BAITIO SANTUBAC EZARTEN DEUTSAZAN OBLIGACINOIAC

Lenengo icasbidia. Jaincoaren lenengo Mandamentuba .....	140
Bigarren icasbidia. Jaincuaren bigarren aguinduba .....	148
Irugarren icasbidia. Jaincuaren irugarren Mandamentuba .....	154
Laugarren Icasbidia. Jaincuaren laugarren aguindu edo Mandamentuba .....	157
Bostgarren icasbidia. Jaincuaren bostgarren aguinduba .....	164
Seigarren icasbidia. Seigarren mandamentubaren ganian .....	167
Zazpigarren icasbidia. Zazpigarren mandamentubaren gainian .....	172
Zortzigarren icasbidia. Jaincuaren zortzigarren aguinduba .....	179
Amargarren icasbidia. Eleisa Ama Santiaren aguindubaren gañian .....	187
Amaicagarren icasbidia. Eleisiaren bigarren ta irugarren aguindubaren gañian .....	191
Amabigarren icasbidia. Eleisa Santaco laugarren aguindubaren gañian ....	193
Amairugarren icasbidia. Eleisaco bostgarren aguindubaren gainian .....	196
Amalagarren Icasbidia. Pecatubaren gainian .....	197
Amabostgarren Icasbidia. Pecatu burutar, edo Capitalen gainian .....	201
Amaseigarren Icasbidia. Escandalubaren gainian .....	204
Amazazpigarren Icasbidia. Virtuteren gainian .....	207

### Irugarren Partia

#### CRISTINAUTASUNECO ESCARI, TA GAUZAC EGUITECO BITARTECUAC

Lenengo Icasbidia. Jangoicuaeren gracia .....	211
Bigarren Icasbidia. Sacramentubaren gainian .....	214
Irugarren Icasbidia. Sacramentubaren gainian banaca. Batiua .....	216
Laugarren Icasbidia. Confirmacioia .....	219
Bostgarren Icasbidia. Sacramentu Santu Altaracua .....	223
Seigarren Icasbidia. Iru Comuninoe mueta, edo suerte .....	230
Zazpigarren Icasbidia. Mezaco Sacrificio Santuba .....	234
Zortzigarren Icasbidia. Meza enzuteco bitarteco erraza .....	236
Bederatzigarren Icasbidia. Sacramentu Santu Confesinoeuaeren gainian ..	239
Amargarren Icasbidia. Contricioia, edo Damuba .....	240
Amaicagarren Icasbidia. Aozco Confesinoia .....	245
Amabigarren Icasbidia. Satisfacioia, edo Ordia .....	248
Amairugarren Icasbidia. Indulgentia .....	252

Amalagarren Icasbidia. Oliacinoa, Ordia, Ezcontzia .....	254
Amabostgarren Icasbidia. Oracinoa, edo Escaria .....	260
Amaseigarren Icasbidia. Aita Guriaren, ta Ave Mariaren Azaldamentuba ..	262
Azquenengo Icasbidia. Confesinoe generalen gaiñian .....	266
Vocabulario .....	271
Arantzazu eta Derioko esbu-izkribuen agerbide batzuk .....	19, 105, 141, 213



## SARRERA

### I. JUAN ANTONIO MOGEL ETA LITERATUR-BIZKAIERAREN HASIERAK

*Hegoaldeko euskal literatura, Iparraldekoaz alderaturik, beranduagokoa da. Hemen —Hegoaldean— XVIII. mendean hasten dira gauzak mugitzen eta lozorrotik irteten. Mende honek —XVIII.ak— ez du fama onik izan, maiz belztua ikusi dugu. Halaz guztiz, ekintza berri askoren hastapenak bilatu nahi badira, mende madarikatu horretara jo beste erremediorik ez dugu. Eta ekintza horietako batzuk gero jarraipenik izan ez badute, horren errua hurrengo mendeari egotzi beharko zaio, XIX. mendeko nahasmenduei, alegia.*

*Gaur lehenbiziko aldiz argia ikusten duen euskal liburu hau ere XVIII. mende hondarrekoa da, dudarik gabe. Liburu honek badu, gainera, erdal hitzaurre bat guztiz ernagarria.*

*Hitzaurre horretan "Sociedad Bascongada de Amigos del País" delakoaren aipamena egiten da. Egileak asko espero du, are euskal arloan ere, erakunde honetatik. Horra ekintza bat XVIII. mendekoa, baina hurrengo mendearen egoera nahasiagatik espero zitezkeen fruituak ekarri ez zituen.*

*Juan Antonio Mogelek bazuen anaia bat Elkarte horretako bazkide zena. Hori dela eta, segur aski, hurbildik ezagutzen zituen berak Elkarte honen asmo eta helburuak. Juan Antonioren anaia horrrek Juan Ignacio zuen izena; medikua zen; Juan Jose eta Vicenta euskal idazleen aita (1).*

(1) Ikus JOSE IGNACIO LASA "Datos biográficos acerca de D. Juan José Moguel Elguezabal (1781-1849) y de sus antepasados", Euskera (1981), 663-667. Ikus baita ere J. DE URQUIJO "Juan Ignacio de Moguel, Profesor de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" Riev XXV (1934), 683-684.

*Baina Elkarte horri zor zaiona bat ere ukatu gabe, hemen Hegoaldean euskal literaturaren abiarazle suharra nor izan zen ez da ez dakienik: Aita Manuel Larramendi (1691-1766). Euskara lantzeko tresnak berak hornitu zituen, hots, Gramatika, Hiztegia eta abar. Eta XVIII. mende honetan bertan ikusten ditugu lehen zituak, hiru euskal idazle gipuzkoar, alegia, bultzada honen seme direnak: Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos.*

*Hauek, ordea, gipuzkoarrak dira denak. Bizkaian ez zuen inork zirkinik egiten (2). Haatik, XVIII. mende hondarrean eta XIX. aren hasieran hara non azaltzen diren bi izen apartak —beste batzuk aipatu gabe—: Juan Antonio Mogel eta Pedro Antonio Añibarro. Bata apaiza eta fraidea bestea. Biak adiskide minak. Literaturbizkaieraren aitzindariak izango dira, nahiz eta euskalki hori lantzerakoan erizietan eta pratikan biok beti bat ez etorri (3).*

#### J.A. Mogelen bizi-xehetasunak

*Juan Antonio Mogelen bizitzak (1745-1804), nahiz eta lerro nagusietan ezaguna izan, baditu oraindik ilungunerik aski guretzat. Karmelo Etxegarai aritu zen lehenbizi Mogeldarren azterrenak bilatzen (4). Mediku-familia bateko umeak ziren. Familia hori jatorriz arrotza zen, gainera, Errioxa eta Aragoi aldekoa, medikuntz-lana egitera Euskal Herrira etorria (5).*

*Medikuek garai hartan, dirudienez, errazki aldatzen ziren herri batetik bestera, herriekin egindako hitzarmenaren arabera. Juan San Martinek argitaratu zuen Juan Antonioren bataio-agiria, eta hortik dakigu Eibarren jaio zela (6).*

(2) Honekin ez dugu esan nahi mende horretan Bizkaian ez dela ezertxo ere aurkitzen. Hor dira, esate baterako, Olaetxea eta Basterretxea. Edozein modutan ere ezer gutxi.

(3) Ikus berriki BLANKA URGELL "Literatur bizkaieraz: Añibarroren esku-liburua" ASJU XIX-1 (1985), 65-117.

(4) ETXEGARAI (KARMELO), Euskaltzaindian sartu zen egunean irakurritako lana (Gata: Mogeldarrak eta euskera; Euskera VII (1926), I z., 8-25.

(5) Moguel deitura bera ere, dirudienez, Nogucl-en aldaera bat besterik ez da, euskaldunen fonetikaren eraginez aldatua. Ikus VILLASANTE (L.), Historia de la Literatura Vasca, n. 227 nota.

(6) Ikus JUAN SAN MARTIN, Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Bere bizitza eta lanak, Zarautz 1959 eta Euskera (1960), 26.

*Juan Antonio Eibarren jaio zen, bada, bere aita garai hartan hor mediku zegoelako, noski; baina Mogeldarrek, azkenik, Bizkaiko Markina-Xemeinen aurkituko dute beren kokagunea. Jakina denez, baita Munibe edo Peñafloidako Kondeak ere Markina aldean zuen bere jatorriaren etxea, eta hala ez da kasualitatea Mogeldarrek Herri Adiskideen Elkartearekin lokarriak bazituzten —Juan Antonioren anaia Azkoitian ere mediku egon zela ahortzi gabe—.*

*Segur aski, Peñafloida horren laguntzaz, 18 urte zituenean Juan Antoniok Calatayudko Jesuiten kolejoan estudioak egin ahal izan zituen (7). Baina ikasketa horiek egin baino lehen, bere haurtzaroan herri bat baino gehiago kurritu beharko zuen (Deba gutxinaz), aitaren leku-aldatzeen arabera. Sendotzako sakramentua Markinan hartu zuen.*

*Juan Antonioren anaiak (Juan Ignaciok) mediku-karrera aukeratu zuen; Juan Antoniok, aldiz, apaizarena. Noiz eta nun apaiztu zen ez dakigu. Calahorrako eliz barrutikoa zen orduan Markina.*

*1770. urtean Markinan agertzen da apaiz. Gero Markina-Etxebarrian, eta 1788tik heriotzerá arte, Xemeingo erretore. Bere apaiz denbora guttia Markina inguruan eman zuen, beraz.*

*Nondik erne zitzaion euskaraganako ageri duen zaletasun eta atxikimendu sendo hori? Ez dakigu. Baina oker egoteko peril handi gabe pentsa dezakegu bi oldar edo eragin biteraketatik sortu zela zaletasun hau. Alde batetik, Aita Larramendiren obrak irakurtzetik. Gero ikusiko dugu Mogelek bere kritikak egiten dizkiola Larramendiri eta protesta egiten du, gainera, euskara herri xeheagandik ikasten saiatu dela bera eta ez Larramendigandik; baina hein batean hori egia izanik ere, horrek ez du esan nahi Larramendiren eraginetik kanpora egon zela. Batez ere hizkuntza honen aldeko kontzientzia zoli hori hortik erne edo hazi zitzaiola pentsatzekoa da.*

*Beste aldetik, Jainkotiar suharra dugu Mogel, eta bere apaiz-lana herrian ongi betetzekotan, euskara sustraitik ikasi behar zuela ohartu zen. Horrela, bada, bi burutarik zetozkion arranguren fruitu da Mogen euskal zaletasuna.*

*Haren garaian oraindik ez dirudi oso zabaldua zenik euskal zaletasun hau Bizkaiko apaizen artean. Peru Abarka-n ere esaten zaigu zerbait horretaz (8). Alfonso Irigoienek oraintsu jakin arazi digunez,*

(7) VILLASANTE (L.) "Juan Antonio de Moguel, estudiante en el Colegio de Jesuitas de Calatayud". BAP (1962), 325.

(8) Ikus Peru Abarca-ren eraskina "Diálogo entre dos amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urliza y D. Juan de Zandija".

*Mogelen aurretik Xemeinen egoniko apaizak oso zabarrak omen ziren kontu horretan eta Apezpikutegitik etorritako Bisitari batek oharren bat egin behar izan zien (9).*

*Nik behin baino gehiagotan pentsatu eta esan ere dut Peru Abarkaren eraskinean elkar hizketan azaltzen diren fraide eta apaiz horiek Añibarro eta Mogel direla. Izenetan ere bat datoz: fraideari Pedro (Antonio) deritza eta apaizari Juan (Antonio). Biak dira euskaltzaleak, biak adiskide minak, eta eskolatuen artean euskaraganako nabari den axolarik ezaz, zabarkeriaz eta ezjakintasunaz arrenkurutzen dira.*

Añibarro eta Zarauzko Mixiolariekin adiskidetasuna

*Hitzak bide emanik, esan dezagun zerbait Zarauzko herri-mixiolariez. Hau ere XVIII. mendeko ekinga bat dugu. 1745. urtean Zarauzko Frantziskotarren Komentuak moldaera berri hori hartzen du, hots, herri-mixiolarien kolejiio bihurtzen da. Etxe hauek Frantziskotar Ordenaren barnean aparteko nortasuna zuten, beren arau eta erregela bereziak, etab. Eginbide berariazko bati buruz eraikitzen ziren: herrietan mixioak predikatzeko, jendea kristautasunean barnetiko hezi eta eskolatzeko.*

*Eta, jakina, zeregin hori Euskal Herrian taxuz betetzeko, euskara menderatu beharra zegoen, eta fraide haiek hartara jarri ziren. Horrela euskaltzale, euskal idazle eta gramatikalariekin kabi bihurtu zen Zarauzko komentua. Aita Palacios, Aita Añibarro, Aita Juan Mateo Zabala, Sarobe, Arteta, Jose Kruz Etxeberria etab. kolejiio honetan bizi eta euskal arloan egindako lanengatik aipagarri dira. Gogoratzekoa da, baita ere, etxe hura euskal idazki eta lanen gordairu edo artixibu izan zelako. Hain zuzen, Juan Antonio Mogelen Peru Abarka hori egon zen gorderik eta hortik atera zen, Durangon 1881. urtean argitara zenean. Sarako Etxeberriren esku izkribuak ere hor gorde eta salbatu ziren (10).*

*Dirudienez, herrietako apaiz guztiak ez ziren mixioen aldeko. Zarauzko mixiolariak, bistan da, ezin zezaketen herrian mixiorik antola-*

(9) ALFONSO IRIGOYEN "Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascófonas de administración romanizante hasta el presente" (Gasteizen 1986.ean egindako Toponimi Jardunaldietako txostena).

(10) Ikus VILLASANTE (L.) "El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz (1746-1840), Scriptorium Victoriense (1974), 281-330.



*tu erretorearen baimena eta onespena lortu gabe. Esan baharrik ez dago Juan Antonio Mogel, Xemeingo erretorea, Mixiolarion alde eta horiek herria kristautasunean hezitzeke egiten zuten lanaren alde zegoela. Mixioen bidez izan zuen, segur aski, Mogelek Añibarroren eza-gutza. Adiskidetasun horren lekukotasun hunkigarriak utzi dizkigute bai batak eta bai besteak.*

*Añibarrok badu lan bat: "Gramática Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros". Argitara gabe gelditu zen eta neronek argitarazi nuen (11). Liburu honen hasieran honako aipamen hau dator Mogeli buruz:*

*"De paso advierto que así Axular como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga así, pues sale más natural. No tuve este método presente en dos libritos que di a luz Esculibrúa y Lorategui espirituala. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, Catequista bascongado, quien tuvo en vida el consuelo de ver impresa parte de su Catecismo bascongado, y lo restante con las aprobaciones necesarias; y en muerte el de morir como buen soldado de Jesús, ejerciendo el ministerio de Cura Párroco contagiado de resultas de asistir a unos apes-tados. Con tan feliz muerte premió Dios su virtud, pues fue uno de los sacerdotes más celosos, laboriosos, doctos, caritativos y ajustados de Bizcaya: cuya memoria hago aquí, por la que por dos veces él hizo de mí en su último impreso de Confesino ona".*

*Hemen dugu ederki kontatua nola izan zen Mogelen azkena, eta bai zein zen beronen sail hautatua ere: kristau erlijioaren eskola herriari euskaraz ematea. Segur aski, "Catequista bascongado" da Mogeli dagokion deiturarik egokiena. Hori egiztatzeko ikusi besterik ez dago zein diren haren obrarik handienak, bai argitaratuak eta bai argitara gabe gelditu direnak.*

*Añibarrok aitortzen du berak hemen egiten duen Mogelen aipamena, hark berari buruz birritan egin zuenaren ordain saria dela. Eta hala da. Bi aipamenok aldatuko ditugu honera, Confesino ona liburitik hartuz. Hona hemen lehenbizikoa:*

*"Gura dabenac sinistu Bizcaico eusqueric ez deusala ecer zor quiputzenai, iracurri begui liburu onec baño leenago urtengo daben neure adisquide andi, ta gauza onétan, neure biarlagun leguez eguiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzco Colegio A. San Franciscoco Ordean Misionarijac bizcaitarrentzat atera daben liburu chicar, baña urre guztiac baño gueijago balio dabena. Ediroco dau Escu Liburu onetan Bizcaico eusqueran ederto adierazo leitezala esan biar dirian gauzac, verba, nequezaleen aoetan dabilzanacaz. Bizcay barru barruco semia da bera, ta bere eusquera garbi ta ederrac ezagutu eraguingo dau nun nai icasi leitiala ondo verba eguiten buruba cerbait necatu gura bada. Alpe-*

(11) Ikus ASJU (1969).

*rren soluac beti egongo dira bedar chaarrez betiac. Bizcaitar guztiac erosi biar leuquee liburuchu esan dogun au. —Icusi da ex diugula bardin erabaguiten verbaac aiatu dodan neure adisquide onec, ta nic; ta emendic ateraco da, cetan dagoan Bizcayco eusqueriaren desbardintasuna. Ac dino maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, Cristinaua... nic harriz Marquina inguruan leguez, maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, Cristinauba. Cein batera, cein bestera esan, ez dau ecer galduten eusqueric” (12).*

*Hona hemen bestea. Hau Azkuek 1897an egindako ediziotik hartzen dugu:*

*”Euskaldun guzti guztiak, zar, gazte, agure ta umeak, daukee Aita Palazioen entzutea. Gure zoritxarrez, zaartu da gaisoa; iausi iakoz gorputzeko indarrak, ta bakarrik dauka zoli zolia. Iaungoikoak emon eutsan min garbi ta berba eder asko atera dituzana. Uste dot, oraindino ikusiko dabeela, ez oinez, ez zaldiz ibili danean. gizonen batzuen besoetan daroala Eleizara San Ioan Ebanjelisteo eroaten ebeen legez, arnaseak dirautsan - artean irakasteko zeruko bidea. Eztoi bildurrik, arrotuko dala nik emon al daiodazan alabanzakaz, elduten bada here eskuetara nire liburu au. Iaungoikoaren glorian iminita daukeenak biotza, bazaue eztaukala gizonak berez gauza onik; eginalak eginda here, esan bear beela Apostoluak eurak ta ori Kristoren aginduz, serbitzari gauza-etzak gara.*

*Dakart bada agirira, adierazoteko askok dakienea, zelan atera eban argitara, eta erderaz, liburu txikar, baina balio andikoa, nik ointsuengo artu dodan doirina geiaren ganean, irakasten dabela astiro, zelan irqun bear dan, ta zelan iraungo dan bitzita on ta barri haten. Bein baino geiagotan adiskidetasunean esateko legez egon natxako: ”Aita Palazios! ¿Au zer da? Izan berori euskaldun garbia: Napparroa, Araba, Gipuzkoa ta Bizkai guztiko bazter guztietan ibili nekaturen burua, erdal-errietan baino geiago, irakasten zeruko bidea; besteti ain ederto iakin euskereka. ta agertu erdaldun arrotzentzat alango liburutxua ta itxi euskaldun etxeokak utsik? ¿Nortzuk daukee liburuen premia geiago?” ¿Zer erantzungo eustan? Eztaukala astirik arnasea artuteko; izango zala nor edo nor biurtu gurako ebana euskerara, berak erdera ekientzentat atera eban liburutxua. Alan iazo-da. Aita Frai Pedro Antonio Añibarrok birau dau Bizkaiko euskerara, izen au emonda, Lora-sorta Espirituala, ta Propositu santuak bitzita barri bat egiteko: Aita Palazios misionariak misino ondoan emon zituanak. Deritxat, nor edo nor dendatuko dala Gipuz-euskeran imintera. Zeinbat on ekarri daikean liburutxu onek, ezta erraz esatea. Badazau Aita Palaziosek; bazaue here lagun Zarauzko kolejioko misionariak, zelan euren bear asko galdu daroazan deabruak. Damu emoten deutsee kalte onek, damu emon eroakon legez San Pablori. Alan here ¿nok eztaiki zeinbat arima zuzendu daroezan Zarauzko misionari neure biotzean daukadazanak? ¿Zeinbat kristinau, lotsa dongaro aitu batek konfesino donga asko egiten darabilzanak, agertu daroez euren sermoiakaz bigundurik, konfesino jeneralak eginda, bestelan io bear ebeenak infernuu? Dakuskuz birauta erriak misioe-ostean. Zar askok irauñ daroe bitzita barrian; gazteren batzuk ere bat; ta okertuten direanai here, sarri geratu oi iakee aran-*

(12) Confesino Ona, 1884. urtean Tolosan egindako argitarapenetik (Berba-Aurrecua. Iracurle Bizcaitarrari).

*tzaren bat; ta guenean, beti ateraten dabee, Apostoluen pausuetan dabilzan relijioso oneek, arpegia Iesukristoren bando, ta izango dabee saria, guztiak iraungo balebe legez.*

*Bein baino geiagotan zurtu nabena da, ikustea, zeinbat atzerapan ta atxakia emon daroen askok eroateko errietara misinoak. ¿Ezetedakie zeinbat mesede dakarrezan? ¿Eztakusku zelan misino baten ostean esan oi dan, zorionean ekarri zireala: noizean bein on andiak ekarten dituezala? ¿Zelan bada gero artu gura-ezak? Deabrua dabilelako bitartean eragozteko. Zorigaiztoak arerio onen lagun egiten direanak. Emon bearko deutsee Iaungoikoari kontu estua, eragotzi gura dituezalako misioneko frutuak. Iaungoikoak gorde dagiala, Euskalerrriak dirauen artean, Zarauzko Kolejioa. Bai, arren bai" (13).*

*Añibarroren Escu Librua 1802. urtean agertu zen. Mogelen Confesino Ona, berriz, 1803.ean. Hauek ditugu literatur-bizkaieraren aitzindariak. Egileek berek ere badakite hori. Euskal liburugintzan lurra gorritzen dabilzalako kontzientzia hori garbi ageri da Añibarroren pasarte honetan: "...la falta de libros bascongados, que no los ha habido hasta mis días". (14).*

*Hori esatean Añibarrok Hegoaldeko Euskal Herria zuen gogoan, noski; izan ere Axularren Gero bizkaierara itzuli zuenak bazekian jakin lehendanik ere bazirela euskal liburuak..., baina Iparraldean, ez hemen.*

*Ez da ahantzi behar, bestalde, Mogekek bere lehen liburua ez zuela bizkaieraz egin. Mogelen lehen liburua, Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac (Iruñean 1800. urtean aterea), ez dago bizkaieraz, gipuzkera zabal batean baizik. Dirudienez, bizkaitar apaizen erosta eta zinkurinengatik jarri zen gero bizkaieraz idazten. Ez, ordea, kritikari horiei erantzun gabe eta egin zuena egiteko arrazoi guztiz sendoak zituela aditzera eman gabe (15).*

*Euskal literatura, bere historian, euskalkien markaz markatua ageri zaigula uka ezina da. Iparraldean XVI. mendean lapurtarraren tradizioa jartzen da abian, XVII.ean zuberera, XVIII.ean gipuzkera eta XIX.ean bizkaiera. Zergatik ez zen lehen tradizioa atxiki eta denera zabaldu? Horrela euskaldun guztiek idatzizko zereginetarako euskara modu berdin bat izango genuen aspaldidanik. Baina galde hau galde alferra da. Gauzak izan diren bezala izan dira, eta hemen ez da-*

(13) Konfesino Ona, Azkuek Bilbon 1897an egindako ediziotik (ortografia aldatuz); 257-260.

(14) Voces Bascongadas Diferenciales; Bilbao 1963; p. 21.

(15) Xehetasun guzti hauetaz ikus VILLASANTE Historia de la Literatura Vasca, n. 233.

*go besterik. Euskararen eta Euskalerrriaren historia izan diren bezalakoak izan direlarik, gauzak nekez gerta zitezkeen bestela.*

*Gainera, ez da ahantzi behar deboziozko literaturak, Katekesi mailatakoak eta abar -eta horrelakoa izan da bereziki gure literatura zaharra- herritik hurbil egoteko beharra sentitzen duela, ulerterraz izango den hizkera eta lexikoa erabili beharra, alegia. Gaztelaniaz ere Fr. Luis de Granada batek eta Góngora batek, biak gaztelaniaz idatziz, lexiko kontuan etab. guztiz urrun daude bata bestetik. Hark deboziozko literatura landu du; besteak, berriz, bestelako eskakizunei erantzun nahi die.*

Mogelen euskal lanak

*Zuzenean euskararen langintzaz zer-ikusi dutenak bakarrik aipatuko ditugu.*

1) Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac, Iruñean, 1800. Gipuzkeraz idatzia.

2) Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o Demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños y contra algunos bascongados, que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio; *Tolosa 1802. Hau ere gipuzkeraz dago; geroago, Peru Abarka-n bizkaierara itzuliak agertuko dira. Liburuan bertan esaten da Humboldt-en eskariz egin zituela itzulpenok.*

3) Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos; *bestearen jarraian dator. Hemen esaten du nola Bizkaiko apai-zak erostaka hasi ziren bere lehen liburua gipuzkeraz atera zuelako, eta abar (16).*

4) Confesino Ona, Vitorijan 1803. *Lehenbiziko obraren zati bat dakar, bizkaieraz jarria.*

5) *Esopo eta Fedroren alegiak euskarara itzuliak. Juan Antonioren iloba Vicentak dioenez, pilo galanta omen zuen euskaraturik; horietako batzuk iloba honek atera zituen: Ipui Onac, Donostia 1804. Menterolaren Kantutegian ere badator beste bat: Azerija eta charrija (Donostia 1878).*

(16) Cf. VILLASANTE Historia de la Literatura Vasca, n. 234.



Christinaubaren  
Eracuspina  
edo  
Doctrina Christiania

Cenian aguertu, ta adierazoten dirian  
acciro itaune, ta erantzunacas Cristi  
naubatenzaqierara eldu ezguero  
sinistu, escatu, eguin, ta artu  
diar dirubanac.

Ateraren dau arguitara Vizcaico Euz  
caldunortzar gura onen gaman ondu-  
en artubac, ta aguertuba izan dirian  
liburubetarie

D<sup>n</sup> Juan Antonio Moguel ta  
Urigizac Marquinaco Erico. Curipe



6) El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan; *Durango 1881. Hau da, noski, Mogelen obrarik famatuena.*

7) "Análisis filológico de un sermón euskérico escrito en 1792 por don Juan Antonio Moguel, cura párroco de Markina, e inédito hasta la fecha". Sabino Aranak 1895-6 urteetan Bizkaitarra delakoan agertua.

8) Paskalen Gogamenak; Azkuek Euskalzale aldizkarian 1899an agertuak.

*Lehen tokian aipatu dugun obraren segida (tomo bat behintzat) esku idatzirik dago (edo zen) Bizkaiko Diputazioaren liburutegian.*

*Zerrenda honetatik ikusten denez, Juan Antonioren obrarik famatuena, Peru Abarka, egilea hil eta ia larogei urte geroago argitaratu zen. Eta egun lehen aldiz argitaratzen digun beste hau ehun eta larogei urte geroago...*

Iraultza Handitik ihesi zetozenen ostatatzaile

*Daranatz-en bidez dakigu xehetasun hau, Mogelen bihotzaren ederra agertzera ematen diguna, hots: Iraultza handiko garaian ihesi zetozen euskaldun frantses apaiz eta beste etxean hartzen zituela (17).*

*Ez dirudi hain gutti izan zirenik orduan Iparraldetik ihesi etorri zirenak. Gernikan bada (edo bazen) kale bat, guk Franziskale deitzen genuena; geroago jakin dudanez, frantsesen kalea, hots, euskaldun frantsesena esan nahi du izen horrek. Eta guztiok dakiten bezala, Peru Abarka-n bada azeri harrapatzaile bat, Joanis, baigorriarra, gerra eta nahasmenduengatik Bizkaira etorria. Agian iheslari horietako baten bidez ezagutu zuen Mogelek Lavieuxvilleren Catichima, orain ager-tzen dugun hau egiteko bidea eman ziona (18).*

(17) DARANATZ *Curiosités du Pays Basque, Bayonne 1927, t. I, 273 nota. Ikus baita ere GARATE (J.), La época de Astarloa y de Moguel; Bilbao 1936, p. 43.*

(18) Ulibarri *Galindez-en Gutunliburua-n ikus daitekeenez, jaun hau Gernikako batzarreetara etortzen zenean Barbier delako jaun baten etxean egoten zen ostatuz. Barbier deiturari frantses etorkia dariola esan beharrik ez dago.*

## Humboldt eta Vargas Ponce-rekin har-emanak

*Humboldt-ek, jakina denez, har-emanak izan zituen Mogelek. Haren eskariz egin zituen honek Versiones Bascongadas direlakoak. Baita Lelo-ren kantu famatua ere Mogelek eman zion Humboldt-i eta gero honek argitaratu egin zuen. Kantu hau aintzinako Kantabroena zela eta ez zela, mila fantasia egin izan dira, baina geroagoko asmatokia bat dela, eta ez erromatarren garaikoa, gaur frogatutzat eman daiteke (19).*

*Vargas Ponce izan zen beste jaun bat Mogelek har-emanetan izan zena. Bion arteko eskutitz batzuk Memorial Histórico Español delakoan agertu ziren (20). Beherago emango ditugu eskutitz horietatik hartutako aipamen batzuk.*

## Inkiszioarekin izan zuen auzia

*Inkiszioarekin ere izan zuen Mogelek auziren bat, eta ez, noski, fede kontuan lasai, hotz edo sineste gutitakoa zelako, alderantziz baidarik, sineskor edo fidakorregia zelako, alegia (21).*

## Iloben hezlari eta eskolatzailerak

*Esan dezagun, azkenik, Juan Antoniok bere anaiaren umeak —Juan Jose eta Vicenta—, haurtzaroan umezurtz gelditu zirenak, hazi eta hezi egin zituela. Eta jakina den bezala, euskal-tzale eta euskal idazle irten ziren biak. Gehiegikeriarik gabe esan daiteke bi euskal idazle hauek ere berari zor dizkiola Euskal Herriak.*

## Euskararen gaitasunari buruz Mogelek ageri duen pentsakera

*Juan Antonio Mogelek Vargas Ponce-ri egindako eskutitzetan badira argibide batzuk hark euskarari buruz zituen pentsamoldeak aztertzeke aparteko balioa dutenak. Hona hemen pasarte bat:*

*"Pero hablemos claro: en medio de la pasión con que se censura al vascongado, no hay en general gente más desidiosa en cultivar y perfeccionar su idioma,*

(19) *Ikus Mitxelenak orainsu argitara duen lana: "Contra Lekobide" ASJU XX-1 (1986), 291-313.*

(20) *Memorial Histórico Español, VII, Madrid 1854; p. 661 ss.*

(21) *Ikus LARRAÑAGA (LUIS) "El proceso inquisitorial de Juan Antonio Moguel y Urquiza", BAP (1970), 263.*



*y así es que somos nosotros sus mayores antagonistas, exceptuados algunos pocos sugetos. Nuestra sociedad vascongada ha dormido en este ramo, y así no ha tenido el vascuence una academia ni buenos escritores que le hayan dado cultura particular. Habita como desconocido en los bosques y casas solitarias, y es más que cierto que nuestros rústicos montesinos lo saben y hablan maravillosamente y sin alteraciones que se notan en la gente que debía ser su depósito. Y se puede decir aquí: Rusticus ab normis, sapiens crassaque Minerva" (22).*

### *Horra beste bat:*

*"No he procurado estudiar el vascuence de Larramendi, sino de los mismos rústicos, u originalmente. Era grande su ingenio, hizo mucho en un idioma nada cultivado; pero jamás me han gustado sus invectivas y chacotas impugnando a hombres sabios. La moderación es media razón, y para convencer es preciso captar la voluntad del adversario. El desprecio y censuras mordaces quitan el gusto de la lectura al impugnado. Se nota también demasiado escolástico en su estilo, lo que es ageno del prólogo. Sus etimologías no siempre son ajustadas, y hay algo que cercenar en las voces que nos quiere vender por vascongadas; pero también es cierto que en la lengua castellana descubre muchísimas voces originadas del vascuence". (23)*

### *Astarloari buruz hara zer dioen:*

*"Yo conozco mucho a este sugeto; es hábil y ha hecho mucho estudio del idioma. Nada quiero quitarle de su talento y dones; pero no quiero ocultar a Vmd. que no gustarán a los críticos de buenas narices su genio sistemático y su pasión acalorada, y que hará olvidar a Larramendi. Es demasiado metafísico, y será un galimatías mucha parte de su escrito" (24).*

### *Hurrengo pasartea Eracasteac liburuaren hitzaurretik hartu da:*

*"Eguia esan bear bada, Euscal errietaco Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guciac esan dezaquegu bidalduac edo autuac guerala berri on animaren gañecoac emateco, ez Erreguei beren Jauregietan, ez Andiqui goratu, edo Jaun urre-cillarra ugari darabiltenai, ez jaquituria lurecoz beren ustiez beteric dauden guizon arrotzarrari, ta bai nequezale, bearguin, achurlari, olaguizon, icazquin, emacume gorula, eula, jostun, ta onelaco gende mé ta becoquizco icerdi larriarequin oguia billatu bear dutenai" (25).*

*Hemen dugu Mogelen euskarari buruzko ikuskera eta pentsakera argi eta garbi adierazia. Alde batetik, hizkuntza honenganako mirespen paregabea du. Bestetik, berriz, hizkuntza hau behar bezala menderatzeko herriko jende xehearengana jo beharra dagoela uste du, ze-*

(22) Carta de 26 de Febrero de 1802; Memorial Histórico Español, VII, p. 703-704.

(23) Id. ibid., p. 707.

(24) Carta de 30 de Marzo de 1802; M.H.E., VII, 713-714.

(25) Eracasteac, p. III-IV.

*ren besteak, landuak eta eskolatuak, kutsatuak baitaude eta ez dakite hizkuntzaren laurdenik ere.*

*Hori horrela izanik, bera, bai apaiz den aldetik eta bai euskaltzale den aldetik ere, herri xehe honengandik hurbil bizi da eta adi -adi dago beragandik ikasteko. Gaur argitaratzen dugun liburu honetan ere grina hau nabari da, hots, hizkuntzaren gaitasunak erakusteko grina. Bestela esan, liburu hau berau horretarako egina da, kristautasunean eskolatzeko duen gogoia ahantzi gabe.*

Fedea, bai, baina obrekin batean

*Ederki zioen J. Garatek, Mogelen irudia Astarloarenaz kontrajartzean, zera zioenean: hark —Mogelek— fedea zuela, baina obrekin batean; besteak, aldiz, obrarik gabeko fede huts soila eta erdi alferra (26).*

## II. GAUR LEHENBIZIKO ALDIZ ARGITARATZEN DEN LIBURUARI HURBILKETA

Bi kodizeen berri

*J.B. Eguzkitzak ohar labur bat agertu zuen Riev-en (27). Bertan esaten du Munitibar-ko apaiz D. Juan Guerricaveitiaren liburutegian (eta gero Lekeitioko arzipreste izandako bere iloba D. Toribiorenean) aurkitzen zela Juan Antonio Mogelen liburu bat eskuz idatzia. Beronen titulua: Christinaubaren eracuspena edo Doctrina christiana, eta liburu horrek 441 orrialde dituela.*

*Hain zuzen, gaur Derion gordetzen den kodizeak titulu hori dauka eta orrialdeak ere juxtu-juxtu 441 dira. Beraz, uste dugu Derioko kodize hau Eguzkitzak deskribatzen duen berbera dela. Aurreko orrian, gainera, espresuki ematen da egilearen izena: J.A. Moguel. Eguzkitzak esaten du Mogel beraren eskuz idatzia dela kodize hau; hala baltz, orijinal autografoaren aurrean ginateteke; baina ene ustez ez da orijinala, kopia bat baizik (28).*

*Guk badugu Derioko kodize horren fotokopia bat, Labayru ikastegiari esker lortua, Arantzazuko kodizearekin erkatzeko erabili duguna. Beherago eskainiko dugu gonparaketa honen emaitza.*

*Esan dezagun, dagoeneko, Arantzazukoak ez dakerrela egilearen izenik eta Deriokoak bai; baina, beste aldetik, Arantzazukoak erdal*

(27) EGUZQUIZA (J.B.) "Dos obras inéditas en euskera: "Cristinaubaren eracuspena edo Doctrina christiana" y "Jesucristo gueure Jaunaren vioz sagraduco devocionia" Riev XIX (1928), 149.

(28) Bai Arantzazuko liburuzain den Aita Kandido Zubizarretak eta bai Juan San Martin eta M. Pilar Lasartek Mogelen autografoak eta Derioko kodizea elkarrekin parekatuz aho batez esan didate eetz, kodize horretan ageri den eskua ez dela Mogeena.

hitzaurre bat dakar, eta Deriokoak ez. Obraren titulua ere ez da guztiz berdintsua bi kodizeetan.

Arantzazuko kodizea deitzen duguna gaur Arantzazun dago. Beronen historiaz zerbait esan genuen Lavieuxville-Harosteguyren edizioari jarri genion Sarreran (29). Aita Aingeru Madariagak —Andres Ozerin Jauregik emanik— zeukan. Lehen orrietan idatzirik dauden lerro batzuei esker dakigu Elgoibar-en jaso izan zela. Titulua honela du Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiania (30).

Kodize honek 246 orri ditu, baina orrialdearen aurreko aldean bakarrik ditu zenbakiak; horrek esan nahi du doblatu egin behar dela orrialdeen kopurua. Gainera, kodize hau atzekaldean solte edo erdi askatua dagoelako, uste dugu azken ikasbidea agian galdu egin dela (konfesio jeneralaz) eta hau gure argitalpenean Derioko kodizetik hartu dugu.

Arantzazuko kodizea ere ez da gure ustez autografoa, kopia bat baizik.

Arantzazuko kodize hau Elgoibarko frantziskotarren komentukoa zela uste du Aita Ozerin Jauregik. Baliteke. Pergaminozko azalaren bizkarrean hauxe irakurtzen da: Catec Bascong Ajuria Zer esan nahi du Ajuria honek? Gure ustez, liburua zeukan fraidearen abizena da hori. Galdetu diogu gure kronista eta bibliotekari Kandido Zubizarretari, eta berak esan digunez, izan zen fraide bat Juan Ajuria, "Lector de Casos". 1828 eta hurrengo urteetan Mondragoeko komentuan zegoen eta 1833an Sasiolakoan.

Juan Ajuria horri buruz Cantabriako Necrologioak hauxe dio: "14 de Noviembre. En Elgoibar, después de la excomunión de 1840, los Predicadores RR.PP. Juan Ajuria y Manuel Nazabal" (31).

(29) Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima; *Lekukoak* 11, 7. orr.

(30) Ikusten denez, Eracuspen hitza —Derioko kodizean agertzen dena— kendu da hemendik; hala ere, pixka bat geroago —ikus 9. atala— bir-agertzen da: "Eracuspen honen lenengo Partia". Baliteke hitz hau titulu jatorrekoa izatea.

(31) Horrek ez de esan nahi egun horretan hil zenik. Ez urtea eta ez eguna ez dira ezagutzen. Jakina da urte horretan gertatu zela Gipuzkoan fraideen esklaustrazioa (Bizkaian lehenago). Horren ondorioz fraideak sakabanatu eta gauza asko galdu egin ziren. - Euskaltzaindiko Euskera aldizkarian, 1960. urtean, Justo Mokoroa eta A. Irigoienek Juan Ajuriaren bi sermoi argitara zituzten. Sermoi horien egilea eta kodize honen jabea pertsona bat bera ote dira? Hala dirudi, baina ez dakigu ziur. - Goiko aipamena liburu honetatik hartua da: "Necrologio de la Seráfica Provincia de Cantabria (ordenado por el Cronista de la misma R. P. Fr. Juan de Larrinaga)" (Eskuz idatzia).

*Arantzazuko kodize honek kaligrafia oso argia eta dotorea du, baina huts asko ere bai; esango genuke amanuense edo idazmutil baten lana dela.*

Liburuaren edukina

*Zein da liburuaren edukina? Kristau erlijioaren azalpen bat, Katekesi mailatakoa, noski, baina aski luze, zabal eta hedatua. Katekesi hau ez da haurrentzat egina, heldu edo nagusientzat baizik. Galde-erantzunetan egonarren, erantzunak oso luzeak dira maiz sarri. Erantzun horietan ez ikaslea, baizik irakaslea mintzo da, kristauari sineste eta moral gauzetan eskola zehatzago bat eman nahirik.*

*Esan behar da, gainera, Lavieuxvillek "leccioneac" deitzen dituenak, liburu honetan "icashidiac" deitzen direla, eta inoiz "iracurte" izenez ere aipatzen dira (ikus 9. atala). Horrek esan nahi du liburu ez dagoela buruz ikasteko egina, irakurri eta bere mamiaz jabetzeko egina baizik.*

Lavieuxvilleren Katiximarekin duen zer-ikusia

*Liburu honek menpetasun bat baduela Lavieuxvilleren katiximari buruz ezin ukatua da. Lehenik, egileak berak aitortzen du hori (erdal hitzurrean); eta bigarrenik, berez frogatzen da, zeren galde-erantzun batzuk hitzez-hitz handik aldatuak baitira. Ikus, adibidez, Lavieuxvilleren 127. atala eta Mogelen 141.a.*

*Baina aitortu behar da, bestalde, menpetasun hori ez dela lehenbizian usteko litzatekeen bezain handia. Hasteko, esan behar da Lavieuxvilleren 4. Parte (Eliz-urteko festa eta denborei buruz) oso orok falta dela hemen; eta bigarrenik, gehienetan Mogel bere bide-tik ibili ohi dela, berak begien aurrean duen irakurlearentzat behar direla uste dituen gauzak azalduz.*

*Erabili ote zituen erdal iturri batzuk? Echeverz? Calatayud? Ez dakigu, baina badirudi gehienetan inguruneko ohitura eta pasadizioek ematen diotela hizpidea (32).*

Liburu honetatik isladatzen den kristautasunaren irudia

*Aitortu behar da Mogelek azalpen honetan erakusten duen kristautasunaren irudia aski hitsa eta hertsia dela, gauza gaurko begiekin*

(32) Lehen orrian bertan esaten da egileak, bere liburu egiteko, gauza onen gainean onduen escribiu diren liburuez baliatu dela.

*ikusten bada behintzat; baina hoben hau ez diogu berari egotziko, garaiko kontua da eta.*

*Nahiz eta Jesuitek inibilitakoa izan, probabilismoa ez duela onartzen agerian dago.*

J.A. Mogel ote da liburu honen egilea?

*Honenbestez, nor da liburuaren egilea? Gu sinesturik gaude Juan Antonio Mogel dela egilea, eta sinestamenduak jarraian ematen ditugu:*

*a) Arantzazuko kodizean ez da ageri egile-izenik, baina Deriokoan espresuki aitortzen da Juan Antonio Mogel dela egilea.*

*b) Arantzazuko kodizean erdal hitzaurre bat du liburuak eta bertan agertzen diren ideia eta pentsamoldeak guztiz datoz bat Mogelek bere beste idazkietan azaltzen dituenekin.*

*c) Liburu honetan ageri den hizkera edo euskara-moduak senidetatsun handia du Mogelen beste liburuetan agertzen denaz, bereziki Peru Abarka-n ageri denaz.*

*Esate baterako, gure argitalpenaren 94. atalean esaera hau dator: ezarian edo igarritzaca leguez ("insensiblemente o como sin que se conozca"). Peru Abarkaren lehen edizioan agertu ziren itzulpenen artean, 217. orrialdean, bada bat: "Falisco maisubaren billauquerija". Eta hor irakurtzen dugu: ez arijan edo igarri baga leguez.*

*Hortaz gainera, irakurri ditut Peru Abarkaren hiru elkar hizketa: IV, V eta VI.a han eta hemen ageri diren eta salatari izan daitezkeen hitzak azpimarratzeko. Hona hemen idoro ditudan batzuk:*

#### IV. elkar hizketan

*Aldabatera ("simultáneamente")*

*Eregu ("mimo")*

*Dirianac ("todos")*

*Icharan ("esperar")*

*Adiuntzaz*

*Soñoco*

*Itundu*

#### V. elkar hizketan

*Arazquerija*

*Atseren*

*Abespeluban*

*Guerora*

*Guenian*  
*Tercijo*  
*Atai*  
*Chicarretan ("en la niñez")*  
*Guztientzacia ("Católica")*

#### VI. elkar hizketan

*Dongaro*  
*Azterren*  
*Guiberri*  
*Ondoringo*  
*Nequezale*  
*Abegui*  
*Galondo*

*Aztarna eta froga guzti hauek kontuan izanik, obra hau J.A. Moge-  
 gelena dela segurtzat jo daitekeela uste dugu.*

#### Urte-muga edo data

*Jakin ote daiteke guti gorabehera zein urte edo garaitan idatzi  
 zuen Mogelek liburu hau? Gure ustez bere bizitzako azken alde-  
 ra.*

*Agian bada liburuan aztarna edo zantzu bat hori antz emateko.  
 64. atalean jai arinez mintzo da. Lehenago catigatuta zeuden jai ba-  
 tzuk Elizak librau edo askatu omen ditu; orain ere gomendatzen du  
 egun horietan meza entzutea, baina, gainerakoan, gero lan egin daite-  
 ke. Horiek dira gure egilearentzat jai arinac. Nekezale batzuek esaten  
 omen dute hori egin zenetik hona gari eta arto gutiago hartu ohi dela.  
 Egileak Aita Sainduaren alde ateratzen du aurpegia, esaten du erra-  
 zoe asko eduki dituela hori egiteko, eta abar. Orain bada, 1791. ur-  
 tean egin zuen Aita Saindu Pio VI.ak jai-bakanketa hori Espainiarako  
 hain zuzen (33). Beraz, handik urte gutitara egina dirudi libu-  
 ruak.*

(33) *Ikus Enciclopedia de la Religión Católica, Dalmau y Jover, Barcelona, III,*  
 1013, art. "Fiestas".





### III. ADITZ TRINKOEN ADIZKI-ZERRENDA

*Jakina denez, laguntzailedun aditz-jokoa nagusitu da euskaraz. Bere baitarik, esan nahi baita, laguntzaile gabe jokatzaren diren aditzak, gaur oso guti dira, eta are horiek ere, denbora jakin batzuetan soilki jotzen dute joko berezi horretara.*

*Joan mendeetako euskaraz aditz trinko gehiago zen, dudarik gabe, baina hizkuntzaren eboluzioa laguntzailedun joko-molderuntz izan da. Eboluzio hori, ordea, Bizkaiko euskalkian atzerapen zerbaitekin gertatu da. Horregatik, nunbait, euskalki honek XVIII. mendean gipuzkera eta lapuurdierak baino aditz trinko gehiago zituen.*

*Hori garbi frogatzen da Añibarroren "Gramática Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros" delakoa aztertuz (34).*

*Mogelen liburu hau ere oso aberatsa da aditz trinkoen arazo honetan. Iruditu zaigu interesgarri izan daitekeela liburuan azaltzen den adizki sail osoa hemen ematea. Lavieuxvilleren edizioa prestatu genuenean ere mintzatu ginen hortaz (35). Baina berehala ikusiko denez, aditz trinkoen uzta Lavieuxvillegan baino askoz ugariagoa da hemen.*

*Adizki trinkoen zerrenda osoa ematen dugu, bada, liburuaren zein ataletan aurkitzen diren adieraziz. Uste dugunez, maiztasun-marka guztiak eruan aditzak hausten ditu. Hori konprenitzeko, jakin behar da, ordea, bizkaieraz aditz iragankorren ohikotasuna adierazteko erabili ohi dela erioan aditz hori, eta hortik heldu zaio liburu honetan*

(34) Cf. ASJU III (1969). Ikus batez ere "Parte Tercera".

(35) LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUI, Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima; Lekukoak 11; Sarrera, 26. orrialdean.

*duen maiztasun handi hori.*

*Jarraian zerrenda osoa ematen dugu atalez-atal.*

1. atalekoak  
*daracuscuna*

2. atalean  
*iguzu*  
*iguzuz*  
*leian*  
*daianaren*

3. atalean  
*jatorcoz*  
*datoz*  
*aldaienac*  
*jagocaz*  
*jagocazanac*  
*daian*  
*jagocazanac*  
*egozan*  
*daguala*  
*daiquian*

4. atalean  
*jagocazanac*  
*jatorcazanac*  
*jagocazanac*  
*ezaquianari*  
*daucanari*  
*daguana*  
*jagocazanac*

5. atalean  
*daiquian*  
*digula*  
*daiquezun*  
*deutsuguz*

6. atalean  
*daucazuna*  
*daguan*  
*ehtaguala*  
*zagozala*  
*indazu*  
*naucazu*  
*indazu*

7. atalean  
*dinozuna*  
*iguzu*

8. atalekoak  
*dago*

9. atalean  
*daucan*  
*dago*  
*dauquen*  
*jatorcula*  
*estaucazan*  
*derichan*  
*daguan*

10. atalean  
*ezaucan*  
*daucazan*  
*daucala*  
*ezaquiana*

11. atalean

*daucala*  
*dacusazala*  
*eztacuscu*  
*badaucagu*  
*ezaucana*  
*dacuzaz*  
*dazauz*

12. atalean

*dacar*  
*badago*

13. atalean

*eztaguan*  
*daiquianic*  
*eguan*  
*eguan*  
*daucana*

14. atalean

*dacuscuzan*

15. atalean

*irauben*  
*irauebenai*  
*darue*  
*dagoz*  
*deardube*  
*daracuscun*

16. atalean

*dator*  
*daruez*  
*daruezan*  
*darue*  
*dagoz*  
*dagoz*  
*badauque*  
*daucana*  
*daruacoz*  
*gagozan*

17. atalean

*dago*  
*dago*  
*dauczana*

18. atalean

*diardugunian*  
*diardugu*  
*guazanian*  
*guaz*  
*daucagun*  
*daruagunian*  
*daruaguz*  
*derichona*

19. atalean

*daruaque*  
*dacuscuzan*  
*gatozanian*  
*jatorcun*  
*daucagun*  
*iatorcuzan*  
*daucagun*  
*eguan*

20. atalean

*ezaubèn*  
*dinuenez*

21. atalean  
*daucaz*  
*dauczalaco*  
*dinuanez*

22. atalean  
*ezeucala*  
*begozan*  
*iñardutebela*

23. atalean  
*ebiltzan*

24. atalean  
*eruzala*  
*eucazan*  
*egozan*  
*derichonian*  
*eztago*

26. atalean  
*jaruaco*  
*daguan*  
*badagoz*  
*badaucaz*

27. atalean  
*eztacuscuna*  
*iñarduebenac*  
*dago*

28. atalean  
*eroien*  
*egozan*  
*dagoz*  
*dagoz*  
*dauquènac*  
*eztagoz*  
*eztazaubenac*  
*eztazaubenac*  
*daruenac*  
*dagozanac*  
*daucan*

29. atalean  
*daguanac*  
*eztauca*  
*dagozanac*  
*daiquianac*  
*daucan*  
*dagozanac*

30. atalean  
*daucaz*  
*eztago*  
*dinuanez*  
*daguanari*  
*jaruacona*  
*daguanari*  
*darue*  
*daruazan*

## 31. atalekoak

*darue*  
*daucan*  
*dinuana*  
*badaquie*  
*badaquie*  
*dacuscuz*  
*darue*  
*daruaz*  
*doiala*

## 32. atalekoak

*badago*  
*eucan*  
*ezeguala*  
*eucazan*  
*egozanac*  
*egocan*  
*joiala*  
*eriozan*  
*naguan*  
*danzudaz*  
*dacart*  
*dazaut*  
*badauca*  
*daruazanac*  
*daguana*

## 33. atalekoak

*daruana*  
*daruazan*  
*daroiencac*  
- I. *Cetaraco Vorondatia, edo guralmena?*  
 E. Onie andiena, ta ederrena leguez viotz guztiaz maitetuteco bera, ta lagunac gueure burubac leguez.
- 18 I. *Eta cer doe emo eutsan guizonari egui ebanian?*  
 E. Errazoe, ta naibide, edo libertadia, onegaz jasoteco, eguin cituban beste gauza guztiez gainian.
- I. *Celan adierazoco da esan au?*  
 E. Ara cein erraz. Biarrian diardugunian, diardugu alperric ez egotiarren, edo gueure vicitcia ateretiarren: Sermoietara guazanian, guaz gauza onac icasi, ta ondutiaren; igues eguiten bada pecatutic, da Jaincuari atseguin emon gura deusagulaco, ta onelan beste gauza asco.
- I. *Cer da naibide edo libertadia?*  
 E. Da gueurez daucagun indarra, eguiten ditugun gauzac eguiteco, edo ez eguiteco, gueuri otuten iacun leguez.
- I. *Azaldau eguizu arguiruago.*  
 E. Verba eguin daruagunian, egon gueindez isillic: Jarrita gagozarian, egon gueindez zutiñic; ta onelan gueure auqueraz eguin daruaguz gauza asco, batezbera arimacuetan.



- I. *Cer atara biar dogu icasbide onetatic?*  
 E. Jaincuari emon esquerrac: Cerren emon deuscun Arima bat, bera ezagutu, maitatu, ta gocetaco guei dana.  
 2. Erabilli chito sarri goguan, viotz guztiaz amau, ta ez atsacabaric emon pecatu eguiñaz.  
 3. Gomutau, ez gariala lur pusca bat baño, ta ez eguin jaramonic munduco agur, abegui zoro, ta ondasun gueugaz batera lurmendu, ta amaituco diriane.

*Seigarren icasbidia*

*Adanen pecatu jatorrizcua derichona*

- I. *Cer egoaldi, edo estadutan eguin cituban Jaincuac Adan eta Eva?* 19  
 E. Graciazco, edo santutasunecuan.  
 I. *Eta zor eutsen estadu graciazco au?*  
 E. Ez: Cerren egui euquezan Jaincuac gracia, ta pecatubagaco estaduban, ceini dei eguin daruaque Jaquitunac estadu naturala.  
 I. *Ceimbat demporan irau eben gracia galdutzaca?*  
 E. Guichi: bada laster egui eben pecatu, janic Jaincuac debecau eutsen sagarra, edo frutu mueta bat.  
 I. *Norc eragui eutsen pecatu?*  
 E. Diabrubac, ceinec ecin icusi cituban zorionez beteric.  
 I. *Ceintzuc izan cirian pecatu onen calte, ta ondoringuac?*  
 E. Eguin cituban zori deungacuac, alan eurac nolán euren seme Alaba guztiac, Jesu Christo, ta bere Ama maitia alderaturic.  
 I. *Cer da zori deungatasun au?*  
 E. Pecatuau dala vitarte, dirianoc jaiotia Diabruaren mempian, Jangoicuaren aserrian, Ceruraco escubide baga, ta osteruncian dacuscuzan miseria guztiac.  
 I. *Eta illgo zan gizona pecatu onegaiti ezpalitz?*  
 E. Etzan illgo, ta alan ez guinian gu bere illcorrac izango. Cerren pecatubaz sartu zan eriotzia lurrian.  
 I. *Celan ecarri daiqueguz guri aimbeste calte inoren pecatubac?*  
 E. Cerren Adan, ta Eva cirian gure Buru, ta Asabac, ta sortuten garialaco guztioc pecatu agaz beragaz.  
 I. *Beraz mundura gatozianian urten daruagu amaren sabeletic pecatuban?*  
 E. Bai, ta pecatu oni deituten iaco jatorrizcua, edo originala: cerren jatorcun jaiotzatic.

- I. *Ceimbat dira gure ganuntzco pecatu onèn ondoringo, ta caltiac?*
- E. Dira lau ezagunenac. 1. Jaincuaren, ta bere gauceen jaquinez. 2. Deungaraco daucagun macurtasuna, ta guraria, ta gauza onetaraco atzerapena, ta naguitasuna. 3. Illcorrac izatia. 4. ta betico galdu biarra, edo Jangoicuaren arpeguiric icusi ecina, Jesu Christoren eriotza baga.
- I. *Cer atera biar da icasbide onetati?*
- E. Penitencia ordetzat artu pecatu onetati iatorcuzan otz, bero, gose, egarri, naigabe, ta necagarri guztiac.
2. Goitu eguite onacaz deungaraco daucagun macurtasuna.
4. Jaquinez quendu, liburubac iracurriaz edo Sermoiac enzuz.

*Zazpigarren icasbidia*

20

*Celaca eguan Munduba Jesu Christoren etorreran, eta celan erosi guenduzan.*

- I. *Celaca eguan munduba Jesu Christo gueure Jauna etorri zanian?*
- E. Guizonic gueienac adoretan cituben idolotzar, edo Jangoico guzurti batzuc.
- I. *Eta ceintzuc ezaubèn Jangoico eguiazcua?*
- E. Bacarric Judegubac, ta Gentilen arteco banaca batzuc.
- I. *Celan atera guenduzan Jangoicuac pectubaren catiguera edo laquiotic?*
- E. Bialdubaz lurrera Jesu Cristo bere Seme Maite bacarra, illteco curutce gogor baten, ta bere eriotziaz guri vicitzia emote-co.
- I. *Cer icen emoten jaco, Jesu Cristo gure Jaunac bere eriotziaz irabaci euscun gracia oni?*
- E. Guere Redencinoeco, edo Erospeneco gracia.
- I. *Cer gracia da ori?*
- E. Pecatu, ta infernucuen mempe, ta escuartetic ateraten gaitubana, ta Ceruraco escubidia emoten deuscuna.
- I. *Celan jarten cirian guizonac salvacinoeco bidian, Jesu Cristo ill baño lenago?*
- E. Jesu Christo illgo zanaren laguntasun, edo merecimentu etorquizunecuacaz: ta alan eguia da, etciriala orduban bere salvetan redentore maite onen gracia baga.
- I. *Noz aguertu zan Mundura Jesu Christo?*
- E. Munduba eguin zanetic lau milla urteren buruban gueienac di-nuenaz gaurco egunian.

- I. *Nor da Jesu Cristo?*  
 E. Da Jangoico viciaren Seme bacarra, gugaiti guizon eguin da Curutce baten ill zana.
- I. *Eta beti izan zan guizon Jaincuaren Seme au?*  
 E. Etzan beti guizon izan; baña bai beti Jangoico.
- I. *Eta guizonaren izatia artubaz, galdu ete eban Jangoico izatia?*  
 E. Ez, cerren aldabatera da Jangoico, ta guizon eguiazcua.
- I. *Aita, edo Espiritu Santuba eguin cirian guizon?*  
 E. Ez: bacarric Semia eguin zan.
- I. *Cer esan gura dau guizon eguitiac?*  
 E. Esan gura dau, guc ditugun leguezco gorputz, ta arima bat artutia.
- I. *Cer icen emoten iaco Misterio oni?*  
 E. Encarnacioecua, edo Araguizartzecua.
- I. *Ceimbat izate, edo naturaleza daucaz Jangoicuaren Seme guizon eguinac, edo Jesu Christoc?*  
 E. Bi: bata Jangoicuarena, ta bestia guizonarena.
- I. *Ceimbat Persona?*  
 E. Bat bacarric, ta bera Jangoicozcua.
- I. *Ceimbat adimentu, ta vorondate?*  
 E. Bi: bata Jaincua danez, ta bestia guizona danez.
- I. *Ceimbat memoria, edo gomutalmen?*  
 E. Bat baño ez: Cerren Jaincua dan aldetic ecin euqui leique gomutacinoe, edo memoriaric, igaruac, ta etorquizunac bere aurrian daucazalaco.
- I. *Cegaiti umildau, edo beratu zan guizon eguiteraño?*  
 E. Lenengo, guizona zanez igaroteco necaldi, azota ta eriotzia.  
 2. Bigarren, Jangoicua zanez emoteco bere eriotza ta Passinoiari precio, edo valiotasun neurri baguia.
- I. *Eta nun eguin zan Guizon?*  
 E. Andra Maria Virginiaren errai garbietan Espiritu Santubaren mirariz, ta vitartez.
- I. *Cetati egui eban Espiritu Santubac bere gorputza?*  
 E. Erromaco Catecismuac dinuanez Ama Virginiaren odol garbiaz. Ex purissimo Virginis Matris sanguine.
- I. *Cetati bere Arimia?*  
 E. Ecebereceti guria leguez.
- I. *Eta celan guero eguin zan Guizon?*  
 E. Baturic Trinidadeco bigarren Personia, edo Jangoicuaren Semia gorputz, ta Arima esan ditugunacaz.

- 22
- I. *Eztau beraz Guizona danez Aitaric?*  
 E. Eztau Ama baño: Cerren guztia izan zan mirariz Guizonac cer icusi ezeucala.
- I. *Cegaiti bada emoten iaco San Joseperi Aitaren icena?*  
 E. Echaco emoten, zalaco Aita benetacua, ezpada cerren zan Ama Virginiaren Senar eguiazcua, garbitasuna gordetaco, itunduta begozan bere; eta cerren Aita batec leguez aci, ta jao-teban iñardutebeia alcarregaz arotziaco languintzan.
- I. *Beraz Ama Virgina beti gueratu zan Doncella, ta garbi?*  
 E. Bai, eta zan ortu isilleco, ta ondo zarratu bat, nun ecin sartu ceitian Guizonic: eta celan igaroten dan Eguzquiaren rañua, edo arguitasuna vidrio batetic, oni calteric eguin baga, alan urteban Jesu Cristo Eguzqui benetacuac bere Ama maitiaren Sabel garbitic.
- I. *Beraz Virgina Santa au da eguiazco Jesusen Ama?*  
 E. Bai, ta icen au emon deutsa beti Eleisa Santiac.
- I. *Cein egunetan eguin zan Guizon?*  
 E. Martiaren ogueta bostgarrenian.
- I. *Cein egunetan jaio zan?*  
 E. Gabonez, edo Avendubaren ogueta bostgarrenian.
- I. *Ce egunetan egui eutsen odolezco epaia, orduan usadio zan leguez?*  
 E. Jaio zanetic zortcigarren egunian, ceini dei eguiten iacon Jesusen icena.
- I. *Cer esan gura dau icen veneragarri onec?*  
 E. Esan gura dau Salvaguillia.
- I. *Eta cegaitic gueituten iaco Cristoren icena?*  
 E. Adierazoteco izan zala consagrauba Espiritu Santubaren doe, ta graciacaz; eta zala Sacerdote guztien Buruba, Erregue guztien Erregue, ta Profeta, edo Igarlaric andiena.
- 23
- I. *Cein egunetan esquini eutsezan iru Erreguiac euren ondasunac, autortu, ta ezagututeco euren Jangoicotzat?*  
 E. Erreguena esaten dan egunian
- I. *Ceimbat urtian vici izan zan lurrian?*  
 E. Ogueta amairu urte igarochu.
- I. *Cer vicitza erua eban?*  
 E. Premiaz, ta nequez betia, ta ascoren gorrotuan.
- I. *Cer eguiteban gazte demporan?*  
 E. Egon bere gurasuen aguimpian, ta jan bere icerdiaz edo San Josepegaz biar eguinda irabazteban oguia.
- I. *Cer egui eban bere vicitzaco azqueneco urteetan?*  
 E. Urten erriric erri, ta basterric (sic) bazter, bere eracutsi, ta mirariacaz eracarteco bide garbi, ta zucenetara oquerturic, edo galduric ebiltzan Pecatariac.

- I. *Celan ill zan?*  
 E. Curutce baten ganian, ta lapur biren erdian gaisquin andiren bat izan balitz leguez.
- I. *Cer adietan dozu esaten danian Jesus gure Jauna ill zala?*  
 E. Adietan dot bere gorputz, ta arimiac alcarregandic aldegui ebela.
- I. *Cer eguin zan gure Jesusen gorputzaz ill zanian?*  
 E. Jose, ta Nicodemus bere escolari, edo Discipulubac eratsiric arreta andiaz Curutceti, sartu eben obizulo, edo arripe garbi, ta barri baten.
- I. *Jesu Cristo illda beti gueratu zan bere Jangoicotasuna, gorputz, ta arimiaz?*  
 E. Bai: cerren gorputza gueratu bazan bere Arima baga, ez bata, ta ez bestia gueratu cirian Jaincotasun baga.
- I. *Cegaiti autu eban eriotza ain gogorra, ta lotsagarria?*  
 E. Guri amodio gueiago eracustiarren, ta guerezat irabasteco laguntasun, edo gracia ugariaguac.
- I. *Ce pecatu mueta gaiti ill zan?*  
 E. Orain artian Munduban eguin dirian, eguiten, ta eguingo dirian guztiac gaiti; eta eguiaz esaten da, pecatu mortal bacochozagaz barristetan dogula Jesu Cristoren eriotzia.
- I. *Cegaiti ori?*  
 E. Cerren gueurez danez ifinten dogun bere Pasinoeco gueia, edo motivoa.
- I. *Beti egon zan lurpian gure Jaunaren gorputza?*  
 E. Ez: andic irugarren egunian viztu zan illen arteric gueiago ez illteco.
- I. *Eta cer egunez viztu zan?*  
 E. Pazcua goisian.
- I. *Cer adietan dozu esanaz viztu zala Jesus?*  
 E. Adietan dot, barriro biurto ciriala alcargana bere gorputz, ta arimia, edo artu ebala vicitza barri beti iraungo eutsana.
- I. *Cer egui eban viztu zan onduan?*  
 E. Munduban egon zan ezcutauric berrogei egunian, noisian bein aguertuten iaquéela Apostolubai, cer eguin eracusteco, Fedian sendotuteco, ta bere Eleisa barriari cimentu zoliac ezarteco.
- I. *Cer egui eban berrogei egunac igarota?*  
 E. Igo eban Cerubetara, beragaz eruazala Abranen Seno, edo Lezan bere etorrera, ta igoeriaren zain egon cirian Arima Santubac.
- I. *Beraz etzan munduba eguin zanetic, ta orduataraño Ceruban iñor sartu?*

- E. Ez; cerren Adanen pecatubac eucazan Ceruco atiac ichita, eta bacarric edegui euquezan Jesu Cristoc bere eriotziaz.
- I. *Eta guztiac juan cirian infernura?*
- E. Ez ori bere. Bacirian Erregue, ta guizon Santu asco; ta onec egozan icharaten Cristoren etorreriari, beragaz batera Ceruban sartuteco.
- I. *Eta cer egunez igo eban Cerura?*
- E. Ascensinoe eguna derichonian.
- I. *Nun dago orain Jesu Cristo?*
- E. Jangoicua danez lecu, zoco, baster, ta arcuntza guztietan: baña guizona danez Ceruban, ta Altaraco Sacramentu Santuan.
- I. *Cer atera biar dogu iracurte onetati?*
- E. Eracutsi Jesu Cristori gueure oneretsi, edo amodio zinzua.
2. Erabilli beti aleguiñaz gueure gogo, ta viotzian bere vicitzaco ibillera, ta nequiac.
3. Izan bere irudicuac gogoracinoe, esan, ta eguitetan; bada bestela eztago Cerura igoteric.

*Zortci garren icasbidia*

*Eleis-Ama Santia*

- 25 I. *Cein da Jesu Cristo guere Jaunac Cerura igonda bere Apostolubei, ta onèn buruban bere Esposa Eleisiari egui eutsen gracia, edo mesederic enzunena?*
- E. Bialtzia Espiritu Santuba agundu eutsen leguez.
- I. *Cein egunez bialdu eutsan Espiritu Santuba bere Eleisiari?*
- E. Vitzu zanetic berroguetamar garrenian, edo Pazcua Maiatze-coz.
- I. *Cegaitic egui eutsan mesede ain andia?*
- E. Eleisia bera santutu, ta zucenduteco.
- I. *Cer da Eleisia?*
- E. Da cristinau sinisle guztien Batuera, edo congregacinoe, Arzain eguiazcuacaz zaintu, ta zucenduba, Aguintari Nagusi baccar baten azpian, cein dan gure Aita Santu Erromacua, lurrean Cristoren ordecua.
- I. *Ceintzuc dira Arzain eguiazco, ta Zucentzalle oneec?*
- E. Dira Apostoluben ondoringo Obispo Jaunac, Jesu Cristoc ifiniac, Eleisia jaon, ta zucenduteco.
- 26 I. *Ceimbat Eleisa dira?*
- E. Ezta bat baño, ta ecin aurquitu leite osasunic, edo salvacinoeric beragandic aldendu ezquero.
- I. *Cegaiti emon jaruaco Catoliquiaren icena?*
- E. Cerren zabalduric daguan mundu guztian, edo ezteutsalaco sarriera ucatuten, cinzoro ta benetan esquetan dabenari.

- I. *Celan izan leite ori, baldin erreinuric gueienac badagoz Turcuz, Eregez, ta Gentilez beteric?*
- E. Eguia da; baña beti aurquietan dira Cristinauren batzuc.
- I. *Cegaiti deituten da Apostolubena?*
- E. Cerren jaon, ta gordetan dabèn Aita Santu, ta Obispo Jaunac, Apostoluben ondoringuac leguez, inoz utsic eguin baga; ta Cerren Eleisiac eracusten ditubanac dirian Apostolubac ichi, ta eracutsi citubenac.
- I. *Cegaiti emoten iaco Erromacuaren icena?*
- E. Dalaco Erromaco Eleisia beste Eleisa guztien Ama, ta Buruba.
- I. *Cegaiti deituten iaco Santiaren icenaz, baldin badaucaz aimbeste Seme-Alaba deunga?*
- E. Cerren bere legue, ta eracutsiaz (sic) dirian Santubac, ta gu on izateco eguiñac; ta gu deungac bagara da gordeten eztitugulaco bere esanac, ta leguiac. Barriz bere Sacramentubac dira chito Santubac.
- I. *Nor da Eleisa onen Buruba, ta Aguintaria?*
- E. Aguintari ezcutuco, ta eztauscuna da Jesu Cristo, ta bere orde z ifinita daucan aguirico Buruba da Aita Santu Erromacua.
- I. *Cein da Aita Santuba?*
- E. Da lurrian Cristoren Vicario, edo orde cua, ceñen aguindupian egon biar dabeen Cristinau guztiac.
- I. *Ceñec, ta ifini eban Eleisa Santa au?*
- E. Lènen Jesu Christo gueure Jaunac, ta bere aguinduz Apostolubac.
- I. *Cer cirian Apostolubac?*
- E. Cirian amabi guizon jaquituriaric lenenguac (sic) ecebenac, arrantzuban, ta beste oficio, ta lan illunetan inarduebenac, ta Jesu Cristoc bere Evangelia adierazoteco autu, edo escogidu citubanac.
- I. *Ceñen ondoringua da Aita Santuba?*
- E. San Pedrorena.
- I. *Cetan dago Aita Santubaren Nagusitasun, ta aguintaritzia?*
- E. Obispo guztien Obispo izatian, ta lureco Cristinau guztietan escubide espirituca euquitian, Erreguiac izanarren bere.
- I. *Nor artecua da Eleisia?*
- E. Eztau amairic, ta alan beti iraungo dau milla persecucinoe, edo eseste andien artian bere: Cerren Jesu Cristoc esquin deutsa bere laguntasuna infernuco ate, edo indar guztien contra.
- I. *Cer jazo jacon Eleisari bere lenengo asiera, edo urteetan?*
- E. Izan zan tint, edo irme perseguiduba, ta gorrotauba.

- I. *Cer calte ecarri eutsen eseste, edo persecucinoe oneec?*  
 E. Mesede asco: bada Martiri, ta Santubac gueitubaz gueitu, ta sendotuten cirian Cristinaubac.
- 28 I. *Ce vici modu eroien?*  
 E. Chito ona, ta gaurco Cristinaubac baño beste modutacua; bada vici cirian alcarren amodio andian, eguniango comunioia eguiteco pretauta egozan ereduban.
- I. *Nortzuc dagoz Eleisa onen barruban, ta nortzuc ez?*  
 E. Dagoz Jesu Cristoren Fedia, osoz, Eleisiac eracusten daben le-guez, dauquènac. Barriz eztagoz Gentilac, edo Jainco eguiaz-cua eztzaubenac.  
 Fede bagac, edo Jaincua ezagutu arren eztzaubenac bere Se-me Jesu Cristo.  
 Erege, edo Fedeco gauza batzuc sinistu, ta baten, edo besten ezagueraz utseguin daruenac sinistu naiezaz.  
 Cismatico, edo Aita Santu Erromacua euren Buru ta Arzain-tzat ezagutu gura eztabenac, eta celan bere bait escomulgauric dagozanac arboia ece bateco adar ebagui, ta igartubac le-guez.
- I. *Ceinzuc dira Cristinauben obligacinoiac Eleisa Santa onega-nuntzco?*  
 E. Dira berac eracusten ditubanac sinistutia, ta aguinduten ditu-banac eguitia.
- I. *Cegaiti sinistu biar ditugu eracusten ditubanac?*  
 E. Cerren arguitu, ta zucenduten daben Espiritu Santubac, ceñec ecin leiquian utsic, ta ez eracutsi guzurric.
- I. *Cegaiti gorde biar ditugu bere aguindubac?*  
 E. Cerren daucan aguinduteco Jesu Cristoc emonico escubi-dia.
- I. *Noren aoz, edo vitartez adierazoten ditu bere eracuste, ta aguin-dubac?*  
 E. Aita Santu, ta Obispo Jaunen vitartez, batezbere Batuera edo Concilio Snatubetan.
- I. *Celan castiguetan ditu batzubetan bere contra jarquiten dirian seme uzu, ta lotsabagaac?*  
 E. Bere gorputceti quendu, edo alderaginaz, ta oni deituten jaco escomunioia.
- 29 I. *Ceintzuc dira escomunioiaren onderinguac?*  
 E. Ara batzuc; escomulgauta daganac, eztauca artu-emonik, edo partilic Eleisaco oracinoe, ta Sacramentubetan.  
 Jarten da Diabrubaren mende, edo aguindupian.  
 Galduten dau Eleisan sartuteco escubidia, alan vicitzan, nolan eriotzan.



Madaricatuten dau bere Ama ona zan Eleisiac (sic), ceñec aguinduten deutsen beste Cristinaubei ez verbaric eguiteco escomulgaubacaz.

- I. *Cer escomulgau modugaz artu emonic, edo traturic euqui biar ezta?*
- E. Gaurco egunian bigaz. Lenenguac dira Eleisa-guizon, edo Fraileren bati escuba aguirian esarri deutsenac. Bigarrenac Eleisa ataian escomulgautzat escriviuta dagozanac. Barriz jausten dira escomuninoe nausian Mongen Conventuban, ta hortubetan, daiquianac aguindu бага, sartuten dirianac.
- Obispo, edo Provisore Jaunac escomuninoiaz aguinduten dabenian cerbat aguertu, ta biurtuteco, eguiten eztabenac jaquinaren gainian.
- Eta Obispau onetan, Pazcuaz comulguetan eztirianac euren erruz; baña ez Confesoriac luzatuten badeutse comuninoia, orretaco daucan leguez escubidia.
- Amarren Pagatzalle charrac.
- I. *Cer atara biar dogu emendi?*
- E. Esquerrac emon Jaincuari Eleisa barruban ifini, ta irauteco gracia emoten deusculaco, ta eguin bere esanac.
- Escatu, ondu ditezala pecatuban dagozanac, ta ecarri daizala bere ezaguera, ta Cristoren Federa Gentil, Fedebaga ta Ere-giac.
- Artu iotsa andi bat Escomuninoiari, ta bildur izan Eleisa Santiaren aserriaz.

### *Bederatzigarren icasbidia*

*Guizonaren Azquenquiac, edo etorquizunac.*

- I. *Ceintzuc dira Guizonaren azquenac, edo etorquizunac?*
- E. Dira lau: Eriotzia, Juiciua, Infernuba, ta Ceruba.
- I. *Cer da eriotzia?*
- E. Da arimiac gorputcetic aldegutia.
- I. *Igues eguingo dau inorc eriotzatic?*
- E. Ez; guztioic ill biar dogu; cerren guztioic zor dogun pechu gogor au, pecatuban sortubac garialaco.
- I. *Noz illgo gara?*
- E. Jaincuac gura dabenian, ceñec daucaz ifinita gure vicitzaco mugarriac, ta eztago emendic igaroteri, ta evangeliuac dinuaz, Jaincuaren Semia etorrico iacu Lapur bat leguez gabeco isilleran, edo guichien uste dogunian.
- I. *Cer jazoco jacu illten garian onduan?*
- E. Gure gorputza sagu, ta arren jaqui izango da, ta gueratuco da

emparauba auts eguinic juicioco eguneraño; baña gure arimia izanic irauncorra, ta illcortasunic eztabena, juango da Jaincuari bere eguin guztien contu ciatza emotera.

I. *Ceren contuba emongo deutsa?*

E. Vicitza onetan euqui dituban gogoracinoe, asmo, verba, ta eguite isil, ta aguiriro (sic) guztiena, gauza on, edo deunguen ereduban juzgauba izateco.

I. *Ce icen emoten jaco gorputzetic urten da laster arimiac euco daben juicio oni?*

E. Juicio bacocharena.

31

I. *Cer da eriotza ona?*

E. Da graciazco egoera, edo estaduban daguanari jazo jaruacona, ta deituten jaco Justuben eriotzia.

I. *Cer da eriotza deunguia?*

E. Da Pecatu mortalian daguanari jazoten jacona, ta deituten da Pecatarien eriotzia.

I. *Cer eguin biar dogu eriotza mueta bi onei beguiraturic?*

E. Eriotza on baten ondoren ibilli, ta eriotza deunguiaren icara andi bat artu.

I. *Ceintzuc euqui darue eriotza ona?*

E. Oneec dira vicitza on bat eruan dabènac: cerren esana da, nolacua vicitzia, alacua eriotzia.

I. *Cer galbide, edo peligrutan jarri oi dira deungaro ta arduratzaca vici dirianac?*

E. Jaincuac jaramonic ez eguitian ordu estu, ta larri atan, ta penitenciac lecuric, edo gogoric ez aurquietian.

I. *Celan ill oi dira gueienez onac?*

E. Baque, ta atseguin andiaz, ta Jaincuac lagun dabeela, ceñec gorde daruazan Diabrubaren ordu ataco asmo, ta ondabide guztietati.

I. *Cer eriotza euqui darue pecatubetan nasturic vici izan dirianac demporaz gomutau ezipacirian?*

E. Chito deunguia quezcaz, ta esturasunez inguraturic.

I. *Celan icusi izan dira bada sarritan onac, ta Santubac bildurrez ordu atan, ta Pecatari asco ardura бага?*

E. Au da Jaincuac Pecatari bati eguin aldaiquion castiguric icaragarriena: quentzeia pecatubaren quezca, ta concienciaren diadarrac; bada da bere escubetatic ichita daucan señale ciurra. Gure conciencia da ortu chacurra leguez; lenengo sartuten dirianai zaunca, ta oratu gura andiac; baña sarritan sartu, ta ereguetan dabenai zaunca, ta eseste ordez, milla salto ta pozcaria. Au berau jazoten jaco ascori: lenengo, edo bigarren pecatuban concienciac milla quezca, arantza, diadar, ta eseste. An da ba-

rrutic esatia. Beguira cer etorrigo jatzun pecatu orretati? Illten batzara orregaz infernura artez. Galdu dozu Jaincuaren gracia ederra, ta bere adisquidetasuna atseren cital bategaitic; ta onelaco beste zaunca asco; bigarrenian guichiago, ta gueroruntz beti guichitubaz, aric eta guztiz isildu artian. Oni deituten jaco Jangoicuaren desamparu, edo jaramonic ez eguitia, ta Espiritu Santubac dinuana, istia Pecataria bere gurari gaistuen escubetan, ibilli, ta vici ditezan eurai otuten jaquen leguez. Eta gogortasun au chito sarri eltcen da arimiac urteteraño; orregaiti da Pecatari ascoren eriotzia quezca, ta ardura guichicua. Barriz Santubac, humildiac dirian leguez, beti dira euren eguiteen bildur; badaquie Jaincuaren Juiciuac ciurraguac diriala lurreco guizonenac baño: Badaquie, argui bategaz ibillico dala Jerusalem, aztertu, ta inguratuten, ta emengo eguite guztiac pisauco diriala Santuarioco Pisuteguian. Alan dacuscuz nosbait bildurrez San Geronimo, San Agustin, ta San Hilarion leguez. Baña laster deseguiten jaquèz icara aec: artu darue Jaincuaren ontasunen ezaguera andi bat, ta bera icusteco gurari, edo gose vici bategaz illten dira pozarren.

- I. *Baña cer estutu daruaz beste pecatari asco?*
- E. Igarodanaren, orduco, ta etorquizunaren gomutiac.
- I. *Celan igarorico gauceen gomutiac?*
- E. Gogora pilluan, ta aldabatera etorten jacozalaco bere vicitza guztian Jaincuaren contra eguin dituban pecatubac euren ezaintasun andiaz, ta celan aibeste bider deituric penitencia eguitera, ez eutsan enzuteric emon.
- Celan orducuac?*
- E. Cerren gomutetan dan galdu daben ceru ederra, ichi biar ditubala lurreco adisquide, ondasun, ta ibillera guztiac, ta gueien icharaten deutsan contu emote ciatz, ta estubac.
- I. *Celan etorquizunac?*
- E. Gomutaubaz doiala Betico Echera; ta ezabela amairic izango infernuco necagarri, ta tormentubac.
- I. *Badago onèn gañeco sinisbide, edo egempluric Escritura Santeian?*
- E. Chito asco; baño enzunena da Antioco Erregueari jazo jacona.
- I. *Cer zan?*
- E. Osasuna eucan artian, beguitandu jacon ezeguala beretzat bildurgarriric, ta ez jacola inor verba bat esaten azartuco. Icara baten eucazan lurreco Capitan, ta Aguintari guztiac, ta usteeban zala munduco Erregueric indartsubena. Sartu zan Jerusalem ospè andiaz; ostu cituban Eleisa Santuco onci valioso

Jaincuari consagrau, ta opa eguinda egozanac; illerazo cituban zazpi mutilchu gazte, Jaincuaren leguia ausi gura ezebelaco: nastu zan gura beste araguiazco (sic) pecatubetan, Doncella gaiso ascoren garbitasunaren costura. Baña beguira egocan Jangoico andia Cerubetic, ta orra nun Jerusalenen contra joiala, jausita banatu zan. Etzin zan oera, ustelduten asi jacon gorputza, arrac eriozan inoc beguiratu ecieutsan taiuraño. Bere buruba icusi ebanian miseria oneetan, dei eguiten deutse bere mempeco enzun, ta adisquidenei, ta asi jaquèn esaten. Ai neure Adisquide maitiac! Eta cer larri nagan! Cer esturasuntara eracarri dodan neure buruba! Uste baneban bere agiunduco neutsela ichasoco olastarie aserratubenai. Neure barruco sits, edo ar gosesto batec guciago jaten nau gorputcian agiuri dirian guztiaç baño. Orain gomutetan jataz Jerusalenen eguin nituban pecatutzar, ta gaistaqueria guztiaç. **Nunc reminiscor malorum, quae feci in Jerusalem.** Orain gomutetan naz ango Eleisan eguin nituban sacrilegio, ta lapurretacaz. Neure beguien aurrian jarten jataz illeraguin nituban mutilchu errubaguiaç. Niri contra diadarrez danzudaz galdu nituban nescatillac. Neure adisquide laztanac, gomuta onec dacart onembeste quezca, ta larritasun. Ez nintzan len gomuta izaten, vici zala Cerubetan Erregue guztien Jangoico arteza. Barre eguiten neban, cematuten nendubengan bere aserriaz. Orain dazaut ondo, nasala ilcorra, ta obediu biar deutsalà Criatura errucarri batec bere Criadore eguiazcuari.

- I. *Eta eceban penitenciaric eguin ezaguera andi oneecaz?*
- E. Baietz uste euquian: bada asi zan esaten: Jauna, erruquitu zaitenizaz. Artzen dot asmo sendo bat gach onetatic ateretan banazu, biurtuco ditudala ostu nituban baño ondasun ascoz guciago; averastuco dodala Eleisa santuba: zure gentia estimauco dodala orain artian baño guciago: viurtuco nasala zure leguera. Eta au asco ezpada, neuc urtengo dot bazterric bazter prediquetan, adoraui zaguiezala biar dan leguez: baña ezeban penitenciaco lecuric ediro gaiso onec negar cizpuru, ta ilieta andiacaz billatu beeban bere.
- I. *Celan bada ez, esquinita badauca Jangoicuac misericordia benetan dei eguiten deuscan edoceñi?*
- E. Cerren ordu onetaco escari, cizpuru, ta asmo barriac izan oi dirian bildur utsac atera daruazanac, ta ez Jangoicuagana benetan viurturico arimatic urtenac: Bildurtuten ditu infernura juañ biarrac, Jaincuari contu emotiac, ta Munduba betico ichi biar dabelaco: eta ezta euren viotcetan Jaincuaren amodiuañ apurric aurquiten.

- I. *Eta cetan igarte jaco?*  
 E. Baldin Jaincuac vicitzia luzatuten badeutse on izateco, ta penitencia eguiteco, laster biurtu oi dira lengo bidetara.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*  
 E. Lenengo gueure eguite guztietan itandu gueure burubari, naico leuquian gauza à eguitia, eguinda laster ill biar baleu.
2. Ez gueigui eregau, edo palagau gorputz zantar, ta arren janari izateco daguana.
3. Vici ondo, eriotza baquetsu bat euquiteco, ta ez ichi orduraco, penitencia eguitia; bada eztà erraz izango concienciaco matasa nastuba ariidutia, ta confesinoe oso, eta damuzco bat eguitia.

### *Amargarren icasbidia*

#### *Juicioa*

- I. *Ceimbat juicio, edo contu-artze dira?*  
 E. Bi: bata da bacocharena, ta bestia da guztiena.
- I. *Cer da Juicio bacocharena?*  
 E. Jangoicuac illda beriala arima bacocharaz eguin daruana.
- I. *Ceren gainian contu artuco deutsa?*  
 E. Vicitza onetaco gogaracinoe, asmo, gurari guztiena, verba alper bat bere igaro, edo aztu baga.
- I. *Beraz gogorrac (sic) ta garratzac (sic) izan biar dau contu emote onec?*  
 E. Bai; ain da gogorra, ta latza cein da Santuric andienac bildurtu, ta icaratu daruazan.
- I. *Celan bada bildurtuten eztira Pecatariac, ta vicitza alper, ta epe-la daroienac?*  
 E. Cerren lotuta daucazan Diabrubac, ez gomutetaco benetan, ta astiro etorquizunacaz.
- I. *Cer izango da Arimiaz Juicio au amaituta?*  
 E. Jangoicuac bialduco dau edo infernura, edo Purgatoriora, edo Cerura bacocharen eguite, edo obrac esquetan dabeen eruduban.
- I. *Cer da Juicio guztiena, edo generala?*  
 E. Da mundubaren azquenian Jangoicuac guizon guztiai artuco deutsen contuba, vizturic len gueuncazan gorputz, ta arimacaz.
- I. *Cetaraco da guztien azquenengo Juicio au, baldin ill onduan bacochara juzgauba izaten bada?*  
 E. Ezta alperra izango: bada an aguirico da nabarmenago Pecatarien arduragabetasuna, Santuben gloria, ta Jesu Cristoren es-cubide, edo autoridadia.

- I. *Norc eguingo dau Juicio au?*
- E. Jesu Christo guere Jaunac, ceini ichi eutsan Aita Eternuac es-cubide au, ta cein aguertuco dan orduban bere anditasun guz-tiaz.
- I. *Eta celan aguertuco dira guizonac Juicio atan?*
- E. Humiltasun andiaz, ta bacocha bere burubaz arduratan.
- 34 I. *Cer gomutauco jaquee orduban Pecatariei?*
- E. Sartuco dira icara andi baten dacusenian euren pecatu, ta mausaric isillenac aguertu, ta arpequian emoten jaquezala mundu guztiaren aurrian.
- I. *Cer gomuta, ta gogoracinoe etorrice jaquee onai, edo justu-bei?*
- E. Pozez inguraturic asico dira esaten: igaro zan neguba, ta orain jatorecu Udabarria. Igaro cirian artu guinduzan nequiac Jaincuaren serviciuan, ta gaistoac eguiteuscubezan siñu, ta algarac euren atseguin lecubetan ibilli gura ez guendubalaco: cerbait costa jacun irautia gauza onetan, ta ereiten ditugun acien frutubac batuteco orduba.
- I. *Eta cer esango dabee Pecatariaic icustian onen, edo justuben gloria, ta poza?*
- E. Amurratu, ta ernegauric, Espiritu Santubac dinuan leguez asico dira esaten. Ai gure zorigaistocuaac! Adicatu, ta aspertu guinian bide galdubetan. **Lassati sumus in via iniquitatis.** Utsegin guenduban eguiazcua. Orreec dira gue dempora baten zorotzat gueuncazanac, ta ceintzubei eguiten gueuntsen barre, ta ijui; Cerren gure bide alegre, ta gozo irudicuetan sartu gura ezeben. Baña ai! gueu guinian zoruac, ta orreec cenzundunac: guri gue-richon simple batzue ciriala. **Nos insensati vitam illorum aestimabamus insaniam,** ta orain dazaugu ciur, eurac euquela erra-zoia.
- Ara celan dacuscuzan Jangoicuaren Semeen artian, ta betico zorionecuac izateco.
- I. *Cer atera biar dogu iracurte onetatic?*
- E. Artu arreta andi bat, jausi ez gaitezcan pecatu arin ta venialetan bere, artuten deusagula gueure burubari contu ciatz, ta estuba, Jaincuac artu eztaigun.
2. Oera baño lenago aztertu gaveru gueure concienciaco bazterrac, ta aurquietan badogu utseguiteren bat, escatu beriala Jaincuari parcacinoia, ta artu neurri onac aurreruncian contuzago vici izateco.
3. Ez jaramonic eguin Munducuen esames, ta siñubai, Jangoicuaac gura dituban gauzac eguiteco gagozarian: bada Jesu Christo izango da gure aguintaria, ta ez guizon siñulari orrèc.

*Amaicagarren icashidia**Infernuba*I. *Cer da infernuba?*

E. Da necaldi, edo tormentuzco su-leza bat, nun pecatu mortalian illten dirianac dagozan Jangoicua icusi baga, ta Diabrubacaz batera erreten betiraune, edo eternide (sic) guztian.

I. *Nortzuc juan oi dira infernura?*

E. Pecatu mortalian eriotziac artuten ditubanac. pecatu mortal baten baño ezpalitz bere.

I. *Cetan diardube infernuban?*

E. Dagoz ernegacinoez, ta damu gorrian igaroten neque, edo pena mueta asco, inoz amaitu ta arintuteco uste baga.

I. *Cer necagarri, edo pena igaro daruez?*

E. Pena modu bi: arimacua, ta gorputzecua.

I. *Cer izango da arimaco penia?*

E. Da Jangoicua ecin icusiaz euco (sic) daben naigabe ta damuba. Oni dei eguiten jaco caltezco penia, cein dan andiena, ta latce-na.

I. *Nolacua da bigarren penia?*

E. Da zori deungaco aec euren sentidu guztietan igaroco ditubezan necaldi, edo tormentubac, ta dirianen artian enzunena, beti beti erre, quisquildu, chimindu, ta gardostuten egon biarra. Oni deituten jaco sentiduco necaera, edo tormentuba.

I. *Celan necatubac izango dira beguiac?*

E. Diabru, ta gorputz zorigaistocuen icuste icaragarriaz.

I. *Celan belarriac?*

E. Ango cizpuru, garrasi, illeta, ulu, arrantza, inciria, ta musica tristen enzunaz.

I. *Cer cantauco dabe?*

E. Icen madaricacinoe, ta biraotzar esquergac Jaincuaren, ta Santuben contra.

I. *Cer neque modu emongo iaquee ao, ta minari?*

E. Jaqui ats, ta edari garratz, edo samintasunez betiac emongo deutseena.

I. *Cer ardao mueta emongo, jaquela, dino Espiritu Santubac?*

E. Dragoe, edo Piztia icaragarrien biazturnaz eguinicua.

I. *Cer pena emparetan da surrentzat?*

E. Gorputz zantar zorideungaco aec botaco dabeen atsaz euquico dabeena.

I. *Gaistuen gorputzac orain erretan dira infernuban arimacaz batera?*

E. Ez; bacarric erretan dira arimac, ta gorputz guztiac gueratuten dira munduban desegunic, ta Juicioco egunian batuco dira euren animacaz (sic), jasteco alcarregaz infernura.

- 36
- I. *Celan erre leitez arimac subaz, Espiritu utsac badira?*  
 E. Ori jazoten da, Jangoicuac subari emon daruacon indar, edo virtuteaz, ceñentzat eztaguan gauza gachic, ta eguin ecin leiquianic.
- I. *Cegaitic erreco dira guero deunguèn gorputzac euren Arimacaz batera?*  
 E. Cerren mundu onetan bere izan cirian alcarren lagun euren gurari, ta atsegin charretan.
- I. *Cer da inoz ilgo eztan concienciaco arra, edo sitsa?*  
 E. Da infernucuac euco dabeen quezca, ta arantza gogorra, gomutaubaz, celan sarri dei egui eutsan Jangoicuac celan errazto salvau ceitian bere auzoco, senide edo lagunen batzuc leguez; ceimbat bider asi zan, vicitza barri bat artuten; ta celan ceruraco zan iraun baleu edo adicatu ezpalitz Jaincuaren bideetan.
- I. *Ceimbat demporan egon biarco dabe infernuban ara doiazan zorigaistocuac?*  
 E. Betiraune, edo eternide guztian; esan gura dau Jangoicua Jangoicua dan artian. Eta alan milla millinoe urte igarota bere, eztauquè len baño uste gueiago andic urteteco.
- I. *Eta edolabere echaquèz pena gogor aec guichitu, edo arinduco?*  
 E. Ez; eta alan ezta aentzat izango eztitasunic, gozamenturic, ez aringarriric, ez baqueric, ta ez lagun onic.
- I. *Cetan ñardungo dabe bada?*  
 E. Betico atralaca, ospe, lera gogor, gorroto, icusi naiez, birao, ta ernegacinoian, chacur amurratubac leguez, alcarri esesten deutsela batac bestiaren erruba baleuca baisen asseracuntza (sic) andiaz.
- I. *Celan egongo dira zorigaistoco aen gorputzac subaz guztiz urtu, chimindu, edo deseguin бага?*  
 E. Cerren Jangoicuac berariaz iraun eraguingo deutsen inoz amaitu eztaquiuezan pena gogor oneec.
- I. *Celan izanic gure Jangoicua ain ona, ta erruquitsuba, dago pozarren osta beguira, cein irmè erretan dirian bere Seme Jesu Christoren odolaz erosirico arimac, edo cegaitic betico tormentu oneec pecatu mortal bat baño eguin eztabenari?*  
 E. Cerren pecatu mortalaren deungatasuna, edo malicia dan neurribaguia; eta San Agustinec dinuanaz milla infernu bere eztira asco biar dan ereduban bera castiguetaco.
- I. *Cer atera biar dogu iracurte onetatic?*  
 E. Esquerrac emon Jangoicuari, cerren gaucazan salvacinoeco biddian, beste asco pecatu mortal guichiago gaiti infernuco su, ta



garretan daucazan artian.

2. Edocein tentacinoetan gomutau, laburra dala pecatubaren atseguña, ta beticua oni jatorcon tormentuba, ta damutu biarra.
3. Artu gorroto andi bat pecatubari: bada aimbesteraño aser erazoten deutsa erruquitasunez beterico Jangoico oni.

### *Amabigarren icasbidia*

#### *Ceruba*

##### *I. Cer da Ceruba?*

37

E. Da atseren andiz, ta atseguintasunez beterico lecu zoragarri bat, nun gracion illicirianac, ta guztiz garbituric egozanac, ego-ngo dirian Jaincua icusten, ta gozeetan betiraune, edo eternidade osuan.

##### *I. Nortzuben arimac juango dira Ceru onetara illda beriala?*

E. Pecaturic inoz eguin eztabenen arimac, ta pecatu eguin dabenac, baldin eranzun badeutse osoro pecatu guztien zorrac gaiti Jaincuaren Justiciari, negar, eguite on, indulgencia, edo penitencia pecatuben ereducuaz.

##### *I. Cer eguin darue Santubae Ceruban?*

E. Dagoz gozaldi zoragarri baten, ta zoriontasun osuan.

##### *I. Cer da gozaldi, edo zoriontasun au?*

E. Da Jangoicua arpeguiz arpegui icustia bere amodiuan zurtuba leguez gueratutia, ta naigabe baga beti egotia, bedeincacinoiac cantetan Ainguerubacaz batera.

##### *I. Celacuac izango dira canta oneec?*

E. Bedeincatuba izan dedilla gure Jangoico ona, cerren ezarri eutscuzan bere misericordia, edo erruquitasuneco beguiac. Bedeincatuba izan dedilla gueure Redentore maite Jesu Christo: cerren bere odolaz erosi guinduzan, ta irabaci euscuzan aimbeste gracia, ta gloria andi au. Zuri milla esquer Virginia maitagarria: cerren zure bitartetasunac atera euscun gueure utseguin guztien parcacinoia. Santu ta Santa, Aingueru zorionecuac guztioe gara alcarren senide, ta adisquide.

##### *I. Beraz andia da Santuben gloria au?*

E. Ain da andia, cein da ez beguiz icusi, ez belarriz enzun, ta ez guizonaren adimentuban sartu leitez, dino San Pabloc, Jangoicua bere servitzari, ta adisquidentzat pretauric daucazan atseguin, ta ondasunac.

##### *I. Cegaiti eztuaz Santuben gorputzac illda laster, arimac leguez, Jangoicuaren arpeguia icustera?*

38

E. Cerren ezagutu eraguin gara deusecun Jaincuac, celan garian

illcorrac gorputcez, ta ez arimaz: edo cerren Adanen pecatuba zala bitarte, madaricatu eban esanaz: lurra zara, ta lurrera biurtu biarco dozu.

- I. *Noz igongo dabe Cerura onen gorputzac?*  
 E. Juicioco eguna amaituta beriala, euren arimacaz osterata batu ditezanian.
- I. *Cetaco sartuco dira orduban santuben gorputzac atseguin lecu onetan?*  
 E. Euren arimacaz lagun izateco glorian, lèn penitencia, necagarri, naigabe, ta eguite onetan lagun izan cirian leguez.
- I. *Cegaz acico dira euren gorputzac?*  
 E. Eztabe jaquiren biar, ta premiariac euquico: cerren amaitu iaquèzan lurreco aci biar, gach, ta argaltasun guztiac.
- I. *Ezagutuco dabe an alcar senide, adisquide ta ezagunac?*  
 E. Bai, ta ciur; eta orduban gueituco da euren senidetasuna, adisquidetasuna, ta ezagueria.
- I. *Eta Cerutic icusico ditube infernuban dagozanac?*  
 E. Bai, ta eztabe artuco atsacaberac euren guraso, ta adisquideric andienac sutan erreten icusiarren; bada artez dazaube, alan dala Jangoicuaren vorondatia.
- I. *Cimbat dempora iraungo dau Ceruco egoera onèc?*  
 E. Jaincuac dirauban artian, edo beti.
- I. *Ceintzuc dira Cristinau batec euqui biar dituban gurariac?*  
 E. Cerura juateco Jaincuaren arpeguia icustera pecatu eguiteco peligru baga.
- I. *Cer eguin biar da orretaco?*  
 E. Sarri goguan erabilli, San Gregorioc dinuana. Poztuten gara enzunaz, cein andia, ta zoragarria dan Ceruco atseguintasuna: baña ecin elduco gara euren gozamentura neque andi baga.  
 Gorde Jaincuaren aguindubac osoz, ta ez icaratu penitenciaren icenaz.
- I. *Eta cer atera biar dogu iracurte onetatic?*  
 E. Esan Jangoicuari noisian beñ **Betor gugana zure Erreinuba**; baña eguinaz bere vorondatia. Eta David Ereguiac, **Jauna aseco naz edolabere zure gloriara noian demporan**.
2. Gueure gach, ta naigabe guztietan gomutau, Ceruban gozatuco gariala guztiz, ta amaituco jacuzala necagarri, edo pena guztiac.
  3. Ez inozbere aztu San Pablaren esanaz. Eztaucagu emèn egontoqui irauncorra, ezpada gabiltz obago baten billa.
  4. Eta alan artu edocein neque, ta ucatu gueure burubari gozagarri ta gurari char guztiac guerocuac galdu eztaiguzan.

*Amairugarren icasbidia**Purgatoriua*I. *Cer da Purgatoriua?*

39

E. Da su leza bat, nun arima on, edo gracion illten dirianac dagozan eranzuten, edo paguetan, ceruban sartu baño lenago, euren pecatuben zorrac, ta ondoquiñac.

I. *Nortzuc duaz Purgatoriora?*

E. Euren pecatubetati ondo, edo osoro garbitu baga gracion illten dirianac.

I. *Cer esan gura dau pecatu guztietati osoz, edo ondo garbituba izatiac?*

E. Orrec esan gura dau pecatubari jatorcon dempora bateco pena guztitic quitu, edo libre gueratutia; edo Batiuaren, edo Martiriuaren, edo eguiazco penitencia osuaren, edo indulgencien bitartez.

I. *Parcatuco ezteuscu Jangoicuac pecatubei jatorqueen pena guztia, pecatu eurac parquetan deuscuzan orduban?*

E. Ez; cerren parcatuarren infernuco betico penia, guichitan parcatu darua demporaco, edo Purgatoricua; bada ezta erraz euren ereduco penitencia osua beinguan eguitia; ta orregaitino emparetan jacuz gueinian zor asco confesinoe eguiazcoren baten bitartez pecatubac parcatu arren; ta erantzun biarco deutesgu, edo emen euren ereduco penitenciaz, edo guero Purgatorioco su garretan.

I. *Beraz andiac dira Purgatorioco necagarri, edo tormentubac?*

E. Bai, eta mundu onetan asma aldaiqueguzan tormenturic gogorrenac baño gogorruguac.

I. *Cein da pena onen artian latzena, ta samiñena?*

E. Da an dagozan artian egotia gose chito andiaz Jaincua icusteco, ta icuste au luzatutia.

I. *Celan bada daucagu pena andi, ta garratzagotzat su artian erreten egotia, Jaincua icusi baga egon biarra baño?*

E. Cerren gorputzeco presondegui, edo carcela illun onetan gagozan leguez, ecin ezagutu dogu, cein ta celacua dan Jangoicua, ta onec gaucaz pena, ta gurari vici baga bera icusteco.

I. *Ceimbat urtian egon oi dira arima gaisuac Purgatorioco su portitz aetan?*

40

E. Guc ecin jaquin gueinque ciur, ta Jaincuac gorde daruaz onelaco gauzaac bere Juicio miragarrien barruban. Guc daquiguna da, eztala guztientzat dempora bardina; bacoachac egon biarco dabela, bere zor guztiac evangeliuaren esaqueria dan leguez, au da, pecaturic chiquinenac, osoz pagau artian.

I. *Celan lagundu daiquiuegu arima onei aimbat lasterren urten daien su aetatic igoteco Cerura?*

- E. Gueure penitencia, limosna, erregu, Meza enzute, indulgencia, ta eguite onac euren ordez Jangoicuari esquiniaz.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*
- E. Lagundu Purgatorioco Arima gausuai erregubacaz, cerbait necagarri artubaz, batezbere aldaguienac, atera eraguiñaz, edo esanaz Mezaco Sacrificio Santubac.
  - 2. Euqui oraindino arreta gueiago gueure Senide, adisquide, ta biar bada gueure erruz Purgatorioco subetan dagozanac gaiti.
  - 3. Testamentuz, esquiniz, edo besteren aguinduz encarguren bat badaucagu, Mezac ateretaco, edo atera eraguiteco, ez luza bideetan ibilli; ezpada gure contra egongo dira arima aec gueure atzerapen alperrac gaiti daucaguzalaco zu (sic) gogor aetan.
  - 4. Atera sarri contu au: baldin gure Jangoico erruquitsubac aibeste necatuten, edo penetan baditu bere adisquide, ta servitzariac, ta pecatu parcatu edo arimac gaiti, cer icharan daiquè bere arerio, ta pecatu andiacaz infernura dirianac?

*Amalaugarren icasbidia*

*Credua*

41

- I. *Cer da Apostoluben sinisgaia, edo Credua?*
- E. Da eracutsi bat, ceñian dagozan sarturic gure Fedeco, edo Cristinautasuneco misterioric nagusi, ta biarrenac; eta da gure Erreliginoeco aguertamen cinzo Apostolubetati jatorcuna.
- I. *Cer asmogaz esan biar da Credua?*
- E. An dagozan gauza guztiac sinistutecuaz gueure vicitzia costaco balichaquegu bere, edo prest egonaz lenago gueure zan guztietaco odola emotera, articuluren bat ucatu baño.
- I. *Ceimbat articulu dagoz Creduan?*
- E. Amabira joten dabè guztiac, berez amalau izan arren (sic).
- I. *Esaizu lenengua.*
- I. **Sinisetan dot guztia daiquian Aita Jangoicuagan Cerubaren, ta Lurraren eguillia.**
- I. *Cer esan gura dau verba onèc Sinisetan dot?*
- E. Esan gura dau, eguia anditzat daucadaz snisqueta oso, ta sendo bategaz Creduan dagozan gauza guztiac.
- I. *Cer adietan dozu verba oneecaz: Sinisetan dot Aita Jangoicuagan?*
- E. Adietan dot ciur, ta seguru naguala, badala Jangoico bacar bat, ta ecin izan leitequezala Jangoico asco.

I. *Cegaitic esaten dozu Jangoicuagan ta ez bacarric Jangoicua?*  
 E. Adierazoteco neure esperanza, ta uste guztia ezarrita daucadala Jangoicuagan.

I. *Cegaiti esaten dozu Aita Jangoicuagan?*

E. Esaten dot, adierazoteco, celan dagozan Jangoicuagan iru Persona bein banacuac, ta oneetati lenengua dala Aita.

I. *Cegaiti emoten deutzazu Aitaren icena?*

E. Cerren betitic, edo eternidade guztitic sortuten daguan Seme bat, ceini emoten deutzan bere izatia, ta ceñegaz dan bardina gauza guztietan.

I. *Cegaiti dinozu guztia daiquiana?*

E. Cerren eztaguan berac ecin daiquian gauzaric.

I. *Semiac, ta Espiritu Santubac badauque Aitac beste escubide, indar, edo poderio?*

E. Bai: iru Personac izanic Jangoico bacar bat, bardinac dira one-tan.

I. *Bada celan ezarten deutzazu bacarri (sic) leguez Aitari?*

E. Cerren dan beste Persona bien asieria, ta emoten deutzelaco, indar, ta poderio guztia Jangoicotasunaz batera.

I. *Cer esan gura dabè verba oneec: Cerubaren ta Lurraren Egui-llia?*

E. Esan gura dabe Jangoicuac Ceruban, ta Lurrarian ecebere ecetic eguin citubala gauza guztiac, len eracutsi dogun leguez.

I. *Cein da Creduaren bigarren Articuluba?*

E. Eta aren Seme bacar Jesu Cristo gueure Jaunagan.

I. *Cer esan gura dozu verba orreecaz?*

E. Sinisetan dodala, Jesu Cristo dala Jangoicuaren Seme egui-ña.

I. *Cer adietan dozu esanaz aren Seme bacar?*

E. Jesu Cristo jaio, ta jaioten dala, ta jaioco dala beti Aita Jangoicuaganic, emonaz bere naturalecia, edo izatia, ta bardinac diriala jaquiturian, beticuac izatian, eta podere, edo indarrian.

I. *Cegaiti esaten dozu aren Seme bacarra?*

E. Cerren eztaben Aita eternuac beste Semeric.

I. *Cegaitic izentetan dozu gueure Jauna?*

E. Cerren berac eguin, ta iraun eraguiten deuscun, ta erosi guinduzalaco bere odol preciosuaz.

I. *Esazu Creduaren irugarren articuluba.*

E. Cein sortuba izan zan Espiritu Santubaren mirariz, ta egui-ñez.

I. *Cer esan gura dozu verba orreecaz?*

E. Esan gura dot, Espiritu Santubac eguin, edo formau ebala Jesu

Cristoren gorputza Ama Virginiaren odol, edo beste izateren bateti.

- I. *Cer adietan dozu verba oneetan: **Jaio zan Maria Virginiagandic?***
- E. Adietan dot, Maria erichon Doncella guztiz Santa batec sortu, ta mundura emoebala bere garbitasunaren calte baga.
- I. *Cer atera biar dogu iracurte onetatic?*
- E. Euqui amodio andi, ta bero bat Jesu Cristori, aimbesteraño gueu maitetu gaitubalaco.
  2. Chapela erantzi **Jesusen** edo Mariaren icena aitaututen dan bacoedian.
  3. Esan arretaz Avemaritacuac Campaiac orretaraco ots eguin daruanian.

*Amabostgarren icasbidia*

*Gauza onèn gañian.*

- 43 I. *Esazu Creduaren laugarren articuluba.*
- E. Padeciu eban Poncio Pilatos Aguintari zala. Izan zan Curut-cian josia, illa, ta lurpetuba.
- I. *Cer esan nai dabe verba oneec: **Padeciueban Poncio Pilatos Aguintari zala?***
- E. Esan nai dabe, Jesu Christo gure Jauna izan zala lotsariz, injuri-az, edo apaldiz betia, curutze bati lotuba Judatarren (sic) Aguintari, edo Governadore zala Poncio Pilatos erichon guiz-  
on bat.
- I. *Cer esan gura dau verba onec, **ill zan?***
- E. Esan gura dau, bere arimiac aldegui ebalá gorputcetic.
- I. *Eta beti egon zan Jangoicotasuna gorputz, ta arimiaz?*
- E. Bai: echacon inoz gorputzari, ez arimiari Jaincotasuna falta izan.
- I. *Celan Jesu Christo gure Jaunac igaro eiquian eriotzia, bazan Jangoico eguiazcua, ta Jaincua illcorra ezipada?*
- E. Ezeban igaro Jangoicua leguez; baña bai guizona zan alde-  
tic.
- I. *Bada celan esaten da, Jangoicua ill zala abe baten?*
- E. Cerren ill zan Jesu Cristo, ta Jesu Cristo zalaco Jangoico, ta guizon.
- I. *Nundic dauque aimbeste goxotasun, ta merecimentu Jesu Cristo-  
ren eriotza, ta pasinoiac?*
- E. Cerren Jaincua zan aldetic emon eutsen valio ecin andiagua, guizona zanez igaro cituban neque, icerdi, ta eguindura guz-  
tiaí. Orregaiti dino ederto San Agustinec. Guizona izan ezpa-  
litz ecin igaro eiquian naigabe, ta tormenturic: eta Jangoico

izan ezpalitz eceben euquico orain dauquen beste valio bere eriotza, ta passinoiac.

I. *Cer esan gura dabe verba oneec eta lurpetuba edo sepultau-  
ba?* 44

E. Esan gura dabe, Jesu Cristo ill zanian, Curutzeti eratsita, sartu ebela bere gorputza izara baten ingurauc Arripe garbi, ta bari baten enterru onetan lagun citubala bere Ama maitia, San Juan Evangelistia, Magdalena, Andra on batzuc ta bere escolari leial Josef, ta Nicodemus.

I. *Ezaizu (sic) Creduaren bostgarren articuluba.*

E. Jatsi zan infernubetara, irugarren egunian Viztu zan illen arteric.

I. *Cer esan nai dabe verba orreec?*

E. Jesu Cristoren arimiac aldegui ebanian bere gorputzetic, jatsi zala infernubetara; esan gura dau, ez zori deungacuen lecura, ezpada beste batera, nun egozan icharaten Cristoren etorreriarri Munduba zanetic Jangoicuaren gracian ill cirian arimac, bere eriotziaz, pecatubaz ichiric egozan Ceruco atiac edeguita, beragaz batera igoteco betico gloriara.

I. *Cer icen emoten jaco egozan lecu oni?*

E. Abranen Lecia, au da lurpian eguan Toqui modu bat.

I. *Beuquèn neque, ta naigaberic lecu onetan egozan arimac?*

E. Ez; cerren cirian Jangoicuaren adisquide pecatubaren erliquia, edo azuzquiric ez euquenac, garbitu cirialaco, edo emen penitenciacaz, edo beste munduban Purgatorioco su artian.

I. *Cegaiti ara jatsi zan Jesu Christo gure Jauna?*

E. Arima santubac andic atarata Cerura beragaz eruateco.

I. *Eta jatsi ete zan Prugatorioco Lezara?*

E. Jaquitun ascoren ustia da, ara bere jatsi zala, an egozan arima guztiei euren zorrac parcatu ta Cerura eruatera.

I. *Cer esan gura dabe verba oneec, irugarren egunian viztu zan illen arteric?*

E. Jesu Cristoren arimiac ill zanetic irugarren egunian barrirò bere gorputza arturic, urtebala viciric Sepultura edo obipeti gloriariz beteta.

I. *Cegaiti igaro gura izan cituban onembeste lotsari ta neque, baldin bere arpeguico icerdi tanta bat asco bazan munduba erredimiu, edo erosteco?*

E. Guri eracusteco, ceteraño maite guinduzan, ta gomuta onegaz guc bere bera amau guenguian.

I. *Cer eguin biar dogu aimbeste amodiotasun icusita?*

E. Gogoz, ta baque andiaz artu naigaberic latzenac, ta garratzenac. 45

2. Ez egunic igaro Cristoren Pasinoeco ibillera, edo pausuren bat astirochu gomutau baga.
3. Pecatu mortalian bagagoz (Jaingoicuari nai eztaquiola) beriala urten Sepultura, edo leza illun orretati; baña ostera ez biurtuteco gogo vici, ta senduaz.

- I. *Cein da seigarren articuluba?*
- E. **Igo eban Cerubetara, an dago jarriric Aita Jangoico guztia dai-quianaren aldescumatati.**
- I. *Cer esan gura dabè verba orreec?*
- E. Jesu Christo gure Jaunac igoebala Cerubetaco lecuric altu, edo gorenera berez, ta inoren laguntasun baga.
- I. *Adierazo eizuz verba oneec: an dago jarriric etc.*
- E. Esan gura dabe, Jesu Cristo Jaincua danez, dala bardina Jangoicotasunari dagocazan gauza guztietan bere Aitagaz, ta eztaucala batac baña bestiac gloria gueiago; eta guizona danez, Santu, Santa, ta Aingueru guztien gaineti daucala bere tronu, edo egonlecuba.
- I. *Cer eguiten dau gureztat Ceruban?*
- E. Dago gure bitarteco izateco, ta guri mesediac eguiteco prest.
- I. *Cein da Credoco zazpigarren articuluba?*
- E. Andic etorrico da viciac, ta illac juzguetara
- I. *Cer esan gura dozu orregaz?*
- E. Esan gura dot mundubaren azquenian jatsico dala aguirian Jesu Cristo Adanen Seme guztiac batutera lecu baten.
- I. *Cegaiti esaten da viciac ta illac?*
- E. Cerren juzgauco dituban graciazco vicitziaz, ta pecatuco erioztiaz aurquituco dirianac.
- I. *Orduban vici (sic) dagozanac illgo dira?*
- E. Bai, ill biarco dabè, barriro vitzuric aguertuteco Jesu Cristoren aurrian.
- I. *Eta igues eguin lei iñoc Juicio onetati?*
- E. Ez; guztioe jua biarco dogu, contu emotera, ta eztira ara baga gueratuco Limbuan dagozan Sein batiatu baguiac bere.
- I. *Cein da Creduaren zortcigarren articuluba?*
- E. Sinisetan dot Espiritu Santubagan.
- I. *Cer eracusten jacu articulu onetan?*
- E. Eracusten jacu Trinitade, edo Irutasun Santuban badala irugarren Persona bat Espiritu Santuba derichona.
- I. *Cer sinistu biar dogu Espiritu Santubaren gainian?*
- E. Sinistu biar dogu, bere izatea dacarrela Aita, ta Semeaganic, ta irurac eztauquela izate, ta Jaincotasun bat baña.
- I. *Ezaizu (sic) Creduaren bederatzigarren Articuluba.*



- E. Eleisa, Ama Santa guztientzacua, edo Catoliquia.
- I. *Cer esan gura dabe verba orreec?*
- E. Lèn astiro azalduric ichi ditugun (sic) Eleisaco Icasbidian.
- I. *Cer esan gura dau Santuben comuninoe, edo partiltasunac?*
- E. Esan gura dau, Eleisiac dituban arimaco ondasun guztietan dauquela parte, edo cer artu Fededun guztiac, gorputz baten zati, ta alcarren Anaiac leguez.
- I. *Ceintzuc dira arimaco ondasun orreec?*
- E. Dira Jesu Cristo gure Jaunaren meritu, edo irabaciac, ta munduban dagozan, ta izan dirian on ta Santu guztienac.
- I. *Cetaco emoten da jai egunetan Eleisan ogui bedeincatuba?*
- E. Anchinacua da oitura, edo usadio au, ta da cristinaubac alcarren artian dauquèn batasun, edo uninoiaren ezagugarria, jaten dogula guztioc ogui batetic, eche bateco umiac leguez.
- I. *Cegaiti emon jaruaco comuninoe, edo partiltasunaren icena, Cristinaubac dauquen batasun orri?*
- E. Cerren guztioc garian Santu izatera deitubac, gueurez deungautu arren, edo garialaco Jangoicuari opetsi, edo consagraubac Batio Santubaren bitartez.
- I. *Badaucagu partiltasunic Ceruban dagozan santubacaz?*
- E. Bai.
- I. *Cetan dago partiltasun ori?*
- E. Gueure escari, edo erregubac aei guc zucendutian, ta eurac guriac enzunic bitarteco jartian gueure premia ordu, edo biar ditugun gaueetan.
- I. *Cer icen emoten jaco ceruban dagozan Santuben laguntasunari?*
- E. Eleisa triunfante edo Goilariena.
- I. *Cegaiti ori?*
- E. Cerren Jesu Cristogaz batian, dagoz pozcariac, edo atseguinez, munduco ta infernuc arerio guztiac goitu ta azpiratu ezque-ro.
- I. *Badaucagu Purgatorioco Arimacaz artu emon, edo partiltasunic?*
- E. Bai, bada erregutu gueinque batzuc bestiac gaiti.
- I. *Celan deituten jaco Purgatorioco Arimen laguntasunari?*
- E. Eleisa Necatubena, cerren neque, ta tormentu gogorracaz dagoz paguetan, edo eranzuten euren zor guztiai.
- I. *Celan icentetan da lureco Cristinauben batune, edo laguntasuna?*
- E. Eleisa burrucaria, edo soldadubena; Cerren ibilli biar dogu burruca vici ta guerra betico baten gueure arimaco arerio guztia-caz, ceintzu eragotzi gura leusqueguben Ceruco sarrerria.

- 47
- I. *Eta ceimbat Eleisa dira?*  
 E. Ezta orregaiti bat baño, bada iru parte, edo zati onèc batuten dira euren artian caridadez, edo Jesu Cristoren irabaci, ta mercimentubetan dauquen partiltasunian.
- I. *Badauque cer icusiric Santuben eguite onetan pecatu mortalian dagozanac?*  
 E. Bai; cerren Eleisiaren bitartez artu daruez pecatutic urteteco biar dirian laguntasunac, alan barruco nola aguiricuac.
- I. *Ceintzuc dira barruco gracia, edo laguntasunac?*  
 E. Dira Pecatariac daucazan viotceco quezca, naigabe ta garraztasunac, adimentuco arguibidiac pecatubaren ezaintasun, ta caltiac ezagututeco, ta barruco icualdi, edo golpe batzuc Jaincuagana biurtuteco.
- I. *Ceintzuc dira azaleco, edo aguirico laguntasunac?*  
 E. Dira sermoiac, ta Sacramentu Santubac.
- I. *Pecatuban dagozanac celan artu leiquez laguntasun orrèc, ezpada dira Jesu Cristoren, ta Eleisiaren alderuntz arbola bateco adar igartubac leguez baño?*  
 E. Eztira parte viciac, eguia da; baña badira parte gorputz Eleiscuan, ta pecatubaz illic egonarren, beti dagoz batubac Jesu Cristo, ta bere Eleisiaz.
- I. *Celan izan leite ori?*  
 E. Fediaren, ta Esperanciaren bitartez, ta onèc galdu ez daruaz pecatubac.  
 2. Ecarten deuselaco obediencia aguirico bat Eleisiaco Buru, ta beste Arzainai.  
 3. Dauquelaco escubidia Eleisaco Sacramentubetara.
- I. *Cein da amargarren Articuluba?*  
 E. Pecatuben parcacinoia.
- I. *Cer esan gura cenduque verba orreecaz?*  
 E. Esan gura dot, Jesu Cristo gure Jaun maitiac emon deutsalac Eleisiari escubide, ta indarra pecatu mueta guztiac parqueta-co.
- I. *Celan parquetan ditu Eleisiac pecatubac?*  
 E. Sacramentuben bitartez.
- I. *Eta badago pecatu ain ezainic, cein da parcatu ecin leiquian Eleisa Ama Santa onèc?*  
 E. Ez, bada guztiac parcatu leiquez, baldin juaten bajaco Pecataria biar dirian prestaera, edo disposicinioiacaz.
- I. *Eta cer prestaera esquetan deusa?*  
 E. Eldu daquiola viotceco damuari bategaz, ezaguturic izan dala Seme gaisto bere Echetic aldendu, ta igues eguinda bide oquerretan ibilli dana. Jarri dedilla guero bere Ministruaren oñetan

misericordiaren esque, ta bere utseguinac artez autorturik, artu daguiala asmo barri, ta sendo bat aurrerancian seme ona le-  
guez egoteco bere guraso Eleisa, ta Jesu Cristoren aguimpetic  
aldeguin baga.

- I. *Cein da amaicagarren articuluba?*  
 E. Araguiairen Viztuera edo Erresurrecinoia.  
 I. *Cer adierazo gura cenduque verba orreetan?*  
 E. Munduba danetic, ta azqueneraño izan, ta izango dirian guiza-  
cume guztiac egun baten viztucio diriala; au da, urtengo dabèla  
dagozan toquitic euren arimacaz batuta, juateco Jesu Cristo  
vici, ta illen Aguintariaren aurrera.
- I. *Cetaco viztucio dira illac?*  
 E. Euren eguite on, edo deunguèn sari, edo castiguba gorputz, ta  
arimetan artuteco.
- I. *Celacuac izango dira orduban artucio ditugun gorputzac?*  
 E. Gueure vicitzan euqui guenduzanac eurac.
- I. *Mundu onetan gorputceco oquertasun edo utsen bät euquenac,  
vitztucio dira Ceruraco lengo oquertasunacaz?*  
 E. Ez, gorputz zorionecuac euco ditube perfeccinoe, edo edergarri  
asco, ta lengo guztiac. Eta alan ichubac, ta begui bacoachac viz-  
tucio dira begui eder ta arguitsu bigaz, errenac oin zucena-  
caz.
- I. *Bada celan dino Jesu Cristoc, obago dala Ceruban begui bategaz,  
edo errenic sartutia, Infernuban begui, ta oin biacaz baño?*  
 E. Eztau Jesu Cristoc esan gura, alan jazoco dala, ezpada alan ja-  
zoco balitz bere, obago dala Cerura juatia; cerren izango litu-  
que emèn norc beguiac, ta oiñac emon.
- I. *Gorputz guztiac viztucio dira era, edo modu baten?*  
 E. Ez; eguia da, dirianac viztucio diriala ez gueiago illteco; baña  
gaistuen gorputzac viztucio dira infernuco suzco lezan erre, chi-  
mindu, ta gardostuteco, ta justuben gorputzac beti zorione-  
cuac izateco.
- I. *Cein da Credoco azquenengo articuluba?*  
 E. Beti iraungo dabèn vicitzia.
- I. *Cer esan gura dozu orregaz?*  
 E. Esan gura dot, viztuta beriala, izango dogula inoz amaituco  
eztan vicitza bat.
- I. *Celacua izango da vicitza au?*  
 E. Atseguñez, ta gozamentuz betia onentzat, ta nequez ingurau-  
ba deungaro vici izan dirianentzat.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetati?*  
 E. Sarri confesau; baña ondo pretauta, eguiaczo penitencia bate-  
gaz parcatu deiguzan Eleisiac Cristoren ordez gueure utseguin,  
edo pecatubac.



## **BIGARREN PARTIA**

### NUN AGUERTUTEN DIRIAN CRISTINAUBAREN EGUINBIDIAC, TA BAITIO (SIC) SANTUBAC EZARTEN DEUTSAZAN OBLIGACINOIAC.

#### ***Jaincuaren amar aguindu, edo Mandamentubac***

- I. *Ceintzuc dira Christinaubaren eguin, edo obligacinoeric enzunenac?* 49
- E. Pecatubari igues eguitia, ta virtuteco bideari jarraitubaz gauza guztiac artez, ta ondo eguitia.
- I. *Cer eguin biar da pecatubari igues eguiteco?*
- E. Beguien aurrian euqui Jaincuaren aguindu, edo Mandamentubac.
- I. *Norc ichi euscutzan orreec?*
- E. Jaincuac berac Moisesen bitartez Judatarrei Mendi gañeti bialdu eutsezanian, ta guero Jesu Christoc berac ontzat emon cituban, ta aguindu eban eracutsi ta gorde citezala.
- I. *Cer aurquietan da aguindu orreetan?*
- E. Gure eguinbide, edo obligacinoeric biarrenac Jaincuaganuntzco, lagunaguntzco, ta gueganuntzco.
- I. *Gorde daiqueguz Jaincuaren aguindu guztiac?*
- E. Bai, ta erraz bere laguntasun, edo graziaz: Cerren ezteuscu aguinduten eguin ecin daiquegunic; ta bere aguindubac eztira ain astunac, cein da jaso ecin leitezan. Alambere escatu biar deutsagu sarritan bere gracia, ta laguntasun au, ta ucatuco ez deuscu gueure aldeti aleguiña eguin ezquero.
- I. *Cer sari icharaten deutsa aguindu santu onèc artez gordetan ditubanari?*
- E. Mundu onetan Jaincuaren bedeincacinoia, ta guenian Ceruco atseguintasun zoragarriac.
- I. *Eta cer icharaten deutsa ardura бага austen ditubanari?*
- E. Baldin pecatu mortal eguiñaz austen baditu, mundu onetan Jaincuaren Madaricacinoe, ta areriotasuna, ta guenian inoz amairic izango eztaben suleza, edo infernuba, penitencia eguiten ezpadau.

- I. *Cer atera biar dogu gauza oneec enzunda?*  
 E. Gomutau sarri, batiatu guinianian esan jacuna. Beguira, baldin gura badozu betico vicitzan sartu, gorde contuz aguindu, edo Mandamentu Santubac.  
 2. Ez ausi bat bere: bada baten utseguin daruanac, dirianetan utseguiten dau moduren baten, dirauscu Apostolu batec.

*Lenengo icasbidia*

*Jaincuaren lenengo Mandamentuba.*

- 50 I. *Cein da Jaincuaren lenengo Mandamentuba?*  
 E. Jaincua Maite izatia gauza guztien gainian.  
 I. *Cer aguinduten jacu Mandamentu onetan?*  
 E. Bera bacarric adorau daigula, ta eracutsi daiogula beste gauza guztiei baño amodio, edo maitetasun gueiago.  
 I. *Cer da Jangoicua adoretia?*  
 E. Da berari Jaun bacarrari leguez zor deuntsagun onra, ta mempetasuna ecartia, ta biurtutia.  
 I. *Celan adorau biar dogu Jangoicua?*  
 E. Barrutic, ta aguiritic, edo gorputzaz, ta arimiaz.  
 I. *Celan adorau daiquegu barrutic, edo arimiaz?*  
 E. Biotz onetic bere buruba Jaincuari opetsiaz, edo sacrificau-baz.  
 I. *Celan adoretan da Jangoicua aguiritic, edo gorputzaz?*  
 E. Bere gorputza umiltasun andi bategaz ezarriaz, nola dan lurrrian auspaztubaz, belaunico jarriaz, ta buruba beruntz macurtubaz.  
 I. *Baucagu Jangoicua adoretaco obligacinoeric?*  
 E. Bai; bada berac aguinduric ichi dau sarri, ta lecu ascotan, cerringan dan gauza guztien Jaun ta Nagusi bacarra, ta gañe-cua.  
 I. *Noz gueien adorau biar dogu Jangoicua?*  
 E. Chito sarri; baña batez bere goisian jaguitian, oera guazanian, Eleisan sartzeian, ta Jaiegunetan.  
 I. *Eguizu adoracinoeco acto bat.*  
 E. Neure Jangoico ona; nic adoretan zaitut viotz guztiaz, ta zazaudaz neure Eguille, ta Jaun bacartzat.  
 I. *Cer atera biar dogu icasbide onetati?*  
 E. Gomutau eguiazco adoratzalliac, adoretan dabela Jangoicua viotzaz, ta barrutic; ta gorputceco umildancia, ta adoracinoiac utsac, edo alperrac diriala arima deunga bateti urteten bada-be.  
 2. Jangoicua adoretia esan gura dabela, celan beti prest egon biar dogun, gauza guztia sacrificau, ta istera Jangoicuaren gloria, ta vorondatia bitartian jarri ezquero.

de nuestra lengua. Los dolos. Quanto es congnosido,  
esta es que se diga sobre otros libros que congnosce  
como el referido. No se ve por eso congnoscer otra  
una una de que la lengua barongada esta tan abe  
rada, y desfigurada que no la congnosca la madre  
que la formo. Si reconocian los antiguos barongada  
no la entendian, tan otra esta al presente. A cada  
barongada se hallamos tan atarcados, que no  
podemos dar con varios significados legaciones.  
Los libros predicadores se descabexan, y se ven otros  
tan apurados, que aun a costa de mucho trabajo  
apenas pueden tomar un termino lo mas de el libro  
de bononur, y barbazumax. Asi nos quiron probar  
nuestra lengua, como tan enmarinado, que no la  
entendian aun los naturales, pero que naturales?  
Predicadores, y libros de gran entendimiento, y  
gusto. Los autores de estos terminos de un libro  
solo tanta congnosca, como hallan necesidad

**Aguindu onèn gainian ostera.**

- 51 I. *Lenengo Mandamentu onetan eragozten ete jacu, Ainguerubac, ta Santubac onretia?*  
 E. Ez; cerren onei ecarten deutsagun onriac, ezteutsa calteric, edo bidebagaric eguiten, ta ez guichitu bere Jaincuari zor deutsaguna.
- I. *Celan onretan dira Santubac?*  
 E. Jaincuaren servitzari, ta adisquidiac leguez.
- I. *Adorau biar da Ama Virginia, (Jangoicua leguez)?*  
 E. Ez; cerren bacarric Jangoicua dan adoragarria (bere moduban)
- I. *Celan ori?*  
 E. Cerren (onelango) adoracinoia dan beste bati emoten jacon ezagutza bat, Jaun, ta Nagusi bacarrari leguez, ta Ama Virginia, ta Santubac eztira gure Nagusi ta Eguilliac, ezpada guleguezco Jaincuaren criatura ta Servitzariac.
- I. *Eta onrau biar dogu, adorau ez arren, Ama Vigina guztiz Santia beste Ceruco Santu ta Ainguerubac baño gueiago?*  
 E. Bai; cerren dan Jesu Cristoren Ama, ta beste Santu guztiac alcartuta baño bere, gloria, ta virtute gueiago dabena.
- I. *Eta Ama Virginiaz osterancian, cer santuri euqui biar deutsagu devocinoeric gueien?*  
 E. Gueure Aingueru Jaola, edo Guardacuari, Eleisetaco Patroe, edo Bitartecuai, ta gueure icenecuai.
- I. *Ondo da Santubai escabidiac eguitia?*  
 E. Bai, ta valiotasun andicua; cerren bitarteco jarriric Jaincuaren adisquide andiac leguez, jaretsi, edo alcanzau leique mesede, ta ondasun asco.
- I. *Cetan aguertu biar dogu gueien Ama Virgina, ta beste Santubei ecarribiar deutsegun onria?*  
 E. Euren oñatseti ibiltian, ta gueure biar ordu, ta euquiezetan la guntasuna escatutian.
- I. *Celan onrau biar dira Santuben azuzquiac, edo erliquiac?*  
 E. Santubac eurac leguez; cerren dirian Espiritu Santubaren templo, edo egoteguiac izan cirian gorputcen ondar veneragarriac.
- I. *Eta onrau daiqueguz santuben irudin, ichura, edo imagiñac?*  
 E. Bai; cerren dirian Jaincuaren adisquide batzuben irudinac.
- I. *Celan onrauco ditugu idolatriaco pecatu baga?*  
 E. Bacarric onraubaz imagina aetan irudinduta dagozan Santubac, ta ez imaginac eurac: bada eztira zur zati, ta guizonen escubetaco eguinac baño.
- I. *Escatu, edo oracinoe eguin biar jaque imaginai?*



- E. Ez eurai; baña bai euren bitartez euretan irudinduta dagozan Santu ta Santei.
- I. *Celan bada jarten gara belaunico irudin, edo imagina onen aurrian?*
- E. Cerren euren bitartez onretan ditugun gogora eracarten deus-cubezan Santubac, ta euren virtutiac. Lurreco Erregue baten irudiñari ascotan quendu jaruaco chapela, ez zur, eun, edo papel zati bat dalaco, ezpada cerren irudintuten daben Erregue bera.
- I. *Celan utseguiten da Jangoicua bacarric ez adoraubaz?*
- E. Iru aldetara: au da, idolatriaz, lotsia gordezaz, ta superstizinoez.
- I. *Celan utseguiten da idolatriaco pecatu icaragarriaz?*
- E. Jaincuari berari baño zor ez jacon adoracinoia norbaiti emonaz. Onetara utseguin darue Gentil ichubac eguzquia, irarguia, ta beste gauzaren batzuc Jangoicotzat arturic, emoten deutsezanian adoracinoe bidebagacuac.
- I. *Celan eguiten da pecatu erresetua gordezaz?*
- E. Jaincuari opetsi, edo consagrauta daguana ondo ezdirudien gaucetan erabilliaz, nola izango litzatian caliza consagraubaz lurrero (sic) edarien batzuc artutia Baltasar Babiloniaco erre-guiac leguez.
- I. *Celan eguiten da pecatu superstinicoez?*
- E. Eleisiac ontzat emonda eztaucazan verbaren batzubetan, edo beguiracune utsetan, ta amesetan icharapen, edo uste osua ifiniaz.
- I. *Beraz pecatu andia eguingo dabe euren moduco verba, edo itaune batzucuz uste dabenac gaisuac osatuco ditubela; baita pañuelo, edo zapiren bat bialduta aguinetaco minac, ta beste gachac quendu guraric dabiltzazanac?*
- E. Bai, eta chito andia; cerren verba modu, ta eguite orrelacuac eztauquen eurenz indarric gachac osatuteco; barriz Jaincua eztabil premia бага mirariac eguiten; batez bere orrelaco sorginquerietan dabiltzazan guizon alper, ta atso zantarren bitartez, ceintzuc gueinetan dirian euren echeai beguiratuten ezteutsenac ta alperrieriari ondo erechita bateric bestera dabiltzazanac.
- I. *Cec bada sartu daruaz asmo orreetan?*
- E. Diabrubic, eurac igarri ez arren; bada gura leuque Jesu Cristoren arerio amurratu onec gueure Eleisaco bedeincacinoe Santubac despreciauric, berac sartu Cristinau artian bere as-moco batzuc, onac dirialaco achaquiaz.
- I. *Cer caltetzuc etorri oi dira bide deungaco osatu gura oneeta-ti?*

- E. Chito asco; Beinic bein, beste erremedio, edo osagarri onac artu nai ezтира, bedeincacinoiacaz osatuco dirian ustian. Guero sartcen dira, Jaincuaren Ministruai escubidiac artuten, ceintzubei bacarric jagoquè bedeincacinoiac eguitia. Onez gañeti, darabille nascarri, edo embusteru onèc generic gueiena engañauric, milla guzur esanaz; ta dana da eurac ateretan dabèn provechuba gaiti.
- 53 I. *Beraz echaquè sinitzeric (sic) emon biar saludoren naste, ta bedeincacinoai?*
- E. Echaquè ez sinitzeric, ez enzuteric emon biar, batez bere Obispo Jaunaren gura, edo licencia бага badabiltz euren moduco bedeincacinoe guiñen. Eta gure euscalerrietan dacuscuzunac (sic) ibilli oi dira euren burueraz.
- I. *Eta cegaiti enzuteric emon biar ez jaquè?*
- E. Cerren euren bedeincacino eta guzti bere, dacuscuzan illten amurraturic chacurrac, idiac, ta abere asco. Eta onegaz guzurtaubac urteten dabe euren esquini segurucua.
2. Cerren eguin daruezan sorguinqueria, ta supersticinoe asco, nola dirian arnasa botatiac, curutce bat artu, ta abere, ta echecuetara bedeincacinoiac ezartia, gente zorua belaunico jarriric, Sacerdote bati jarrico ez lichaquiozan leguez; ogui bedeincatutia, ta ogui au jan eraguitia cristinaubei, ta aberiai, esanaz, eztabela amurratuco à jan ezquero, ta urdindu-co bere eztala urte ascotan egon arren.
- I. *Nor dabil naste oneetan?*
- E. Diabruba lenengo, ceinec aztu eraguin gura lituquian Eleisaco bedeincacinoiac. Ezpabere itandu biar jaque, norc emon deutsè guizon zantar orrei oguia bedeinetaco escubidia, ta esorcismuac eguitia, arnasac botiaz? Bildur naz oquer eguin daruezala curutciac. Eta cer pecatu icaragarriagoric.
- I. *Cer da gauza oneetan gueien zurtu biar gaitubana?*
- E. Gente nequezaleric gueienac ez sinistu gura izatia onetan Sacerdote, ta Predicadoriari, ceintzubeo ondo daquie, ta eracusten dabe esan ditugun bedeincacinoe contubac ez diriala bide onecuac. Baña Jesu Cristoren aurrian emongo dabe contu estuba, ez sinistubaz bere Ministruai, ta gueiago icharanaz, edo fiaubaz guizon zatar, ta biarbada edale batzuben bedeincacinoietan, Eleisacuetan baño. Nic daquidana da, Ocosias Erreguari costa jacola vicitzia bere gaiso demporan zucenduzalaco Aztu, edo igarla guzurtietara, ichiric Jangoicuaren Guizonai. Orregaitic esa eutsen Elias Profeta Santubac Erregue onen Seruitzari, edo Morroiai: zuaze echera, ta esaiozu ceuben ugazabari niri (sic) partez, eztala daguan lecutic gueiago jaguico, ce-

rren euquiric Israelen Profeta eguiazco nori itandubac, zucendu dan Aztu edo Igarla diabruzcuetera. Espiritu Santubaren eguia da au.

- I. *Cer eguin biar dau Cristinau batec gauza onetan?*
- E. Ez sinistu atso contu, ta sorguinqueriai.
2. Gach, edo minen bat jatorcunian ichi bedeincacinoietaco erremedio, edo osabidiac, ta billatu bide onecuac; ta besteric ecin danian, escatu Jaincuaren Ministro bati, iracurri daiguzala evangelio Santubac, eta onena da, eguin azterri, edo beguiracune bat concienjian, ta aurquietan bada peccaturen bat, atera contu, andic jatorcula gacha. Confesau laster, ta osteraz ez jausteco goguaz, deungagoren bat jazo eztaquigun Jesu Cristoc dinuan leguez. **Noli amplius peccare, ne aliquid deterius tibi contingat.**
3. *Sèn (sic) edo idiren bat gaisotuten bada, ez inoz pensau beguizcua dabela, bada beguizco contuboc atso ipuinac dira, ceintzubei jaquitunac barre eguin daruaquen.*
4. Bota, edo urristau eche aldeti saludore duazanac, ta ez bildurtu, onec esan aldaiezan gauzaac gaiti. Onetara eguiten dabe, beguiac edegui ditube nequezale ascoc, ta echaquè amurracinoeric jazoten; garau gueiago dauquè euren echeetan, ta concienziaco quezca guichiago. Cura Jaunac eguin biar dabe aleguiña euren Eleistarrai beguiac edeguiteco, quendu ditezan nequezalen arteti milla engañu, ta supersticinoe.
- I. *Cein da Jaincuaren lenengo Mandamentubac aguinduten daben bigarren gauzia?*
- E. Da Jaincua osoro, viotz guztiti, ta indar guztiacaz amau, edo maitatutia.
- I. *Cer eguin biar da Jangoicua osoro ta aleguin guztiaz maitatuteco?*
- E. Biar da maitiagi izan bera, beste gauza guztiac baño.
- I. *Cer eguin biar da orretaco?*
- E. Maitatu Jangoicua Munduco ondasun guztiac baño gueiago, gueure Senide, Adisquide, ta burubac baño bere gueiago.
2. Eguin gauza guztiac berari atseguin emoteco asmuaz, ta igues eguin Jaincuaren ofensac dirian lecu, bide, gauza, ta lagunetati.
- I. *Cer eranzun biar jaque esan daruen Cristinau ascori Jangoicua maite dabela, ta peccatutic urten gura eztabenai?*
- E. Eranzun biar jaquè, obra, edo eguinetatic aguirri dala amodiua, ta ez verba onetati: erraz dala esatia auaz, ametan dot Jangoicua, besteric biar ezpaltitz bera ametaco. Onelacuac gaiti dino

Apostolu batec. Badira auaz autortu, edo confesetan dabènac Jaincua, baña ucatuten dabeela eguinacaz.

- I. *Cein da Jaincua maite izateco sustrairic senduena?*
- E. Da bere aguindu santubac artez, ta osoz gordetia. Ezpada esan begui edoceñec, cer maitetasun, edo amodio euquico jaco norbaiti, baldin bere aguindu, edo gurariric eguin gura ezpadogu? Guzurti andi bat da, dino San Juan Evangelistiac, esan daruana ametan dabela Jangoicua, bere aguindubac gorde baga.
- 55 I. *Cegaz valiauco gara Jaincua ametaco?*
- E. Gomutaubaz lenengo, bera dala ontasun guztien iturria, ta chito maitagarria.
2. Dala gueure Aita, berac gueure izatia emon, zaintu edo irauin eraguin daruagulaco.
3. Beti diardubala, guri oneguiten, ta sarritan adierazoten deuscula, cein ona dan, batezber bere adisquide, ta maitatzallentzac (sic).
4. Bere atseguinic andiena dala, guc bera maite izatia, gure viotcetan atseretia, ta gu zorioneco eguitia.
- I. *Jangoicua duin, edo gueiago beste gauzaren (sic) maite dabenac, gordetan dau lenengo aguindu, edo mandamentu au?*
- E. Ez, eta da Jaincuari emon daquiogun naigabe, edo injuriaric garratzena.
- I. *Cetan igarrico deutsalgu, Maite dogula Jangoicua gauza guztiez gañian?*
- E. Igarrico deutsalgu, baldin prest bagagoz lenago gueure ondasun, ta gueure vicitzia galdutera, Jaincuaren gracia, ta adisquidetasuna baño.
2. Bere vorondatiaren quiñu batera zain bagagoz pozarren ozta, ta laster bere gurarico edocein gauza eguiteco.
- I. *Noz, eta ceimbat bider eguin biar dira amodiozco acto, edo eguicaiac?*
- E. Guichienez gueure adimentu argui, ta ezaguerara elduten garianian.
2. Eriotzaco zori, edo peligruban aurquietan garianian.
3. Jaincuaren contraco, edo bere aguindu santuren bat auste-co arriscuban dacuscunian gueure buruba, baldin beste bitartecoric ediro cein badogu.
4. Eta gueure vicitzan chito sarri. Ceimbat bider izan biar daben, eztabe oraindino ciur ebagui jaquitunac. Alambere beguira cer dinuan Jaquituriaco iturria dan Jangoicuac. **Amauco (sic) ceure Jangoicua arima, viotz ta indar guztiacaz. Eztituzu inoz aztu biar verba onèc ta eracutsico deutsezu ceure Seme-Alabai. Beti goguan erabilli biar dituzu, dala iratzaz-**

rriric, edo lotan zagozala, dala jarriric, edo zutinic, echian, edo campuan. Au dinuanac, adierazo gura dau San Bernar-doc aitu, ta guero cinuana: Jaincua ametaco neurria dala, neurribaga ametia.

I. *Beraz asco (sic) eguin darue pecatu mortal Jaincuaren acto amodiozcuac ez eguiñaz?*

E. Bai, baña guztiz urte osuac pecatuban igaro daruezan Cristin-au errucarriac; cerren ecin batu leite caridade, edo oneretsi eguiazcoric pecatu mortalaz.

I. *Cer gueiigo eragozten jacu aguindu santu onetan?*

E. Eragozten jacu lurreco Criaturen amodio ichu ta gueiegui guztia.

I. *Eztitugu bada maitatu biar Jaincuaren Criaturac?*

E. Bai berez, ta bide onez; eta laguna maite eztabenac, eztau maitte Jaincua bera, ceinen anzera, edo irudira eguina dan. Baña eztitugu amau biar, Jaincuari amodiua guchitubaz; eta alan urrindu, ta gorde biar gara edoceinegandic, gueure gurasuac balira bere, baldin eragotzi gura balebe Jaincuaren amodiua, gauza deungaren bat eraguin guriaz.

I. *Ceimbat amodio modu, edo mueta dazauguz?*

E. Bi: batari dericho ondo guraco amodiua, ta bestiari gueure oneco amodiua. **Amor benevolentiae et amor concupiscentiae.**

I. *Cer da ondo guraco amodio, edo maitetasuna?*

E. Da ametia Jangoicua gauza guztiez gañian berez ona, ta maitagarria dalaco, beste gauzari beguiratu baga.

I. *Cer da gueure oneco amodio, edo oneretsia?*

E. Da ametia Jaincua, guretzat ona dalaco, edo cerren mesedez bete garuazan.

I. *Ceimbat modutacua da oraindino Jaincuaren amodiua?*

E. Beste bitacua. Bata da amodio samurra, senticorra, ta aguiria, eta bestia da amodio issilleco, edo viotz barrucua.

I. *Cer da amodio samurra, edo aguiria?*

E. Da Jaincuaganaco, ta bere gauzeetaraco artu daruagun berotasun, edo movimentu vici bat, ceñegaz isioten garian, bere vorondatia beti, ta pocic eguitera.

I. *Cer da amodio isilleco, edo viotz barrucua?*

E. Da alaco berotasun, edo gar baga barruban daucagun prestacuntzia lenago vicitzia emoteco, Jaincuaren vorondateari jarqui baño.

I. *Cein da maitetasun oneen artian onena?*

E. Ezta erraz igarten: bada ascotan viotz otza dirudian baten e-gongo da amodio cinduagua, ta zoliagua, negarretan urtu oi dan viotz senticor, edo samur baten baño.

- I. *Celan adieraco da ori?*
- E. Irudin, edo bardintza onegaz. Daigun, Ama batec daucazala Seme bi, ta bata Nagustuba edo eguingo danecua: ta bestia chitarra, edo pardeletan daguana. Icusico dozu, celan ama onec arturic bere seña bular artian gozaro, esaten deutzazan milla verba zorò: gabaz lua galerazoten badeutsa bere negarracaz, guztia darua pacienciaz. Eta dempora onetan, ozta daqui dabèn edo ez beste semeric. Baña ill daquiola Seme Nagusia. orduban dira negarrac, ta naigabiac. Orduban ule tiracac, ta auspaz etcindaco illetac. Lenenguan usteuquian, andiago zala, seinchubari eutsan amodiua, agui riagua, edo samurragua zalaco. Baña guero aguertu zan, amodio cinduagua, ta zoliagua zala Seme Nagusiari cutsana, ezcutubagua bazan bere. Beste onembeste jazoten da Cristinau on ascoren viotcetan.
- I. *Celan eguiten da amodiozco acto bat?*
- E. Neure Jangoico maitia, ametan zaitut gauza guztiez gainian, ta viotz osuaz, ta lenago galdu gura dot neure vicitzia, zu ofendiu baño: cerren zarian ain ona, ta maitegarria.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetati?*
- E. Gomutau sarri gueure Jaincuaz, ta ez aleguinaz orduric igaro, bere gomutaren bat euqui baga.
2. Ez ichatsi viotza lurreco gauzatan, ta aurretic erabilli, Jaincuaren amodiozco sustraia dala, bere esanac, edo aguindubac eguitia.
3. Esquini viotz guztia Jaincuari, ceñentzat guichi dira Ceruco Santu, ta lurreco guztien viotzac bere.

### ***Bigarren icasbidia***

#### ***Jaincuaren bigarren aguinduba***

- 57 I. *Esaizu bigarren aguindu, edo Mandamentuba.*
- E. Ez juramentu alperric eguitia bere icen Santuba deungaro erabilliaz.
- I. *Cer eragozten jacu aguindu onetan?*
- E. Eragozten jacu, lenengo, juramentu alperria edo biar eztana. 2. Blasfemia. 3. Biraua. 4. Maldicioia, edo ernegu verbac nori bait ezartia.
- I. *Cer da Juramentuba?*
- E. Da Jaincua testigantzara ecartia, gauzaren bat siniserazoteco.
- I. *Ceimbat era, edo modutara ecarri leite Jaincua testigutzat?*
- E. Bitara; bata artez, edo arguiro, bestia albotic, edo ciarretarra.
- I. *Celan ecarten da artez testigantzara Jaincuaren icena?*

- E. Aitatuten danian Jaincuaren, edo Jesu Cristoren icena: nola da esatia, Jaincuagaiti, (*Hemen lerro bat dago ezabatua*: berac daqui ondo, au edo bestia, onela, edo alan dala), Jesu Cristo izango da testigu, curutce onegaiti Jaincuac salvau ez naguiala, ta beste onelango esaquera batzuc.
- I. *Celan ecarten da testigutzat ciarretara?*
- E. Jaincuaren escubetaco eguite, edo Criatura nagusiac gaiti juramentu eguiten danian, nola dirian Cerubac, lurra, eguzquia, arimia, ta beste batzuc, ceintzubetan aguertuten dan Jaincuaren peccinoe, edo edergarriren bat.
- I. *Ceintzuc eguiten dabe juramentu utsian, edo alperric?*
- E. Guzurraren ganian eguin daruenac.
2. Eguia izan arren premia бага, edo eceri ezdagocala eguin daruenac.
3. Biar eztan leguez, gauza deunguia eguiteco verbiaz eguiten dabènac.
- I. *Cer pecatu izango da guzurraren gañeco juramentuba?*
- E. Da pecatu mortala chito icaragarria. Eta pecatu chiquinagua da, caliza, ta Patenac Eleisan ostutia, guizonen bat illtia, ta Andracume ezcondubaz pecatu eguitia, juramentu guzurrezco bat baño.
- I. *Cegaiti ori?*
- E. Cerren guzurtauric ichi gura leuque onelaco juramentuguilliac Jangoico eguia bera dana: eta cerren valietan dan bere icen santubaz, ceñ enzunda icaratuten dirian Diabrubac, eztan gauzaren bat sinserazoteco.
- I. *Eta cer eguin darue Justiciaren aurrian guzurrezco juramentuba eguiten dabeenac?*
- E. Guichienez pecatu mortal andi bi, bata justiciaren, ta bestia Religinoiaren contra.
- I. *Eta cer eguin biarco dau iñori calteric etorri bajaco, gueienian etorten dirian leguez?*
- E. Ecin salvauco da, paguetan ezipaditu nori nai etorri jacozan calte, edo bidebaguiac, dala honran, dala ondasunetan, Escrivau, ta Juscitiac eruan dituben dirubetan. Errazto billatuco dau onelango juramentuguilliac confesore jaquintsu bat, esan daguion cer eguin.
- I. *Eta Jauna, cer egingo neban, esan darue, adisquide batec orretaraco verba eguin beustan, ta bestela presondegui, edo carcelan sartuta galduco beeben?*
- E. Eztabe aquiacula, edo achaquia orrec ecer valioco Jaincuaren aurrian: bada lenago da, bere icen santuba deungaro ez erabilitia, zure adisquide ori erre, ta urcatutia baño.

- I. *Eta cer pecatu izango da guzur chicarren gañeco juramentu-ba?*
- E. Beti da pecatu mortal andia, ta ascoren ustian andiagua, gauza astun baten gañian eguiten danian baño, eguiten jacolaco Jaincuari bidebaga, edo injuria andiagua.
- I. *Ondo da juramentu eguitia eguiaren gañian, biar orduban, ta biar dan leguez?*
- E. Ondo da, ta onetara juramentu eguiten dabeenac eguin darue Jaincuaren guraco gauza bat, ceñen icena onretan dan.
- I. *Eta cer pecatu izango da eguiaren ganian; baña premia andi bago juramentu eguitia?*
- E. Da pecatu arina, edo veniala, nola dirian jocuan, ta eceberezerquetan gauzaren bat siniserazoteco eguiten danian. Baña ezta pecatu veniala bena izango, baldin gauza astunen baten ceurre erruric eza eracustiarren esaten badozu. Eztaguidala emendic aldeguin, edo Ceruric Jangoicuac emon, orrelacoric eguin baneban, edo jazo bazan. Baña contu: beti eguiaren gañian dala.
- I. *Ceintzuc utseguin darue, biar dan leguez juramentu ez eguiñaz?*
- E. Biar eztan gauzaren bat eguiteco cemaiaz eguiten dabeenac. Nola dan esatia: **Jaincuac salvau ez naguiala, illic gueratu nadi-lla, buruba austen ezpadeutsat, venguetan ezpanachaco.** Esamodu oneec beti dira eurenec pecatu mortalac. Eta eguiten badira juramentu oneec, esquini, edo cematu dan gauza deunguia eguiteco goguaz, dira guichienez pecatu mortal bi: eta badira gogo bago, da guzurrezco pecatu andia.
- 59 I. *Cer eguin biar dau onelaco juramentuguilliac?*
- E. Lenengo Jaincuari parca escatu, ta guero ez eguin juramentubaz esquini eban gauza deunguia.
- I. *Gauza onen bat juramentubaz esquini dabenac, cer eguin biar dau?*
- E. Eguin artez, ta aimbat lasterren aguindu, edo esquini daben gauria.
- I. *Cer da Blasfemia?*
- E. Da Jaincuaren, Santuben, edo gueure Cristinautasuneco gauzaren baten contra esaten dan verba astunen bat; eta da asmau daitian baño pecatu icaragarriagua. Jaincuari esquerrac, gure euscal errietan buruauste guichi emoten jaquè confesoriai onelango pecatubaz.
- I. *Cer da Maldicinoe, edo cema deunguia?*
- E. Da bere burubari, edo besteren bati verbaz esquini, edo opaziatia gauza charren bat: nola dirian esaquera oneec: Diabru-



bac eruan naiela: arren bada eztanda eguingo aldor; viciric etorrico ez alaz; lupu gaistoc jango alau; purgatan artuco aldituc niri galdueraguin deutstazanac; besuac igartuco al jacoz nire matasa, edo tresnaren batzuc eruan deustazanari; neuri opa deustana jazoco aljaco; eriotza onic izango ez aldau; seinguintza gaistoc joco aldau; ta onelango beste plegaria Ceru-lurric icaratuten ditubenac.

- I. *Cer mereci dabe onelaco gaisqui esala escandalagarriac?*  
 E. Ondotic mina atera, ta belenatza batera botatia; ta ez istia Comuninoeco Mai santura urreratuten, euren mingain madaricatubetan lotsari andiaz jarri eztedin Jesu Cristoren gorputz be-deincatuba.
- I. *Cer pecatu da maldicinoiac ezartia, abere, edo guiberriai?*  
 E. Pecatu arina, edo veniala Ugazabaren gorrotoz, ta gaisqui etorri daquion goguaz esaten ezpadira. Alambere eguin biar da aleguina usadio, edo oitura char ori quenduteco; cerren aua plegaria orretara oitu ezquero, igaro leite erraz gueure proximo, edo lagunari ezartera.
- I. *Cer esango jaquè araco guraso gogor euren umiai ezarten deutsezanei?*  
 E. Esan biar jaquè gois, edo berandu ichatsico jaquezala erregu deunga orrelanguac; emon daruela escandaluba echian, ta auzuetan ta ecin absolviuco ditubala Confesoriac eguin gura ezpadabe aleguina, ecandu, edo costumbre ori quentzeco; edo verba onac emonda, bete, edo cumplietan ezpadabe. Espiritu Santubaren esanac dira, Ama baten maldicinoiac galdu daruazala echeco cimentubac; esan gura dau, ecarten deusela erioztzia euren Seme-Alaba guztiai; ta eztala faltaco negarra, ta naigabia onelacuen echeetan. San Agustinec dino, bere egunetan Ama batec ezarri eutsela maldicinoe bat bost edo sei semeri; ta cirianac artu citubala gorputz guztico dardara, edo icara andi batec, ta urtebela munduric mundu limosna esque, beste gurasuac bildurtu citezan.
- I. *Cer eranzun darue onelaco maldicinoe ezarlac?*  
 E. Ez euquela intencinoe charric; beriala garbatu jaquela, ta eguinalac eguin arren ecin quendu dabela oitura, edo costumbre deunguia.
- I. *Eta valioco dabe Jesu Cristoren aurrian asesinoe, edo achaquia oneec?*  
 E. Ez; bada isillic dagan leguez euren intencinoia, beti emon darue escandaluba enzuten dagozanentzat; ondo da, deunga eguina garbatutia; baña eguina, eguina da. Barriz eztago ecin eguinic benetan gura dabenarentzat, ta jazoera, edo egemplu

barregarri onegaz beguiac edeguico dituzu.

Eldu zan bein Confesore baten oñetara Erregue guizon, edo Soldau capitan bat, ta confesau eutsan beste pecatuben artian, eucala maldicinoiac ezarteco oitura, edo usadio charra. Itandu eutsan Confesoriac, ceimbat dempora da, oitura ori daucazula? Asco Jauna; anchinaco usadio zarra dot. Aibat deungaro esa eutsan. Zauri zaartubac neque (sic) osatu oi dira. Eta cer penitencia eguin dozu? Eguin ditut, Jauna, eranzu eutsan, agindu deustezan errezubac. Eta besterik ez? Ez Jauna. Errezubac onac dira; baña eztira asco, arimaco gach (sic) guztia osatuteco. Zu, neure Semia, dempora orretan guztian vici izan zara obasun, edo emienda бага, deungaro confesetan ciniala, ta condenacinoeco peligru andietan. Eztago zu salvetaco beste bideric, ezpada eguiazco penitencia, Confesinoe general on baten bitartez.

Orduban beregana biurturic Soldauba, esaten deusta, Aguindu begui, gura dabena; baña contu, ez azurric austeco azota, cilio, baru, ta gauza gogorric; cerren soldauba banaz bere eznaigo arma, edo erremienta orretara eguiña. Aguindu begui beste edocein gauza, ta emoten deusat Soldau prestu baten verbia. Asi jacon Confesoria burutic onetara beguiratuten, ta icusi eban, celan ecarren bere sonecua urrezco botoe ederrez beteta. Eta barruban irri barrechubac eguinda asi zan esaten. Ichoc bada: nic quenduco deubac maldicinoiac ezarteco gogua. Ara bada. Zu salvetaco, ez gueiago madicinoeric bota. Ondo dago Jauna. Eta botaten badozu, azurric auste bagaco penitencia eruango dozu. Ori gura dot bada nic bere, cirautsan soldaubac. Gueiago eguiten badozu, maldicinoe baco chagaiti penitencia izango da, lenen topetan dozun pobriari, emon beriala soñian dacartzuzan botoetati bat.

Au enzun, ta Soldau ori zurtuta gueratu zan. **Agur nire botoiac** esateban barre eguiñaz. Cer aguindu deust Jauna? Au icusia dago. **Agur botoiac**: echat garau bat emparauco. Mutil ona guertuco naz, guizon artian urteteco.

Alambere, Jauna, verbia verba, ta aguinduba aguindu. Alperric gueratu (sic) naz botoe бага, cumpliuco dot penitencia. Bere confesinoia amaituta, echera joiala cale estubateti, topau eban Pobre trinquin, edo erren bat, ta celan errenge laster bideric, edo embarazuti quentcen echacon, ernegacinoe, ta aserriaz besotic oratuta esan eutsan, quenaquit emendic milla Demonio, ta ahenacaz. Aotic atara orduco, gomutau, ta contura zan; ta asi zan esaten: Ez neutsan nic igarri cer jazoco jatan? **Agur nire botoe galantac**. Badaquit echera baño lenago bapere

baga gueratuco nasala. Botoe barriac erostia, costaco jat, ta eurac bere eztira seguru egongo. Atera cituban artazi batzuc, ta min emoten beutsan bere, botoia ebaguiric luzatu eutsan Po-breari. Bere bidian joiala asi zan esaten asaiera edo principio onac daucaguz. **Agur nire botoiac.** Baña celan minduten zan galdu biarraz, aserra lecu guztietan ezpanac estututen cituban, ta eceban galdu botoe gueiago. Orra egemplu onetan celan dascusun, eztiriala igaroco Jaincuaren aurrian Jocolari, edale, desonestu, a maldicinoeguilliac emon daruezan achaquiac. Vorondate ona ta obatu gura sendua balego, eguingo gueunque gueure aldeti aleguina; au eguin ezquero, prest dago Jaincuaren gracia, ta quenduco quenduquez sustraiti oitura, edo costumbre zâr, ta gaistuenac.

I. *Ceri esaten jaco Biraau?*

61

E. Icen deungaren bat aitatutiari, edo ezarriaz, edo dei eguiñaz, nolan dirian Diabruba, Demoniu, Añena ta Barrabasa.

I. *Cer pecatu da aserriaz icen orrei dei eguitia, edo aitatutia?*

E. Ezta berez pecatu mortala. Baña esatia sarri guraso batec bere umiari, **ator ona Demonio gaisto ori, Barrabasen Seme ori, Añen alacori**, izango da noz bait escandaluzco pecatu mortala. Cerren umiai emoten jaquè egemplu asco icaratu daruazanac, ta chito deunguia; ta alcarren artian esan darue, **gure Aitac, edo Amac bai eguiten gitubala (sic) biraotzarrac**, ta auzuetarañocuac egon oi dira gaisqui esaca.

I. *Cer esan biar jaque onelango biraoguilliai?*

E. Oitu ditezala Jesusen, ta Mariaren icen gozuac devocinoiaz euren miñian erabilten: eztala negarra, ta miseria faltaco euren echetan, pocic etorrigo jaquèla Diabruba dein (sic) eguin ezquero, ta eztala euren viotcetatic urrin egongo: bada Espiritu Santubac dinuanaz, minetic, edo aotic urten darua viotz barruban daganac.

I. *Cer esango jaquè maldicinoe erneguzcuac ezarten ditubenai: cerren cerbait ostu deutsen, edo abereren batec eguin dituban caltiac gaiti euren soluetan sartuta?*

E. Esan biar jaquè, eztabela caltia quendu, edo deseguingo birao, ta maldicinoiac ezarriaz.

2. Gueratuco dala gorputz, ta arimaco calte biacaz.

3. Eguingo dabela aleguina Diabrubac ostera cerbait ostu darguiuen, edo esiac idiguico ditubala ostera abere, edo guiberriac sartu daquiozan: cerren igarten deutsa, oneec diriala, arimia galduteco bidiac.

I. *Cer eguin biar da bada?*

E. Cerura beguiac jaso, esquini Jangoicuari izan dozun calte, ta

- naigabia, ta esan, eguin dedilla gauza guztietan bere vorondate santuba.
- I. *Cer esango jaquè dinuenai gach бага ezarri ebela madicinaia?*
- E. Ascotan guzorra dinuela: bada guero garbatuarren beinic bein esan daruez aserriaz; ta bildur izateco da, viotza eztala garbia egoten.
- I. *Celan quenduco dogu usadio, edo ecandu deunga au?*
- E. Gomutaubaz, guztioç gariala Jaincuaren ancera, edo irudira eguiñac, ta Jaincuaren irudiric onenari ezarten jacola madaricacinoia guizacumeren bati ezarten jaconian.
2. Goisian jaguita laster escatu Jaincuari laguntasuna, alango verba charric esan eztaigun, ta lurra miñaz garbitu, osteraco gomuta gaitazan.
- I. *Cer da Votua, Esquinia, edo esan daruen leguez **Promesa?***
- E. Da Jaincuari eguiten jacon Esquini bat, obliguetan gariala, eguitera berari atsegin emongo deutzan gauzaren bat.
- I. *Ondo da Promes oneec eguitia?*
- E. Berez ondo da; baña eztira arinegui, edo beguiratu бага eguin biar.
- I. *Cer esan biar da ascoren Erromerietaco Promesac gaiti?*
- E. Gueienez valio eztabela: cerren artu daruezan euren cumplimenturaco piesta egunac, ta euren egoera, ta juañ etorrietan eguiteco milla gaistaqueria Promes achaquiaz.
- I. *Cer aguindu biar jaquè gauza onetan gueienai?*
- E. Eztaguiela inoz esquini, edo promesic eguin, Confesoriaz itundu бага, batez bere gauza astunetan, nola dan voto castidade-cua esaten jacona.

### *Irugarren icasbidia*

#### *Jaincuaren irugarren Mandamentuba*

- 62 I. *Cein da Jaincuaren irugarren Mandamentuba?*
- E. Jaiegunac osoro, ta ciatz gordetia.
- I. *Cer aguinduten jacu aguindu, edo mandamentu onetan?*
- E. Igaro daiguzala Jaiegunac gauza onetan.
- I. *Cer egunetan gorde eruen anchinaco leguian, edo Jesu Cristo etorri baño lenago, Jaieguna?*
- E. Zapatuban, edo Larumbatian.
- I. *Cegaiti alan?*
- E. Cerren egun onetan atsereban Jaincuac bere eguite, ta lanetatic: bada lenengo sei egunetan eguin cituban, bere vorondateco esanaz, mundu onetan dagozan gauza guztiac, ta zazpigarren eguna artu eban beretzat, ta onei dei eguiten jaco **Zapatuba,**

- esan gura dau, Atseren eguna: ez Jangoicua adicatu, edo cansau zalaco, ezpada cerren ichi eutsan gauzac eguitiari. Orra nundic jatorcun asteco egun baten biarric ecin eguiña.
- I. *Cegaitic igaro eban Eleisa Ama Santiac jaiegun au Domecara, edo Igandara (sic)?*
- E. Cerren egun au dan, ceinian viztu zan Jesu Cristo, igaroteco betico descansu, edo atseren lecura.
- I. *Cer esan gura dau Domequiaren icenac?*
- E. Jaincuaren eguna.
- I. *Cegaiti ori?*
- E. Igaro biar dogulaco, Jaincuari atsegin emongo deutsen gauce-tan.
- I. *Cer eguin biar da egun au ondo igaroteco?*
- E. Meza oso bat enzun eguiazco eragozbide, edo errazoeric ezpa-dago. Guero astiro verba eguingo da onen gañian.
- I. *Cer aguinduten jacu ondo igaro, edo santututeco egun au?*
- E. Ez biarric eguitia.
- I. *Cegaitic biar eguingo ezta?*
- E. Cerren quenduco leusquegun demporia Jaincuaren, edo ari-maco gauza, ta lanetan igaroteco.
- I. *Cer adietan dozu egun onetan eragozten jacun biarraz?*
- E. Adietan dot guztiz, nequezaliac euren vizitzia irabazteco eguin daruezan escu lanac; nola dirian jostia, eunetia, gorubetia, achurqueta, ta beste onelaco biar modu edoceñec daquizana-c.
- I. *Cer eranzun biar jaque esan daruen Andracumeai, Jauna, ezto? beste biarric eguin zarrac maniau, edo adobetia baño.*
- E. Eranzun biar jaquè, bardin dagozala debecauta zarren mania-mentu, edo adobaquetac, barrienac leguez.
2. Idoro daiela demporia astegunetan luari cerbait quenduta bere. Eta premiaren achaquia, ta asesinoiac gueienian guzu-rrerzcuac diriala.
- I. *Ondo eguina da jaiegun catigatubetan abarcac jostia, esiac istia, edo zarratutia, burdiac maniatutia, egurretara juatia, ta errotara zorruac eruatia?*
- E. Ezta ondo eguiña: cerren dirian languintza, edo biar debecaubac, edo eragotziac. Alambere esi edeguien bat istia, ganauren bat sar eztedin, beraziaz Jaieguneraco ichi eztanian, ta errota-raco zorrua eruan, edo ecartia, bestela artua, edo oguia faltau-co danian, ezta pecatu izango. Baña garbiro ibilli biar da gauza onetan, ta itandu Confesore jaquintsu bati, cer eguin daiquian, ta cer ez: ta contu escandaluric ez emotiaz. Modu onetan, baldin utstezaca (sic) artua, edo oguia faltau bada Domeca, edo

Astelen goiseraco, ezta pecatu izango, biar dan duin urun eral-guitia, artua eguin, ta erretia; cerren dirian jan gauza, noz, edo noz aurrez, edo lèndic ecin eguin daitequezanac. Baña eztira berariaz ichi biar Jaieguneraco.

- I. *Eta cer eguin leique nescatilla otseguin astegunetan euren zarrac adobetaco ugazabac astiric emon ez daruaquenac?*
- E. Eguin biar dabena da, ugazabai licencia, edo baiduria escatu, edo Jaiegun arinetan, edo afal ostian orduren bat edo beste, biar eguitemo, da emon gura ezpadeutse, ta beste Ugazaba obago bat erraz idoro ecin badabe, eztabe peccaturic eguingo euren tresnac manietan jardunaz. Alambere obeto izango da Jaiegun ascotan isilchuric guichichu biar orrec eguitia, Jaiegun guichitan dempora luciaco, edo ordu ascuaco baño. Baña eguingo dabe Ugazabac pecatu aimbete dempora euren otseguinai ez emonaz.
- I. *Celan eguin darue pecatu Icazquiñac Jaiegunetan biar eguiñaz?*
- E. Eguiten dabe Jaiegun catigatubetan icastoguijay su emonaz, icastoguiac cargaubaz, egur ebaten jardunaz; baño ez, suba emonda daguana zaintubaz, eraguinaz, ta galdu eztedin biar biar dirianac eguiñaz. Beste onembete esan biar da carobien gañian.
- I. *Pecatu izango ete da galebatia Jaiegun debecaubetan?*
- E. Ez, baldin galtzeco peligru andi, ta ezagutuba badago, nola jazo leitian noz, edonoz eguraldi gogor, edo deunga batzubetan. Alambere escatu licencia Errico Cura Jaunari, esanaz cinzoro, celan dan gauzia. Baña gueienian ezta orrelaco peligruric egoten, Nequezale conciencia garbicuac autortuten daben leguez, ta eztago onecc laco teologuric gauzaren batzubetan. Barriz gaztaña batzeian ezta ascoc gura leuquen peligruric.
- 64 I. *Cein da Jaieguneco lanic deungueena?*
- E. Da peccatuba, ta peccatura daicquezan edocein ibillera, ta bide. Bada San Agustinec dinuanaz: baldin gure Jangoicuac galera-zo, edo debecau bacituban biar, edo neque eurenaz onac cirianac, berari egun Santubac opetsi, edo consagrau guenguiozan, ¿ceimbat gueiaco eragotzico ditu gaistaqueria, ta gauza deungac?
- I. *Cer esango da, Meza isil, edo errezaub bat enzun da, egunic gueiena igaro daruenac gaiti alperrarian, jocuan, taberna, edo edalecubetan, ta beste ibillera zoruetan?*
- E. Esan leite ardura baga, eztauquela onelacuac Cristinauben azuzqueric (sic) icenian baño; ta Jaincuaren beguietan eztiriala ondo gordeten egun santubac.

- I. *Nortzuc dira onetan utseguin daruenac?*
- E. Dira Meza (sic) Nagusietatic igues eguiten dabenac, ta biar bada euren Arzain, edo Curen Sermoiaic ez enzutiarren. Onelacuac eztira Jesu Cristoren ardiac: bada iguesi dabiltz bere chistic, ta deietati, ta da galduco dirianen señalia.
- I. *Ceintzuc dira Jai arinac?*
- E. Dira, Meza enzunda, biarrian igaro daiqueguzanac: ta Meza enzun ecin dabenac, eguin leique biarra pecatubaga, ta bardin goisian Meza enzun baño lenago. Eleisa Ama Santiac euqitu errazoe asco, jai catigatuta egozanac librau, edo ascaturteco: ta eguiten dabe chito deungaro, esan darue nequezale ascoc, ori eguin zanetic ona gari, ta arto guichiago arto oi dala. Icusteban Aita Santu Erromacuac inoz baño pecatu gueiago eguiten ciriala jaiegunetan, edo Jaincuaren egunetan; ta obagotzat euqui eban, egun santuren batzubetan biar eguitia, lecu, ta pecatu bidetan ibiltia baño.
- I. *Cer jazoco jaquè Jaiegun catigatubetan biar eguin daruenai?*
- E. Ara cer dinuen gañian, Parisco Concilio, edo Batzar Santuco obispo guztia. Gure arteco ascoc gueure beguiacaz icusi ditugu, ta beste ascoc enzunaz daquiguz, Jaiegunetan biarrian egozan Cristinaubac onastarriacaz illac izan diriala, beste batzubei besuac igartuta gueratu jaquezala, ta ez guichi cerutic jatsirico su vici batec quisquildu, ta auts eguinda ichi ditubala. Jainco ciurrac adierazo dau sarri, ceimbat aserratu daruen, Jaiegunac ez santututiac. Cetan siniserazoco dogu, gariala Cristinaubac? Gauza negargarria! Icharoten dagoz asco, deungaro eguiteco egun Santuben, ta Jaiegunci. Biar egunetan vici dira edolabere aimestian. Betor Domequia, ta orduban dira edate gueieguia, danza zantarrac, bazterretaco joco, ta batzar diabruzcuac. Gomuta gaitezcan, cer cirautsen Jangoicuac Israelgo Semeai. **Odit anima mea Sabbata vestra.** Zuben incenso, erregu, ta belaunico jartiac ecin icusi ditut: cerren nastuten dituzu deungaro eguinacaz.
- I. *Cer eguin biar da bada egun Santu onetan?*
- E. Aldaguenac Meza Nagusi, Vispera, ta Errosariora juan; gaisuac icusi, ta onei lagundu; comulgau euren Confesoriai baderiche; iracurri liburu onac; batu lagun garbiacaz; ta soluac icusiaz alabau euren Jangoicua.

*Laugarren Icasbidia*

*Jaincuaren laugarren aguindu edo Mandamentuba*

I. *Cein da laugarren Mandamentuba?*

- E. Gueure gurasuai biar dan lotsia ecartia, edo onretia.

- I. *Cer aguinduten jacu Mandamentu onetan?*
- E. Gueure gurasoai lotsia gordetia, maite, edo laztan izatia; euren esan, ta aguindu, deungac eztirianac, eguitia; ta euren premia; edo biar ordubetan lagundutia.
- I. *Ceintzuc utseguin darue Gurasuai lotsia ez gordiaz?*
- E. Dira euren gurasuac oneregui (sic), edo desprecietan dituben Seme-Alaba lotsabagacuac, siñu, ta coco eguin daruaquenac, ta euren utseguinac salatu, ta aguertuten dabilztanac.
- I. *Cer pecatu da Guraso bati erremuscada eguitia?*
- E. Izango da pecatu mortala, eguiten bajaco erremuscada astun, ta asco estutu daiquiana. Baña eguiten bajaco guichitan, ta gogortasun baga, ezta pecatu mortala izango. Alambere beti da soberviaren azuzqui, ta señalia.
- I. *Cer juzgu eguingo da Confesoren oñetan onetara acusau oi dirianac gaiti. Jauna, abrigu char bat eguin deuscat gurasuari; eranzun deuscat, ta beguiracune illuna eguinda mormosietan aldeguin neban bere aurretic?*
- E. Eguin biar dan juzguba da, eguin daruela pecatu mortal, baldin igarten badabe, irme, edo asco estutuco diriala gurasuac: baña abrigu, eranzute ta mustur astinquetac arinac, otzac, edo gogortasun bagaac badira, eztira pecatu venialeti igongo.
- I. *Cer eguin biar dabe Umiac Gurasuen cemai, diadar, ta aguiracaz (sic) danzubezarian?*
- E. Badazaube erruba dauquela, gauzaren baten utseguin dabelaco, buruba beratu, ta autortu edolabere euren artian, ondo irabaciric dauquela cemaia, aguiraquia ta zurria. Eta erruric euequi ez arren, esan umiltasunaz: Aita, edo Ama onetara, edo bestera izan zan gaucia, ez neucan erruric; ta badirautse orregaitiño diadarrari, eruan Jaincuaren icenian, ta pecatuben orderaco jazoten jaquena, ta asco irabacico dabè onetara.
- I. *Ceintzuc utseguin darue gurasuac ez laztan izanaz?*
- E. Dira, euren gurasuac igüindu, edo gorretan ditubenac, euracaz vicitzaric eguin gura eztabenac, edo vicitza gaisto emon daruaquenac.
- I. *Nortzuc utseguin darue euren gurasuei obediu ezaz?*
- E. Dira gurasuen aguindubac eguin gura ez, edo gogo gaistuaz, ta urrumuscadaca eguiten ditubenac.
- 66 I. *Beraz chito deungaro eguin darue euren gurasuen vorondate bagaco ezcontzac eguiten ditubenac?*
- E. Gueienetan bai: cerren eztaruaque, ondo beguiratu etorquizunai, ta echeco gauza guztiai, ezpada euren gurari char, ta bidebaguiari, ceintzuc dauquezan ichuturic. Obeto daquie gurasuac, cein dan onena beretzat, ta echeraco. Alambere bere arteco



iguin, edo atzerapenen bat baleutsa gurasuac gura leuquen ez-congueiari, eztabe umiac pecaturic eguingo, onetan atseguin emon ezaz; bada vorondatezco ezcontzetan bere badago cer eguin. Onena, itandu Confesore bati.

- I. *Noz eguiten dabe pecatu mortal obediu ezaz?*
- E. Gurasuac aguinduric ondo dan gauzaren bat echeraco, edo arimaraco, eguin gura eztabenac: onelacuac dira belu, edo berandu echera duazanac, lagun deungacaz batu oi dirianac, sarritu (sic) aguindu arren batu eztitezala, languintza, biar modu, edo oficioaren bat icasi gura eztabenac.
- I. *Eta gurasuac aguinduten badabe cerbait Jaincuaren vorondatiaren contra, ete dauque Umiac eguiteco obligacinoeric?*
- E. Ez; cerren cerubetan daucagun Aita gueuriaren vorondatia lenago da gordetia, lurrecuena baño. Eta alan ezteutsa, ume bateg obediu biar gurasuari aguinduten badeutsa Jaiegun catigatubetan biar eguiteco, urliaren basotic egurrac ostuteco, ibillera charretara juateco, ta onelango beste edocein gauza.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren Jesu Cristoc dinuan, alaco Gurasuac moduren baten gorrotau biar diriala: bada gorputzeco izatian lagundu beeben bere, quendu gura leuque arimacua, pecatu eraguiñaz. Ah Guraso gogor zori deungan jaio cinianac!
- I. *Eta badauque gurasuac escubideric euren Seme-Alaben estadubaren gañian?*
- E. Ez, eta gura ezpadabe, ecin aguindu leiquio gurasuac ezcondu dedilla; ezta eragotzi bere Fraile, Abade, edo Monja izan gura badabe ichi eguin daiela onduen euren arimaraco jagoque-na.
- I. *Ceintzuc dira utseguin daruenac gurasoai ez lagundubaz?*
- E. Dira, gurasuac isten ditubenac euren premia, biar ordu, euquiez, ta zartzan; gaisoric dacusezarian aleguinaz lagunduten ezteutsenac, alan arimaco, nolan gorputceco biar gaucetan; illonduan guztiz aztuten dirianac, ta euren erregubetan gomuta eztitubenac.
- I. *Cer eracutsi biar jaquè euren gurasuac onrau gura eztituben ume gaistuai?*
- E. Eracutsi biar jaque, curac bere noz edo noz neurri agaz bera-gaz neurtubac izango diriala ta eztabela cer uste izan zartza onic.
2. Jaincuac ebagui, edo laburtuco deutsela euren vicitzaco arilla, edo eztitubela egun luce, ta gozatsubac icusico lurgañian.
3. Jaincuaren aserre, ta madaricacinoiac euren gañera daca-

rrrezala, ta berari emontzat leguez artu daruazala, guraso zar gaisuei emoten jaquezan esturasun, ta naigabiac.

- I. *Cer mereci dau, gurasuari escuba jasoten deusnac?*
- E. Bere beriala vicitzia quentzeia, anchinaco Leguian Jaincuac aguinduteban leguez.
- I. *Cer besteric aguinduteban?*
- E. Salatu eizala euren Umiac aguintarien aurrera, ta esan eguiela: Jauna, lotsa gaistoco Seme bat daucagu: ecin beragaz bururic eguin dogu, eztau gure aguinduric eguin gura; demporia juaco jan edanetan, ta andracumecaz.
- I. *Cer aguinduteben Aguintariac salacinoe oneec enzunda?*
- E. Aguindutebena zan, errico guztien artian illeguiela arrica, gach andi bat leguez quentzeco lurraren gañeti.
- I. *Eta ceintzuc gana zucenduten da oraindino laugarren Mandamentuba?*
- E. Gurasuac eurac gana, ceintzuc dauquen gueienetan erruba, Umiac ain deungaac urtetiaz.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren emon ez daruaquen Jaincuaren bildurreco aciera bat.
- I. *Ceintzuc eguiten dabe pecatu onetan?*
- E. Araco guraso gogor euren umiai dotrina santuba eracusten ez-teutsenac, amabigarren urtian confesau, ta comulgau ecin diriala.
  2. Deungaro eguinda cematu, ta biar orduban cigorra eztabillenac.
  3. Gura daben guztiaz urtetan ichiten deusnac.
  4. Egemplu, edo jarraigari charra emon daruaquenac.
- I. *Ceintzuc dira oneec?*
- E. Dira umiac dacusezala ordituric jarten dirianac lera gogor, atralaca, diadarca, isquibidu ta erroiduban dabilzanac; edo umiac danzubezala maldicinoe, biraotzar asco, ta verba loi, edo verdiac esan daruezanac.
- I. *Cer icen mereci dabe onelango Guraso gaiztuac?*
- E. Eurai egozteco chiquinac dira Lupu, ta Otso amurratuben ice-nac. Jesu Cristoc cinuan, umeren bati egemplu deunguia emoteban edoceñegaiti, mereci dabela errotarrizar bat samatic lotuta ichas barrura botatia. Cer esango eban aitatu izan balitu esan ditugun guisaco guraso gaistuac?
- I. *Ceibat pecatu eguin daruez gurasuac euren umeen aciera deunguia gaiti?*
- E. Asco, baña enzunenac dira, ez pausubac gordetiaz, edo nundic nora dabilzan, ta ce lagunacaz batu oi dirian ez contu eu-

quiaz, ta biar dirian neurriac ori eragozteco ez artubaz.

Euren oian eratzuaz ito ditezen peligruez ta deungago dana, sei, ta zazpigarren urtian bere, milla gaistaqueria iracasteco bidian ifinten ditubela. Bardin Neba arrebachubac alcarregaz, emoten dabela achaquiatzat, eztauquela oeric, nun eratzo alde baneetan.

- I. *Igaroco ete dira achaquia oneec Jaincuaren aurrian?*
- E. Ez: cerren lenago da arimia gorputza baño. Ceinec artuco ezti-tu oraingo neque batzuc eternide (sic) edo betiraune guztian ez igarotiarren ascoz andiaguac? Confesoriac dazaube ondo cer igaroten (sic) dan onen gañian. Baña noren lepora joco dabè umiac icusias icasi, ta eguiten dituben charqueriac? O ceimbat calte datozañ oe nastu, ta alcarren ondocuetati!
- I. *Eta cer pecatu izango da señaen sorreria eragotzia (sic) edo sen sortubai jaiotzia galerazotia, ta onegaz bautismua?*
- E. Au da Cerura diadarren daguan pecatu esquerba bat. Arima gaiso Cerura biarrian Limbora juan zana, egongo da vengai esque onelaco madaricatuben contra: cerren galerazo jaqueen Jaincua icustia. Onez osteruncian gueratuten dira escomulgauta (sic) eurac, ta orretaco laguntasunen bat emoten deuten guztia.
- I. *Cer eguin biar dabe gurasuac umiac ganuntz?*
- E. Aci chiquinetati Jaincuaren bildurrian, eracutsiaz, ceñ ona da (sic), cer sariac daucazan gordeta bera amau, ta servietan dabeneztat, ta cer castiguba Infernuban deunguentzat.
2. Eracutsi celan eguin biar dituben chito sarri acto fede, esperanza ta amodiozcuac, ta oneec eguin leitequezala chito erraz viotzetic, ta contuz esaten badira. Credua, ta neure Jesu Cristo Jauna, ta oera orduban, ta goiseti jaguitian esan eraguin.
3. Eracutsi ceimbat calte dacarzan arimara pecatubac, ta esan nosbait euren aurrian San Luis Franciaco Erreguiaren Amac Seme Santu oni chiquina zan artian esa eruacona: **Neure Seme laztana naiago cenduquedaz emenche anda baten illic icusi, pecatu mortal bat inoz eguin dozula enzun baño.** Alacuac urteban Semi, ceinec ecin aztu izan cituban vicitza guztian bere Ama onaren verba Santubac. Ez esan pecatu mortala dala eztana. Orregaitic Ume ascoc dauquez pecatu anditzat Barrabasa, Diabruba, Demoniua, ta Añenari dei eguitiac, euren ez izanic pecatu venialac baño, ta guero eguin darue pecatu mortal uste charraz. Eracutsi celan confesau biar dan, ta cein garbiro egon comunioe Santuban Jesu Cristo artu gura dabeenac.

*Beste icasbide bat**Gauza onen ganian*

- 69 I. *Jaincuaren laugarren aguindu onec, cer besteric escatuten deuscu?*
- E. Gueure Gurasuaz osteruncian onrau daiguzala, Aitaguiñarrabac, Amabiguiñarrabac (sic), Ugaz-aita, Ugazama, Osaba, Izeacuac, ta beste señidiac, bacochari jagocan tercio, edo ereduban.
- I. *Ceintzuc gueiago biar ditugu onrau?*
- E. Gueure Arimaco, ta gorputzeço Aguintariac, nola dirian Aita Santuba, Obispo, Cura, Sacerdote, Erregue, ta bere ordeco Juezac, edo gueure Nagusiac.
- I. *Ceintzuc dira Morroe, ta beste otseguñen eguin bide, edo cargubac?*
- E. Gorde biar deutse lotsia euren Ugazabai. Beguiratu ta zaintu biar ditube eheco tresna, ta gauzaac. Ecin artu leique ecer soldatiaz gañetic: eguin biar ditube arretaz, ta gogoz aguindu deungac eztirianac, eztitube campoco barriquetac echian esan biar, ezta ehecuac bere campuan.
- I. *Cegaz gomutauco dira, gauza oneec ondo eguiteco?*
- E. Jesu Cristo gure Jaunaz, cein etorri zan lurrera gueiago servietaco serviuba izateco baño.
- I. *Ceintzuc dira Ugazaba, edo Echeoandrèn obligacinoiac, euren mendeco, edo otseguñac ganuntz?*
- E. Emotia adiuntzaz, edo ordu onian zor deutsen biarsaria, edo soldatia.
2. Arteztu, edo zucen bidiaç emon oquertuten asten badira.
3. Itandu dotrinia euren Umiai leguez, ta bialdu aimbat sarrien confesetara, edo eheco calteric eztaguanian.
4. Eragotzi Jaiegun catigatubetaco biarra, baña emon Jai arin, edo astegunetan euren zarrac manietaco beste dempora.
5. Eta eurac gauza onetan aurrerenguac izan.
- I. *Cer erabilli biar dabe goguan euren obligacinoe andi onei ondo eranzuteco?*
- E. Guztioç gariala alcarren anaiac, Jesu Cristoren odolaz bardin erosiac, batio baten sartubac, ta Jaincuaren aurrian gueiago dala otseguin umilde, ta on bat, ugazaba astin, ta deunga bat baño.
- I. *Eta otseguña gaisotuten bada, cer eguin biar dau Ugazabac?*
- E. Lagundu aleguinaz bere gaisotasunian ta gomutau, edo atera contu au: baldin beste edoceñi premia, edo biar orduban, ta aldaigula lagundu biar badeutsagu; cer eguin biarco eztogu

gueure oguico, ta otseguin gaisuaz?

I. *Eta zor jaco eguin daben demporaco soldataric urtia amaitu baño lenago urten gura badau?* 70

E. Bai: cerren euqui leique otseguin batec, Ugazabac jaquin biar eztaben errazoia echetic urteteco. Eta baldin Ugazabaren erruz urteten badau, urtia eguin baño lenago, emon biarco lichaquio urte osoco biarsari, edo soldatia. Au jazo leite, ugazabac pecaturaco bideren bat emon gura baleusquio, ta otseguñac urteten badau bere arimia gordetiarren.

I. *Ceimbat pecatu eguin daruez Senar Emaztiac euren echetan?*

E. Asco: alcar gogortasunaz trataubaz, verba garratzac esanaz, escubac luzatubaz errazoe andi, ta arreta baga: beti lera vician, erroiduban, ta atralaca ibilliaz, alcarganaco amodioric eztauquela.

I. *Eguin darue pecaturic araco guizon galtzalle, jocuan, edalecubetan, ta alperric echeraco biar leuquena ondatu daruenac?*

E. Bai, ta asco: ta negargarriena da, dauquèn ichumen gogorra. Guero ibilli oi dira gorrotoz beteta, ezcontzaco zorrai eranzun gura ezta, susma charretan bere lagunaren leialtadiaren gañian, edocein barrichuri sinistzia emoten deutsela, infernu vici bat dirudiala euren echiac. Cer icasico dabe ume gaisuac?

I. *Beraz ascoc utseguin darue laugarren Mandamentu onen contra?*

E. Chito ascoc: ta au gordeco balitz ondo, beste mandamentuben contraco pecatu guichi icusico lirateg: bada eche guztiac ondo zucendu, edo governauco balira, erri guztiac zucen ibillico lirateg.

I. *Cegaiti esaten dau Jangoicuac aguindauu gordeta vicico gariala luzaro?*

E. Cerren luzatuco jacun gorputceco vicitzia, gueure arimiaren caltian ezipada, ta guero izango garian zorionecuac betico vicitzan.

I. *Cer jazo jaruaque Mandamentu au gorde eztauenai?*

E. Euren gañera dacarrez gurasuen madaricacinoiac, ceintzubei gueienian batu jaruaque Jangoicuarena.

I. *Cegaz gomutau biar dira gurasuac euren umiac ondo azteco, ta biar danian cematu, ta castiguetaco?*

E. Jaincuac Heli erichon Israelgo aguintari enzunaz, ta beste gaudetan chito beguiratubaz, egui eban catigubaz.

I. *Cetan egon zan castigu ori?*

E. Ill jacozan beinguan biar bestian castigau etzituban seme biac, testamentuco cucha santuba jausi zan arerieuen escubetan: berac galdu eban vicitzia, ta adierazo eutsan, ez jacola castigu go-

gorra faltaco bere ondoringo laugarren oñecuetan, milla sacrificio, erregu, ta bitarteco infinita bere.

- I. *Cer eguin biar dabè gurasuac echia ondo zucenduteco?*  
 E. Beguiratu nundic nora dabilcozan euren ume, ta otseguinac: ez lecuric emon biraurari (sic). Alderaguin lagun, ta ibillera charretatic. Ez igaro egunic Errosariua esan бага, confesau sarri-chu, ta bestia bere aguindu. Dotrina Santuba eracutsi contuz. Onetara Jaincuac ezarrico deutse bere bedencacinoiac euren arima, ta ondasunai.

*Bostgarren icasbidia*

*Jaincuaren bostgarren aguinduba*

71

- I. *Cer aguinduten deuscu Jangoicuac bostgarren Mandamentuban?*  
 E. Ez iñor illtia, ta iñori ez eriotzaric, ta beste gachic opa izatia.  
 I. *Ceimbat vicitza modu dazauguz?*  
 E. Iru: gorputzecua, arimacua ta munducua.  
 I. *Cer adietan dozu arimaco vicitziac?*  
 E. Adietan dot Jaincuaren gracia, cein бага gueratuten da arimia illda leguez.  
 I. *Celan icutu gueinquo arimiari vicitza onetan?*  
 E. Norbaiti emonaz pecaturaco bidia, dala verbaz, dala egemplu deunguiac, ta oni deituten jaco escandaluba.  
 I. *Cer adietan dozu Munduco vicitziac?*  
 E. Adietan dot norbaitegaiti Munducuac dauquèn irichi ona, ceñi emoten jacon **onriaren** icena.  
 I. *Ceimbat modutara eguiten jaco calte, ta bidebaga lagunari onran, edo munducuen vicitzan?*  
 E. Bitara: edo eguin eztaben gauza deungaren bat ezarriac, edo bestiai esanaz ezcutuban eguan (sic) utseguiteren bat.  
 I. *Ceimbat modutara icututen jaco lagunari gorputzeco vicitzan?*  
 E. Irutara: verbaz, au da, injuria edo lotsabagaqueriaren batzuc ezanaz (sic), Eguiñez, edo obraz, au da, banatubaz, escuba luzatubaz, illaz, edo illeraguinaz. Gogoz: au da, bera iguindubaz, gorroto euquiuz, edo gachen bat opa izanaz.  
 I. *Cer aguinduten jacu onez gañeti?*  
 E. Amau daiguzala gueure gachguilla, edo areriuac.  
 I. *Cegaitic ori?*  
 E. Cerren Jesu Cristoc berac aguinduten deuscun, dirialaco Jaincuaren ancera, edo irudira eguinac.

2. Cerren gueu bere amau, ta billatu guinduzan gauza onic ez gueuncan demporan.
- I. *Cetan igarrico jaco, gorroto deutsalagula arerio, edo injuriau gaitubanari?*
- E. Verbia, edo agurra uquetan badeutsalagu, juaten ezpagara len le-  
gueuz bere echera gueure vengari moduba eracustiarren; poztu-  
ten bagara bere contra cerbait esaten danian; ezarten badeu-  
tzaguz (sic) biraotzar, ta madaricacinoiac. Baña naigabe, edo  
sentimentuba artzeia injuriau gaitubenian, ezta ori gorrotua.  
Alambere eguin biar da aleguiña naigabe oneec itoteco.
- I. *Ceimbat gauza galdu daruaz injuriaren bat pacienciaz ez igaro-  
tiarren querella emoten dabenac?*
- E. Guichienez iru: Arimia, osasuna, ta dirubac. Arimia: cerren  
auci, ta querella modu oneec izan oi dirian vengaz, ta gorrotoz  
emonac, eurac sinistu gura ezarren. Emendic ceimbat gaisqui  
esaca Juecen, Abogau ta Escribauben contra. Diruba galdu  
darualaco biar demporia bere jua etorrietan, ta atera daruelaco  
Justiciaco Ministruc euren ibillien paguba. Osasuna; cerren  
izan oi dirian buruco min, naigabe, edo pesadumbre asco.
- I. *Cer eguin biar dau injuria andiren bat artu dabenac?*
- E. Gomutau, berac andiaguac eguin izango deutsalazala Jangoi-  
cuari. Juan guero errico Cura, edo confesore jaquintsun bate-  
gana, ta eguin berac esango deutsalana.
- I. *Eztira consejari obiãc izango Escribaubac?*
- E. Ez zuretzat: cerren oneec gueiãgo beguiratu daruaque euren  
irabaci, ta provechubari zure ondasun gorputceco, ta arima-  
cuari baño; ta nozbait baquia biar dala, esan badarue, izan oi  
da eurena eguinda, edo gueiãgo cer atera eztacusenian. Zu  
ichico zaitube mutilduric, ta eurac gueratuco dira jainciric, ta  
apainduric.
- I. *Cer erabilli biar dogu goguan inoz gorrotoric ez izateco?*
- E. Ezteuscuzala gueure pecatubac Jaincuac parcatuco guc gueure  
gaisquin, ta areriuai parquetan ezpadeutseguz.
2. Guztioç gariãla alcarren Anaiac, ta Jesu Cristoren odolaz  
erosiac; ta bardin arguitu daruazala eguzquiãc Jaincuaren  
aguinduz onac ta deungac.
- I. *Ceintzuc eguin darue pecatu aguindu onen contra?*
- E. Euren burubai eriotzia, edo beste gachen bat opa deutse-  
nac.
- I. *Eta beti da pecatu bacoçac bere burubari eriotzia opa iza-  
tia?*
- E. Batzubetan bai, ta beste batzubetan ez. Izango da pecatu erne-  
gacinoez, ta nequeren bat igaro gura ezta esaten danian ver-

baz, edo gogoz. Arren bada Jaincuac eruango alnau Mundu onetati: nire duin lecu bada go gure Eleisan. Oneec izan oi dira atso ernegau, edo paciencia bagacuen plegariac. Baña ezta pecatu izango, baldin eriotzia gura badogu Mundu onetaco pecatu bidetatic aldeguitiarren, Jaincua icusteco gosiaz. Eta alan da erregu chito ona, esatia: Jauna, gurago dot ill naguan lecuban, zu ofendietaco izango banaz. Edo Davidegaz. O ceimbat luzatuten jatan erbeste onetan vici izan biarra! Noz aguertuco naz zure aurrian?

73

- I. *Eta pecatu da ume chiquinai eriotzia gura izatia, Cerura doiazalaco achaquiiaz?*
- E. Eztaucagu guc orretan cer sartu. Jaincuac daqui cer onduen jagocan. Onetan utseguin darue guraso ume asco dauquezanac. Echaco Jaincuari escubideric artu biar, ta ichi guztia bere escubetan confianza osuaz.
- I. *Ceintzuc gueiago eguin darue pecatu gauza onetan?*
- E. Gueiegui jan, edo edan daurenac.
- I. *Noz izango da pecatu gueieguico jana?*
- E. Jaten danian, igarriric osasunian calte eguin deutsalala.
- I. *Cer esan biar da ase artian jan daruenac gaiti?*
- E. San Pabloc dinuana, au da, Sabela dala euren Jangoicua.
- I. *Noz izango da pecatu edana?*
- E. Edaten danian calte eguiteco duin.
- I. *Ceimbat calte eguin daruaz gueieguiuzco edanac?*
- E. Asco: errazoian, osasunian, ondasunetan, ta ariman.
- I. *Celan eguin darua calte errazoian, edo ezagueran?*
- E. Edanaz adimentuba astundu, illundu ta galtzeco bestian.
- I. *Cer esan biar jaquè edan daruenai alborunzca ibilteraño beguiac lausotu, verba moteldu, ta ondo ebagui ecinda jarteraño?*
- E. Esan biar jaque galdu daruela guizatasunaren ezagubide, edo señalía, ta emon daruela escandaluba echian, ta errietan.
- I. *Noz jaquingo da ciur, edanaz eguiten dala pecatu mortal?*
- E. Edaten danian, Eleisaco ondasun, edo Sacramentubac ondo artceco duin, edo terciuan gueratuten eztala.
- I. *Celan galdu darue osasuna?*
- E. Cerren naztu (sic) daruazan gorputceco umore guztiac.
- I. *Celan galdu darua onria?*
- E. Cerren edale bati ecin fiau leion isilleco, edo arduraco gauzaric.
- I. *Celan galdu daruez ondasunac?*
- E. Cerren ondatu daruen eda lecubetan echeraco biar leuqueena, ta ascotan ezarten deutsezala euren echiai zor andiac.

74

- I. *Celan galdu darue arimia?*



- E. Eguin daruezalaco pecatu mueta asco: bada esan leite, ezta-  
guala edale batec austen eztaben Mandamenturic.
- I. *Cein da calteric andiena?*
- E. Arimaco ichumen, ta viotceco gogortasuna, ceinegaz ezagutu  
gura eztaben ordituten diriala, inoz ondo confesetan eztirian:  
Cerren esan daruezan baño guichiago, ta eztarue pecatuzat ar-  
tu errebeseu eraguiten ezpadeutse.
- I. *Cer esango onelango guizon ichu, ta errucarriac gaiti?*
- E. Abere guztiaç baño aberiago diriala; bada milla aculu, ta ma-  
quillacaz ez jaco aste ta idi bati edan eranguingo (sic) euren  
caltian, edo biar bestian edan ezquero. Barriz Guizonac, aztu-  
ric diriala Jaincuaren imagina, edo irudin viciac, ezainduten  
dira adimentuba galtzeraño.
- I. *Cer eguin biar da jan edanian?*
- E. Aldeguin ordi lecubetati, ta edango dana edan contuz, ta lagun  
beguiratubacaz, ta adiuntzaz juan echera.
2. Gumutau sarri Jaincuaren erreinuba eztala jan edana, ezpa-  
da espirituco garbitasuna.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetati?*
- E. Erabilli beti goguan jaiotzatic jatorcun esamodu au: Gura izan  
bestientzat gueuretaz gura doguna, ta ez gueuretaz gura ezto-  
gunic.
2. Eguin aleguina baquetu, ta amodio santuban fininteco, go-  
rrutuan, icusi ecin, ta aucitan dabilzanan.
3. Norbaitec gachic opa badeuscu, eranzun gueuc **mesediacaz,  
ta ez gachaz gachari, ta caltiac caltiari.**

### *Seigarren icasbidia*

#### *Seigarren mandamentubaren ganian.*

- I. *Cer aguinduten jacu seigarren Mandamentuban?*
- E. Izan gaitezala garbiac pensamentu, edo gogoracinoe, verba,  
gurari, ta eguite guztietan.
- I. *Eta cer eragozten jacu?*
- E. Loiqueriaco pecatura eruan gaiquezan bide, ibillera, ta gauza  
guztiac.
- I. *Ceibat modutara eguiten da pecatu Mandamentu au gorde  
ezaz?*
- E. Lautara: pensamentuz, verbaz, deseoz ta eguiñacaz.
- I. *Ceintzuc eguin darue pecatu pensamentuz?*
- E. Irudin, edo imaginacinoe ciquin, ta araguizcoren bat burura  
etorrita ezagutubaren ganian gozatuten dirianac.
- I. *Asco da, pecatu eguiteco pensamentu, edo irudin charrac etor-  
tia?*

- E. Ez, ta alan gueure guraz, edo vorondatez euretan gozatuten ez-pagara, eztago pecaturic.
- I. *Eta cetan igarrico jaco vorondatez gueratu, ta gozatu garian edo ez?*
- E. Baldin estutu, edo larrituten bagara pensamentu edo irudimentu loi, ta zantarrac jatorcuzalaco, ta ezagutu orduco baguaz Ama Virginiaren egapera, edo eguiten badogu aleguiña quenduteco aibat lasterren, eztago vorendate, ta pecaturic, eta bai meritu asco Jaincuaren aurrian. Sutonduan gagozala salto eguiten badeuscu soñoco gañera chingarren batec, cer eguin daruagu erre usaina sentiu orduco? Aibat lasterren jagui, ta bota chingarra. Eta orduban cerbait erre bada, izan da vorondatiaz contra. Baña beguira egongo baguiña, celan erreten dan, ta chingarra bota бага, soñoco errete à litzate gueure erruz, ta vorondatez. Onembestegaz adiean da beste guztia.
- I. *Eta cer eguin biar da gorputceco berotasun, ta amesetan jazoten jacuzan gauza, ta asmo loi edo zantarretan?*
- 76 E. Eztago oneetan pecatubaren azuzquiric vorondatiaren atseguintasun ezaguturic ezpadago. Eta alan irartzartuten garianian quendu beriala asmo charrac. Alambere emon leique ascoc ames deunguetaraco bidia egun artian deungaro ibilli badira.
- I. *Cer esan gura dau pensamentu consentidubac?*
- E. Esan gura dau, jatorcuzan pensamentu loiai arrera ona eguitia, edo ezagutu arren, euretan gozatutia gauza deungaric eguiteco asmo бага.
- I. *Cer da deseo, edo gurari gaistua?*
- E. Da gauza loiren bat eguiteco gogua, aduz eguin ecin ezpadau bere.
- I. *Adierazo eguizu bardintza, edo irudin bategaz.*
- E. Dacusaz mutil batec madari eder batzuc norbaiten ortuban. Beguiac juacoz eurac ganuntz. Baña cerren ormac andieguiac daucazan, edo ortulauba zain daguan, gueratuten da jan бага. Mutil onec beecan, madariac jateco deseo, edo guraria, jan бага gueratu bazan bere. Au berau jazo jaruaque ascori, Jaincuac debecau dituban fruta loietan, euren beguiac ezarten dituben orduban. Gauza loietan vorondatez gozatutia, ecer eguiteco gogo бага, pecatu mortala da: baña andiagua gogo charrac dan demporan.
- I. *Ceintzuc eguin darue pecatu verbaz?*
- E. Esan daruezanac verba zantarrac, tentagarriac, ta icen ciquinac.
- I. *Cer eranzun biar jaque esan daruenai barre eguin, ta eraguiteco esan ditubela?*

- E. Eranzun biar jaquè Espiritu Santubagaz, barrez leguez eguin daruezala ascoc pecatu andiac.
2. Jaincuaren ofensetan eztala barreric eguin, ta atseguinic artu biar.
  3. Diabrubai barre, ta Ainguerubai negar eraguiten deutsela: cerren ascori emon daruaquen verba zantarracaz pecatura-co bidia, ta beste ascori eracutsi gogora etorrigo ez jaquezan gauza charrac.
- I. *Ceimbat pecatu eguiten ditu, edo ceimbat arimaco calte onelango verba zantar, canta amodiozco, ta icen loiac esan daruezanac?*
- E. Eztauque neurric. Bacarric Jaincuaren aurrian aguertuco dira ceimbat pecatu eraguin, ta ceimbat arima galdu citubezan.
- I. *Celan eguin leique pecatu verba loiac danzubezanac?*
- E. Eguin leique goguz, ta pensamentuz, poza artubaz enzun dituben verba zantarretan.
- I. *Eta cer juzgu eguin biar da icen ciquinac, ta verba tentagarriac enzunda barre eguin daruenacaz?*
- E. Eztabela naigabe andiric artcen aec enzutian; bada ezaruagu barreric eguin, gueuri ecertan icututen jacuzan verbaren batzuc enzunda, ta laster adierazo daruagu gueure naieza. Baguiña garbitasunaren chito zaliac, icara gorrian egongo guinate enzun eztaigun alaco zantarqueriaric.
- I. *Cer eguin biar da, verba ciquinac enzutian?*
- E. Ebagui beriala albadaigu izcune loa, lujuriaco suba aurrera igaro eztedin; atera arpegia Jaincuaren bando gueure idacuen artian; ta besteric ecin dogunian, illundu becoquia, musturric astindu, adierazoteco onetara, eztitugula enzun gura alaco verba zantar, ta lotsagarriac.
- I. *Cer castigu mereci dabe verba lizun, canta loi, ta icen ciquinac esan daruezanac?*
- E. Mereci leuque miña ondotic ateratia, ta urte ascotan ez istia comulguetan, aric, ta penitenciaco negarracaz garbitu artian euren viotz araguitsubac.
- I. *Celacuac izan biar dabe Cristinauben izcune, edo conversacionoiac?*
- E. Izan biar dabè Santubac, garbiac, ta iñoren calte baguiac: cerren gure miña sarri consagrau dan Jesu Cristoren gorputz santubaz. Cer esango guenduque, icusico baguendu Caliza bat belenatza baten? Bada consagraubaguac dagoz gure miñac Cristoren aragui santuba aimbeste bider artubaz, Munduco Caliza guztic baño.

- I. *Ceintzuc jausten dira oraindino Mandamentu onetan?*  
 E. Beguiracune deunga, ta icutute, edo escuca zantarrac euqui daruezanac euren burubacaz, edo besteren bategaz.
- I. *Noz izango da beguiracunia pecatu?*  
 E. Eguiten danian atseguin charren bat artuteco goguaz, edo peligru ezagutubaz. Beguiratuten deutsanac Andracume bati, dino Cristoc, ta bardin Andracume batec guizacumeren bati gurari charraz, egui eban pecatu bere viotz barruban. Onetan jarraitu biar da San Agustinen consejuba; gueure beguiac eruan arren norbaitegana, eztitugula ichatsi biar.
- I. *Cer esan biar da Nesca-mutillen arteco bota botaca, bulzacada, oratute, ta onelaco beste milla naste, ta icuerac gaiti?*  
 E. Esan biar da, eguin, ta eraguin daruezala pecatu asco, ta euren arimac daruezala infernura.
- I. *Ondo dirudie nesca mutillen arteco jocuac, jan edanac, ta solasac?*  
 E. Ez: ori da subaren onduan amuluba ifintia, ta ardi gaiso bat otso gosesto baten albuac.
- 78 I. *Cer pecatu eguiten dau, bestia pecaturaco tentetan dabenac, edo verbaz, edo quiñuz, edo dan leguez dala?*  
 E. Eguiten dau pecatu mortal andi bi: bata garbitasunaren contra ta bestia escandaluzcua caridariaren contra.
- I. *Beraz pecatu eguin darue araco nescatilla lotsa gaistoco juan duazanac mutil artera, tentau dagueizan gurariaz, edo tentauco ditubela igarriric?*  
 E. Bai, ta escandaluzcua: cerren ifinten daben bestia pecatu peligruban, edo eragozten eztabelaco, erraz daiquiala, lagunaren pecatuba.
- I. *Cer pecatu da, umeren bati pecatu eraguitia, edo eguiten eracustia?*  
 E. Da demoniozco pecatuba, ceiñegaiti, dino Jesu Cristoc, mereci dabela errotarri bat samatic ezarrita ichasuan ondatutia.
- I. *Cer eguin biar dau bere echeco Ugazabac, Seme edo Morroe gaistoren batec pecaturaco bidian ifinten dabeen otseguñac?*  
 E. Igues eguin aimbat lasterren eche infernuzco atatic, ichiric bere arduria Jaincuaren escubetan, ta orretaco juan Confesore Jaquintsu bategana, ta artu berac emongo deutzazan neurriac.
- I. *Cer eguin leique emacumeren batec, gauza deungaraco indar eguin gura deutsenian?*  
 E. Diadarrari emon, gorde bere buruba aleguinaz, edo urratu arpeguia dana dala. Norbaitec illgura baleu, cer eguingo ez leuque? Bada deungagua da arimaco eriotza emon nai deutsena

- pecatu eraguiñaz. Eta bitartecoric onena da, dei eguitia Maria Virgina garbitasunaren Amari, ta bere contura gueratuco da otso gosesto aen atzamar artetic ateratia.
- I. *Sinistu ete jaquè andracume ascori dinuenai, euren vorondatiaren contra zala?*
- E. Gueienian ez: bada ondo aztertuten badira gauza ta jua etorri guztiac, arqutuco da, ezebela naigabe andiric artu, barreren bat eguebela, oztasun andiaz egon ciriala bestiaren zantarquerietan. Eztan ecer eguiten, esanaz bacarric, baquian egon ditezala; biar da itzala, ta aserre vici bat eracutsi, ta ebagui urren goraco bidia, ta lotsagabequeria.
- I. *Nundic datoz calteric gueienac?*
- E. Datoz andracumen modestia guichia gaiti: bada dacuscuna da, guizacumeric lotsa gaistocuenac beguiratuten deutzela bildurraz nescatilla garbi ta bacartade zalai.
- I. *Ceimbat pecatu mueta eguin daruez aguindu onen contra?*
- E. Asco, ta Cristinau artian aitatu bere biar ez liratequianac.
- I. *Araguiazco (sic) pecatu onegaitic ceimbat condenetan dira?*
- E. Chito asco, Santubac guzurra ezpadinue.
- I. *Cer dino San Pabloc onen ganian?*
- E. Eztabela onelacuac Ceruban sarreraric izango, dalaco garbi le cuba. Jesu Cristori eguiten jacola injuria andi bat, ciquinduric gure gorputz, ta arimac.
- I. *Cegaz bardindu gueinque pecatu au?*
- E. Gentilen pecatubaz: ta pecatu andia bada Jainco guzurrezcuai incenso pusca bat botatia, cer izango da Jaincuari zor jacon viotz, ta amodio guztia emotia Criatura deunga, ta galdu bati: Orregaiti eguin ditu Jangoicuac dempora guztietan castigu icaragarriac, ta egunoro danzugu, celan ilten dirian asco euren adisquide charren besartian.
- I. *Cer dino Espiritu Santubac onen gainian?*
- E. Dino eztabela araguitsubac Jaincuagana biurtuteco asmo sendoric artuco: cerren cate gogorraz lotu daruazan pasinoe deunguiac, ta gortu oi dirialaco gauza on guztietara.
2. Dino, igaro daruezala euren egunac pozcaria (sic), ta atseguin artian, ta beinguan jausten diriala infernuco Lezara.
- I. *Ceintzuc dira bitartecoric onenac garbitasuna gordeteco?*
- E. Ama Virginaiaren devocinoia, ceinec ateraco gaitu tentacinoeco olasta ta ichasandietati.
2. Confesinoe, ta comunioe sarricoa: cerren sacramentu onec bete garuaz pensamentu garbiz, ill edo amatau daruaz araguiaren sugarrac, ta emoten dau indar andia arerio guztiac goitu, edo azpiratuteco.

3. Igues eguin danza, biguira, ta lagun deungueen batzar guztietati.
  4. Izan beguiratuba jan edanian, ta equin biarrari. Asco jan ta biar guichi eguin daruan Zaldi bat uzutuco da, ta jaurtiguico ditu osticadac.
  5. Artu confesoriaren vorondatiaz gorputzaren necabide, edo mingarriren bat.
- I. *Cer erabilli biar dogu goguan, garbiro vici izateco?*
- E. Laster igaroten dala pecatuco atseguina, ta beticua izango dala ichico daben miña. **Momentaneum est quod delectat, aeternum quod crutiac (sic).**
2. Guero izango dogula, nun atseguin artu, ta gozatu garbitasuna gordeteco, cerbait necatu biar badogu bere.
  3. Eguin contu gariala Jaincuaren Eleisa viciac, *ta ezto gula ci-quin du biar gueure viotza.*

*Zazpigarren icasbidia*

80

*Zazpigarren Madamentubaren gainian*

- I. *Cein da jaincuaren zazpigarren aguiduba?*
- E. Ez inori ecer ostutia.
- I. *Cer eragozten jacu Mandamentu onetan?*
- E. Lagunaren ondasun bidebagocori (sic) edo jaubiaren vorondatiaren contracoric artezia, estaldutia, edo orretaraco bide, edo laguntasun moduren bat emotia.
- I. *Ceimbat aldetara eguin darue onetan pecatu?*
- E. Irutara: gauzaren bat norbaiti bere vorontaria (sic) eztala, artubaz, euquiiaz, edo calteren bat eguiñaz. **Injusta acceptio (sic), retentio, damnificatio.**
- I. *Ceintzuc eguin darue pecatu inori cerbait artubaz?*
- E. Ascoc, ta lenengo echeco lapurrac.
- I. *Ceintzuc dira oneec?*
- E. Dira Seme-Alabac, otseguñac, ta ez guichitan Senar-Emaztiac eurac.
- I. *Cer esan biar da, gurasuen isillie artua, garia, ta beste edo cein gauza artu daruen Seme-Alabac gaiti?*
- E. Espiritu Santubac artez dirauscu, eguin daruela pecatu.
- I. *Eta valio dau emon daruen achaquia onec: Jauna ezneban alpe-rric galtzeco artu, ezpada zapata, amantal, ta beste gauzaren bat eguiteco, edo lagun artera escu utsian ez urtetiarren.*
- E. Eta au asesinoe, ta achaquia ezta utsa baño (sic): bada gurasuac daquie obeto, cer biar dabèn euren umiac, ta onei jatorquena da escatutia umiltasun andiaz. Nic daquidana da, ez-teutsela Confesoriai itanduten eguin baño lenago, ezpada eure-

na eguinda guero, ta da señaile charra. Ceimbat seme-alabac eguin daruez soñoco apainduriazcuac, ta jan edanac euren adisquecaz? Eta eranzungo leuque, etzala alperric galtceco.

- I. *Eguiten dabe pecaturic otseguinac guichica Ugazabai cerbait artubaz?*
- E. Bai, eurac jateco gauza arinen bat ezpada.
- I. *Cer achaquia emon daruaque Confesoriai euren deungaraco eguina iruntsi eraguiteco?*
- E. Soldata laburra dauquela, ta beste echetan gueiago emon daruela.
- I. *Achaquia, edo errazoe ona da?*
- E. Ez, ezpada lapurreta ascoren iturria: bada lenago beguiratu biar eben celan sartuten cirian; ta ala egon biar da orduban eguintzan ajustera.
- I. *Noz eguin darue pecatu senar-emaztiac alcarren barri baga eche-co gauzaren batzuc artu, ta gastaubaz?*
- E. Eguingo dabe biar eztirian gauzaren batzubetan gastetan badira. Baña ez leuque emaztiac pecaturic eguingo, artuco baleu cerbait echecho gauza biarretan gastetaco edo zor eguiazcuai eranzuteco, onetan naguia balitz bere Senarra. Cequeneguiac dira Senar asco, ta onelacuan itandu confesore bati cer eguin biar dan; badira emazte gastadora, edo ondagarriac bere.
- I. *Eguiten dau beste pecaturic Mandamentu au ausiaz?*
- E. Bai, ta lenengo icazguiñac euren icaz-jaubiaren vorondatia ez-tala, egurrac euren echeraco artu, edo inori emon daruaquezanian, ta burdi erdiren bat emparau dalaco achaquiaz, Ugazabac eztaquiala eurentzat gordeten dabenian; baita demporaz icatza egosi ezaz calteric badauca onegaz Ugazabac.
2. Eguin darue pecatu olara neurri chicarra eruanaz edo berariaz autsez, ta iduri loiz zacubetiaco daroiezanac.
3. Eguin darue pecatu iñoren basuei baquian isten ezteutse-nac, batez bere egur lodi, edo icatz gaiac artu daruezanac; baita orriguintzan calte eguiten dabenac bere, gueienetan jazo oi dan leguez.
4. Eguin darue pecatu jocuan trampac sartu daruezanac, edo jocatu daruenac jocatu ecin leienecaz: nola dirian Familiaco Seme-Alaba eurenec ecer eztauquenac, gauza guichiren ezpada.  
Eguin darue pecatu cerbait erosi, edo jocatuten dabenac os-tuta baño euqui ecin leienecaz, ta eztabe euren duten irabacia, ta biurtu biar deutse Jaubeari.
5. Eguiten dabe pecatu Dendari, edo Jostun batari pusca bat,

bestiari beste zatalchu bat Jaubiaren vorondatiaren contra artu daruenac, batezbere eltzen badira pecatu mortal izateco duin dan gueira.

6. Eguiten dabe pecatu mortal bat edo gueiago Baso esamindariac abesbeluban, edo ondo beguiratu baga, eguiten badabe euren esaminia, edo azterria; edo batari baño bestiari gueiago ezarri, edo quentcen badeutse euren concienciaren contra, ta ez guichiago orretara ciricatu ditubanac.
7. Eguiten dabe pecatu mortal mugarriren batzuc quendu, laburtu, edo luzatuten ditubenac Justiciac, edo Parte biac aguindutzaca.

82

I. *Eztau bestec peccaturic eguiten?*

E. Bai: eztago Lantza, edo oficioeric, ceñetan eguiten eztiran condenacinoeco bide asco: onelacuac dira tabernariac ura ardauari ezarriaz, edo neurri chiquinian emonaz; Denderac, errotriac, ta beste oficio dun ascoc.

I. *Ceintzuc eguiten dabe pecatu, bidebagaco euquiaz, edo gueratzuc?*

E. Gauzaren batzuc billatuta euren Jaubiai biurtu baga dagozanac.

I. *Cer eguin biar dau gauzaren bat billatu dabenac?*

E. Eguin aleguiña jaquiteco, cein da Jaubia; ta aguertuten bada biurtu laster, ta ez escatu billasariric: baña vorondate osuaz emon nai bau, ezta pecatu artzeia. Aguiri ezpada ichi errico Cura, edo Confesoriaren escubetan, ta onec jaquingo dau cer eguin.

2. Zorrai eranzuten naguiac dirianac, guichica baño ecin bada bere, beti paguetaco gogo utsetan urtiac juaquezala.

3. Ugazaba euren Otseguñai itundurico soldatia, edo biar saria pagau nai ezteutsenac, ta bardin beste edocein biargin, edo languillai (sic).

4. Contubetaco utseguñac ezagututa, gordeten dabenac isillic bestiari jatorcona.

5. Amarren Primiciac osoro, ta garbiro paguetan eztitubenac.

6. Testamentario, edo herederu Naguiac dirianac, ta gueiegui luzatuten dabenac zorren bat paguetia, edo Meza aguindurico batzuc atera eraguitia.

7. Baso zainlac, edo Monteru norbaitec eguinico caltiac ezcutuban gordeten ditubenac, dala adisquidiac dirialaco calteguñac, edo escuba berotu deustelaco estaldutiarren.

8. Nequezale euren idi, bei, edo zaldiren baten tacha caltegarriac, ta valiuu guichituten deustenac, aguertu gura eztitubenac.



9. Jaquini zorra, bestiac papela galdu dabelaco, ta probau ecin deutsalaco, pagau nai eztabenac.
10. Eta guztien buruban ostuba, edo calteguiña biurtu nai eztaben guztia, ta estalguilla infernucuac.
- I. *Ceintzuc eguiten dabe pecatu calteren bat eguiñaz?*
- E. Lenengo testigu guzurrezcuac, ta onec billatu ditubanac, testigantza bidegabia emoteco: bada guzurraren gañeco juramentubaz eguiten ditube calte chito asco.
2. Curadore ascoc ume-zurtcen ondasunei biar lan leguez beguiratu ezaz.
3. Euren abere, edo guiberriac iñoren solora sartu daruezanac, edo campora ateraten ditubenac auntz, edo bei gaisto esiric onenac igaroteco mañia dauquenac.
4. Aserracuntza, edo jaquiñaz, norbait jo, edo banatu dabena: ta pagau biar ditube etorri jacozan calte guztia.
5. Mutil, edo guizon gaisto milla esquini, ta erreguz, Doncellaren bat galdu dabenac.
6. Diru deunga, edo falsoren batzuc sartcen ditubenac, achacuatat emonda, eurai bere sartu dautsezala.
7. Otseguin ugazabaren gauzaren bat artcen ichi daruenac, biar guichi baño eguiten eztabenac.
8. Gauza osturen batzuc erosten ditubenac, edo erosita guero, jaquinic ostuba zana, biurtu gura eztabenac, bere izaian gauza ostu à badago.
9. Consejari char gauzaren bat ostu, edo calteren bat eguiteco bidia emoten dabenac.
10. Iñoren aguinduz bada bere cerbait ostu dabenac; bada lenago dá Jaincuaren aguinduba Mundu guztiarena baño. Onen artian sartcen dira Seme-alaba, ta otseguin, guraso, edo Ugazabac esan deuselaco, inoren gaucia artcen dabena.
- I. *Valio dau emon daruen achacuiac, au da, cer eguingo neban nic aguindu beusten?*
- E. Eztau valio: cernen esanic dauca Jesu Cristoc, ez bildur izateco gorputcian baño calteric eguin ecin daiqueguben lurreco aguintariei, ta bildur izateco Jangoico gure arimac infernura bota daiquezanari.
- I. *Ceinek biurtu biar dau ostuba, edo calte eguiña, bost edo seiren artian eguiña bazan?*
- E. Lenengo, gauciaz gueratu cirianac: guztia parte izan bacirian bacochoac tocau jaconaren ereduban, ta bestiac biurtu ecin badabe, edo gura ezpadabe, edoceñec guztia.
- I. *Ceintzuc dira errietaco lapurric isillenac, ta deungenac?*

- E. Dira logrerubac.  
 I. *Ceintzuc dira logrerubonec?*  
 E. Irabaci bide baguiac eguiten ditubenac.  
 I. *Celan jazoten da ori?*  
 E. Norbaiti diru, edo gauzaren bat pretauta, urtiaren guenian emona baño cerbait gueiago escatubaz. O ceimbat onelaco dagan Munduban! Premian dagan gaiso batec esquetan deutsa beste bati zortzi ducatecoren bat, edo bi, edo gueiago, ta susmauric, duaric emongo ezteutsala, esquini oi deutzaz, urtian iru edo lau escudo euneco, ta oni esan daruaque dirubaren irabacia.  
 I. *Bada Jauna, cergaitic emongo deutzat duaric? Cer zor deutsa nire dirubac bestiari? Ez nintzan ni bere ondoren ibilli; berac esquini bere egui eustan urtecu.*  
 E. Achaquia onec eztira igaroco Jaincuaren aurrian, ceñec dirauscun bere Seme Jesu Cristoren aoz: **Prestau eizuz diru, edo gauzaren batzuc duaric, edo ecer irabazteco uste bago. Mutuum date nihil inde sperantes.**  
 I. *Cegaitic eguin biar da mesede au?*  
 E. Cerren guztioac garian alcarren anaiac, ta gueuc bere naico guenduquian prestau daiguben duaric, premia atan aurquituco baguiña.  
 I. *Eta cer eguin biar dabe tratu orregaz urte ascotan irabaciac eguin ditubenac?*  
 E. Biurtu dirianac condenau nai ezpadabe, ta onetan ecin librau gueinquez Aita Santubac bere; baña ezta pecatu censuan dirubac infintia, ta jausiac urtian bian, edo iruban dagozanac artzeia.  
 I. *Ceimbat artu emon, edo tratu oquer eguiten ditube ganaubacaz batec baño gueiago?*  
 E. Asco, baña bi dira enzunenac.  
 I. *Celan eguin daruez?*  
 E. Lenengua da onetara. Ifinten ditu batec beste bategan guiberri, edo beste abereren batzuc. Pagau eraguiten deutsa artu ditubanari urtian buruco errial bat guiberrietan, ta gueiago abere nagusietan: baña leta, edo condicinoe onegaz. Baldin edo ill, edo galdu, edo guichituten badira, dirianac artu dituban gaisuaren lepora, edo esan daruen leguez, beti "oña sendo", edo seguru ifini ditubanarentzat.  
 I. *Cegaiti eguin biar eztau tratuan ifinten ditubanac?*  
 E. Cerren ecer galduteco arriscu bago, ta peligru guztiac lagunari ezarrita, irabazten daben gauza jaquiña, ta joquetan daben segurura.

2. Cerren gauzaren bat galduten bada, galdu biar daben Jau-biarentzat. **Res domino suo perit.** Eta emen emon ditubana gueratuten (sic) guiberri, edo abere guztien Jaube. Eta igaroten baleu jaubetasuna artu ditubanaganuntz, ecin artuco leuque aen irabaciric. Onetara joten dau bigarren artu emon, edo tratubac. Guizon dirudun batec emoten deutzaz nequezale itu ituban, edo ozta vici dan bati buztarridiren batzuc urte bete, edo gueiagoraco. Eguiten dabe valiuren azterri, edo examinia, ta daigun, igoten dabela larogueti ducatera. Ara orain cer cargac ezarten deutzazan nequezale gaisuari.
3. Lenengua: buztarridi, edo oña nequezale artu ditubaneren aldera, ta onen erru baga ill, galdu edo valiuan jausten badira, osotuteco obligacinoiaz. Bigarrena, urtiaren guenian, edo amaian pagau daguiozala Buztarridiac emon ditubanari, zortzi, edo amar ducat, edo dana dala. Eztira artu emon onec zucenac, ta garbiac, ezpada nequezale ascoren ondagarriac, ta oneen icerdi necatubac diardar (sic) eguingo dau Jaincuaren aurrian.

Cerbait irabazten badau euracaz urtiaren guenian, da bere icerdi gogorraren costura. Bideraco zaldiren bat artcen dabenac egunero saria emon ezquero, eztauca zaldiaren biurreraric cer eguin, bere errubaga ill, edo galduten bada. Cegaiti bada zorco dau Nequezale gaisuac idia, edo Bei ill edo galdu dana, bere erruz ezpada? Asmo asco daucaz cequentasunac, diru gurariac, ta viotz dollor batec. Eguiten bere dabe pecatu, ta ez chiquina errenteru gaisuei eche errenta gueiegui ezarten deu-tsenac. Eztabe asco Aberatsec contu ateraten, celan errenterubac pagau biar dituben amarren-Primiciac, bideguintzac, edo errepartimentubac. Ezta ondo gueratuten au, emparetan ezpajaco errenta, ta beste cargai eranzunda, gari puscaren bat, ta garbiero arto guztia. Ondo daquienac irichi onetan dagoz. Baña errentac jasuz jua gueiago esquintcen dabeen achaquiaz, da nequezale tristiaren odola chupau, edo zurrutetia.

- I. *Cer eguin biar dau Mandamentu au ausi dabenac?*
- E. Biurtu ostuba, edo calteguiña, dala bera bere izatian badago, dala aren ereduba edo valiua.
- I. *Cegaiti ori?*
- E. Cerren San Agustinec dinuanaz: **Ezta parcatuco pecatuba, biurtuten ezpada ostuba.**
- I. *Ezta asco salvetaco bacoachac bere pecatubac artez osoz, tà damubaz confesetia?*
- E. Eztago damuric, ta confesinoeric, ezpadago biurrera, edo

errestitucinoeric. Eta onetan ecin librau geuinquez Aita Santu Erromacuac bere. Eztabe barriz valio ascoren goguac, ta biurteco propositubac, cerren gueienez guzurrezcuac dirian. Biurtu aldedilla, laster biurtu biar da, ta ez gogo utsetan ibilli.

- I. *Cer zucembide, edo erregla emon leite onetan?*  
 E. Ara emen. Baldin laster biurtubaz zuri etorri leiquezun caltia bada ascoz andiagua, biurtu biar deutzazunari cerbait icharotiaz baño, orduban ezta pecatu izango biurreria, edo restitucinoia luzatutia zure calte peligru eguiazcuac dirauban artian, baña bestela biurtu biar da luza bide baga; eta au bardin adietan da zorren gañian.
- I. *Cer eguin biar dau gauza onetan, salvau gura dabenac?*  
 E. Billatu Confesore jaquitun bat, esan oni cinzoro jazoten jacona, ta eguin ichu ichuban aguinduten deutzana.
- I. *Oneec eguiac badira, celan danzuguz lapurretac, calte eguiñac, ta naste asco, eta biurrera, edo restitucinoe guichi?*  
 E. Cerren eztirian batzuc damubaz, ta eguiac confesetan, ta gura leusquieuzan iruntzi eraguin confesore gaisuei euren mausa, ta guzurrac, esanaz: Jauna eztaucat, cegaz, ta nundic biurtu; bere aldetic badeust berac bere aimbeste, etorrico da Abustuba edo arto batzeia ta orduban cerbait eguingo dot. Eranzun oneceaz ichutu daruez Confesore asco, baña ez viotcetaco barri dauian Jangoicua.
- I. *Cer eguin biar dabe onetan Confesoriac?*  
 E. San Francisco Xavier ta San Carlosec dirautsena: ez igaro absolvicinoia emotera, biurtu, edo restituidu artian aldaguiala, ta aztertu ondo aldaguian edo ez, ta ez sinistu lenengo esanetara. Asmo onegaz edegui jaruaquez ascori beguiac, ta ecarten dira escura. Bestela beti ibillico dira verba onetan, baña ecer eguin baga.
- 87 I. *Cer eguin biar dau guztia ecin biurtu dabenac?*  
 E. Guichica bada bere biurtubaz, ta pagaubaz juan; ta orretaraco ez echian, ta ez iñola gastu alperric eguin, ezpada aurreratu aleguiñaz, bacochari beria biurteco.
- I. *Cer jazo jaruaque onetan arduraric artuten ezbenai? (sic)*  
 E. Diabrubac celan eztaquiela ostu daruaque ascoz gueiago; Jaincuac artu darua escuba bialtzen deutsezala gachac euren buru, ta aberenetara: artu daruez gari, edo arto guichiago; eztabe inoz bururic jasoten; beti vici oi dira zorpeturic, ta ezta ecer aurreratuten ostubaz.
- I. *Ceintzuc gueiago eguin biar dabe ostubaren biurreria?*  
 E. Ondoringo, edo Erederubac, ill cirianac eguin ezpeeben; bada

ecin ichi eusquiezan ondasun iñorenac, edo zorracaz catigaturic euquezanac, ezpada zorrai eranzuteco obligacioiaz. O ceimbat guraso triste doiazan infernura, Umiac aberastuteco gurariaz euren obligacioiai ez eranzutiarren, edo biurrerac eguiteco encargubac eguingo eztitubenai ichitiarren! ta norc ateraco ditu andic?

- I. *Eta Mezatan atera baleitez ostubac, edo calteguinac?*  
 E. Ez, jaquin ezquero nori ostu, edo calteguin jacon; ta onetaraco eztago Buldaric. Baña ezpadaqui nor dan, itundu Confesore bategaz, ta eguin aguinduten jacona.
- I. *Ceimbat ostu (sic) edo calteguin biar da pecatu mortaleraco?*  
 E. Ezta erraz epai guztico bat emoten. Biartsu, edo pobrechu bati quentzen bajaco errial baten duina, edo asco ebana, egun bat ondo igaroteco, izango da pecatu mortala. Nequezale errenteru ez eldu bai eldu vici dirianai errial birañocua; ta bestelaco echagun ondo jarriai errial bico baterañocua ostu edo calteguitia, da gauza astuna ta pecatu mortala. Baña guichica guichica eldu ezquero esan dogun tercio, edo eredura, ezango da pecatu mortala, ta bacoichian pecatu mortal bat beucan gogua gauza astunera elduteco.
- I. *Cer esan biar jaque Mandamentu onetan utseguin daruenai?*  
 E. San Agustinec dirautsena: Baldin juicioco egunian madaricatubac izango dira billosac janci etzitubenac, gose, ta egarri cianei jaten, ta edaten emoten ezeutsenac, cer icharaten dabè janciac billostu, ta cer jan euquenac, gose bidian ifini citubenac? Cer lapurrac?

### *Zortzigarren icasbidia*

*Jaincuaren zortzigarren aguinduba.*

- I. *Cer eragozten jacu zortzigarren aguinduban?*  
 E. Iru gauza: lenengua guzurra. 2. Egozqueta, edo testimonio falsa. 3. Juzgu deunguia.
- I. *Cer da guzurra?*  
 E. Da goguan daguanaren contra cerbait esatia: esan gura dau: bacoachac dazauban eguiaren contra verba eguitia, norbait engañetaco asmuaz.
- I. *Eguiaren contra cerbait esaten dabenac, eguia esaten dabelaco ustiaz, esaten badau (sic) guzurric?*  
 E. Ez: cerren ezeban ecer esan, iñor engañetaco goguaz, edo adimentubaren contra.
- I. *Esan leite guzurric batec, bere buruba edo besterena esturasunen batetic ateratiarren?*  
 E. Ez, eta baguenqui Purgatorioco arima guztiac Cerura bein-

guan igongo leuquela bere guzur bat esanaz.

- I. *Celan bada ascoc ain arduratzaca esaten ditubez?*  
 E. Cerren eztaben ondo ezagututen bere gaistotasuna, ta edocein pe-  
 catubaz Jaincuari eguiten jacon injuria.
- I. *Ceimbat guzur mueta dira?*  
 E. Iru: bata gueure, edo inoren onagaitic esaten danian; Bigarrena  
 barre eguin, edo craguiteco esaten danian; ta irugarrena, iñoren  
 caltitan esaten danian.
- I. *Noz izan leite pecatu mortal inoren edo bere burubaren onian, edo  
 bando guzurra esatia?*  
 E. Ucatuco baguendu cerbait Aguintari edo Juezen batec itanduta:  
 cerren guciago valio dau justiciaren escubidiac, eta on eguiazcuac,  
 gueure on irudicuac baño.
- I. *Eta guzurra esatia barre eguiteco, edo iñori calteric ez jatorcola, cer  
 pecatu da?*  
 E. Da pecatu arina, edo veniala: baña alambere ezta esan biar guzu-  
 rric, norbait eriotzatic ateratiarren balitz bere.
- I. *Cegaitic aimbeste sentietan dau Jaincuac, guzurrac guc esatia?*  
 E. Cerren berac artzen daben Jainco eguiazcuaren, ta eguiaren bera-  
 ren icena.
- 89 I. *Cer dino San Juan Evangelistiac guzurtien gañian?*  
 E. Dino, eurentzat prestauta daguan saria, dala infernuco suba, ta  
 azufria; eta cerutic camporaco diriala chacurrac, ta guzurtiac.
- I. *Cer dino onen ganian Espiritu Santubac?*  
 E. Dino, galduco ditubala Jangoicuac guzurra esaten dabenac.
- I. *Noz izango da bada pecatu mortala guzurra esatia?*  
 E. Norbaiten calte, edo gachian esaten danian, calte chiquinen bat  
 ezpada.
- I. *Cer jazo jaruaque, guzurrac bildur бага esateco oitura, eco ecandu  
 charra dauquenai?*  
 E. Jaincuac ucatuten deutsez gracia sendo, ta indartsubac, jausi oi  
 dira guero pecatu mortalian, ta etorten jaquez arimaco calte as-  
 co.
- I. *Cer eguin biar dogu bada onetan utsic ez eguiteco?*  
 E. Oitu biar gara ez edo bai artez esatera.
- I. *Eta norbaitec itantcen badeuscu, jaquin biar eztan gauzaren bat, cer  
 egingo dogu?*  
 E. Eranzun ecin esan ceinquiala alaco gauzaric, ta eguia ezcutau, ba-  
 ña guzur бага.
- I. *Cer da egozqueta, edo testimonio falso, edo guzurrezcua?*  
 E. Da Justiciaren aurrian testigantza oquer bat emotia, guzurren bat  
 esanaz.
- I. *Ceimbat aldetara eguiten da pecatu?*

- E. Guichienez lautara, lenengua besteen bati testigantza charren bat emon eraguinaz.
2. Bigarrena, escritura, ta contratu deunga, edo guzurrezcua eguiñaz, edo orretaraco lagundubaz.
  3. Irugarrena Gaistaqueria, edo gauza deungaren bat erruric eztaucanen bati egotziatz.
  4. Salatu, edo acusauta daguanen bati bere buruba garbietaco bide zucenac quendubaz.
- I. *Celan emon eraguiten jaquè besteei testigantza guzurrezcua?*
- E. Lenengo eguia esatetic atzeratubaz.
2. Bigarren eracutsiaz celan testigantza charra emon, edo eguia tolesturaz jancico dabeen.
- I. *Cer eguin biar dau egozqueta char, edo falso testimoniua ezarri dabena?*
- E. Eguin biar dabena da, eguin deutzazan caltiac lagunari jaso.
- I. *Ceimbat calte eguin leiquioz lagunari?*
- E. Bi; bata ondasunetan diruben batzuc gastau eraguñiaz Escribau ta Juez artian; ta honran, ezarriric eguin eztaben oquertasunen bat.
- I. *Ceintzuc jausi oi dira pecatu onetan?*
- E. Mutil, edo guizon arima bagaco batzuc, doncellaren bati garbitasuna galduta esanaz, euren burubac garbietiarren, besteren batzuc bere izaebala laguntza deunguia, ezarten deutsezala eguin ezdituben gauza charrac.
2. Ez guichitan nescatillac eurac, guzurraz asmauric ezcontzaco verba emon ezeutsenic, edo ezarriric norbaiti bere seinduntzia, igarriric edo susmauric besteren batena dala.
- I. *Erraz da onelaco peccariac penitencia benetacua eguitia?*
- E. Da gauza chito gacha.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren lenago infernuban sartuco liratian asco euren guzur esana, edo ezarte deunguia aguertu baño.
- I. *Cer eguin biar dau, eguin eztaben gauza deungaren bat lagunari ezarri deutzanac?*
- E. Aguertu eguia dan leguez, ta esan artez, edo girabira бага ecebala lagunac alaco gauzaric eguin.
- I. *Ceintzuc jausten dira gueiago pecatu onetan?*
- E. Dudaco pecatu, edo eguite charren bat lagunari ezarten deutse-nac. O ceimbat onico (sic) daguan mundu zabalian! Batec esaten dau cerbait, bestiac gueituten dau, ta ezeberezqueria bat zan gauzia eltzen da andira. Conversacinoe arinon bati ezarten jaco tratu char baten icena. Euria dan demporan tella batetic bestera eztira tanta batzuc baño jausten, ta eurac isill isillic; baño azqueneco te-

llati jausten dira itusurac ots andiaz? Sustraira beguiratuco balitz, ez litzate gauza andiric izango; baña miñetic miñera gueitubaz ibillita, eguiten dau ots andi bat.

- 91
- I. *Cegaitic jazoten da au?*  
 E. Cerren errazegui sinistuten ditugun gauza deungac gueure lagunac gaiti.
- I. *Cegaitic gueiago?*  
 E. Cerren eztaucagun lagunaren amodioric, ceñnegaitic beti ondo pensau biar gueunquian.
- I. *Cer da juzgu deunguia?*  
 E. Da uste charren baten gueratutia norbaiten eguitiaren gañian errazoe, edo ezagugarri arin, edo laburrazac.
- I. *Cer da duda charra?*  
 E. Da gure juzguba ez etziguitia alde batera baño bestera gueiago: edo errazoiac bardinac diralaco, edo errazoeric batpere eztaucagulaco.
- I. *Cer da susma, edo sospecha deunguia?*  
 E. Da gure juiciua cerbait etziguitia alde batera baño gueiago errazoe eguiazco бага.
- I. *Celan adierazo leitez iru juicioco malla, edo gradu onec?*  
 E. Pisutegui, edo balanza bategaz: cein gueratu oi dan alde bietan bardin, pisugarriic ifinten ez jaconian, edo pisugarriac bardinac dirianian; etzigui, edo beratuten da cerbait, pisugarri bata besti (sic) baño puscaren bat astunago danian: eta azquenic etzigui edo jausten da guztiz, pisugarri bat baño bestia ascoz astunago bada.
- I. *Pecatu mortalac dira lagunaren contraco susma, edo duda, edo ezta-baida batzuc?*  
 E. Ez gueienian, barruban edo iñori esan бага gueratuten badira; baña beti dira venialac, vorondatezcuac dirianian.
- I. *Noz izango da pecatu mortal juzgu oso, ta deunguia?*  
 E. Izango da eguiten bada ezaguera, ta vorondate osuaz gauza astun, edo pecatu mortala dan baten gañian, ta sinisgarri, edo fundamentu бага, edo chito laburrazac.
- 92
- I. *Ceintzuc jausten dira gueienez pecatu onetan?*  
 E. Ecin icusi, ta gorroto deungan vici dirianac.
- I. *Cegaitic ori?*  
 E. Cerren amodiori (sic) ezteutsen leguez lagunari, beti, ta erraz pensetan dabe deungaro onen eguitèn gañian.
- I. *Eta edoecin pensamentu, edo ofrecimentu deunga izango da pecatu?*  
 E. Ez, ezagututa quentzen baditugu.
- I. *Cer eguin biar dogu gueure beguiacaz icusi, edo beste lecu seguritic*



*lagunaren gauza deungaren bat jaquin dogunian?*

- E. Edolabere alde onera bota bere egui modu, edo intencinoia. Ezaguera бага, edo guichiaz eguingo ebala uste izan, laster escatuco eutsala Jaincuari parcacinoia damuari benetaco bategaz.
- I. *Cegaitic da ain pecatu andia juzgu deunga vorondatezcua?*
- E. Cerren artzen deutsagun Jaincuari juzguetaco escubidia, ceñi barric jatorcon bestèn aguintari, ta Juez izatia.
- I. *Cer esan biar da Cristinau asco gaitic, ceintzuc lagunaren eguite onetan bere achaquia, ta eguiera charrac asmau daruezan?*
- E. Diriala Fariseo madaricatuben lagunac, ceintzuc beti oi ebiltzan Jesu Cristoren eguiteric onenac achaquietan.
- I. *Cer jazoco jaquè onelaco Cristinaubei?*
- E. Izango dabe erruquitasun bagaco Juicio gogor bat Jaincuaren aurrian; cerren izan cirian eurac bere Juez gogorrac euren lagunacaz.
- I. *Cer eracusten deuscu San Pablo Apostolubac, juzgu deungaric ez eguiteco?*
- E. Benetaco doctrina bat verba onetan: eztogu iñor juzgau biar, Jaincuac erabaguita daucan demporia baño lenago, ceinec bere etorreran deseguingo ditu orain ichuturic gauquezan odei illunac, ta aguertu, ta aztertucu ditu gure viotceco bazterrac, emoteco bacochari irabaci dabena.
- I. *Celan quenduco ditugu, inor juzguetaco gurari charrac?*
- E. Gomutaubac (sic) guztioac gariala alcarren anaiac, bacochoac dabela cegaz umillau, ta juzgau bere buruba, inorenai ichita bere, ta biarbada Jaincuaren beguietan gu baño obiaguac diriala, juzgau gura ditugun lagunac.
- I. *Cer jazo jaruaque ascori?*
- E. Jesu Cristoc dinuana, au da, icustia lagunaren beguietan samar chiquin bat, ta eurenentan abe andi bat bere ez.
- I. *Cer osabide, edo erremedio gach onentzat?*
- E. Amau bestiac gueure burubac leguez, ta onegaz guztia dago esanic.

*Beste icasbide bat**Gauza onen gañian*

- I. *Cer beste gauzaric eragozten jacu zortzigarren agiundu onetan?*
- E. Gueure lagunac gaitic deungaro esatia, edo murmuretia.
- I. *Cer da lurrian dazaugun gauzaric onena, ta deunguena?*
- E. Guizonaren miña.
- I. *Cegaitic alan?*
- E. Cerren asco valietan diran beragaz, Jangoicua bedeinquetaco, ta lagun ascoren arimac irabazteco ta beste asco Jaincua deshonrau,

ta arima asco Infernuco bidian ifinteco.

- I. *Cer da emen eragozten jacun murmuracinoa?*
- E. Da lagunaren utseguin ezcutucoren bat aguertutia norbaiti.
- I. *Noz izango da pecatu mortal?*
- E. Nori bait honria quendu, edo guichituten jaconian, nola izango, litzatian esatia escu garbiac eztitubala, edo adisquidetasun char bat darabillela, batez bere irichi, edo opininoe onian egozan personaren batzuc gaitic.
- I. *Cer esan biar jaque eranzun daruen Cristinau ascori, ez neban nic ecer asmau, lenago neuc bere enzun neban, ta enzun neban leguez contaue neban?*
- E. Esan biar jaque, enzunac ito biar dirala barruban, esan guztiac ez-tirala eguiac, guzur asco esaten dala munduban, edo beintzat bai asco gueitu; eta gauza ciertuba izan arren bere, lagunac daucala ezcutau daiuen escubidia.
- I. *Eta izango da pecatu Persona bati, edo besteri iñoren charqueri ezcutucua esatia, aguinduric gorde daiela eurentzat, iñori aguertu barga?*
- E. Bai confianza andico Personac izanarren bere: cerren deshonretan daben aen artian.
- I. *Eta gauza guztiz aguertu, ta publicuac contetia izango ete da pecatu mortal?*
- E. Ez: cerren galduric dabillen honria alaco demporetan: baña lenago aguertuba izan arren aztu bazan, ta gente artian uste onian beguan, eguiten jaco injuria andi bat, igarorico, ta azturico gauza deunga aec barristaubaz, ta gomutau eraguiñaz.
- I. *Cetan utseguiten dabe ascoc?*
- E. Uste izanaz aguertu, edo publicuac dirala, guichiren artian baño eztabillen demporetan bere.
- I. *Noz esan leite eguiac gauzaren bat aguertuba, edo publicua dala errian?*
- E. Ascoz gueiagoc daquienian, edo berez guztien beguien aurrian jarten danian.
- I. *Erri baten jaquina dan gauza deungaren bat beste erri ezcutau danen baten contetia, izango da pecatu?*
- E. Bai, ta mortala, calteren bat bajatorco lagunari: nola izango litzatian otseguinen baten lapurreria contetia, onegaitic ugazabaric topau ecin baleu, ta ostera eguin daiquialaco peligru errazoezcoric ezpalego.
- 94 I. *Ceintzuc jausten dira sarritan murmuracinoeco pecatuban?*
- E. Gorrotuan vici diranac, contetan dabiltzala, euren Areriuari daquiuezan utseguite guztiac.
- I. Ugazaba, ta Echeco-Andra asco, euren otseguinen bat gauza

- deungaren baten artuta, aзуetan contetan dabiltzanian.
2. Mutill gaistoren batzuc, galdu daben nescatillaren baten pecatu isillecua lagunen bati aguertubaz.
  3. Emazte bat baño gueiago euren senarragaitic artu daben susma charren bat contetan dabenian.
  4. Verba baten, Andracume chito asco, iñoren vicitza, ta eguitiac aztertu, ta esaminetan demporia igaro daruenac.
- I. *Cer esan biar da murmuracinoiari laguntcen deutesnac gaitic enzunaz?*
- E. Esan biar da San Bernardoc dinuana, au da, enzulac dauquela Diabruba belarrietan, ta esalac miñian.
- I. *Cer eguin biar dau murmuracinoe astuna enzuten dabenac?*
- E. Beguiratu cein dan murmuraguillia; eta baldin bada bere azpicua, edo alde guztietara chiquinagua, eguin aguiraca, edo cemairen bat, esanaz, cein gauza deunguia, ta gorrotogarria dan murmuracinoia; bere ida, edo ereducua bada, esan beste aimbeste amodiuaz, edo adisquidetasunez: Nagusiagua bada ebagui ezarian, edo egarrizaca leguez izcune guztia, aldeguin achaquiaren bategaz: edo besteric ecin badau, eracutsi eraguin arpeguico muquertasun, edo illuntasanian, cer atsacabe andia artzen daben deungaro esaten enzunaz.
- I. *Nortzuc eguiten dabe pecatu murmuracinoiari lagundubaz?*
- E. Euren arteco pozqueria, ta atseguintasunen bategaz danzubenac.
2. Murmuracinoeraco gueiac emon ditubenac, lenago igarriaz, cer jazoco zan.
  3. Arpeguico arguitasun, ta barriacaz euren poza daracusenac.
- I. *Ceimbat aldetara murmurau oi da?*
- E. Ascotara: baña guztiac datoz bitara: lenengua verba zucen, ta arguiacaz; bigarrena verba ebagui, ta erdiacaz.
- I. *Ceintzuc murmurau darue verba oso, ta arguiacaz?*
- E. Gira-bira бага, edo artez inoren utseguinac aguertuten ditubenac: nola dan esatia, urlia, ta zandia vici dira deungaro, edo alcarri lagunduten deutse guiberri, edo beste gauzaren batzuc ostuteco; neuc icusi, edo lecu onetic jaquin nituban.
- I. *Ceintzuc murmurau darue verba erdi, ta ebaguiacaz?*
- E. Azartuten ez diranac artez esaten lagunaren utseguina; baña gira bira batzucaz gueiegui adierazo oi dabenac. Orregaitiño eguin daruez calte asco honran, esaten dabenac: Urlia nescatilla, edo Andra, edo ain echetacuac ondo jan, ta ondo janciric vici dira: nic eztaquit nundic urten daruen aimbeste ondasunec; nic ecin buruba jaso dot, ta derichat eztodala alperrico demporaric galtzen. Nun-

dic, edo nundic urtengo dabe. Verba erdi onecaz ecin esan lei, ceimbat pensamentu, edo gogoracinoe deunga jatorquezan enzula guztiai.

- I. *Eta cer uste izan biar da ascoren esaquera onegaz? Dinue Urlia nes-catilla seindun daguala, edo iñoc eztaquiola (sic) seiña eguin dabela; zandia otseguinec eheco gari, ta artuac saltzera eruan ditubala; baña ecin nic sinistu dot.*
- E. Uste izan biar da, verba chito caltetsubac diriala: bada bigarren ao, ta izcuneraco beste arpegui bat artuco dau esaquera ac; eztabe andi laster esango, *dinue*, ezpada *alan da*; eztabe esango, siniseta eztabela, ezpada guztia guzurra izango ezta, ta onelan galduric gueretan da lagunaren honria, ezarten jacola biar bada etzan gauzia.
- I. *Cer juzgu eguin biar dogu batari, eta bestiari contetan dabiltzazana, Urliac cer esan dabèn eurac gaitic?*
- E. Eguin biar dogun juzguba da dauquela Diabruben cereguiña, gorroto, ta icusi naiez gogorrian ifinten ditubela asco alcarren artian euren barriqueta citalac gaitic.
- 96 I. *Eta pecatu da illac gaitic murmuretia?*
- E. Bai, viciac gaitic pecatu danian. Au da, illen azur ustelai eraguitia. Juzgau cituban guizon guztien Aguintariac. Cegaitic bada baquian isten ezteutsegu, onic eguiteco asmoric ezpadaucagu bere?
- I. *Cer esan biar jaque onai siñu, coco ta ijui eguiten deutsenai, eurac leguez sartu nai eztabelaco lurreco baralla, naste, ta atseguin bide-tan?*
- E. Esan biar jaque, Jaincuac bere contura artuco dabela bere adisquide, ta servitzariai eguiten jaquezan siñubac castiguetia.
- I. *Ceimbat calte eguiten dabe onelaco burlari, edo siñulariac?*
- E. Asco: bada arima gueiago atzeratu oi dira Jaincuaren bideti Munducuen esames, ta siñuben bildurrez, infernucuen aleguin, ta cirica guztiacaz baño. Aceriac jan daruez mastietaco lenengo morgota, edo pampanubac, ta cristinau ascoc, aceri galtzalle onen irudira, jan edo ondatu daruez Jesu Cristoren mastico lenengo asiera onac, dino San Bernardoc.
- I. *Ceri esaten jaco contumelia?*
- E. Norbaiti arpeguian lotsagabequeria, edo verba astunen bat esatiri.
- I. *Ceimbati eriotzia emoten deutsa min gueistuac?*
- E. Iruri: onec dira, deshonrau daben laguna, enzuten daguana, ta bere arimia.
- I. *Cer eriotza emoten deutsa lagunari?*
- E. Munducua, edo guizartecua: bada isten dau honra бага.

- I. *Cer eriotza enzula ta bere arimiari?*  
 E. Espiritucua, pecatu eguiñaz, ta eraguiñaz.  
 I. *Cer dino Espiritu Santubac murmuratzalligaitic?*  
 E. Dino, euren ao barruban dauquela eden, edo veneno suguetzarren irudicua, ascori eriotzia emoteco.  
 I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*  
 E. Ez iñogaitic deungaroric esan, ta aleguiñaz guztiac ontzat euqui, edo besteric ecin dogunian erruquitu lagunen argaltasunacaz.  
 2. Ez inoz lagundu murmuracinoeco izcunetan, ezpada sartu gueure barruban gogoracinoia, ta arpeguia atera lagunagaiti, dazagunian isilerazoteco izango dala vitarteco ona.

*Amargarren icasbidia*

*Eleisa Ama Santiaren aguinduben gaiñian.*

- I. *Cein da Eleisa Ama Santiaren lenengo aguinduba?*  
 E. Meza oso bat enzutia aldaguienac Jaiegun, ta Domeca guztietan.  
 I. *Cegaitic gura dau Eleisa Ama Santiac Meza enzun daigun esan ditugun egunetan?*  
 E. Cerren dan Cristinautasuneco eguiteric miragarriena, ta Jangoicua gueien atseguindu, ta honretan dabena.  
 I. *Cein Meza biar da enzun eragozbideric eztaguala?*  
 E. Errico Meza nagusia.  
 I. *Cegaitic ori?*  
 E. Cerren gracia, ta mesede gueiago zabaletan dituban Jangoicuac, Cristinaubac gorputz bat eguinda alcarregaz zucenduten ditugun erregubetara, banaca eguiten ditugunetara baño.  
 I. *Cegaitic gueiago?*  
 E. Cerren enzun biar diran Cura Jaunen eracuste, ta Sermoiac, aste-co Jaiegunac, barubac, ta beste gauza asco.  
 I. *Cer mereci leuque urte guztian bein edo beste baño euren Eleisara eztuazanac, ta euren Arzainaren verbarua celacua dan ozta daquienac?*  
 E. Merece leuque, Pazcuaz bere comuninoeric euren Eleisan ez emotia, ta illonduan campo baten lurpetutia.  
 I. *Ceintzuc emon biar dabe onetan egempluba?*  
 E. Echeco Nagusi, Guraso, ta Errietaco Andiqui, ta Aguintariac.  
 I. *Ceintzuc eguiten dabe pecatu Meza ez enzunaz?*  
 E. Eguiazco eragozbideric eztauquenac.  
 I. *Ceintzuc dauque eguiazco eragozbidia?*  
 E. Ecin enzun daiquenac calteren bat etorri daquien peligru baga, dala gorputzaren, honriaren, edo ondasunen aldetic.

I. *Cegaitic ori?*

E. Cerren Eleisaco aguindubac ez gaituben biartu, edo obliguetan calte andiaren bian. Orregaitino eztabe pecaturic eguingo Meza ez enzuna gaiso dirianac, edo osatuteco demporan dabiltzazanac, gach eguingo deuteselaco bildurra badauque.

Echia bacarric ecin ichi leiquenac norbaiten bildurrez: baña Meza bi edo gueiago dagozan errietan, batzuc juañ biar dabe lenengora, ta bestiac bigarnera.

Gaisoren bati lagundu biar deutesenac, ezpadago norc jaon bestiac Meza danzuban artian, ta nequez egongo balitz gaisua iñor baba.

Guraso sein gaisuac dauquezanac, ta bestegaz egon nai ezpalebe bere Amagaz baño; bardin adietan da ume chiquin asco dauquezenacaz, baldin ecin ichi baleitz bacarric, echiari su emon, edo beste calteren baten bildurrez.

Nosbait icazquin gaiso batzuc ichi ecin dabenian bacarric icaztoqui su emona, ta ecin aldizca Meza enzutera juañ dirianac.

Zar jausitu, edo adore guichi dauquenac, Eleisara juateco, batez bere eguraldi char, edo gogorrac dagozan egunetan.

I. *Baña cetan igarrico da, eguiac diran edo ez ascoc emoten dituben achaquiac, Meza ez enzuteco?*

E. Igarrico jaco gauza bati beguiratubaz: baldin amar bat errial baleucaz Meza alaco egunetan enzunda, ichico balituque beste cereguin guztiac, edo artuco balebe, Meza enzuteco biar dan beste neque, adietan emoten da, eztaguala ecin enzunic. Nic daquidana da, Meza guichiago utseguingo liratequezala eguingo balitz Eleisan bacocharentzat amar errialeco ofrenda bat.

I. *Eta cer esan biar jaquè, Confesoriac itanduric Mezaric enzun baba ichi daben, eranzun daruenai igaro jaquela?*

E. Beguiratu biar dau Confesoriac, izan zan edo ez euren erruz Mezia igarotia, dala echian astiro, edo ardura guichigaz luzaruegui egon cirialaco, dala jocuan, echeren baten sartuta, edo bidian lagunèn batzuc gueratuta, igaroco jaquelaco susmiaz, ta bildurrez. Baña ezta pecaturic, ta confesaquizunic bere eguingo, igaroten bada ustetzaca, edo erlojuba deungaro ebillelaco, edo beste ezagutubagaco errazoeren bategaiti.

I. *Eta cer eguin biar dau goiseco Mezia utseguin dabenac?*

E. Laster esaten bada besteren bat enzun biar dau: baña bigarren Mezia enzuten gueratubaitic (sic), gueratu biarco baleuque, Meza enzun baba, bere zain echian dagozanac, ez leuque pecaturic eguingo, echera juañaz, Meza enzuntzaca.

99 I. *Ceimbatgarren urtian enzun eraguin biar jaque Mezia Umiai?*

E. Zazpi urte bete, edo cumpliuta.

- I. *Ceintzuc enzuten dabe Meza Santuba deungaro?*
- E. Gorputzaz Eleisan egon arren arimiaz campuan dagozanac.
- I. *Ceintzuc dira onec?*
- E. Meza demporan batera, ta bestera beguira sarritan egoten diranac.
2. Lotan dagozanac zati andiren baten.
3. Gogua echecho cereguin, ta beste arazo batzubetan euren vorondez, ta gurariz darabilenac, edo eguiten eztabenac aleguina gogoracinoe alper acc quentzeco.
4. Confesetan dagozanac Meza artian: bada eztauca cer icusi Confesinoiac Meza santubaz.
- I. *Eta cer esan biar da Mezaric gueienian jarrita egon oi diranac gaiti, ozta belaunicatuten dirala consagracinoeco demporan?*
- E. Esan biar da, eztabela gogoratuten cer dan Eleisia, ta guichiago Mezaco Sacrificio Santuba. Erregue baten Jaureguian eztira jarlecubac icusten, ta ezta inor azartuten Erregueren aurrian jarten. Bada celan lotsatuten eztira premia бага, ta naguitasun utsez Meza demporan, Erregue guztien Erregue Altarara datorren orduban, jarri, ta biar bada etzinda egonda? Jesu Cristo gure Jauna icusi zan aserraturic, eguia da. Baña ez beste gauzagaitic, ezpada Jangoicuaren Eleisan, (ta ez guztiz Eleis barruban) icusi citubalaco uso, ta beste egazti batzuc saltcen. Cer eguingo eban, dino San Agustinec, topau balitu ordiac, ta luxuriosuac? Cer icusi izan balitu Eleis barruban barriquetan alcarren onduan jarrita eche, ta bazterretaco contubac esaten?
- I. *Eta ondo izango da, Meza bi edo gueiago aldabatera enzutia?*
- E. Obeto izango da Jaiegunian Meza bati beguiratu, ta arretaz enzutia.
- I. *Eta zer juzgu eguin biar da, Eleispian barriquetan egoten diranac gaitic aric, eta Abadiac altarara urten artian, ta azqueneco bedein-cacinoiaz batera urteten dabela, Jaincuari esquerrac emon, ta altarac icusi, edo visitau бага?*
- E. Eguin biar dan juzguba da, eztaquela cristinautasunaren azuzquiric, ta Eleisan dagozan artian bere ecin bestez dagozala. Gauza negargarria! Aste guztia darue euren biar, ta cereguinetan: badator Jangoicuaren eguna, ta Meza labur bat estu estuca, ta itu ituban enzunda, ta bera devocinoe бага, uste dabe Ceruraco dirala.
- I. *Celan enzungo da bada onduen Meza Santuba?*
- E. Sacerdotiac Mezia asten dabenian eguin gueure pecatuben confesinoia, *Ni peccataria* esanaz; escatu Jangoicuari pecatu guztien parcacinoia, ta garbi daguiala gueure arimia biar dan leguez, bere aurrian egoteco. Gogoratu consagracinoera artian Jesu Cristoren

Pasinoia, contu eguinaz zagozala calvarioco Mendian. Consagrauta guero beguiratu, cein etorri dan Altarara; cetaco etorri dan, ta escatu berari gura dozun guztia. Sacerdotia comulguetan danian, ercutsi Jesus Maitiari, cer gogo andia daucazun bera ceure barruban artzeco; ta comulgau goguaz, ta arimiaz gorputzez ecin dozunian. Meza onduan emon Aita eternuari esquer andiac bere Seme Maitia gure amodioz, ta pecatuben ordez, sacrificau, edo opa eguitia gura izan dabelaco.

- I. *Eta besteric ecin dabenac ondo eguingo dau Errosariua, edo beste erregu onen batzuc esatia?*
- E. Meza enzungo dau orrembestegaz: baña obiago da viotceco escari, ta gogoracinoe santubetan dempora eder à igarotia.
- I. *Nortzuc enzuten dabe Meza osua?*
- E. Asieratic amairañ danzubenac; alambere ezta pecatu mortal izango evangeliuaren asieratic azquenerañ, edo Meziaren asieratic Sacerdotiac bietara comulgau arterañ enzutia.
- I. *Eta cer eguin biar dau Meza erdian eldu danac beste Mezaric ezpadago?*
- E. Enzun emparauba.
- I. *Cein da prestaeratic biarrena ondo, ta provechuz Meza enzute-co?*
- E. Arimaco garbitasuna, edo gracia.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren siñu eguitia leguez dan azaletic Jangoicua alabetan egotia, viotz barruban deshonretan dogun artian.
- I. *Cer diño Espiritu Santubac pecatubetatic urten nai ezta, Meza Santubac atera eraguin, ta enzuten ditubenac gaitic?*
- E. Eztitubala bedecatuc alaco Sacrificio, ta esquiniac; cerren pecatubac erreguinetan daben alacuen viotcetan. Eta eguia esateco, cer naigabe zorrotza artuco eztau Jesus maitiac altaran daguan artian, icusiric etorri dala gure pecatubac quentzera, ta gu gagozala, barriac eguiteco asmo galdubetan? Aurre guztiac Aingueruz beteric, eta gu bildur baga, ta arima Diabruz betiacaz jarrico gachacoz bere begui aurrian?
- I. *Cer atera biar da icasbide onetatic?*
- E. Enzun Meza Santuba albadaiгу egunoro; prestau ataco, comulguetaco baguengoz leguez. Ecin Mezaric enzun badogu eragozbidе eguiazcoren bategaitic, enzun echetic arima, ta goguaz, edo eguin beste gauza Santuren bat, nola dan Calvariuc icusi, edo Errosariua esan.



*Amaicagarren icasbidia**Eleisiaren bigarren, ta irugarren aguindubaren gañian.*

I. *Cein da Eleisaco bigarren aguinduba?*

101

E. Confesetia edolabere urtian bein, edo lenago eriotzaco zorian badago, ta comulgau gura badau.

I. *Cer esan biar da urtian bein, edo birritan baño confesetan ez diran Cristinaubac gaitic?*

E. Esan biar da dabiltzala condenacinoeco arriscu andietan.

I. *Pecatu mortalian daguanac ondo eguiten dau confesinoia luzatutiaz?*

E. Eztau ondo eguiten, ezpada chito deungaro. Zauriren bat artu dabena ezta egoten egun ascotan sendaguille, edo Barberubari ots eguin baga: cerren ezta ain erraz guerora osatuten. Locatza baten jausi, ta loitu dana, laster dua uraren billa garbietaco. Eztago zauri andiagoric pecatu mortalac gure ariman eguin dabena baño. Bada celan ez guaz arimaco Sendaguille, edo Confesoriaren billa? Sartu, ta loitu gara pecatuco locatza, ta cinguiratzarrian. Celan ez guaz penitenciaco iturrico uretan gueure arimia garbitutera?

I. *Nogaz eguin biar da confesinoia?*

E. Gaurco egunian edocein confesoregaz.

I. *Baña cer izango da onduen?*

E. Billatutia confesore jaquitun, cinzo ta virtutetsu bat.

I. *Cegaitic aimbeste ardura, baldin guztiac badauque escubide bat?*

E. Cerren obeto zucenduco gaituban Ceruco bidian. Auci bat erabilili, edo gaiso danac ezteutsa beguia ezarten edocein Letradu, ta Medicuri, ezpada obetuen zucendu, ta osatuco dabenari. Guztioc darabilgu salvacinoeco aucia Diabrubaz; guztioc gagoz gachen bategaz arima barruban; bada celan aututen eztogu onduen zucendu, ta osatuco gaituban arimaco Letrau, edo Medicuba, cein dan Confesore jaquitun, ta ona?

I. *Cetaco da sarri confesetia, baldin ezpadago cer esan?*

E. Onela verba eguiten dabenac, eztazaube ondo euren arimaco barrri. Guizonic santubenac beti aurquietan dabe, cer confesau, gauza astunic ezarren. Soñoco zatar, ta baltz baten eztira ondo icusten mancha edo loitasunac; barriz soñoco garbi, zuri, ta eder baten edocein loitasun, dan chiquinena bada bere aguiri izaten da; beste onembeste jazoten jaque arima zatar, ta garbiei. Garbia dauquenac edocein mancha dacuse; baña ez loia, edo zantarra dauquenac. Eta cer esan barriric ezpadago, autortu lengo pecatu bat, ta gueituten da ariman gracia, confesinoiac gueitubaz duazan ereduban.

I. *Cer edade, edo adiñian asi biar da confesetan?*

E. Ezaguerara eltzen garianian.

- 102
- I. *Cetan utseguiten dabe gauza onetan Gurasuac?*  
 E. Adiuntzaz, edo demporaz ez eracutsiaz euren umiai cer dan confesinoia, ta celan confesau biar dan.
- I. *Eta cer jazoten da guero?*  
 E. Jazoten dana da, amar, ta amaicagarren urtera elduta bere, ez jaquitia, ceimbat gauza biar diran confesetaco, ta milla zoraqueria, edo barregarritasun esan, ta eguitia Confesoriaren oñetan.
- I. *Cein da Eleisaco irugarren aguinduba?*  
 E. Pazcua Jesu Cristo viztu zanecuetan comulguetia, ta gaurco egunian Errialde onetan Erramu egunetic asi ta amostgarren egunen barruban.
- I. *Nun eguiten da, ta eguin biar da Comuninoe au?*  
 E. Bacoachac bere Parroquian, baldin Cura Jaunac isten ezpadeutsa errazoe pisutsuren bategaitic, beste Eleisaren baten eguiten.
- I. *Eta Pazcuaco egun aetan comulgau ecin izan dana, comulgau biar ete dau amabost egun aec igarota?*  
 E. Bai, ta luzatuten badau, ez comulguetia naguitasunez, vici da pecatu mortalian.
- I. *Eta cer eguin biar dau Penitente batec, ucatuten badeutsa Confesoriac absolucinoia Pazcuaco egunetan?*  
 E. Ezagutu umiltasun andiaz, beria dala erru guztia, ta ecin eguieuquiala confesoriac beste gauzaric, betico beragaz batera galdu nai ezpeban. Artu guero neurri obiac, ta eguin arreta andiaz, Confesoriac aguindu eutsan guztia, ta biurtu beragana esa eutsan demporan. Baldin ucatu beutsan absolucinoia, lenago penitenciac cumpliu etzitubalaco, echian galbidia eucalaco, obasunic ezerualaco confesinoe batetic ta bestera, cumpliu penitenciac, urten oca-sinoetic, ta artu neurri senduagua, ez biurtuteco lengo pecabetara (sic), ta onec eguinda, jua confesinoe, ta comuninoe on bat eguitera.
- 103
- I. *Eta deungaro confesau, ta comulguetan danac cumplietan dau Pazcuacua?*  
 E. Ez, ta eguiten ditu lau pecatu mortal, bi sacrilegiozcuac, confesinoe ta comuninoe deungac gaitic, ta beste bi, Eleisiascua eguin ez-tabelaco.
- I. *Cer castigugaz cematuten ditu Eleisa Ama Santiac Pazcuacua eguin gura eztabenac?*  
 E. Cematuten ditu, Eleisan sartzen ichico ezteutsela, ta eriotziac artzen baditu eguimbide, edo obligacinoe andi au cumpliu baga, ez-teutsela emongo Eleis-lurric.
- I. *Cer juzgu eguin biar da, urtian bein baño comulguetan eztiranac gaiti?*  
 E. Ecin bestez comulguetan diriala, ta eguiten dituben comuninoiac

izaten dirala vorondate bagacuac, ta Jaincuari atseguin guichi emoten deutsenac.

- I. *Ceimbat bider comulguetia ondo izango da?*  
 E. Ezta erraz emotia guztientzat zucembide, edo erregla bardinic. Confesore jaquintsuac beguiratuco deutse bacocharen viotz, ta eguinalai. Doncella bat sarriago comulga leite ezcondu bat baño. Edoceni ichi biar jaco, eria dabela, zortzian bein comulguetan, dino San Francisco Sales Maisu andiac, baldin ardura artzen badau, pecatu venialetan ez jausteco. Au berau da San Agustinen irichi, ta vorondatia. *O ceimbat postuten nasan*, esaten eban san Basilio eracucusle miragarriac, *icustia neure Eleistarrac astian iru, ta lau bider comulguetan*. Alambere otseguin, ta servitzariac eztabe euren burueraz ibilli biar, ezpada itundu Confesoriaz, ta eguin alequiña erriertaric echian ez ifinteco.

*Amabigarren icasbidia*

*Eleisa Santa co laugarren aguindubaren gañian.*

- I. *Cein da Eleisaco laugarren aguinduba?*  
 E. Eguin daigula baru berac aguinetan (sic) deuscuzan egunetan.  
 I. *Cer egun dira orrec?*  
 E. Garizumia, urteco lau aldi, edo quarta: temporac, ta Jai bispera (sic) batzuc.  
 I. *Cetaco ifini eban Eleisiac garizumaco baruba?*  
 E. Gomutau guindecen Jesu Cristo gure Jaunac Basamorto (sic) baten egui eban berrogeui eguneco baru gogorraz, ta era onetan prestau gaitezcan Pazcuaco Confesinoe, ta Comuninoera.  
 I. *Cetaco ifini cituban lau demporaco barubac?*  
 E. Eraldi guztiac consagrau guenguizan penitencia ta negarrari, eta escatuteco Jangoicuari Eleisaco Jaole, ta Ministro onac.  
 I. *Cetaco baru eraguiten deuscu Jaiegun batzubetaco aurre, edo visperetan?*  
 E. Ezagutu guenguian, penitencia dala prestaeraric onena, egun santubac honretaco, ta gomuta guindecen, ecebela Santubac billatu Ceruraco bideric, gorputceco necaldi, edo penitenciaren bitartez baño.  
 I. *Ceintzuc eguin biar dabe baru dempora onetan pecatu mortalaren azpian?*  
 E. Ogueta bat urte igaro dituben guztiac eragozbide eguiazcoric ezpadauque.  
 I. *Ceintzuc dira eragozbide eguiazcuac?*  
 E. Dira ecin eguiña, premia, ta caridadia.  
 I. *Ceintzuc sartzen dira ecin eguinian?*  
 E. Gaiso diranac, osatuten dabiltzanac gach astunen bat igarota; ba-

ña eztau bacochar onetan bere burueraz ibilli biar, ezpada itandu Medicu gorputceco, ta nozbait arimacuari, ta eguin ichu ichuban onec esaten deutsena. Baña eztau edocein gachec barutic libretan, ezpada baru eguiñac calte ecarri leiquionac.

2. Baru eguiteco duin jateco batera eztauquenac, ta guztiz oni batzen bajaco gorputzceco argaltasunen bat.

3. Iñude, ta Seindun dagozanac: cerren beguiratu biar deuten senen onari. Baña ecin oquela gauzaric jan leique, seña gaiso dabelaco Medicubac aguintzen ezpadeutse, edo seindun egonda gurari viciren batec artzen ezpaditu.

- 105 I. *Ceintzuc librau leitez barutic premiaren aldetic?*
- E. Edocein languille, baru eguinda, gorputza gueiegui necatuten dabena, edo ceinen lana edo biarra ecin alcartu leitian barubaz. Orregaitino eztauque baru eguiteco obligacinoeric Olaguizon, ta Errementariac, Arotzac, Achurlariac, Arguiñac, ta bide luce, ta premiazcuac eguin biar ditubenac, Lisiba andia jo biar dabena.
- I. *Eta cer esan biar da Eche jateco ona daguan batzubetaco oguia eguiten dabena gaitic?*
- E. Esan biar da, icusi dodanaz Jaincuaren bildur diran otseguinetan, eguin daiquela baru, batez bere chocolate puscaren bat emoten badeutse, edo chocolateric eztauquenac, onza bat ogui gorputza eregau, edo palaguetaco artuta, eguin daiquenac: Cerren eguberdi artian igaro ezquero arratsalderuntz equi eztaruen neque andico biarric.
- I. *Eta cer esango da Eunlac gaitic?*
- E. Ezta erraz epai bardinic emoten. Itandu deutset lan onetan jarduten dabena Jangoicozco Nescatilla batzubei ta euren eranzutetatic atera dodana da, beguiratu biar jacola bacocharen sendotasun, ta indarra, dauquen jan modubari, ta erraz gueienac eguin daiquela baru bat edo bi baño eztaarren egunetan; eta Garizuman edolabere egun ascotan, guztietan ecin badabe bere. Alan bacochar itandu cinzoro bere Confesoriari, gauza guztiac arguiro aguertubaz.
- I. *Eta baruric eguin daique nozbait Baserritar, ta Achurlariac?*
- E. Bai: eguraldi charrac diran dempora batzubetan, dagoz egun ascotan Andracumiac gorubari dautsela, ta Guizonac gorputceco neque bago; eta alan janari ona badauque, ta iru, edo lau egun badagoz, biar gogorric eguin bago, ta osasunac lagunduten badeutse, eguin leique baru, Baserritar ascoren artian dacustan lequez.
- Eguin biar dabe baru Dendari, ta Jostunac; cerren onen biarrac eztau asco necatu, ta adicatuten gorputza.

- I. *Eta baru eguin biar dabe iruroguei urte igaro ditubenac?*  
 E. Ni ez nintzate azartuco barutic libretan zarrac, icusico ezpaneu aguinte guichi dauquela. Topetan dira indar, ta adore andico zarrac, ta dacuscuna da, gazte ascoc baño errazago eguin daruela baru, gura dabenian. Oni beguiratu biar jaco, ta ez abesbeluban esan, Zar guztiac dagozala barutic libre, senduac izan arren, ta jaqui ugaria badauque bere.
- I. *Celan eguin biar da baru?*  
 E. Jatordu bat baño ez eguinaz, ta gabaz colacinoe arin bat, Cristinonac eguin daruen jaquiaca, ta ereduban. Eta alan ezta sardina, ta arrain gauzaric, ezta gaztae, ta ezneric bere, artu biar colacinoetan.
- I. *Cetan utseguin dabe ascoc?*  
 E. Uste izanaz goiseti eguberdi arteraño, ta eguberditic arratseraño ecer artzen ezpada, jan daiquela gabaz nai beste salda, arto, ta aza.
- I. *Celan eguiten zan baru anchinaco demporetan?*  
 E. Orduban ezeben eguiten jatordubat baño, ta bera arratsaldian: ezta ezagututen colacinoeric; ta gaurco egunian turcu, ta Gentilen arteco barubac dira gurien aldi gogorric, ta Jaincuaren juciuan salatu ta lotsatuco gaitubenac.
- I. *Eta oquelia jateco baimena, edo licencia dauquèn guztiac ete dagoz libre barubetic?*  
 E. Ez, beste eragozvide, edo gachen bat ezpadauque.
- I. *Ceimbat garren urtian debequetan jacu aragui gauzac jatia?*  
 E. Zazpi urte igarota beriala, ta ecin edade onetara eldu ezquero jan leique inoc gaztae, ezne gauza, ta arrautzaric Garizuman, Buldia ezpadauca, ta onetan utseguin darue Guraso ascoc.
- I. *Cer eguin biar dau Vigilia egunetan oquela jateco licencia dauca-nac?*  
 E. Ez nastu oquelia arrain gauziaz; baña eztau pecaturic eguingo, baru ezpada, ta osasunian calteric eguin daiquion bildur ezpalitz, eguberdi oquela gauzac, ta gabaz arrainezcuac janarren: cerren bacarric dagan debacatuta jatordu bateco nastia.
- I. *Cer ordutan eguin biar da baru eguneco jana?*  
 E. Ez eguberdi baño lenago; eta belubago eguin gura dabenac, bere escuban dauca.
- I. *Ondo da Eguberdi colacinoia, ta gabaz afaria eguitia?*  
 E. Eztau orrelaco aldantzaric eguin biar errazoe onen bat eztaucanac.
- I. *Ceimbat ondasun dacaz barubac?*  
 E. Asco; lenengo illdu, ta guichituten ditu araguiaren vicitasun, ta gurariac; bigarren, jasoten dau arimia goruntz, errazago igon

daiian Jaincuaren aurrera Oracinoiaren bitartez; irugarren igues eraguiten deutse Diabrubei, ceintzuc bildurduten diran barubaren icenaz; laugarren, eracarten ditu Jaincuaren bedecacinoiac, ta emoten jaco gueure pecatuben ordetasun, edo satisfacinoia.

- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*
- E. Gorde artez Eleisaco barubac, ta eguin osteruncian nozbait vorondatez egun batzubetan.  
Lagundu arimaco baruba gorputzecuari.
- I. *Cer da arimaco baruba?*
- E. Ez jatia, Jaincuac debecaurico fruturic; au da Jaunaren aguindubac osoro gordetia.

*Amairugarren icasbidia*

*Eleisaco bost garren aguindubaren gainian*

107

- I. *Cein da Eleisaco bostgarren aguinduba?*
- E. Amarren-Primiciac emotia Jaincuaren Minsitruai.
- I. *Ceiñec emon deutse Jaincuaren Ministruai Amarren-Primicietaraco escubidia?*
- E. Jangoicuac berac, ceinenac dirian lur, ta ondasun guztia.
- I. *Cetaraco alan?*
- E. Beste arazqueria, ta cereguinac albo batera largata, jardun daien Altaraco lanetan, ta beste guizonai arimaco emoten, eurai gorputzecua emoten deutesen leguez.
- I. *Cembatetic pagau biar dira Amarrena, ta Primiciac?*
- E. Amarrenac amarretic bat, ta Primiciac berroguetic (sic) beste bat: eta alan berroguei anega gari, edo arto batu ditubanac, zor ditube bost anega, lau Amarrenari, ta bat Primiciari.
- I. *Eta barruban sartu biar ete da erein zan garauba?*
- E. Ez, ta saluauco ecin dira alaco asmo dollorren billa dabiltzanac. Amarrenac emon biar dira Jaincuaren bildurrecuen artian emoten diran leguez, ta onelacuac beti pagau daruez cinzoro batzen daben ereduban.
- I. *Cer gauzatzuc amarrendu biar dira?*
- E. Onetan egon biar da Errietaco usadio, ta oiturara, ta icusi cer eguiten daben gueienac, ta ez jarraitu baten, edo besteren eguiñari.
- I. *Eta emon biar ete jaco Amarrenari onenetic?*
- E. Ondo litzate; baña eztago orrembesteraco obligacinoeric; emon biar jaco bada pillotic, esan gura dot, onetic ona, arinonetic arinona, ta deungatic deunguia artu dan leguez.
- I. *Eta galonduan ereinda artu oi diran linuac zor dabe amarrenic?*
- E. Bai: cerren diran amarrendu daruacen frutubetatic bat, ta cerren Cristinau onac alan eguin daruen.

- I. *Cer jazoco jaque Jangoicuaz dollorquerietan ibilten dirianai, edo osoro jatorcona ez emonaz, edo deunguenetic pagaubaz?* 108
- E. Galduco jaque ostu daben baño gueiago, ta urritu, ta argalduco dira lurrac, frutu ugariric emongo eztaben ereduban.
- I. *Cer jazoco jaquè barriz artetz, ta ciatz amarrenduten dabenai?*
- E. Jausico da eure Solo, abere ta guiberrietara Jangoicuaren bedein-cacinoia.
- I. *Eta topauco dabe absolviu daiquezan Confesoreric biurtuten ezpada-be lèn gueratuba, aurrera ciatz paguetaco gogo benetacuaz?*
- E. Ez: cerren debecauta dago onelacuen absolvicinoia, batez bere Obispau onetan; eta alan milla Buldac bere ezteutse valioco, biur-tuteco, asmo aguiazco bat ezpadauque, ta Confesoriac ezteutse verba on irudicuai sinistu biar, ezpada eguiñai.
- I. *Cer jazo jacon Caini gauzaric deunguenac Jaincuari opetsieutsalaco, ta cer bere anaia Abeli?*
- E. Bataren esquinia ontzat artu cituban, ta Cainenai beguiracune charra egui eutsen.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*
- E. Ez dollorra, ta prestubeza izan Jangoicuaz, bada bestela neurri atan neurtuco gaitu gueu bere.  
Ez enzuteric emon Cristinau cequen batzuben barriquetai, ta ezta baidaren baten bagagoz, itandu Confesore jaquintsu bati, ta ez ur-ten bere esanetic.  
Emongo ditugunac emon vorondate onaz, ta viotz garbiaz.

*Amalagarren Icasbidia**Pecatuben gainian*

- I. *Cer da pecatuba?* 109
- E. Da esatia, gogoratutia, gura izatia, edo eguitia cerbait Jangoicua-ren aguinduren baten contra; edo Jaincuaren leguiari ez obedie-tia.
- I. *Ceibat pecatu mueta dira?*
- E. Dira bi, Jatorrizcua, ta gueurezcua, edo bacocharena.
- I. *Cer da pecatu jatorrizcua, edo originala?*
- E. Da pecatu bat, ceiñegaz sortuten garian, gueure lenengo guraso Adanec, ta Evac eguinda, Amaren sabeletic jatorcuna.
- I. *Cer da pecatu gueurezcua, edo bacocharena?*
- E. Da gueure naiz, ta vorondatez eguiten dogun pecatuba adimentu, ta ezagueraco demporara eldu ezquero.
- I. *Ceibat erara eguiten da pecatu mueta au?*
- E. Lautara, gogoz, verbaz, pensamentuz, ta eguinez, edo obraz.
- I. *Ceri esaten jaco eguinezco, edo comisinoezco pecatuba?*
- E. Esaten jaco debecaurico gauzaren baten eguitiari, nola dan cer-bait ostutia.

- I. *Cer da utseguinezco, edo omisinoezco pecatuba?*  
 E. Da eguin biar guendubana, ta eguin gueinquiana ez eguitia: nola dan Jaiegunen baten Meza ez enzutia.
- I. *Pecatu bacocharen artian, ceimbat mueta dazauguz?*  
 E. Bi: batari dericho mortala, ta bestiari veniala.
- I. *Cer da pecatu mortala?*  
 E. Da pecatu bat, ceinec galerezoten deuscu Jangoicuaren gracia beragaz adisquidetuten guenduzana, Ceruraco escubidia, ta ifinten gaitubana Infernuco bidian.
- 110 I. *Noz da mortala pecatuba?*  
 E. Ezaguera, ta vorondate osuaz austen dogunian Jangoicuaren aguiduba guei astun, edo gauza pisutsuren baten.
- I. *Cegaitic emoten jaco mortalaren icena?*  
 E. Lenengo: cerren jatorcun infernuba, cein dan betico eriotzia, ta cerren illten daben gure arimia.
- I. *Edoecin pecatu mortalec mereci dau Infernuba?*  
 E. Bai, ta ezta pecatu mortal bat baño biar Infernuban jausteco.
- I. *Celan emon leiquio eriotzia gure arimiari illcorra ezpada?*  
 E. Galerezoten deutsalaco Jangoicuaren gracia, cein da arimaco vicitzia.
- I. *Ceimbat ondoringo datoz arimiaren eriotza orretatic?*  
 E. Asco: baña iru dira ezagunenac.  
 Lenengua, arimia eguitia Jaincuaren arerio, ta bere aserria ecarezoten dau bere gañera.  
 Bigarrena, Diabrubaren catiguera, mempetasun, ta escubetan jartia.  
 Irugarrena, lèn eguinic eucazan gauza on guztiac alperric galtzeia, ta eguin aldaiquezanac Ceruraco utsat (sic) izatia.
- I. *Celan adierazoco da esan au?*  
 E. Irudin, edo bardintza onegaz. Eguizu contu arech landara, baña sustrai bagaco bat, ifinten dozula Baso ederrian. Ezarri eiozuz bazterretan dirian simaur, edo sats guztiac; achurtu eizu baderichachu egunian bein, edo birritan. Ceimbat Zacu icatz artu uste dituzu Arbola agaz? Alperrac diriala, esango duzu, beragaz artzen dirian neque icerdi guztiac. Eta cegaitic ori? Cerren sustrairic eztaucan. Au berau jazoten jaco gure arimiari: alperric necatuco zara achurtu, ta simaurtuten eguite onacaz. Ezpadauca sustrairic, au da, graciatic, eztau frutu onic emongo Ceruraco.
- I. *Beraz obeto eguingo dau pecatu mortalian daguanac gauza onetan ez inardutia?*  
 E. Ez orrelacoric, bada gauza onacaz bigundu leique Jangoicua emotera penitencia eguiteco gracia.
- 111 I. *Cer eguin biar dau pecatu mortalian daguan gaisuac?*



- E. Escatu Jangoicuari estadu negargarrizco atatic urteteco gracia; gomutau, cer peligruban daguan, ta artu neurriac, aibat lasterren confesinoe eguiazco bat eguiteco.
- I. *Cetan igarrico deutsalagu pecatubari bere deungatasuna, edo malicia?*
- E. Gomutaubaz, ceibat aserraerasoten deutsal Jangoico erruquiz betiari; celan cerubetic jaurtigu cituban infernuco ondarrera pecatu eguieben Ainguerubac, ta guri etorri jacuzan atsacabiac, Adanen pecatuba zala vitarte.
- I. *Baña cetan gueien?*
- E. Jesu Cristori ñoren pecatubac ecarri eutsen eriotza gogorrian: eta alan biar dira Jangoico-guizon onen odol, ta meritubac, emoteco Aita eternuari gure pecatuben ordetasuna.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren pecatubaren deungatasuna dan neurribaguaia, ta ecin baquetu daiquian guizon gaisuac eguinal guztiacaz bere, Jangoicuac bere contra artu daruan aserria, pecatu mortalen bat eguiten dabengan. Orregatic dino San Gregorioc: Beguir eizu Guizona, cein andiac diran pecatubaren gachac, ta zauriac: bada eurac osetaco, busti biar dira Jesu Cristoren odolaz.
- I. *Beraz ezta pecatu mortalic eguin biar gueure vicitzia emon biar baquendu bere?*
- E. Ez: ta Zorionecuac gu, gueure zanetaco odol guztia ateraco baleusquegube, pecatu eguin baño lenago; alambere ez guenduque, Jesus Maitiac gugaitic eguin dabenen laurenic bere eguingo.
- I. *Cer atera biar dogu Icasbide onetatic?*
- E. Sartu gueure viotzian pecatubaren iguin, ta gorroto vici bat, ta icaratu bere icenaz bere.  
Escatu Jangoicuari gracia, ichi eztaigun jausten bere ofensatan, ta orretaraco igues eguin lagun, lecu, ibillera, ta gauza deunga usaina dauquen guztietatic.
- I. *Cer da pecatu veniala, edo arina?*
- E. Da pecatu bat, ceinec, galeraso ezarren Jaincuaren adisquidetasuna, alambere oztuten dabenguganuntz, ta mereci eraguiten deus-cuz demporazco necaldi, ta penac.
- I. *Noz izango (sic) pecatu veniala, edo arina?*
- E. Gauza chiquinen baten gañian dan demporan.
- I. *Emoizuz gauza onen jazoera, ta egemplubac.*
- E. Guzur bat esatia ñoren calte baga, aserracuntza labur bat izatia, lamarairen, edo zortzimarairen valiu ostzeia, ta onelan gauzaren batzubetan.
- I. *Eta gauzia berez astuna bada izan leite noz edo noz pecatu ariña, edo veniala?*

- E. Bai, ezaguera, edo vorondate osoric eztaguan demporan: eta alan ezta pecatu mortala izango gogoracinoe, ta irudi loietan cerbait atseretia, gorputzeco iguimentu, ta berotasunac euquitia, baldin ezaguera osoric ezpeguan, ta ezagutu onduan eguiten bada aleguina aibat lasterren quendu, ta amatetaco.
- I. *Icara andia artu biar deusagu pecatu venialari?*
- E. Bai, ta obe da, Mundu guztia galdu dedin, pecatu venial bacar bat ezaguera osoaz eguin baño.
- I. *Cegaitic izan biar jaco aimbeste icara, ta gorroto?*
- E. Cerren edocein pecatatugaz ofendietan dan gueure Jangoicua, ta Jangoicuaren ofensia dan gach guztien artian andiena.
- I. *Celan bada Cristinau ascoc pecatu venialetaco arduraric artu ez darue guichitzat euquita?*
- E. Cerren eztaben ondo beguiratuten, cer dan bere izatez ta venialaren icenian gueratuten diran.
- I. *Cer jazoco jaque arduraric artu gura eztabenai pecatu venialic ez eguiteco?*
- E. Espiritu Santubac dinuana, gauza chiquietan beguiratuba ez danna, guichica guichica jausico dala andietan. Itusuretic datorren ura ezta gauza andia, eta asco da Eche bat usteldu, ta galtzeco, ardura бага isten bajaco.
- I. *Cegaitic jausico da pecatu mortalen baten?*
- E. Cerren viotza guichica ecanduten dan pecatubaz, ta Jangoicuac ucatu daruazalaco gracia sendo, ta indartsubac gueure arduragabetasunaren castiguban.
- I. *Beraz etorri leiquio Crsitinaubari betico galduba izatia pecatu venialac cirala bitarte?*
- E. Bai.
- I. *Celan ori?*
- E. Ez pecatu milla balirabere jatorquelaco Infernuba, ezpada cerren pecatu venialac garuacen mortaletara, ta guenian onec Infernura.
- I. *Ce pecatu veniali bildur andia izan biar jaco?*
- E. Ez nozbait beinguan, ta ezaguera laburraz eguin daruaguzanai: cerren dan onena jausten da onelacuetan; ezpada arduratzaca, sarri, ezaguera osuaz, ta usadioz eguiten diranai.
- I. *Asco aserraerazoten deutse Jaincuari onelaco pecatu venialac?*
- E. Bai, ta eguin izan ditu Mundu onetan bere castigu chito andiac Moises, Loten Emazte, ta Betsamitarretan daquigun leguez.
- I. *Cer atera biar dogu Icasbide onetatic?*
- E. Ifini ardura benetaco bat pecatu venialic aleguinaz ez eguiteco.
2. Gomutau, celan galdu gueindezan onetan arduraric artuezaz,

ta celan castiguetan dituban Purgatorioco su gogor, ta portitzacaz, ezertan eztaucaguzan gauza, ta utsequite asco.

*Amabostgarren Icasbidia*

*Pecatu burutar, edo Capitalen gainian*

I. *Ceimbat dira pecatu burutarrac, edo capitalac?*

113

E. Dira zazpi. Lenengua Goiteria edo Sobervia. Bigarrena Cequentasuna, edo Dirunaia. Irugarrena Loiqueria. Laugarrena Invidia edo Ondamuba. Bostgarrena Guleria. Seigarrena Aserracuntzia. Zazpigarrena Naguitasuna.

I. *Cegaitic emoten jaquè pecatu burutarren, edo Capitalen icena?*

E. Cerren eurac dirian beste pecatu guztien iturriac, etorgarriac, ta burubac leguez.

I. *Cer da Goiteria, edo Sobervia?*

E. Da bere burubaren gurari, ta amodio gucieguia, ceinegaz jasoten dan besten gañian.

I. *Ceintzuc dira bere Alabac?*

E. Vanidadia, edo Astintasuna, Antustia, Lagunen despreciua, edo guichiagotzat euquitia, iñoren mempetasunic ez gura izatia, Iprecisia edo Oniduri naia.

I. *Pecatu deunguia da Sobervia?*

E. Bai, ta Espiritu Santubac dinuanaz, jarquiten jaque Jangoicua Soberviuai; barriz umildiac gracia ta ondasunez bete daruaz.

I. *Noren Semiac dira Soberviuac?*

E. Luciferrenac, cein galdu zan Jaincuari obediu naiezagaiti.

I. *Noren Semiac dira humildiac?*

E. Jesu Cristorenac, cein etorri zan, guri otzantasuna, ta humildadia eracustera.

I. *Penitencia andia, ta limosna ugariac eztira bada eurenez chito onac?*

E. Bai, baldin eguiten ezpadira ondo irudiz, edo Munducuen beguiracuniac eracartiarren.

I. *Cer eguin biar dogu bada gauza onetan?*

E. Escumiac diardubana jaquin eztaiala esquerrac, ta San Agustinec dinuana: eztogu Munducuen esamesagac gaitic ez eguin, ez ichi biar ecer.

I. *Cetan utseguiten dabe chito ascoc?*

114

E. Lurrecuen siñu, ta ceresanen bildurrez iztiaz gauza onac, ta eguitia, bestela eguingo ez lituquen gauza asco.

I. *Cer dino Jesu Christoc onen gainian?*

E. Lotsatuten bagara, berari jarraitutiaz, lotsatuco dala bera bere gu bere Escolaritzat autortutiaz Aita Jaincuaren aurrian.

I. *Cer eguin biar da?*

- E. Arpegui emon Mundu gaistuari, ta eguin arduratzaca, Jaincuac gura dituban gauza guztiac.
- I. *Ceintzuc daracuse arguiro euren arrotasuna, ta sobervia?*
- E. Apainzaliac, edo soñoco biar baño obiaguacaz astinduric dabil-tzanac Munducuen oneretsi aizezco baten billa.
- I. *Cegaz gomutau biar leuque onelacuac?*
- E. Illjanci bat izango dala azquenengo soñocua, ta janciric ederrena, ta onduen dirudiana, dala modestia, ta arpeguico itzala.
- I. *Ondo dirudi bacoachac bere eguiñac jaso, edo alabetia?*
- E. Eztago gauza barregarriagoric Munducuen irichian bere.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*
- E. Alabau, edo goratuten gaitubenia beratu, ta humillau gueure bu-rubac, ta autortu ez gariala alabantzen diña. Ecer gauza onic ba-daucagu, atera guztia jatorcula Jaincuaganic, ta gueurez erruca-rriac gariala.
- Artu beratasun, edo umildade andiaz emon daruecuzan atsacabe, ta injuriac, ta ez aserreric igarri eraguin.
- I. *Cer da Cequentasuna, edo Avaricia?*
- E. Da Mundu onetaco ondasunentzat, ta batez bere dirubarentzat daucagun amodio, ta gurari larreguia.
- I. *Ceimbat pecatu sortzen dira emendic?*
- E. Asco: lenengua aberatstutiarren guzurrac, ta trampiac sar-tzeia.
2. Bere burubarentzat bere gogor izatia diru pilluac eguitiarren, ta premian dagozanai ez lagundutia.
3. Iñoren ondasunei chimurtzi eguitia, beriac guichitzat euqui-ta.
- 115 I. *Cer eguin biar da pecatu dollor onetan ez jausteco?*
- E. Egunecuari beguiratu aurreco etorquizunacaz larritu baga.
2. Aleguinen ereduban lagundu premiadun, edo Pobreai euren biar ordubetan.
- I. *Cer da Loiqueria, edo Luxuria?*
- E. Da garbitasunaren contraco atseguin bidebagaco bat, edo ara-guiaren gozamentubetaraco artzen dan gurari ta amodio ichu-ba.
- I. *Nundic dacar bere jaiotzia pecatu onec?*
- E. Bost gauzatatic. 1. Gueiegui jan, edo edatiagandic. 2. Guizacume, ta andracumen arteco adisquidetasun, laguntza, ta artu emon sa-murreguiac gandic. 3. Verba chito garbiac ezdiranac esan, edo en-zutetic. 4. Joco, solas, ta danza nastubetan ibilltiagatic. 5. Alpe-rrieriatic.
- I. *Cer eguin biar dabe batez bere nescatillac pecatu onetatic igues eguiteco?*

- E. Lenengo ez Apainzaliac izan, ta ez aguertu inoren amodiuaeren bila.
2. Erabilli arpeguian itzal andi bat iñoc lotsabagaqueriaren bat eguin eztaiuen.
- I. *Gorroto andia artu biar deutsalagu pecatu oni?*
- E. Bai: cerren eztaguan pecatu, gueiago galdu daruanic, ta Jaincuari aserraerazoten deutsalanic.
- I. *Cer da Invidia, edo Ondamuba?*
- E. Da gure lagunaren zoriontasun, ta onaz damu, ta naigabe artzeia, arenac guria guichitu leiquian bildurrez.
- I. *Ceintzuc dira pecatu onen ondoringuac?*
- E. Lenengua da, bere lagunaren irichi, edo credituba guichitu nai izatia, deungaro verba eguiñaz.
2. Bigarrena, gure laguna gaitic deungaro enzunda, artu oi dan poza, edo atserena.
  3. Irugarrena, gachen bat etorri jaconian, agaz atseguin izatia.
  4. Laugarrena, aren eguitiai oquergarri, edo sensun charren bat emotia.
- I. *Cer da Guleria?*
- E. Da edateco, edo jateco gurari sutsu, ta gueiegui bat.
- I. *Ceimbat guleria mueta dira?*
- E. Iru ezagunenac. Gueiegui jan, edo edatia. Jaqui onenac, ta gozagarrienac billatutia. Barubac austia ta Eleisiac eragozten daben egunetan aragua jatia.
- I. *Cein da onetan eguiten dan peccaturic andiena?*
- E. Orditutia: cerren areraguiten deutsal Jaincuari iguintza, edo gorroto chito andi bat.
- I. *Cer jazoco jaque Edala, edo Ordiei?*
- E. Prestauta dago eurentzat Infernuban su portiz, ta egarri beti iraungo daben bat. Mundu onetan viotzeco gogortasuna; ondasunac galtzeia, ta eriotza icaragarri bat.
- I. *Cer da Aserracuntzia?*
- E. Da arimiaren vicitasun andi bat, ceinec isioten gaituban, vengai artzera lagunaz, eguin deuscun charqueria, edo injuriaren bategaitic.
- I. *Celan osatuco gara gach onetatic?*
- E. Naigabe guztiac gueure barruban itota, gomutaubaz Jesus Maitia-  
ren otzantasun, edo humildadiac, ceinec ezaban aoric edegui, illte-  
guira daroien bildots batec baño gueiago, eguin eutsezan bideba-  
ga charqueri, ta lotsagabaquerietan.
2. Aser aldian ecer iragarri eraguin бага, bazter baten belaunico jartia, Jaincuari paciencia, edo igaropena esquetan.

- I. *Cer da Alperreteria, edo Naguitasuna?*  
 E. Da Jaincuaren gauzentzat, edo gueure vicieraco eguimbidentzat daucagun iguiña, ta atzerapena.
- I. *Ceintzuc dira Naguitasunaren ondoringuac?*  
 E. Da dempora asco igarotia gomutau бага gueure Jaincuaz, ta arimaco eguin biarretan.  
 2. Da arduraric ez artzeia, Sermoiac enzuteco, Sacramentubac artzeco, ta eguite onetan jarduteco.  
 3. Da demporia igarotia jocuan, ta ibillera alperretan.  
 4. Da dempora gueiegui oian, edo lotan egotia.

*Amaseigarren Icasbidia*

*Escandalubaren gainian*

117

- I. *Cer da escandaluba?*  
 E. Da esatia, edo eguitia, ta ascotan utseguitia cerbait, nundic artu daiquian norbaitec pecaturaco bidia.
- I. *Ceimbat erara, edo mudatara (sic) emoten da escandaluba?*  
 E. Lautara.  
 1. Jaincua ofendiubaz norbaiten aurrian, ta ari beste aimbeste eguiteco zorian, edo peligruban ifiniiaz.  
 2. Lagunari pecatu eguiten eracutsiaz, ume bati verba loiac esaten jacozala, igarriric icasi daiquezala.  
 3. Ostuteco, guzurrezco juramenturen bat eguiteco edo Nescatillaren bat tentetaco conseju emonaz.  
 4. Jaincuac (sic) ofendietaco, dan leguez dala, bidia aguertubaz.
- I. *Ceimbat modutacua da escandaluba?*  
 E. Bitacua: batari derichu (sic) emona ta bestiari artuba.
- I. *Cer da escandalu emona?*  
 E. Da esatia, edo eguitia cerbait lagunari pecaturaco bidia emonaz.
- I. *Cer da escandalu artuba?*  
 E. Da eguin dan pecatuba bera norbaiten esan, edo eguitetic arturico laguntasunetic.
- I. *Ceimbat modudacua (sic) da ostera escandalu mueta au?*  
 E. Irutacua, batari dericho *Umeena*, bigarrenari *argalena*, ta irugarrenari *Fariseuena*.
- I. *Cer da escandalu Umeena?*  
 E. Da jaquinezetic datorrena: alan norbait bariecuban oquelia jaten icustia, izango litzate escandaluba eztaquienentzat cer motivo daucan ataraco.

I. *Cer da escandalu argalena?*

E. Da norbaiten argaltasunetic datorrena. Onetara datoz escandaluric gueienac: cerren gueurez garian deungaraco macurtubac.

Onegaitic eguiten dabe escandaluzco pecatuba:

Lenengo verba zantar, ta ciquinac esan daruezanac. Icuera char, ta oratute loiren bat andracumeren bati eguiten deutsenac.

Euren Echetan artazuriqueta, ospetsu, ta biguira infernucuaac isten, edo permitietan ditubenac. Jaincuac berac daqui ceimbat lotsagabaqueria, ta pecatu datoza onelaco batzar madaricatubetic.

I. *Cegaitic eguiten dabe escandaluzco pecatuba ehecho Jaun edo Guraso euren echetan onelaco gentiari lecu emoten deutsenac?*

118

E. Cerren igarten deutse, ceimbat pecatu jaioten diran alaco ospè, ta barralletatic.

I. *Cer eguin biar dabe bada salvau gura badabe?*

E. Urrindu euren Echetic onelaco batzar, ta ibilmodubac. Zuritu artuac euren ehecuen artian puscaca gabetan. Espateta demporan, ez dei eguin lagun guichiri, ta onei baño, ta beste edoceñi atiaz arpeguiac emon. Euren Seme-Alaba, edo otseguinai ez ichi juaten alaco lecubetara, ta zaintu, nundic nora dabiltzan. Alan eguiten dabe Echaun honrau batec baño gueiagoc, ta obeto jauque euren arima ta ondasunetan.

I. *Cein da pecatu andiagua, guizonen bat illtia, edo andracumeren bat pecaturen baten jausi eraguitia?*

E. Bigarren au: cerren quentzen deutzan gueiago valio daben vici-tzia, cein da arimaco gracia.

I. *Bada celan dauque guizonac lenengua pecatu ain anditzat, ta bigarrena ez aimbeste?*

E. Bildurrago diralaco Munducuen castigu, ta Justiciaren, Jaincuarenaren baño.

I. *Ceimbat pecatu eguiten ditube, pecaturaco ascori bidia emoten deutsenac, nola dan verba ciquiñen bat esaten dabenac amarren aurrian?*

E. Guizon jaquintsu ascoren irichian amar pecatu mortal guichienez: baña beste ascoren ustia da, eguiten dabela amar pecatu mortal besteco pecatu esquerga bat. Escopeta tiro bat jaurtiquita illgo bilitu batec amar guizon, beguira cer gaistaqueria eguingo leuquian? Eguite deunga, ta verba loi bat izan oi da, arima ascori jaurtiguiten jaquen tirotzar ondagarria. Batac biar bada euco dau vorondatezco gogoracinoe char bat, bestiac artuco dau, zantarqueriac enzunda atseguin charren bat, ta guztiai emoten jauque pecaturaco bidia.

I. *Eguin leite beste Mandamentubetan escandaluzco pecatuba?*

- E. Bai: cerren ascotan emoten dan deungaraco bidia. Eta alan emoten dabe escandaluba. Guraso euren Umien aurrian Jaiegunian biar eguin, edo eraguiten dabenac. Cerbait ostuteco conseju emon daruenac. Murmuracinoian, ta gaisqui esanian diardubenac: cerren enzulac artzen daben eurac bere beste aimbeste esan edo eguiteco bidia, ta gueia.
- I. *Cegaitic da ain pecatu andia escandaluba, edo inori pecaturaco bidia emotia?*
- E. Cerren dan Diabrubaren lana, ta cereguina.
- I. *Cer eguiten dabe tentadore onec?*
- E. Diabrubac berac baño gueiago.
- I. *Celan ori?*
- E. Cerren galdu daruezan euren verba, quiñu, ta zantarqueriaca, Diabrubac galdu ecin dituban arimac.
- 119 I. *Cer icen emon biar jaco tentadore gaistuari?*
- E. Infernuco Procuradoriarena: cerren eguiten daben Diabrubaren vando, arima ascoc beragaz darabilen aucian.
- I. *Ceñen contra jarquiten da escandalosua?*
- E. Jesu Cristoren contra modu onetan: Jesu Cristo etorri zan lurra-  
ren gañera, galdu zana billatu, ta salvetara. Eta tentadore traidore  
bat jaio, ta vici dala dirudi, galtzeco salvauc zana. Jesu Cristoc  
egui eban aleguiña, Pecatariac salvetaco; ta ascoc eguiten dau ale-  
guina, arima onac condenetaco. Jesu Cristo etorri zan, Adanen  
pecatubaz ichiric eguan Ceruco Atia edeguitera, ta asco etorri dira  
Mundura Jesu Cristoc edeguirico atiac isteco.
- I. *Cer esan biar jaquè onelaco arimen galtzallei?*
- E. Condenau gura badabe, condenau ditezala bacarric, ichi daguiue-  
la baquian, Jesu Cristoc bere odolaren costura irabaci cituban ari-  
mai.
- I. *Cer icharaten deutse Jesu Cristoren arerio onei?*
- E. Infernuco su gogor, sari Diabru euren Ugazabac emongo deutse-  
na; Jesu Cristoc Predicadore arimac irabazten dabilzazanai, Ce-  
ruban gozamentu zoragarriac leguez.
- I. *Cer atera biar da Icasbide onetatic?*
- E. Ez iñori emon jarraigarri, edo egemplu deungaric.
2. Eguin aleguina, bestiac Jaincuaren bidera eracarteco gueure  
verba, ta eguite onacaz.
  3. Beti euqui buruban Jesu Cristoc dinuana. Ai guizon gaiso iñori  
pecaturaco bidia emoten deutzazuna! Obeto egongo jatzun jaio  
ezpacina.
  4. Ez ichi caridadezco, ta bestelaco eguite onac, batez bere pre-  
miazcuac, inoren esames edo murmuracinoiagaiti: cerren egui-  
ten daben pecatu euren gurariz, edo iñoc bideric emon ba-  
ga.



*Ama zazpigarren Icasbidia.*

*Virtuten gainian.*

I. *Cer da Cristinautasuneco virtutia?*

120

E. Da oneguiteco indar, ta erraztasuna, ceñen bitartez Jaincuaren gracia lagun dala, gabiltzan bide zucen, ta garbietan.

I. *Ceimbat virtute mueta dira?*

E. Bi, moralac, ta theologalac, edo Jaincuaganunzcuac.

I. *Cegaitic emoten deutsezu moralen icena?*

E. Cerren diran gure eguite guztien erregla, edo zucembidiac.

I. *Cegaitic icentetan dituzu theologalac?*

E. Cerren zucendu, ta ucututen deutesen artez Jaincuari berari: eta alan Fedia ucututen jaco Jaincuari, Eguia andienari leguez; Esperancia, edo icharapena, gueure azquen, ta zoriontasun benetacuari leguez; eta Caridadia, edo onesgunea, izate eder, ta gure amodiua gueien merceci dabenari leguez.

I. *Cer da Fedia, edo Sinesmena?*

E. Da virtute bat, ceinen bitartez sinisetan ditugun sendoro, Jaincuac bere Eleisari aguertu deutesazan gauza guztiac.

I. *Fedia baga salvau leite iñor?*

E. Ez, ta da eguizun on guztien sustraia, ta asieria.

I. *Ceimbat Fede mueta dira?*

E. Bi, vicia, ta illa.

I. *Cer da Fede vicia?*

E. Da caridadez lagunduba, ceñec emoten deutesan vicitzia: onelacua da gracian dagozanen Fedia.

I. *Cer da Fede illa?*

E. Da caridadiac lagunduten ezteutsana, onelacua da Pecatarien Fedia.

I. *Cer valio dau Fede illac?*

E. Ceruraco berez ecer ez, baña bai pecatutic urtenda gracian jarteco.

I. *Ceimbat aldetara eguiten da pecatu Fediaren contra?*

121

E. Lautara. Fediac iracasten dituban gauzac sinstu naiezaz. Diranac ucatubaz: ezaguera osuaz eztabaidaren baten, edo dudan guertubaz. Eta ardurari (sic) ez ifiniatz, icasteco gueure Cristinautasuneco eguia, ta gauza biarrac.

I. *Cer da Esperantzia, edo Icharapena?*

E. Da virtute Jangoicozco, edo gueurezgainetico bat, ceinen bitartez icharaten dogun Mundu onetan Jaunaren gracia, ta bestian Ceruba Jesu Cristoren irabacimentubac lagun ditugula.

I. *Ceñen gainian ezarri biar dogu gueure Icharapen au?*

E. Jaincuaren aguindu, edo esquinien, eta Jesu Cristoren merceci-mentuben gainian.

- I. *Celan eguin ditu bere aguindu, ta esquinac?*  
 E. Bere esnac eguiten baditugu, ta bestela ez.
- I. *Celan eguiten da pecatu Esperanza, edo Icharapen onen contra?*  
 E. Gueure salvacinoiaren ustia galdubaz.
2. Jaincua ona, ta erruquitsuba dala icusiric, gueiegui beragan fiaubaz, edo jarriaz, ta astiro beragana biurtu baga egonaz.
3. Gueure indar, edo aleguinetan larregui ichatsiaz, sartzen gari-la pecatu bidetan, ondo urteteco ustiaz.
- I. *Cer da caridadia, edo Onesguna?*  
 E. Da virtute bat, ceinen bitartez maite dogun Jangoicua bere ontasunagaiti, ta gauza guztien gainian, ta gueure lagunac gueure burubac leguez, ta Jaincuari beguiratubaz.
- I. *Celan maite izan biar dogu Jangoicua?*  
 E. Gueure viotz, arima, indar, ta aleguin guztiacaz.
- I. *Badago Jaincua maite izateco premia, edo obligacinoeric?*  
 E. Bai, ta gure cristinautasuneco biarrena, ta andiena.
- I. *Celan galdu leite caridadia?*  
 E. Edocein pecatu mortalegaz.
- I. *Zorichar andia da caridadia galtzeia?*  
 E. Bai, ta asmau aldaitian andiena, ta caltegarriena.
- 122 I. *Cer da laguna gueure burubac leguez maite izatia?*  
 E. Da opa izatia gueuretzat opa, edo gura dogun guztia.
- I. *Cetara garuaz caridadiac lagunac ganuntz premian, edo euren biarordu ta euquiezetan?*  
 E. Gueuri emparetan jacuna eurai emotea, ta ezta alperreco gastu, ta gueieguiric eguin biar: cerren erri guztieten idoroten dira biartsu-bac, edo Pobriac.
- I. *Parcatu biar deutsegu gueure arerioric amurratubenei?*  
 E. Bai, ta orretaco ichi euscun Jesu Cristoc berariazco aguindubat.
- I. *Cer dira caridadeco, edo erruquitasuneco eguite, edo jardunac?*  
 E. Dira eguite batzuc, ceintzucac lagunduten ditugun Urco, edo Pro-gimuac euren arimaco, ta gorputzeco biar, edo premietan.
- I. *Badaucagu obligacinoeric eguiteco sarri Fedeco, Esperanzaco, ta caridadeco actuac?*  
 E. Bai, ta eguin biar ditugu sarrichu.
- I. *Celan eguingo ditu errazèn bestera eztaquianac?*  
 E. Esanaz egunoro, ta arreta andiaz, edo astiro Credua, ta Neure Cristo Jauna, edo Aitaguria.
- I. *Ceimbat verba amodiogueico daucaz Aita guriac?*  
 E. Iru, ta dira onèc. Lenengua Aita guria; Bigarrena Santificau bedi zure icena. Eta irugarrena eguin bedi zure vorondatia, nolan Ceruban, alan lurrian.

- I. *Cein da iru virtute onen artian andiena?*
- E. Caridadia, edo amodiua: cerren au daucanac, guztiac daucaz, ta ascotan jazoten da Fedia ta Esperancia euquitia caridade baga.



## IRUGARREN PARTIA

### CRISTINAUTASUNECO ESCARI, TA GAUZAC EGUITECO BITARTECUAC

*Lenengo Icasbidia.*

*Jangoicuaren gracia.*

- I. *Ceintzuc dira Cristinautasuneco gauza, ta aguindubac, ondo eguiteco bitartecuac?* 123
- E. Dira iru: Jaincuaren gracia, Sacramentubac, ta Escaria, edo Oracinoia.
- I. *Cer da Jaincuaren gracia?*
- E. Da gueurez gainetico doe bat, jatorcuna Jainco on ta erruquiorragandic, ta Jesu Cristoren irabaciz, gueure betico osasuna jadere-tsi, edo alcanzetaco.
- I. *Cegaitic dinozu gracia dala gueurez gainetico doe bat?*
- E. Cerren emon ecin leiquegun Jaincuac berac baño bestec.
- I. *Ceinec irabaci euscun aimbeste valio daben doe au?*
- E. Jesu Cristo gueure Jaunac bere eriotziaren bitartez.
- I. *Beraz eztoгу Jesu Cristoren aldetic ezpada graciartic artzen?*
- E. Ez: eztau salvacinoeco bitartecoric Jaincuac emoten bere Semia-ren meritu, edo irabacimentuz baño.
- I. *Ceimbat gracia mueta dira?*
- E. Bi, batari dericho gracia irauncorra, edo santututen gaitubana, ta bestiari gracia igarocorra, edo juaн etorrian dabillena.
- I. *Cer da gracia irauncorra, edo ariman gueretan dana?*
- E. Da gueurez gainetico doe bat, ceinec eguiten gaituban Jaincuaren adisquide, Seme, ta Ceruco Jaubegai, edo herederu.
- I. *Ceintzuc dira gracia onen ondoringuac?*
- E. Ondo (sic), edo santututen gaitu; gueratuten gara Ceruraco escu-bide osuaz; ta eguiten gaitu Jaincuaren ume auqueraz.
- I. *Cegaitic deituten jaco irauncorra, edo abituala?*
- E. Cerren gueretan dan gure ariman ecertan ez diardugunian bere; eta alan gracia au dago sein batiatubetan, ta lotan dagozan Cristi-nau on ta nagustubetan.

- I. *Galdu daiquegu gracia au?*  
 E. Bai; ta galtzen da edocein pecatu mortalegaz.
- I. *Eta topau daiquegu barriro bein galdu ezquero?*  
 E. Bai, topetan da confesinoe eguiazco baten iturrian.
- I. *Celan aci, ta gueituco dogu graciaiu gueure ariman?*  
 E. Sacramentu Santubac sarri, ta ondo prestaure artubaz; Jaincuaren amodiozco actuac ascotan eguiñaz; ta gauza onetan jardunaz.
- I. *Cer da gracia igarocorra, edo juan etorrian debillena?*  
 E. Da Jaincuac emoten deuscun barruco laguntasuna, gauza onetan jarduteco, ta igues eguitemo deunga, ta oquerbide guztietatic.
- 124 I. *Cetaco da gracia mueta au?*  
 E. Arguitemo gure adimentuba, ezagutu daigun pecatubaren ezaintasuna, asmo, ta gogoracinoe onac arerasoteco; ta viotzeco queza (1), ta icualdi batzuben bitartez jarraituteco Jaincuaren bidari, ichiric pecatucua.
- I. *Cegaitic deituten da igarocorra, edo actuala?*  
 E. Cerren dan iraupen guichico iguiera, edo movimentu bat ceinen bitartez Jaincuac iratzartuten gaitu on eguitera.
- I. *Adierazo eguizu arguiruago.*  
 E. Baldin emoten badeust niri orain limosna eguitemo gogoracinoia, orise da gracia igarocorra, edo esan daruen leguez, actuala.
- I. *Ucatuten deutse Jaincuac Pecatariai onelaco gracia ta laguntasuna?*  
 E. Ez: cerren berez danez, gura dau guztien salvacinoia, ta galtzen bagara, izango da gueure erruz, ta auqueraz.
- I. *Ceimbat moducua da gracia igarocor au?*  
 E. Bitacua; bata da sendua, indartsuba, edo eraguillia; bestia argala, ta adore guichiagocua.
- I. *Cer da gracia sendo, ta indartsuba?*  
 E. Da gracia bat, ceinegaz eguiten dogun berac esquetan ebana. Onelacuac izan cirian San Pedrori Jesu Cristoc egui eutsan beguiracunia, San Pabloren zaldi jaustia, ta beste ascoren biurreraco gogoracinoiac.
- I. *Cer da gracia argala, edo adore guichiagocua?*  
 E. Da gracia bat, cein artu arren, eztan eguiten berac esquetan ebana. Onelacuac ciran Judasen, ta Judeguben gracia.
- I. *Celan jazoten da gure irudico gracia mueta bategaz, batzuc biurtutia Jaincuaren bidera, ta bestiac ez nola dan sermoe bat enzunda, liburu bat iracurrita, edo eriotzaren bat icusita?*

(1) *Tal vez haya que leer quezca, o ¿gueza = dardo?*

Zauria, eta aurre. Orde, nola aurre ta pascaria  
 An bira jostan jaso aurre. Langre do bigarren  
 jascuban, zauriada nola gurea, amara, diada  
 ta aurre. An da berran aurre Purgara cer  
 corria jatu jecatu orotari? illan berran origan  
 infernura aurre. Gudu dora Jainuaren gracia  
 derra, ta bere adigudetuan aurre cinal berran  
 gaine, ta onelaco bere zauria aurre bigarrenian  
 quichiazo, ta quorotuntz: ber quichituban, aurre or  
 gultir isidu aurre. Oti dertutan jaso Jainu-  
 cuaren deramparu, do jaramone or eguitia  
 ta. Espiritu Santubac diuana, istia pascaria  
 bere gurea gaituen euboran, illi ta titzi  
 jiteran curai orotan jaguen leguer. Era gogor-  
 tarun an duto sarri-utren da ariniaz unctio-  
 no: orizain da pascari aurre existitaguera  
 ta ardura quichia. Beriz Santubac hant-  
 dac diuan leguer, ber diu aurre gurea bider  
 badaque Jainuaren juituac.

- E. Eztira gure adimentu laburreracuac Jaincuaren jaquituria aberatseco juicio adoragarri onec; eta alan bacarric daquiguan da, ezta-la iñor galduco, bere guraz ezpada, salvaucó dala benetan nai dabena, ta ezabela Jaincuac ucatuco orretaco laguntasunic.
- 125 I. *Cer da graciari lagundutia?*  
 E. Da bere escari, ta movimentubai jarraitutia: nola dan, sermoetara juan, confesau, ta penitencia eguitia.  
 I. *Jarqui gaitenez Jaincuaren graciaren contra?*  
 E. Bai: Fediac, ta gueure egunoroco esperenciac daracuscu gueregui (sic) jarquiten gachacozala, ta urristetan (sic) dogula, ez eguinaz bere bitartez, Jaincuac esqueten euscuna. Ala sarri billatuten ditu Pecatariac, ta eguiten deutsez amodiozco chistu, ta dei asco; baña ez enzuna eguiten dabe onec.  
 I. *Ceintzuc dira aguirico, edo campoco graciac?*  
 E. Dira mirariac, Sermoiac, Jarraigarri, edo egemplu onac, naigabe, ta gaisotaunac; ondasunac galtzeia, ta beste orrelaco asco.  
 I. *Cer atera biar dogu Icasbide onetatic?*  
 E. Sacramentubetara sarri, ta ondo pretauric juateco asmua. Edocein gauza on eguiten dogunian ezagutu Jaincuaren graciari zor deusagula, gueurez errucarri, ta argalac gariala, ta bere mesede, ta doiac coroetuco ditubala Jaunac, gure eguitiac coroetuco dituban orduban.  
 Jaincuac cerbait eguin daigula adierazoten deuscunian, eguin laster, edo luza bide baga, ta bildur izan enzuteric, emoten ezpadeutsagu.  
 Escatu Jaincuari gogo viciaz, ta sarriri emon daiguzala gracia sendo, ta indartsubac, edo ceintzubezac dacusan, valiauco gariala.

*Bigarren Icasbidia*

*Sacramentuben gainian*

- 126 I. *Cer da Sacramentuba?*  
 E. Da ecin icusi daitequian gracia baten irudi, edo ezagugarri aguiricua, Jesu Cristo gueure Jaunac ichia gure arimac garbitu, ta graciaz beteteco.  
 I. *Cegitic dinozu Sacramentuba dala irudi, edo señale bat?*  
 E. Cerren ezagueraguiten deuscun eztacuscun gracia, berac gure arimetara dacarrena.  
 I. *Cegaiti dinozu irudi, edo señale onec aguiriac dirala?*  
 E. Cerren gueure beguiacaz dacuscuzan: nola dan batiuan ura, oliacinoian orio Santuba, ta aln beste Sacramentubetan.  
 I. *Cegaitic dinozu ecin icusi daitianaren irudia, edo señalia?*



- E. Cerren berenez eztzaugu gracia gueure cenzunacaz, dalaco gauza ichuratic, ta gorputz gabia.
- I. *Nundic dacarre Sacramentubac gure arimac garbitu, ta graciaz betetaco indarra?*
- E. Jesu Christo gueure Jaunaren pasinoe, ta eriotzatic.
- I. *Celan jazoten (sic) au?*
- E. Sacramentu batzuc emoten deuscube lèn ezgueuncan gracia santututen gaitubana; onec dira Batiua, ta Confesinoia, ta deituten dira illen Sacramentubac, cerren artu daiquez pecatubaz illda dagozanac.  
Bestiac gueituten deuscube gracia au, ta emoten jaquè sacramentu vicien icena: cerren egon biar dogun gueienez graciaz viciric, eurac artzeco.
- I. *Celan emoten, edo gueituten deuscube gracia Sacramentubac?*
- E. Jesu Cristo gueure Jaunaren eriotzaco irabaci, edo meritubac gueure arimai ezarriaz.
- I. *Sacramentubetara eltzen dirian guztiac artu darue gracia?*
- E. Ez: cerren ezтира guztiac eltzen biar diran disposicioe, edo prestamentubacaz.
- I. *Ondo prestau бага, Sacramentubac artzeia, pecatu andia da?*
- E. Bai: da pecatu esqerga, ta icaragarri bat, cein icentetan dan sacrelegia.
- I. *Eztabe Sacramentubac beste gauzaric emoten gracia baño?*
- E. Bai: badira iru Sacramentu Charactera, edo silluba ariman ezarten deuscubezanac; onec dira Batiua, Confirmacioia, ta Ordia; eta orregaitiño ecin artu leitez Sacramentu onèc bein baño.
- I. *Cer da arimaco character au?*
- E. Da sillu espiritual bat gure ariman ezarria, ta inoz deseguin, edo quenduco ez dana, ta iraungo dabena Infernuban, ta Ceruban bere.
- I. *Cembat dira Sacramentubac?*
- E. Zazpi bacarric, eta dira: Batiua, Confirmacioia, Confesinoia, Comuninoia, Oriacioia, Ordia, Ezcontzia.
- I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*
- E. Esquer andiac emon Jaincuari, ichi deuscuzalaco Eleisan aimbeste ondasun, ta osabide.  
Euqui errespeto andi bat Eleisiac Sacramentubai urreratu dituban gauza guztiac: nola diran ur, ta ogui bedeincatuba, onci, ta soñooco santubac, ta guztiz Sacerdote Jaunac.

*Irugarren Icasbidia.*

*Sacramentuben gainian banaca.*

*Batiua.*

128

I. *Cer da Batiua?*

E. Da Sacramentu bat, ceinec parqueten deuscun pecatu jatorrizcua, edo jaiotzatic jatorcuna; eguiten gaituban Cristinau, ta Jaincuaren, ta Eleisiaren Ume.

I. *Cer pecatu parcatu daruaz Bautismuac?*

E. Pecatu originala, edo jatorrizcuaz osteruncian edocein pecatu batiatuten danagan aurquieten dana, ta onez gañeti emparetan jaquen zor, edo pena guztia; eta alan batiatu onduan illgo balitz edocein nagustubena izan arren, artez luitaque Cerura.

I. *Cer parquetan eztau?*

E. Pecatubaren ondoringo batzuc; nola dirian jaquineza, araguiaren guerria, deungaraco macurtasuna, ta eguite onetaraco naieza, ta atzerapena.

I. *Celan emoten deuscu Batiuac arimaco gracia?*

E. Guri emonaz gracia santututen gaitubana, cein da gure arimiaren vicitzia, quendubaz pecatubac gure arimatic.

I. *Celan eguiten gaitu Cristinau?*

E. Cerren eguiten gaituban Jesu Cristoren zati, ta escolari, jarraitute-co beti bere Evangelioco eracutsiac.

I. *Celan eguiten gaitu Jaincuaren Ume?*

E. Cerren gracia emoten deuscunaren bitartez, autu edo artzen gaituban bere umetzat, jarten gariala onetara Ceruco ondasunetaraco escubide osuaz.

I. *Celan eguiten gaitu Eleisiaren Ume?*

E. Emonaz guri escubidia, artzeco Eleisaco ondasunac, ta Sacramentubac, ta partil izateco bere oracinoe, edo erregubetan.

I. *Celan batiatu biar da?*

E. Au da, guztiac jaquin biar leuquen gauza arduraco bat, ta elichaquio iñori chartelic emon biar aric eta icasi artian.

I. *Cegaitic ori?*

E. Cerren premia oiduban edoceinec batiatu leiquian, dala Guizacumia, dala Andracumia. Alambere Sacerdote, edo beste guizon jaquitunen bat aurrian ezpadago, ichi biar jaquè Andramaistai, batiatu daguien: bada atara eguiñac dagoz, ta obeto jaquin darue, celan batiatu biar dan.

Topau biar da ur garbi ta utsa, dala errecacua, iturricua, itusurecua, edo dana dala, beguiratu baga bedecatuba dan edo ez; cerren onelaco arazquerietan dabilizan artian, illeite seña. Botaco jaco burura esanaz batera verba onec ta ez gueiago, ta ez guichia-go. NIC BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN, TA SEMIAREN, TA ESPIRITU SANTUBAREN ICENIAN.

- I. *Eta baldin ecin bota bajaco batiatu biar dabenari buru gañera, cer eguin biar da?*
- E. Señac aguri daben alde, edo parte nagusi, edo andienian, batiatu biar da, ura botiaz, ta esanaz lengo verbac; baña jaiota laster oster a batiatu buruban, vici bada esaten dala modu onetan. *Ondo batiatuta ezpazagoz, nic batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.*
- I. *Eta baldin guztien irichian seña illic jaioten bada cer eguin biar da?* 129
- E. Batiatu ardura baga usteldu moducua ezpadago, esanaz modu onetan: *Baldin vici batzara, nic batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.*
- I. *Celan ori?*
- E. Cerren gure irichian illac egon arren, eztira beti illac egoten. Gaurco egunian ecin onen contra iñor jarqui leite, bada icusten da, celan emplastu ardao zco batzucaz viztuten dituban illac cirudien seña, ta noiz bat jazo arren utsac urtetia bautismua, illic egualaco seña, eztau deugatzat emoten gure Jangoico erruquitsubac: eta alan euneti bat baño eguiaz batiatuba gueratuco ezpaliz bere, asco da dirianai bautismua ezarteco.
- I. *Cer esan biar da sein galduben gainian?*
- E. Echaquela onei bere bautismoric ucatu biar chicarrac, ta ill irudicuac aguertu arren. Orregaitino illa bete edo bi baño ezpadauque bere, eguin biar da aleguiña, batiatu baga gueratu ezditezan.
- I. *Baña celan batiatu leitez moltso baten irudian urten daruenac?*
- E. Artaci batzucaz contuz gañeco estalquia ebaguiric, ura botiaz barruban daguan Seinchubari, esaten diriala verba oenc: *Vici batzara, nic batiatuten zaitut Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.*
- I. *Cegaitic alan eguin biar da?*
- E. Cerren oraindaño eztaben inoc aztertu, noz sartu oi dan arimia gorputzian, ta biar bada sortuta egun guichi barru jazo leite. Barriz guc ezdaquigu illic urteten daruen, guri alan irudituarren, ta eztabaida, edo duda onetan batiatu biar dira. O ceimbat arima gueiagoc icusico eben Jaincuaren arpeguia, esan ditugunac eguin balira!
- I. *Cer intencinoe, edo asmogaz batiatu biar da?*
- E. Eleisa Ama Santiac gura dabena eguitecuaz.
- I. *Batiatu baga salvau leite iñor?*
- E. Ez bautismo moduren bat baga.
- I. *Ceimbat bautismo mueta dira?* 130
- E. Iru: Urezcua, esan dogun leguez, odolezcua, ta suzcua.
- I. *Cer da odolezco bautismua?*

- E. Da gueure Fediaren vando artzen dan Eriotza, edo Martiriua. Onegaz salvau cirian Herodesec Cristoren gorrotoz illeraguin cituban sein guztiac.
- I. *Cer da suzco bautismua?*
- E. Da Jaincuaren amodio, edo caridade vici bat, urezco bautismua artzeco gurari, edo goguz.
- I. *Cer obligacinoiac ezarten deuscul Batiuac?*
- E. Jesu Cristoren eracutsi, edo doctrinac osoz sinistutia.
2. Agur betico bat eguitia Diabrubari, ta bere asmo guztiai.
- I. *Celan uco, ta betico agur eguiten jaco Diabrubari?*
- E. Ardura, edo lotsabaga adierazuaz ezteutsegula jaramonic eguingo bere asmo galgarrieci, ta jarraituco deutsagula, bere damuz bada bere, Jesu Cristoren bide, ta Legue santubari.
- I. *Cer adietan dozu Diabrubaren asmo, pompa, ta eguitecaz?*
- E. Adietan ditut Munduco ibilmodu zoro, anduste, arrotasun, pecatu, ta bide gaisto guztiac.
- I. *Celan icentetan dira eguin biar, edo obligacinoe oneec?*
- E. Batiaco esquini, edo promesac.
- I. *Baña celan obligau gueinquez orduco esquini, edo promesac, ezpa-guenquian cer eguiten guenduban?*
- E. Aita ta Ama besuetacuac eguin citubelaco gure orde, ta ontzat emon guenduzalaco adimentura eldu guinian orduban.
- I. *Cer obligacinoe artu darue Aita ta Ama-besuetacuac?*
- E. Gurasuen faltan, edo oneec naguiac badira, eracutsi biar deusè euren besuetacuai Jesu Cristoren Fede, ta leguia; ta eguiten dira arimaco senide, batiatu cirian señacaz, ta oneen gurasuacaz.
- 131 I. *Cegaiti egoten da Sein batiatuba Eleis ataian?*
- E. Adierazoteco, pecatu original, edo jatorrizcuac bota dabela Paradisuti campora, ceinen irudia dan Eleisia.
2. Eztaguala Eleisan sartzeco Bautismua baño beste bideric, ta ateric.
- I. *Cer esan gura dabe Abadiac Señaren gainian eguin daruazan arnasa botate, edo esorcismuac?*
- E. Esan gura dabe, Bautismuac ateraten gaitubala Diabrubaren mende, edo catiguerati, ceñen escu, ta aguimpian leguez sortu, ta jaioten garian guztioc.
- I. *Cer esan gura dabe eguiten jacozan curutce, seña, edo irudi guztiac?*
- E. Esan gura dabe Bautismuac bere indar guztia dacarrela Jesu Cristoren Curutceti, edo emen artu eban eriotzati.
2. Curutziaren bitartez igues eguin daruala Diabrubac Señaren arimatic, nun eguan lenago bere echian leguez.
3. Batiatubac eztabela lotsatu biar Jesu Cristoren curutziac; baño

- bai poztu, ta gozatu.
4. Maitatu biar dogula curutceco, edo nequezco bidia, ta gueure icharopen guztia ezarri Jesus Curutcetubagan.
- I. *Cer esan gura dau señari aora emoten jacon gatzac?*
- E. Esan gura dau, Bautismuac quendu daruagula pecatubaren usteltasuna, ta atsa.
2. Motelac diriala lureco atseguinic zoragarrienac.
3. Gozuac diriala ecin gueiagoraño Ceruban icharoten duscubenac gordeten baditugu batioco aguindubac.
- I. *Cer esan gura dabe orio santuben igortzi, edo bustiquetac?*
- E. Jangoicuaren gracia banatu, edo zabalduen dala batiatu danaren viotzian.
- I. *Cer adierazoten dau, escubetara emoten jacon eun, edo zapi zurriac?*
- E. Bautismuan artu daruala arimaco soñoco garbi, ta eder bat, cein gorde biar dogun ardura andiaz; ta esaten deuscu Jangoicuaren Ministruac, artuco jacula contu estuba Jesu Cristoren Aditzain, edo tribunalian baltzitu, ezaindu, edo zantartuten badago (sic) pecatubacaz.
- I. *Cer esan gura dau escubetan ifinten jacon argui isiuac?*
- E. Jaincuaren amodio bero, ta gartsuba, ta argui eguin biar dogula Munduban gueure vicitza, ta eguite onacaz.
- I. *Cegaiti ezarten jaco Señari santuren baten icena?*
- E. Mundu onetan sartzen dan baisen laster equi daigun begui aurrian Ispillu, edo Jarraigarri on bat, ta Jangoicuaren aurrian bi-tarteco andia. O gomutauco balituque Cristinaubac, cer obligacinoiac ezarri eutsezan euren burubai batiatu cirianian! O! ta ceimbat bider arpeguian emon leiuen ascori San Agustinen esanaz! *Christiane, quid tibi cum pompis, quid cum operibus, quibus renuncias?* Uco, ta agur betico bat eguin ceuntsen Munduco ibillera zoro, apainduria ta pecatu bidiai. Cec zaruaz bada euretara? Zu Zara Apostata edo Iguesla Fediaren deshonrragarri bat. Obeto eguingo cenduban iñoz batiara eldu ezpaciña. Jangoicuac edegui daiguzala arimaco beguiac, icusteco gueure ichumen nagargarriz-cua.

### Laugarren Icasbidia

#### Confirmacinoia

- I. *Cer da Confirmacinoia, edo Indarguirua?*
- E. Da Sacramentu bat, ceñec emoten deuscun Espiritu Santuba bere doiacaz, ta gueure vicitziaren arriscubetan bere Jesu Cristoren Fedia autortu, edo confesetaco gracia.

- I. *Cegaitic dei eguiten jaco Confirmacinoia?*  
 E. Sendotu, ta indartuten gaitubalaco, Batiuan artu guenduban sini-seta, edo Fedian.
- I. *Biarra da, salvetaco Confirmacinoeco Sacramentu au artzeia?*  
 E. Ez; baña bera artu baga luzaro, ta naguitasunez dagozanac galdu daruez Sacramentu onen gracia, edo ondasunac, ta mesede guichi eguiten deutse Jesu Cristo gure Jaunari.
- I. *Celan prestau biar da Cristinau batec Sacramentu au artzeco?*  
 E. Egon biar dau Jaincuaren gracion, ta nagustuba bada, jaquin biar ditu gueure Fedeco gauzaric biarrenac.
- I. *Cer eguiten dau, pecatu mortalian artzen dabenac?*  
 E. Pecatu mortal barri sacrilegiozco bat, ta eztau artuco Espiritu Santuba.
- I. *Ceintzuc dira confirmau diranen eguimbide, edo Obligacinoiac?*  
 E. Dira Jesu Cristo gueure Jaunaren Fedia lotsabaga autortu, edo aguertutia; ta bere evangelio santuco escabidiai jarraitutia.
- I. *Ceintzuc dira Sacramentu onen ondoringuac?*  
 E. Bost: emoten deuscu Espiritu Santuba.  
 Daracarguz bere gracia, ta ondasunac ugariro.  
 Eguiten gaitu Cristinau oso.  
 Ezarten dau gure ariman quenduco ecin dan silluba.  
 Emoten deuscu indarra, Fedia ardura baga autortuteco.
- I. *Cer da Sacramentu onetan jatorcun Espiritu Santuba?*  
 E. Da irutasun edo Trinidad Santuco irugarren Persona.
- I. *Noztic ona dazaube Cristinaubac sacramentu au?*  
 E. Eleisa santiaren asieratic; bada San Lucasec dino, Apostolubac emoten eutsela batiatubai.
- I. *Cer jazoten jaquen orduban confirmetan ciranai?*  
 E. Etorten (sic) euren gañera, ta aguirian Espiritu Santuba, subaren irudian.
- I. *Cegaitic orain jasten ezta dacuscun erara, edo irudira?*  
 E. Cerrren biar ciran orduban mirariac, Fedebaguiac eracarteco, Cristinau izatera; baña orain eztoqu onen biarric, Fediac daracuscuzan gauzac sinistuteco.
- I. *Cein da confirmacinoiaren bigarren ondoringua?*  
 E. Da emotia gracia ugariac, edo Espiritu Santubaren doiac.
- I. *Ceintzuc dira doe onec?*  
 E. Dira zazpi. Zurtasuna, edo Prudencia. Adimentuba. Jaquintasuna. Erruquitasuna. Consejuba. Portiztasuna. Jaincuaren bildurra.
- I. *Nundic dator aimbeste ondasun, ta doe gueienian guc ez artzeia, confirmaubac izan arren?*  
 E. Dator: cerren eltzen garian biar diran pestaqueta baga, edo artuta

- laster galdu daruaguzalaco pecatu eguiñaz.
- I. *Celan eguiten gaitu Cristinau oso?*
- E. Jesu Cristoren Fedian guri emonaz indar, edo sendotasun guei-  
go.
- I. *Cer diferencia, edo bestetasun dago batiatuba baño eztan, ta confir-  
mauba dan baten artian?*
- E. Batiatuba baño eztanari, beguiratu biar jaco sein argal bati le-  
guez; ta confirmaubari bere adin, edo edaderic oneneco indarrian  
dagan guizon bati leguez.
- I. *Cein da Confirmacinoiaren laugarren ondoringua?*
- E. Ezarten deuscun silluba.
- I. *Cetara gacaz sillu onec?*
- E. Izatera Jesu Cristoren Soldau, ta Diabrubaren Arerio.
- I. *Cein da confirmacinoiaren bostgarren ondoringua?*
- E. Emoten deuscu indarra, Jesu Cristoren Fedia arduratzaca autor-  
tuteco gueure vicitziaren peligrubaz bada ere.
- I. *Cer da Jesu Cristoren Fedia arduratzaca autortutia, gueure vicitzia  
galdu biar baguendu bere?*
- E. Da evangelioco escabidiari jarraitutia atzerapen baga, ta iñoren  
esames, ta barriquetai jaramonic eguiten ezteutsegula.
- I. *Ceintzuc dira Crsitinautasuneco eguimbide, edo obligacinoietatic a-  
tzeratu gura guenduquezanac?*
- E. Anchinaco Aguintari gogorrac illeraguiten cituben Jesu Cristoren  
legue pian vici ciranac; eta orain guizon nasai mundubaren vanda-  
ri, edo defensoriac milla irauntsi, ta siñugaz icaratu gura gaitube-  
nac.
- I. *Cer egui eruen Jesu Cristoren Fediagaitic eriotzaco toquirá joiazan  
Cristinau zorionecuac?*
- E. Jaincuari esquerrac emon: cerren eguiteutsen aimbete mesede, ta  
gurago eben euren zanetaco odol guztia bota, ucatu baño Jesu  
Cristoren leguia, zan gauzaric chicarrenian bere.
- I. *Cer icen emoten jaque onetara illten ciranai?*
- E. Deituten ciran Martiriac, edo Testigubac: cerren euren odolaren  
costura emoteutsen testigantzia Jesu Cristoren Fediari.
- I. *Cer eguin biarco guenduque, baldin orain Fedia ucatu eraguin gura  
baleusquegube?*
- E. Eguin Cristinau zorioneco aec eguitebena, edo jarraitu euren  
oñatsai; ta alan galdu biarco guenduque, gueure ondasunac ta vi-  
citzarañocua, Jesu Cristoren Fediaz ernegau, edo Articuluaren bat  
trampiaz ezcutau baño lenago.
- I. *Eta zorionecuac dira Jesu Cristoren Fediagaitic euren vicitzia emo-  
ten dabenac?*
- E. Bai inor bada: cerren eguingo guenduque Jesu Cristoc gueugaitic

eguibana, ta igongo guenduque Ceruco atseguin lecu ederretara, Martirientzat daucan Coroia artzera.

I. *Cetaco da bada orain Confirmacinoia, baldin ezpadaucagu Perseguitzalle gogorric?*

E. Badira Herege, edo Cristinau iceneco batzuc eruan gura guenduquezanac euren utseguitetara, ta munduco gente ez guichi atzeratu nairic dabiltzanac euren barre, siñu, ta muquertasunacaz.

I. *Cer eguiten dau Confirmacinoiac onelacuac ganuntz?*

E. Emoten dau indarra, bildurric ez izateco Jesu Cristoren esanai jarraituten.

Lagunduten deuscu Munduco atseguin, ta ibillera nastuben contra gogor egoteco.

Gueure araguiaran gurari, ta escabide charrai eguac ebaten.

Diabrubaren cirica, ta tentacinoiac indar gueiagogaz goituten.

I. *Noc dauca confirmacinoeco Sacramentuba emoteco aguintia, edo indarra?*

E. Obispo Jaunac.

I. *Ceintzuc dira orretan eguin daruezan ceremoniac?*

E. Eguiten ditu erregubac: ezarten deutzaz escubac confirmau biar dabenari bere buru gainian.

Curutziaren señaia eguiñaz bustzen deutsa becoquia balsamo, ta orio bedeincatuz eguinico Crismiaz.

Emoten deutsa confirmau onduan belarondoco chiquin bat.

I. *Cetaco eguiten ditu erregubac Obispo Jaunac?*

E. Confirmetara doianagana jatsi dedin Espiritu Santuba.

135 I. *Cegaitic ezarten deutzaz escubac buru gainian?*

E. Eracustera emoteco, jatsi dala Espiritu Santuba Sacramentu au biar dan leguez artu daben arimara.

I. *Cer adierazoten dau oriuac?*

E. Celan oriuac daben zabaldu, ichatsi, ta indartuteco virtutia, da Espiritu Santubaren gracia, ta doiac daben ugaritasun, ta indarraren irudia.

I. *Cer esan gura dau oriuz nasturico balsamuac?*

E. Bere usain ona gaiti esan gura dau, Jesu Cristoren usain gozua erabilli biar dogula, alan barruban viotzeco garbitasunaz, nolan aguirian, jarraiaagarri, edo egemplu onac zabalduen ditugula.

I. *Cegaitic eguiten dau Obispo Jaunac becoquian curutziaren irudia crismiaz buztiaz batera?*

E. Eracusteco ezabela lotsatu biar Cristinaubac, Jesu Cristoren Curutziari jarraitutiaz, ta Sacramentu onen indarra datorrela Curutce onetan artu eban eriotzatic.

I. *Cer esan gura dau emoten deutzan belarondocuac?*

E. Prest egon biar dabela Cristinau batec igaroteco baquetasun an-



- diaz lotsari, naigabe, ta injuriaric gogorrenac Jesu Cristoren amodioz.
- I. *Celan prestau biar da Sacramentu au artzeco?*
- E. Prestaera bi eruanaz, bata gorputzaren, ta bestia arimiaren alde-tic.
- I. *Ceintzuc dira gorputz aldeco prestamentubac?*
- E. Juan biar da modestia andiaz janciric.
2. Jarri biar da belaunico Obispo Jaunaren aurrian.
3. Euqui biar dira beguiac beraturic, ta oialezco vanda bat escu-betan.
- I. *Ceintzuc dira arimiaren aldeco prestaquetac?*
- E. Graciaz osteruncian, Espiritu Santuba artzeco gurari vici bat, orretaco deituten dogula Fede, amodio, ta humiltasun andiaz.
- I. *Gorde biar dira Sacramentu onetan arturico gracia, ta doiac?*
- E. Bai, ta iru errazoigaiti: cerren diran guc izan aldaiqueguzan onda-sun, edo tesoric valiosubenac.
2. Cerren gracia onec bein galdu ezquero, dan gauza gacha barri-ro ertestia.
3. Eta cerren bein baño artzen eztan, gracia onec dacarguzan Sa-cramentuba, cein dan confirmacinoia.
- I. *Cer eguin biar da, gracia onei iraun eraguiteco?*
- E. Iru gauza: Espiritu Santubari sarri mesede au escatu, comulgau urte guztietan confirmau guinian egunian, ta iguseguin (sic) Con-firmacinoeco graciaren contra gueien diran pecatubei.
- I. *Ce pecatu mueta dira onèc?*
- E. Ardura, edo errespeto guichiaz gure Religinoeco gauzen gainian verba eguitia.
2. Oneretsiagaitic, edo vanidadez gauza onac eguitia, edo eguin baga istia Munduen bildurrez.
- I. *Cer atera biar dogu Icasbide onetatic?*
- E. Ez naigaberico emon Espiritu Santubari gueure epeltasunaz, ta pe-catubacaz.
- Euqui ichi viotceco belarriac bere deiei, ta gogarguei.
- Euqui daigun amorio bero bat, ta ez lotsatu gauza onetan jardun gura dogunian.

*Bost garren Icasbidia*

*Sacramentu Santu Altaracua*

- I. *Cer da Sacramentu Santu Altaracua?*
- E. Da Sacramentu bat, ceinetan idoroten dan eguiatz Jesu Cristo gueure Janunaren gorputz benetacua, odola, arimia, Jaincotasu-na ogui, ta ardauaren iduri, edo ichuren azpian.
- I. *Cer adietan dozu ogui, ta ardauaren iduri edo ichuriaz?*

- E. Onèc dira gure cenzunetan aguiiri diranac, baita coloria, ta gustua bere.
- I. *Consagrau ezquero gueratuten da ogui, edo ardaoric?*
- E. Ez: bada ogui guztia biurtuten da Jesu Cristoren gorputzera, ta ardao guztia bere odolera.
- I. *Ori eguiaz, ta benetan sinisetan dozu?*
- E. Bai, ta ain irme, ta sendo nola neure beguiacaz banecus: cerren Jesu Cristo eguiaren iturriac dinuan arguiro.
- I. *Celan eguiten da biurrera, edo aldantza au?*
- E. Consagracinoeco verba miragarrizcuai Jesu Cristoc emon eutsen indarraren bitartez.
- I. *Celan deituten da aldantza au?*
- E. Transustanciacionia, esan gura dau, izate bata bestera biurtu, edo aldatutia.
- I. *Cer dago oguiaren iduripian, ta cer ardauarenian?*
- E. Jesu Cristo guztia dago osoro irudi bacocharen azpian: esan nai dau, bere gorputza, bere odola, arimia, ta bere Jangoicotasuna guztiac osuac dagozala, ala oguiaren, nola ardauaren idurien parte bacocharian.
- I. *Ostia santuba austen dan bacocharian, austen ete da Jesu Cristoren gorputza?*
- E. Ez: ezta austen oguiaren irudina, edo ichuria bano: eta alan aurquietan da Jesu Christo guztia ostia consagraubaren dan azuzquiric, edo apurric chicarrenian.
- I. *Cegaz adierazoco da esan au?*
- E. Irudin, edo bardintza onegaz. Beguira zaite ispillu andi baten. Cer dacutsu? Zeure gorputza. Zatituco balitz ispillua, ta beguiratuco bacina ostera zati guztietan, icusico cenduque ceure buruba edocein parte, edo zatitan. Onelan bada, Jesu Cristo guztia osoz dago ostia osuan, ta osoz edocein zatitan.
- I. *Beraz ostia santuba baño artzen eztabenac, artzen dabe, Sacerdotiac leguez, Jesu Cristo guztia osoro?*
- E. Bai: cerren ostia consagrauban daguana, ez gueiago, ta ez guichiaigo dago caliza consagrauban.
- I. *Jesu Cristoc urteten dau Cerutic ostiara etorteco?*
- E. Ez: aldabatera aurquietan da Ceruban, ta Mundu guztian diran ostia consagrau bacocharian.
- I. *Celan jazoten dira mirari onèc?*
- E. Jaincuaren Altasun, edo indar chito andi ta neurri baguiaz, ceinentzat gauza guztiac diran eguiten errazac.
- 137 I. *Noz egui eban Jesu Cristo gueure Jaunac Sacramentu veneragarri au?*
- E. Eguben Santuz, edo illgo zan Vispera, edo egunaurrian.

- I. *Cetaco dago Jesu Cristo gueure Jauna Sacramentu Santu altarcuan?*
- E. Bere Aita Jangoicuari bere buruba sacrificiuan esquini, edo opa eguiteco, ta gure arimen jaqui izateco.
- I. *Celan izaten da gure Arimen jaqui?*
- E. Comuninoiaren bitartez.
- I. *Cer da Comuninoia?*
- E. Da Jesu Cristoren gorputz santuba artzeia.
- I. *Jesu Cristoren eguiazco gorputz Santuba artu daruagu comulguetan garianian?*
- E. Bai, bera da Ama Virgina Santiaren sabel garbian egon, ta aci zana, curutzian gure amodioz illebena, ta orain çerubetan daguana.
- I. *Noz daucagu comulguetaco premia pecatubaren azpian?*
- E. Pazcuaz, ta illteco zori edo arriscuban.
- I. *Cer gogo, ta gurari euqui biar dogu comulguetaco?*
- E. Chito vici bat: cerren berau dan mundu onetan izan daiquegun zorientasun andiena.
- I. *Cegaiti da zorientasun au ain andia?*
- E. Cerren comuninoiac eguin daruazan mirari chito andiac.
- I. *Cer mirari dira orrec?*
- E. Dira lau enzunenac: lenengua Jesu Cristogaz alcartsu, ta gorputz bat eguiten gara.
2. Gudan barristau ta gordetan da graciaren vicia.
3. Argaldu, ta aguintebagatuten da pecaturaco leia, guraria, edo macurtasuna.
- Bera da gueure vicitza beti iraun biar dabenaren, ta atseguinezco baten prenda, edo bai bat.
- I. *Celan eguiten gaitu comuninoiac alcartsu, edo gorputz bat Jesu Cristogaz?*
- E. Bere aragui Santu, ta odol miragarrian parte artubaz.
- I. *Nortzuc atera daruez onembeste ondasun comininoetic?*
- E. Biar diran prestaqueta, edo disposicinoe santubacaz eltzen diranac.

*Beste Icasbide bat*

*Ondo comulguetaco prestamentubac.*

- I. *Ceintzuc dira ondo comulguetaco eruan biar diran prestamentubac?*
- E. Dira bitzuc: batzuc arimari ucututen jacozanac, ta bestiac gorputzecuac.
- I. *Ceintzuc dira arimaco prestamentubac?*
- E. Dira lau: concienciaco garbitasuna; Fede vici bat; confianza hu-

miltasunez beterico bat; ta amodio bero edo indartsu bat.

- I. *Cer eguin biar dogu concienciaco garbitasuna euquiteco?*  
 E. Gueure buruba probau; esan gura dau, gueure viotceco arcuntzac aztertu, ta ingurau; ta pecaturic topetan badogu, juan laster Penitenciaco iturrira.
- I. *Asco da pecatu mortalic beregan ez ezagututia?*  
 E. Asco da itu ituban Sacrilegioric ez eguiteco; baña eztaasco onda-sunac ugari ateretaco.
- I. *Cer eguin biar da bada gueiago?*  
 E. Quendu biar da pecatu arin, edo venialetaraco gurari, ta goga.
- I. *Cer esan gura dau pecatu venialaren gogo, edo gurari baga ego-tia?*  
 E. Da artzeia asmo benetaco bat pecatu venial ezaguera oso, ta oituzco, edo costumbrezcoric ez eguiteco.
- I. *Cetan dago Fede vicia euquitia?*  
 E. Iru gauzatan: Lenengua bein banan ondo jaquitia Fedeco articu-luric biarrenac.  
 Bigarrena sendo sinisetia, artzera goiazana, dala Jesu Cristo bera, gueure Erosle, ta Jangoicua.  
 Irugarrena, gomutetia orduban bere etorreriaz eguiten deuscun mesede, edo honra andia.
- I. *Cer da humiltasunez beterico confianza, edo uste osua?*  
 E. Da gure Jaun onagan icharatia, emongo jacula gueuri bere onda-sun guztiacaz, orretaco diña ezipagara bere.
- I. *Centan dago amodio bero, edo garisuba?*  
 E. Gauza bitan: lenengua da gurari, edo naicunde bero bat batzeco Jesu Cristogaz, ceinegana zucendu biar ditugan gueure viotceco amodio, ta samurtasun guztiac. Bigarrena da, gueure burubac Jaunari osoz opaeguín, edo consagretia, bera osoz emoten jacun leguez.
- I. *Cer eguin biar da orretara prestetaco?*  
 E. Gauza bi: Comunioeco egun aurrian escatu vici viciric ta viotcetic emon daigula ondo prestetaco gracia. Guero sartu gueure barruban, ta gomutau astiro, cein maite gaituban Jesu Cristoc: cein ona dan guretzat, Sacramentu onetan eracustera emoten deuscun leguez; celan guganaco bere amodiua ecin eldu ceitian gueiagoraño; bada emoeuscun, bere jaquituriac asmau ala, eta bere aragui Santuba jaquitzat.
- 139 I. *Ceintzuc dira gorputzeco prestantubac?*  
 E. Dira iru enzunenac.  
 I. *Cein da lenengua?*  
 E. Da baru osuan egotia: au da, gaberdi ezquero jan, edo edan baga;

baldin Sacramentu au azqueneco zori, edo eriotzaco peligruban artzen ezpada.

- I. *Egon biar da chisturic bota бага esan daruen leguez comulgau artian?*
- E. Au da zoraqueria andi bat; eta alan ezta onetan escrupuluric eugui biar. Gomulgauta beriala, edo ordulauren bat igaro artian ezta ondo eguiña chistuba campora botatia: cerren ostia apurren bat atera leite; baña comulgau baño lenago, edo ordu lauren bat igaro ezquero comulgau zanetic, chistuba bota leite, baruba ausi бага egonarren.
- I. *Cein da bigarrena?*
- E. Soñoco modestiaz betiacaz, ta astin bagacuacaz urreratutia; eztau ecer esan gura pobrechubacaz elduarren; barruco soñocoac egon biar dabe graziaz apaindubac: esan gura dot, arimia garbituric.
- I. *Cein da irugarrena?*
- E. Da devocinoe, ta ardura alic andiena beregan eracustia.
- I. *Cer eguin biar da orretaco?*
- E. Juan biar da Eleisara beguiac modestiaz beraturic; Ezta iñogaz verbaric eguin biar premia бага; Eleisan egon belaunico, eta bazter baten, àn Jaincuaz baño ez gomutetaco.
- I. *Pecatu mortalic euqui ez arren, prestamentu orrec guztioac eztauezanaz artzen dabe Jesu Cristo comunioian?*
- E. Bai; baña eztabe aibeste ondasun ateraten, nola prestamentu onec guztioac daruezanac.
- I. *Cer eguin biar da comulguetan garianian?*
- E. Albadaigu, Meza Santuba enzun lenago: cerren obeto prestauco gara Sacerdotiaren erregubacaz, ta gueure astiroco gomutiaz, Jesu Cristo (sic) ostatu, edo arrera on bat eguiteco.
- I. *Cer gomutau biar dogu?*
- E. Cein gauza andia eguitera guazan; celan Ainguerubac eztauquen aibeste zoriontasun; celan Jesu Cristo jatorcun, gu aberastutera, ta bere amodioco subaz gure viotzac berotu guraric.
- I. *Ceintzuc dira orduban eguin biar diran actuac?*
- E. Guztia sartzen dira verba onetan.

Neure Salvaguille Maite Jesus: gorputzeco beguiacaz bacencustaz baño senduago sinisetan dot, ceu zariala, nic artuco zaitudana. Badaquit Jauna, ez nasala diña, zu etortiaz nire barrura; baña ain ona izanic, zuga daucat uste guztia ezarrita; esaizu bacarric verba bat, ta nire arimia osatuco da bere gach guztietatic. Parca esque nagotzu alic humiltasun andienaz, neure utseguite guztia gaitic. Damu ditut, Jauna, diranac; cerren izanic zu ain ona, ta erruquiorra ofendiu zaitudan sarri, ta lotsagabetasun andiaz. Artzen

dot gogo, ta asmo benetaco bat ez guciago pecaturic eguiteco, ta pecatu bide guztietatic zure graciaz batera aldeguiteco. Maite zaitut viotz guztitic, ta eztot munduban zu baisen maite dodan gauzaric. Erdu bada neure Jesus maitia, erdu ene viotcera, atera egui-zu orain gach guztietatic; beteizu ceure doe, ta graciaz; daucat Jauna gose, ta gurari vici bat zu pozarren ozta artzeco. Erdu bada laster, ta ez luzatu ceure etorrera maitagarria.

- I. *Fedeco, esperanzaco, humiltasuneco, amodiozco, ta gogozco acto onèc aoz esatia, edo liburutic iracurtia, asco da?*  
 E. Ez; bere viotz barru, ta garbitic urteten ezpadabe.  
 I. *Cer erabilli daiquegu goguan comulgau aurreco Meza Santuban?*  
 E. Jesu Cristo gueure Jaunaren neque, ta eriotzia.  
 I. *Cegaitic ori?*  
 E. Cerren Jesu Cristoc ichi euscun Sacramentu miragarri au, bere Pasinoiaren gomuta betico bat euquiteco.  
 2. Cerren eztaguan bere amodiuian isioteco guei obiagoric.

*Beste Icasbide bat*

141

- I. *Celan eldu biar da Mai Santura?*  
 E. Eldu biar da beguiac beraturic modestia andiaz, ta comulgau biar dan lecuban belaunico jarriric.  
 I. *Nun jarri biar da belaunico?*  
 E. Baldin bada balustraric aren contra, eta ez baldin bada lurrian, edo Altaraco oinetaco olaren azpico aldiian, eta ez altaraco oñ gainian.  
 I. *Celan euqui biar da comuninoeco zapia?*  
 E. Euqui biar da alaco era, edo modutan, nun baldin ostia santuba Abadiaren escubetatic jausico balitz, jausi deitian zapi gaiñera soñoco, edo lurrera jausten ichi бага.  
 I. *Comulgau onduan zapiac ezpanac igorzitia ondo dirudi?*  
 E. Eztirudi ondo, ta alan eguin biar ezta.  
 I. *Cer erabilli biar da goguan Confiteor, edo ni Pecataria esaten dan demporan, eta Sacerdotiac ostia santuba escuban daucala erregubac esan daruazanian?*  
 E. Orduban barristau biar dira bere viotzian amodiozco, humiltasuneco, ta damuzco eguicai, edo acto viciac.  
 I. *Celan euqui biar da buruba comulguetan?*  
 E. Euqui biar da gueldi, ta zucen, aurreratu, ta atzeratu бага. Ezta beguiratu biar batera, ta bestera, ezta beguiac ezarri ta ichatsi bere Sacerdoteari; eta bai bacarric Ostia Santubari.

- I. *Celan euqui biar da aua?*  
 E. Ez gueiegui, ta ez guichiegui idiguiric.
- I. *Ostia Santuba artu danian, cer eguin biar da beragaz?*  
 E. Euqui biar da pusca bat min gainian, ta bigundu, edo deseguiten asten danian irunsi biar da, ardura, ta errespeto andiaz, auan guztiz urtu artian ichi baga.
- I. *Eta forma bi alcarri ichatsiric emoten badeutsaz Sacerdotiac, cer eguin biar da?*  
 E. Ecer adietan emon baga irunsi biac.
- I. *Baldin Ostia Santuba ichasten bada ao sabaian, cer eguin biarco litzate?*  
 E. Biarco litzate emero quendu miñaz, ta irunsi; baiña ez inolabere escubaz icutu.
- I. *Cer eguin biar da Jesu Cristo gueure Jauna artu dogun onduan?*  
 E. Alic onduen eracustera emon, daucagun pozcaria, ta gozamentuba, Jaun ain andia gueure barruban euquiaz, eta egon edolambere ordu lauren bat, Jaincuari esquerrac emoten.
- I. *Ondo dirudi comulgauta laster Eleisatic urtetia?*  
 E. Ori da Judasec egui ebana, ta onelacuac adietan emoten dabe Fediarene arrasturic eztaquèla. Etorrico balichaquegu gueure echera Persona Andiqui, edo adisquideren bat, ondo dirudiana izango litzate, agur bat eguinda beste baga istia, ta beste arazquerietan inardutia? Ausè eguiten dabe bada comulgau onduan euren Jesusegaz astirochu egon baga, Eleisatic laster urten daruenac.
- I. *Celan emon biar jacoç esquerrac?*  
 E. Lau gauza eguinaz: lenengua adoraui humiltasun andiaz Jesu Cristo; orretaraco batu biar gachaquez Aingueru, ta Santubac Jaun oni eguin daruequezan adoracinoiei, ta diranac opa eguin gueuriacaz batera.
2. Bigarrena esquer andiac emon: cerren etorri gura izan daben gugana, bere graciaz betetara, izanic gu gueurez ain gauza guichiac, ta errucarriac.
  3. Escatu beraganaco amodio sutsu, ta bero bat, ta biar ditugun gracia guztiac.
  4. Erregutu biar deutsagu Eleisaco premia guztientzat, gueure senide, adisquide, arerio, aguintari, ta onguilla gaiti.
- I. *Eracutsi celan.*  
 E. Neure salvaguille maitia: adoretan zaitut eceberecetic eguin nenduzalaco; batzen nachaquè Aingueru ta Santubac Ceruban emoten deutsubezan adoracinoe humillei, ta opa deutsadaz Aita Cerucuari zuc Sacramentu Santu onetan deutsazuzan guztiac. Emoten deutsudaz esquer andiac zure escubetatic artu ditudan meseden

ordez, edo eranzuteraco; batez bere emoten zatachazalaco ni legezco guizachar esqueraistoco bati. Zuc dazauzu, nic baño obeto neure arimaco premia; arren emo eidazu indarra enzuterico emon eztauedan mundu galdubaren deiai. Quen eguizu nire viotceco gogortasuna; ta bere ordez isio naguizu ceure amodio Santuban. Lagun eguiozu ceure Esposa maite Eleisa Santiari bere biar ordubetan. Deseguituz bere contra jarquiten diran perseguitentzu, ichas andi, edo olasta aserratubac. Erruquituz zaite Fede bagacuen ichutasunaz; arguituz eizuz, ezagutu zaguiezan ondo. Ez aztu, Jauna, Pecatariacaz; emon eguiezu gracia sendo bat urten daguien pecatu bidetatic; ondo eizuz neure adisquide, arerio, onguille ta aguintariac, guztioz igaro daigun emparetan jacun vicitzia ceure amodio, ta jarraimentuban. Opanachatzu, Jauna nasan guztiau, ni aldaidan guztia, ta ditudan gauza guztia: eguizu onduen derichazuna; ta ichi eguidazu, nic ceu opa zaguidazan zeure Aita betico Jaincuari, guizon guztien pecatubaren parcacinoia jaretsi, edo alcanzau daguituz.

I. *Asco da Jaincuari esquerrac emoten ordu lauren bat egotia?*

E. Ez; biar da oraindino gaineraco egun guztia igaro alic onduen.

I. *Cer eguin biar da orretaco?*

E. Baldin Sermoeric bada, enzun; egun artian gomutau cein euqui guenduban goisatan gueure viotceco echian; liburubac iracurri, gaisuac icusi, ta beste gauza onac eguiten jardun

I. *Eta lanian eguna igaro biar dabenac, cer eguin leique?*

E. Bere biarren artian gomutau viotz barruban, Jaincua aurrian daucala, ta egun atan artu dituban mesediac; opa eguin bere lana esquer orde, eta arratsalderuntz albadau, bacartu pusca baten bere Jaincuaz gozatu, ta atsereteco.

### *Seigarren Icasbidia*

*Iru Comuninoe mueta, edo suerte.*

143 I. *Ceimbat Comuninoe mueta dira?*

E. Dira iru: deunguia, epela ta ona.

I. *Cer da Comuninoe deunguia?*

E. Da pecatu mortalian eguina.

I. *Deungaro eguiten dabe pecatu mortalian comulguetan diranac?*

E. Da asmau, ta eguin aldaitian pecatu andienetic bat.

I. *Bildur andia euqui biar deusagu sacrilegiozco pecatu oni?*

E. Bai, orrentzat bildurrago izan biar gara, gogoratu aldaiqueguzan gaistaqueria guztientzat baño.



- I. *Cegaitic izan biar deusagu aimbeste icara, ta bildur?*  
 E. Cerren eguiten jacon Jesu Cristori injuria gogor, ta icaragarria bere gorputz, ta odol bedeincatuba deungaro erabilliaz.
- I. *Nun legoque obeto Jesu Cristoren gorputza, chacur, edo zapo baten eztarrian, edo pecatu mortalian comulguetan danen viotz barruban?*  
 E. Obeto legoque chacur, edo zapo baten eztarrian; cerren eztagoan lecu ezainagoric pecatubaz loituta daguana baño.
- I. *Cegaitic bildurtu biar gaitu pecatu onec gueiago?*  
 E. Bere ondoringo negargarriac gaiti.
- I. *Cein da guztien artian andiena?*  
 E. Andic sortu oi dan viotzeco gogortasuna, ta condenacinoia.
- I. *Celan ori?*  
 E. Cerren sacrilegio au eguiten dabenaren viotza asco gogortuten dan jaramonic eguiten ezteutsela graciaren dei, ta movimentubai; eta guichitan eguin daruen eguiazco penitencia.
- I. *Cegaitic alan?*  
 E. Cerren San Pabloc dinuanaz, zorigaisto (sic) onec jan daruen euren galduera, edo condenacinoia.
- I. *Bada orrèn jazoera, edo egempluric?*  
 E. Bai, Judasen buruban, cein gueratu zan comunioe onduan dana gogorturic, ta sentimentu бага; ez eutsen enzuteric emon Jesu Cristoren amodiozco deiai, ta andic laster juan zan bere buruba urcatutera ernegacinoez inguraturic.
- I. *Nortzuc dira comunioe deunga bat eguitera azartuten diranac?*  
 E. Lenengo confesinoe on bat eguiteco biar dan beste billacuntza, azterri, edo esamina eguiten eztabenac.  
 2. Bigarren, confesinoian lotsaz, edo bildurrez pecatu mortalen bat guichitu, edo estalduden (sic) dabenac.  
 3. Irugarren, damu eguiazco бага duazanac, edo artu gura eztitubenac biar dirian neurri, ta bidiac, vicitzia obatuteco.
- I. *Cer da comunioe epela?*  
 E. Da guichi prestauric, edo devocinoe бага eguiten dana.
- I. *Nortzuc dira gueienez comunioe epela eguin daruenac?*  
 E. Onec dira, pecatu venialentzat iguinic, ta icararic eztauquenac.  
 2. Mundu onetaco ondasun, ta vicitza onetaco atseguinetara ichasten dirianac.  
 3. Gauza onetan jarduteco gogoric, ta arretaric artu ez daruenac.
- I. *Asco bildurtu biar gaitu comunioe epelac?*  
 E. Chito asco, ta iru errazoe gaiti.
- I. *Cein da lenengua?*

- E. Cerren comuninoe epelac naigabe andia emon daruaca Jesu Cristo gueure Jaunari, nola Jaun andi bati emongo lichaquion bere echian artuco balitz otz otzic, becoqui illunaz, ta quendu бага берари арпегуи emoten deuten gauzaren batzuc.
- I. *Cein da bigarrena?*
- E. Cerren calte andiac daracartz beregana epeltasuneco estadu, edo egoeran jarten danac mai santuban.
- I. *Cetan dagoz calte orrec?*
- E. Cerren viotz bero, ta ondo prestaubetara ugari zabaldu daruazan Jesu Cristoc milla ondasun, ta gracia, ta galtzen ditubalaco gueienac epelic comulguetan danac.
- I. *Cein da irugarrena?*
- E. Cerren ascotan isten ditu ondoringo gaistuac.
- I. *Ceintzuc dira?*
- E. Isten dau arimia argaltasun negargarri baten, ta gueratuten da adore, edo indar guichigaz, tentacinoiac goituteco.
2. Guichica guichica prestau darua comuninoe deunga, ta sacrilegiozco batera.
- I. *Celan ori?*
- E. Cerren pecatu chicar, edo venialentzat arduraric eztabenac, usteztaca leguez jausi oi dira pecatu mortaletan, ta guero onetatic urteteco gogoric artzen ezta.
- I. *Cer bitarteco dago comuninoe epelic ez eguiteco?*
- E. Iru, gure animia garbitutia penitencia eguiñaz pecatu venialac gaiti bere.
2. Arreta gueiagogaz bacartutia, ta gomutetia astiro comuninoe aurreco egunian, cer eguitera goiazan.
3. Comuninoe bacoichian gueure vorondez necagarri, edo mortificacinoeren bat eguitia.
- 145 I. *Cer da comuninoe ona?*
- E. Da gauza ain santu batec esquetan daben berotasun, ta devocinoe osuaz eguiten doguna.
- I. *Ceimbat ondasun dacaz comuninoe amodiotsu, ta onac?*
- E. Gueituten dau Jaincuaren gracia, ta amodiua.
2. Quentzen deutzaz Diabrubari indarrac.
3. Guichituten dau deungaro (sic) leia, ta macurtasuna.
4. Ebaten deutzaz araguiari bere egotzarrac.
5. Arguituten dau adimentuba Jaincuaren gauzac ezagututeco.
6. Da gueure salvacinoeco bairic, edo preñaric segurubena.
- I. *Cetan igarrico deutzagu eguiten ditugun edo ez comuninoe onac?*
- E. Bost gauzatan: barristau, ta aurreratuten bagara humildade, ta Jaincuaren amodiuan.

2. Oneregui, edo desprecietan baditugu lureco arrotasun, ta vanidadiac.
  3. Bildurtuten bagara pecatu chicarracaz.
  4. Gogotic eguiten baditugu caridadeco, ta penitenciaco equiñac, edo obrac.
  5. Gogua gueitubaz bajuacu Jaincuaren gaucetaraco, nola diran, bere verbac enzutia, liburu onac iracurtia, oracinoian inardutia, gente onacaz batzeia, ta comunioe sarriagoraco gurari, ta gose andia.
- I. *Comunioe on bat eguiteco, cegaz valiauco gara?*
- E. Iru gauzagaz: comunioe batetic besteraco bitartian jardun usadio, edo ecanu charrac quentzen.
2. Comunioe bacochian asmo barri bat artu, nola dan humiltasuneco, erruquizco, edo penitenciaco gauzaren bat eguitia.
  3. Comunioe egunian necagarriren bat artu, edo ichi atseguin emon daiquegun ibilcuntza, egoera, edo jateren bat.
- I. *Noz daucagu obligacinoia comulguetaco?*
- E. Ezaguera osora eltzen garianian.
- I. *Ardura andi euqui biar dabe Cura Jaun ta Gurasuac umiac ondo comulgau ditecen?*
- E. Chito andia: cerren bera dan zorioneco iturria, ondo eguiten bada, ta zorigaistoco iturria deungaro eguiten bada.
- I. *Cer eguin biar da ondo comulga ditecen?*
- E. Prestetan asi biar dira mugonez, edo ordu onian, lau gauza eguinaz.
1. Usadio, edo oitura gaistuac ichi, ta len baño vicitza obago bat eruan. Sarri ta utsic eguin baga juan, edo bialdu dotrinara. Erregubacaz Jaincuari gracia esquetia, ta viotza pecatu guztietatic garbitutia penitenciaco iturrian.
- I. *Ceintzui ichi biar ez jaquè comulguetan?*
- E. Dotrina eztaquienai; gauza onetaraco gogoric eztaquenei; usadio charrac larga gura eztitubenai; lagun deungacaz batzen diranai; euren gurasuetaraco obedienciaric artu gura eztabenai; eta ondo eztaubenai cer duazan artzera.
- I. *Nun eguin biar da lenengo comuninoia?*
- E. Eleisa nagusian Cura Jaunaren laquez, ta aguinuz.
- I. *Cer eguiten dau Diabrubac ondo comulgau garianian?*
- E. Topau milla asmo, artu ditugun gracia, ta ondasunac galerazoteco.
- I. *Celan iraun eraguigo deutsegu gracia onei?*
- E. Sarri comulgaubaz, astiric emoten ezteutsagula Diabrubari laquiuaac ezarri, ta gu castiguetaco.
- I. *Beraz ondo da sarri comulguetia?*

- E. Da chito ona, Santu guztia esan, ta eguitecaz eracutsi daben le-  
guez.
- I. *Eta deungaro eguiten dabe esan daruenac, obiago dala bacan, ta on-  
do comulguetia, sarri, ta deungaro baño?*
- E. Chito deungaro: cerren errazago dan sarri eguiten dan gauzia on-  
do eguitia, bacan, edo guichitan eguiten dana baño. Baña onetan  
Confesore zurrac jaquingo ditu cer neurriac artu, edo cer muga-  
rriac ifini.
- I. *Ceimbat ondasun ateraten dira sarri comulgaubaz?*
- E. Iru dira jaquinenac: An artzen da indarra araguiaren, ta Diabru-  
baren gurari, edo asmuen contra
2. Vicitza onetaco neque, ta naigaben arimbidia, edo pacienciaz-  
co igarotia.
  3. Jaincuaren gracian egoteco, ta gauza onetan azqueneraño irau-  
teco bitarteco, edo laguntasun andi bat.
- I. *Ceimbat bider comulguetan ciran lenengo Cristinaubac?*
- E. Egunoro, ta orregaitic ciran alacuac: Mai Santu onetatic urten  
eruen Leotzarren indarracaz edocein martirio Jesu Cristo curutzet-  
tubaren amodioz igaroteco.
- I. *Nostic ona etorri da oraingo nasaitasun, ta aldantza negargarritzco  
dacuscun au?*
- E. Sarri comulguetiari isten asiciranetic.
- I. *Eta ezpagara diña ain sarri comulguetaco?*
- E. Eguin San Ambrosioc dinuana, au da, vici egunoro artzeco dina  
garian moduban. Au da eguniango Oguia. Alambere biurtuten  
naz esatera, Confesoriari jagoquela cetaraño eldu.

### *Zazpigarren Icasbidia*

#### *Mezaco Sacrificio Santuba*

- 147 I. *Etzan Jesu Cristo gure Jauna Altaraco Mai Snatuban gueratu gure  
janari izateco baño?*
- E. Bai, an dago oraindino bere Aita Jangoicuari Sacrificiuan opae-  
guin, edo esquinia izateco victima bat leguez Sacerdotiaren bitar-  
tez.
- I. *Nun opaeguiten jaco Jesu Cristo gure Jauna Aitari orretara?*
- E. Gure Eleisetaco altara gainetan Meza Santuba esatian.
- I. *Cer da Mezia?*
- E. Da Jesu Cristoren gorputz, ta odolaren Sacrificio odol jauste ba-  
gaco bat, Sacerdotiac Jaincuari esquinia, edo opadeutsana, ogui-  
ardauaren irudien azpian.
- I. *Cetaco ichi euscun Jesu Cristoc Sacrificio ori?*
- E. Sacrificio aguirico bat bere Eleisan largateco mundubaren az-  
quen, edo amairaino.

2. Berac curutce gainian esquini eban sacrificiua gure artian jarraituteo.
3. Sacrificio onegaz guri emon, edo egozteco curutzeco Sacrificiaren indarra, ta irabacimentubac.
- I. *Jesu Cristo (sic) curutze gainian ofreciu, edo opa izan dau sacrificio bat?*
- E. Bai, curutzeco eriotziaz esquini jacon gugaitic bere Aita Jaincuari.
- I. *Cer eguiten dau Meza Santuban?*
- E. Jarraituten dau curutzeco Sacrificiua bera; ta eztago beste diferenciaric, ezpada esquini moduban: esan gura dau, Jesu Cristo curutzian esquini, edo ofreciu jacola odola botiaz, ta Meza Santuban odol botate baga Sacerdotiaren bitartez.
- I. *Celan enzun biar da Meza Santuba?*
- E. Devocinoe chito andiaz, jarraituten ditugula Eleisiaren asmo, edo intencinoiac.
- I. *Ceintzuc dira orrec?*
- E. Da Jaincuari biurretia zor jacozan adoracinoiac, ta escumunac. Eregau, ta baquetutia gure contra euqui leian aserria, ta gueure utseguinen parcacinoia ertestia. Escatu Jaincuari biar ditugun mesede, ta graciac, esquer andiac emonaz len artu ditugunac gaiti.
- I. *Celan ondo enzungo da Meza Santuba?*
- E. Goguan ondo erabilliz Jesu Cristoren eriotza, ta pasinoia; Jaun au gomutaubaz Calvario gainian balego leguez, ta samurturic viotza gogoratubaz, cer, ta ceimbat igaro cituban gure amodioz.
- I. *Ceini esquiniten jaco Mezaco Sacrificiua?*
- E. Jaincuari berari bacarric.
- I. *Ez jaque esquini, edo ofrecietan Ama Virginiari, ta beste Santubei?*
- E. Ez: bacarric eguiten da gomuta bat Santubac gaiti, emoteco Jaincuari esquerrac, onei egui eutsezan mesedecaz, ta euren bitartetasuna gure escabide, ta erregubaz batzeco.
- I. *Norentzat esquini daiquegu Sacrificio Santu au?*
- E. Mundu onetan vici diran Cristinauben ontzeraco, ta Purgatoriuandagozanai lagunduteo.
- I. *Jaquin gura guenduquez Mezaco Ceremonien adibidiac, edo cer adierazoten daben.*
- E. Ara emen. Sacerdotia prestau, ta soñoco Santubac jazteco Sacristian sartzeiac esan gura dau, celan Jesu Cristo Ama Virginiaren Sabel garbian sartu zan, ta gure araguizco soñocua janci eban, ta bere Sacrificiua Aita Eternuari esquiniteco prestau zan.

*Amituba* da burutic bera Sacerdotiac artu daruan estalqui zuri bat; ta esan gura dau, celan areriuac Jesu Cristori siñu eguiteco, ta belarondocuac emoteco, arpeguia estali eutsen.

*Alba* da buruti beraco soñoco zuria, ta esan gura dau, celan Cristo zuriz janciric Erodesecc burlaz Pilatosi bialdu eutsan.

*Cinguluba* edo guerrico locarriac, celan soca gogorracaz lotu eben.

*Manipulu* esquer besocuac, celan azotetaco escubac lotu eutsezan. Esquerrian artzen da Jesusen amodiua gugaiti azotac artzeian, ta guc zor deutsagun amodiua eracusteco.

*Estolia* lepotic curutzeturic artu darua, adierazoteco Jesus irugarren [aldian], curutzia artzeco soca gogorracaz lepotic lotu ebe-la.

*Casulla* guztien gainian artzen danac esan gura dau, celan burla, edo siñu eguiteco granazco soñocua janci eutsen; edo curutzian josteco, celan tunica joscura baguia quendu eutsen.

### *Zortzigarren Icasbidia*

#### *Meza enzuteco bitarteco erraza.*

149

I. *Ceimbat parte daucaz Meza Santubac?*

E. Daucaz iru: Ofrendaraño bat; Comuninoeraño beste bat, ta azqueneraño bestia. Bata da sacrificioco prestaeria; bestia ofreciu, consagrau, ta comulguetia; ta irugarrena esquerrac emotia.

I. *Celan da ondo Meza enzutia?*

E. Ara emen modu erraza: Jarri belaunico, ceinatu, ta esan erregu au:

Neure Jaun andia: ez naz ni diña zure altara ondora urreratuteco; baña zure ontasunac nacar. Zure eche, edo Eleisan sartuco naz, ta adoraüco zaitut neure viotz guztitic. Ona zuri jartorzun Sacrificio, edo ofrenda bat, nun aguinetan, edo esquintzen deutsudan zure beguietan dan ederrena, ta zure gloriaric andieneraco.

I. *Cer esango da. Sacerdotiac Mezia asten dabenian?*

E. Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian. *Ni Pecataria* etc aldan damuric andienaz.

I. *Cer esango da Quirieleisonetan?*

E. Jauna, erruquitasuna, edo misericordia nizaz; eta au bederatz bi-der.

I. *Cer esango da Glorian?*

E. Ainguerubac alabau daguiela Jauna zure ontasuna, zu jaio ciñan- nian leguez. Nai dozu orain jaio gure arimetan graciaren bitartez. Alabetan zaitugu, bedeinquetan, adoretan, ta gloriatuten zaitugu; opa deutsuguz esquer milla zeure gloria andiagaiti; gueure erru, ta deungaro egiñen parcacinoia esquetan deutsugu. Jauna, miseri-

cordia; bada zu zara Aitagaz, ta Espiritu Santubaz batian, gure Jesu Cristo, Jangoico bacarra. Amen.

- I. *Oracinoiac Sacerdotiac esatian, cer esango da?*  
 E. Jauna, zure Ministro onec esquetan deutsuna, nagotzu ni bere es-  
 que.
- I. *Cer esango da Epistolia esan, edo cantetan danian?*  
 E. Gueure Jaun ta Maisu bacarraren aurrian isildu bitez guztiac. Er-  
 du, Jauna, zu, ta eguidazu verba. Indazu neure ariman zeure Igar-  
 la, edo Profeta Santuben amodiua, zure esquini ederrac cumpli,  
 edo bete ditezan.
- I. *Cer Evangelioco demporan?*  
 E. Lurreco bide errucarri onetan nabillen artian, Jauna, gauza biren  
 biarra daucat. Arguitasuna, ta janaria. Ez arren onèc niri ucatu.  
 Zure Evangelioco eracuste ederrac zucendu beguiez niri oñats, ta  
 ibillerac; ta zure gorputz Jangoicozcua izan bedi nire arimiaren ja-  
 qui osasuntsuba, utsegi eztaidan Ceruco bidian, edo argaltasu-  
 naz gueratu ez nadin bideric ecin eguinda.
- I. *Cer esango da Credoco demporan?*  
 E. Sinisetan dot Aita Jangoico etc edo Credua.
- I. *Cer ostia, ta caliza esquini, edo ofrecietan dirinian?*  
 E. Eguin viotzaz zuc bere beste aimbeste, ta esan. Ceru goietan zago-  
 zan Jangoico andia: opa deutsut ceure Seme Maitiaren Sacrificio  
 au Sacerdotiaz batera zure gloriaric andieneraco; niri, ta mundu  
 guztiari eguifico mesediac gaiti esquerrac, ta ordia emoteco, neu-  
 re, ta lurreco guztien pecatuben eranzute, edo satisfacinoeraco;  
 neuretzat, ta neure obligacinoeco guztientzat escatu gura, edo biar  
 ditudan mesede, ta gracia guztiac zugandic eracarteco zeure Seme,  
 ta gure Jaunagaiti. Amen.
- I. *Cer Orate Fratres, edo girabira bategaz gure Erregubac Sacerdotiac  
 esquetan ditubanian?*  
 E. Zure Semiaren Sacrificio au Sacerdotiaren bitartez, edo escubeta-  
 tic areguizu, Jauna, zure alabanza, gloria, ta gure oneraco, ta Eli-  
 sa Ama Santiaren provechuraco.
- I. *Cetaco esaten da Prefaciua?*  
 E. Biotzac cerura jasoteco, ta Ainguerubacaz Jangoicua alabeta-  
 co.
- I. *Cer esango da orduban?*  
 E. Sacerdotiac dinuan leguez, nic bere alabetan zaitut, Jauna, Ainge-  
 ru guztiacaz; ta bada gugana etorri gura dozu viotceco ondo eto-  
 rri, ta bedeincacinoe guztiac emon nai deutsudaz. Santuba, Santu-  
 ba, Santuba, ta gloriacz betia zara guretzat, Jauna zuria da Glo-  
 ria.
- I. *Mementuetan, edo Sacerdotiac escubac batuta isillic gueretan da-  
 nian, cer esango da?*

- E. Zure Seme Jesu Cristo gaiti esquetan deutsut, Jauna, Eleisa Santiagaiti, Aita Santu, gure Obispo, ta Erregue ta Cristinau guztiac gaiti; neure guraso, senide, onguille, arerio, ta pecatu mortalian dagozanac gaiti, zure graciara biurtu, ta zure legue, ta amodio Santuban guztioc beti vici gaitian.
- I. *Consagracinoc verbo esanda, ta ostia Santuba Sacerdotiac jasoten dabenian, cer esango da?*
- E. Adoretan zaitut, nere Jesus maitia, ta Ostia Santu orretan dazaut zure gorputz veneragarria, Curutzeco Altaran Mundu guztia erosteco diña izan zana, Sinisetan dot or zagozala.
- I. *Cer calicia goratutian?*
- E. Adoretan dot, Jauna, zure odol miragarri gure amodioz Curutzian bota cendubana, ta gure arimac garbituteco zuc emona; odol prezioz betericorretan icharaten dot Jauna neure erru, ta deungaro eguin guztien parcacinoia.
- I. *Cer guero Pater noster artian?*
- E. Zuc nai dozun leguez, Jauna, esquinetan deutsut Sacerdotiaz batera Sacrificio au zure Semiaren Pasinoe, Eriotza, vizte, ta Ceruco igoera gloriac betiaren icenian. Ostia garbia, Ostia Santuba, Ostia mancha baguia. Beguira, Jauna, ez guri, ezpada zure Seme Maite oni, zure bedeincacinoiaz onegaz bat eguin gaitian. Gomutau zaitte, Jauna, Purgatorioco arima gaisuacaz, ta atera eguizuz Sacrificio Santu onen bitartez dagozan leza suzco atatic, ta eruan eizuz zeure gloriara.
- I. *Cer esango da Pater noster, edo Aita guria esatian?*
- E. Gueuc esan beste aimbete astiro.
- I. *Cer esango da Agnus Deian?*
- E. Jaincuaren bildots garbi, munduco pecatubac quendu daruazuzan Jesus ona, erruqui zaitte guzaz; au iru bider, ta irugarrenian gueituten da, iguzu zure baquia.
- 151 I. *Comuninoeraco Sacerdotia prestetan dan artian, cer esango da?*
- E. Zu zara Jauna gure baquia; iguzu bada guri, ta Eleisa Santa guztiari Apostolubei emon ceuntsen leguez; atera gaizuz gueure gach, ta galbide guztietatic; zure vorondatia beti eguiteco, ta zugandic inoz alderic ez eguiteco gracia iguzu. Alan izan dedilla.
- I. *Cer esan leite Domine non sum dignusian?*
- E. Jauna, eztot nic merci, zu neure viotceco echian sartzeia; baña esaizu verba bacar bat, ta osatuco da nire arimia. Au esango da iru bider, ta Jaincuaren gracion bazagoz (Jaunari nai eztaquiola beneric) eguizu espirituco comuninoia, artzeco gurari vici bategaz.
- I. *Cer eguingo da Comuninoe ostian azquenengo Evangelioraño?*
- E. Emon Jaincuari esker andiac Sacrificio atan parte euqui dogula-



co, artu bedeincacinoia, ta azqueneco Evangelioraño esan: Jauna, zu artzen zaitubana ceure Seme, edo Alaba eguiteraño jasoten dozu. Arren eguidazu niri bere mesede au, eta araguiaren cate, ta macurtasun guztietatic atera naguizu, zure graziaz confesinoeco Sacramentubaz barriro jaio nadin zuretzat, ta zure comunioe gogozcua Fede vici, ta amodioz beti artu daguidan. Orra emen, Iracurle maitia, Mezaco, ta Eleisaco oracinoiac zuc gura, ta biar dituzun modu laburrian, ta Jaincuac eracusten dituban leguez.

- I. *Eguite andia da Meza enzutia?*
- E. Bai ondo enzuten daba; baña pecatu mortalian enzutia, batez bere ezpadago pecatutic urteteco gogoric, da Jesu Cristori siñu, ta coco eguitera eltzeia; jarri belaunico, Judegu madaricatubac leguez, jaguita laster belarondocua emoteco.
- I. *Cer eguin biar dabe baserrico gente, Mezaric astegunian enzun ecin dabenac?*
- E. Euren lan, ta biarrac goisian Jaincuari esquini; artu gogua, ta asmo santubat esaten diran Meza guztia enzuteco, Meza bacocho icusten balegoz leguez.

#### *Bederatzigarren Icasbidia*

##### *Sacramentu Santu Confesinoecuaren gainian*

- I. *Cer da Penitenciaco Sacramentuba, edo confesinoia?*
- E. Da Sacramentu bat, ceinec parquetan dituban, batiatu ezquero eguin ditugun pacatubac.
- I. *Ceimbat Parte daucaz sacramentu onec?*
- E. Iru: Damuba, Confesinoia, Ordetasuna, edo Satisfacinoia.
- I. *Cer eguiten dau Sacramentu onec?*
- E. Parquetan deuscuz gueure deungaro eguinac, ta baquetu, edo adisquidetuten gaitu Jaincuaz, emonaz gracia Santuten gaitubana.
- I. *Cer pecatu mueta parquetan dau Sacramentu onec?*
- E. Eztago pecatu parcatu ecin daiquianic biar dan leguez artzen badoyu; baña onec dauca ultzia.
- I. *Eta parquetan dau pecatubari zor jacon castigu edo penia?*
- Bai beticua, edo infernucua, baña ez guztiz demporazcua, edo Purgatoriocua.
- I. *Celan jaretsiten da Purgatorioco nequèn parcacinoia?*
- E. Jaincuaren amodioco berotasunaz, penitenciaco eguitecaz, ta Indulgencien bitartez.
- I. *Percatubac parcatuta, cer ateraten dogu Sacramentu onetatic?*
- E. Iru gracia: biurtuten deuscu pecatubaz galdu guenduban Ceruraco Escubidia.

2. Emoten deuscuz indarrac Diabruba goituteo, ceinec nai leusquegu ostera jausi eraguin pecatuban.
3. Viztuten dau barriro lenagoco eguite onen meritu, edo irabacimentuba, cein galduric eguan pecatubaren bitartez.
  - I. *Celan viztuten ditu lenagoco eguiten (sic) onen meritubac?*
  - E. Gu Jaincuaren gracion ifiniatz, ta gracia onen bitartez vicitzia emonaz illic egozan eguite onai.
  - I. *Eta confesetan diran guztiaz atera daruez onembeste ondasun?*
  - E. Ez eltzen ezpadira biar diran disposicinoe, edo prestantentubacaz.
  - I. *Cer esan daiquegu biar diran pretaqueta бага confesetan diranac gaiti?*
  - E. Esan daiquegu, eguiten dabela pecatu esquerga, ta icaragarri bat, ceini deituten jaco sacrilegiua, ta oraindino icaragarriagua, azartuten badira juaten comulguetara.

*Amargarren Icasbidia.*

*Contricinoia, edo Damuba*

- 153
- I. *Cer da contricinoia, edo Damuba?*
  - E. Da pecatuben garbai, edo naigabe sendo bat, gueiago ez eguiteco asmo, eta gogo eguiazco bategaz.
  - I. *Cer da asmo edo gogo eguiazcua?*
  - E. Da benetaco gurari, edo vorondate bat aldeguiteco pecatutic, ta pecatuben bide guztietatic.
  - I. *Onelaco gogo edo propositu бага izan leite eguiazco confesinoia?*
  - E. Ez: ta orregaitic eguiten dira aimbeste confesinoe deunga.
  - I. *Cetan igarrico jaco propositu, edo asmo eguiazcua daguala?*
  - E. Iru gauzatan: igues eguiten bada pecatuben bide, edo ocasinoietatic, nola diran lagun gaistuac, Nesca Mutillen arteco batzar, ta biguira infernucua, ta beste asco.
  - I. *Cer da pecatuco bide, edo ocasinoia?*
  - E. Da eguite, egoera, edo ibilleraren bat, ceinetan jarriric gauza chito gacha dan pecatu ez eguitia, dala berez, edo guizon cenzudunen irichian, dala bacoachac bere argaltasunari beguiratuta.
  - I. *Eta aldeguiten ezpada onelaco vorondatezco pecatu bide, edo ocasinoetatic, ondo confesau leite?*
  - E. Ez, ta eguingo dabe pacatu icaragarri bat onelacuac absolvietan ditubezan Confesoriac.
  - I. *Cer agindu biar deutse bada absolviu baño lenago?*
  - E. Urten daguiela alaco ehetic; igues eguin daguiela bestelaco lagun, ta ibillera charretic, ta ez sinistu emon daruezan verbal, ta bota daruezan negarmalcuai, ta cizpuru larritasunac aterai.

- I. *Cer eguin biar dau Otseguin, edo Servitzari Andracume batec dacusanian bere Ugazaba, echeco Seme, edo Morroeren batec pecatura-co tentetan dabela, edo modu charrian erabilli daruela?* 154
- E. Eztago bildots bat ondo, ta seguru toqui baten Otso gosesto bategaz, ezta alaco nescatilla gaisuac bere infernuco otso onen atzamar artian; eta alan escatu laster consejuba Confesore jaquintsu bati, ta eguin aguinduten deutsana.
- I. *Eta valioco dau ascoc emon daruen achaquia onec: Jauna, cer susmau, ta esango da Errian, urtia amaitu baño lenago urteten badot? jasoco dira esames, ta murmuracinoe andiac?*
- E. Ecin igaroco da Jesu Cristoren Aditzain, edo tribunale zucenian, ceinec aguinetan deuscun oiñac ebateco, ta beguiac aterateco; esan gura dau, ez gauzaric maite, ta biarrenari bere parquetaco, pecatu bidian bagauquez. Deungaro jaten emon, edo gogortasun andiaz Ugazabac tratauco balituque, laster litzatez echetic campo-ra, cer esanai beguiratu бага. Baña arimiaz arduraric eztago, ta orregaitic dagoz aimbeste atzerapen gauza on, ta biarretaraco.
- I. *Cer eguin biar da onez gainetic ondo confesetaco?*
- E. Ichi, edo quendu usadio, edo oitura char guztiac; nola dirian pensamiento loietan vorondatez gozatutia, escuca ciquinac bere burubaz, edo besteren bategaz euquitia, ta onelaco beste gauza asco.
2. Vicitza on bat eruateco bitarteco, ta neurri senduac artu.
- I. *Nortzuc adierazo darue eztauquela eguiazco gogo, edo vorondate sendoric vicitzia obetuteco?*
- E. Confesau onduan lengo pecatubetara, ta ecandu deunguetara biurtuten dirianac, batez bere laster bada.
- I. *Cer icen emoten jaco pecatu mueta oni?*
- E. Bir jausteco pecatuba, edo pecatura ostera biurtutia.
- I. *Pecatu andiagua da au bestiac baño?*
- E. Bai, cerren dan esquergabetasun chito andi bat, ezaguera, edo maliuzco (sic) pecatuba, ta Jaincuaren desprecio andiagua.
- I. *Celan ori?*
- E. Cerren artu ezquero Jaincuaren gracia, ostera lengora biurtuten bada, adierazoten daben, obato juacola pecatubaren aguinte, ta gozotasunaz, Jaincuaren adisquidetasunaz baño.
- I. *Cer dino San Pedro Apostolubac pecatura biurtuten dirianac gaiti?*
- E. Dino diriala chacurrac, ta belarluciac leguez euren janac atera, edo errebesau ezquero barriro jaten ditubelaco, ta garbitu onduan biurtuten dirialaco etzitera pecatuben ciquintzan.
- I. *Cegaiti da ain bildur izatecua barriroco pecatu jauste au?*
- E. Gauza ascogaitic: cerren pecatubacaz gogortuten jaquen viotza

Jaincuaren deietara.

2. Cerren prestetan dituban penitencia bagaco eriotzara.

3. Eta cerren jarten dirian pecatubaren neurria beteteco zori, edo peligruban.

I. *Cer da pectubaren neurri au?*

E. Da Jaincuac pecatubai ifini deutesen mugarría, ceinetara eldu ezquero eztago aurrera igaroteríc.

I. *Cer jazoten da neurri au bete ezquero?*

E. Lasterco eriotza deunga bat, edo Jaincuaren jaramonic eza onelaco Pecatariei, isten ditubala euren gurari gaistuen escubetan, ez emonaz penitenciaco gracia senduac, ceintzuc baga eztan inõolabere salvauc.

I. *Cegaitic bada vici dira asco ain ardura guichigaz, ura leguez pecatubac elaten ditubela?*

E. Cerren pecatubaren gaistaqueria, ta illuntasunac ichuturic dabil-tzan; orregaitino eguin daruez confesinoe sacrilegioz betiac.

I. *Ceimbat gauza, edo condicinoe biar ditu bada Contricinoe, edo Damubac, onac (sic) izateco?*

E. Biar dira lau: geurez gainecua, edo Cerucua, Barrenecua, Guztiena, ta Sendua.

I. *Cer da damu Cerucua, edo gueurez gainecua?*

E. Da Espiritu Santubaren movimentutic, ta Fediac dacuscuzan gauza, edo gueietatic, jatorcun pecatubaren naigabe, edo garbai cinzo bat.

156 I. *Mundu onetaco gachen bildurrez artzen dan damuba, asco ete da Confesinoe on bat eguiteco?*

E. Ez, cerren bildur mueta au dan gueurez jatorcuna Espiritu Santubaren parte baga, ta eztarua quendu viotzetic pecatubaren gurari guztia. Onelacua da Nescatilla ascoc euqui daruen damuba euren doncellatasuna galduta: cerren munduco oneretsi, edo onria galdudaben, edo ucatu deuselaco ezcon verbia.

I. *Cer da barreneco damuba?*

E. Da pecatubaren naigabe, ta iguin ez irudi utsecua, ezpanetacua, ezpada viotzetic datorrena.

I. *Pecatari gueienac eriotzaco gachian artu daruen damuba, celacua izaten da?*

E. Aozcua, azalecua, ta bildur utsecua.

I. *Cegaiti alan?*

E. Cerren deungaro vici diranac gueienez deungaro ill oi diran.

2. Cerren daracusezan damu seinaliac, nola diran, curutze munac, cizpurubac, begui jasotiac, gueiigo sortu oi dira Jaincuaren aurrera aguertuteco (sic) biarreco, ta infernuco tormentu, edo necabidien bildurretic, barruco eguiazco damu, ta Jaincu-

ren amodiotic baño. Orregaitic dino San Agustinec, bildurtuten zaitu infernuco subac, eta ez pecatubac. *Times ardere, non peccare.*

- I. *Cer jazoten jaque onelaco errucarriei?*  
 E. Chacur autzian aragui zati ostubaz doianari jazoten jacona, ceinec ichi darua autzetic, ez goguaren faltaz, ezpada maquilliaz norbait atzetic dabelaco.
- I. *Cer da damu guztiena?*  
 E. Da pecatu mueta guztietara eldu, edo zabalduten dan gorroto benetaco bat.
- I. *Euqui leique batec eguiazco damuric pecatu batzubetaraco, guztietaraco euqui baga?*  
 E. Ez; cerren ez leuque damuric artuco Jaincuaren ofensia, edo nairagabiagaiti; bada edocein pecatu mortalec ofendietan dau chito asco gure Jainco ona.
- I. *Pecatu venialic baño eguin eztabenac, confesau leite euren damu baga?*  
 E. Ez, euqui biar dau damuba; ezpada ezaguera osuaz bada damuric ez eruatia, izango da Sacrilegiua. Onelacuac eguin biar dabena da, nosbait eguin dabene pecatu mortalen bat damu guezat confesioian ifini; ta inoz pecatu mortalic eguin ezpadabe, damutu pecatu venial mueta gorrotoric gueiena emoten deutzanaz.
- I. *Beraz euqui leite pecatu venialen baten damu eguiazcua, besteren batzubena euqui baga?*  
 E. Ezta ascoc uste dabene baisen erraz: alambere bai, pecatu venial damu ditubala derichazan aec ezaiñaguac badira bestiac baño, edo oituz, ta usadioz eguiñac.
- I. *Cer da damu sendo, vici, edo eraguillia?*  
 E. Da damuari bat, ceinec iguinarazo, edo gorrotau eraguiten deuscun pecatuba, beste calte, ta gach guztiac baño gueiago.
- I. *Beraz damu, edo atsacabe gueiago artu biar dogu, cerren Jangoicua ofendiu dogun, ece ez cerren galdu ditugun gure ondasunac, senidiac ta munduban ditugun gauzaric maiteenac?*  
 E. Bai: cerren pecatuba dan gach, edo calte guztietatic andiena, ta bildurgarriena.
- I. *Ce bidetic izango dogu eguiazco damuari bat?*  
 E. Jaincuari viotz osotic, ta humiltasun andiagaz escatuta.  
 2. Gueure aldetic eguiñaz aleguiña pecatubene damuba artze-co.
- I. *Cegaz valiauco gara orretaco?*  
 E. Gomutaubaz astiro gueure artian, ta lecu bacar batera juanaz, cein ona, ta maitagarria dan guc ofendiu dogun Jangoicua.  
 2. Ceimbat mesede artu ditugun bere escu erruquitsubetatic, ta

- guc berari eracutsi deuntsagun esquergabetasuna.
3. Jesu Cristoren Pasinoia, ta eriotzia, cein cracarri eutsen gure pecatubac.
4. Guc galdu dogun Ceruba, ta mereci izan dogun Infernu beticua atseguin cital beinguan igaro zan bategaiti.
- I. *Ceimbat contricinoie, edo damu modu dira?*
- E. Badira bi: damu osua, ta damu ez osua. Lenenguari dericho Contricinoia, edo Ondamuba, ta bigarrenari Atricinoia, edo Bildur damuba.
- I. *Cer da damu osua, edo Contricinoia?*
- E. Da pecatubaren gorroto andi bat ofendiu dogulaco Jangoicua, izanic ain ona, ta maitagarria.
- I. *Ceintzuc dira damu onen eguiquizun ta ondoringuac?*
- E. Ifinten dau peccataria Jaincuaren gracion confesau baño bere len, baldin badau confesetaco gogo, edo vorondate cinzo bat.
- I. *Cer da atricinoia, edo Bildur damuba?*
- E. Da pecatubaren gorroto andi bat, cerren ofendiu dogun Jaincua, gomutauric pecatubaren ezaintasuna, galdu dogun Ceruco gloria, ta beti iraungo daben infernuco neque icaragarriac.
- I. *Asco da Infernuco bildurra eguiazco damu bat euquiteco?*
- E. Ez: cerren Diabrubac bere bildur dira, baña eztaque damu Espiritu Santubaren graciatic jatorquenic.
- I. *Celan bada artu gueinque damu osasuntsu bat Infernuco penac gomutautau?*
- E. Ateraric contuba, cein andiac izan diran Jaincuaren erruquitasun edo misericordiac gorde dabelaco Peccataria Infernura botatzaca aimbeste bider mereciuric; celan icharan deuntsan penitencia eguiteco. Onelan Infernutic jaso biar dira Fedeco beguiac Jaincuagana, ezpada bildurtuco gaitu subac, damutu baga pecatuba: *times ardere, non peccare*, dino San Agustinec.
- I. *Cegaitic esaten jaco damu oni damu ez osua?*
- E. Cerren eztaben berez ifiten gracion, pecatuban daguana; bacarric prestetan dau penitenciaco Sacramentuban artzera santututen daben gracia, ta pecatuben parcacinoia.
- I. *Ceimbat gauzac lagundu biar deutse damu oni prestetaco Sacramentuban artzeco gracia?*
- E. Quendu biar dau pecatu eguiteco vorondate guztia.
2. *Euqui bair dau parcacinoiaren uste vici bat, ta asi biar dau, Jaincua maite izaten, justicia guztiaren iturria leguez, dira Trentoco Conciliuaren verbac, ut illum tamquam omnis iustitiae fontem dilligere incipiant.*
- I. *Cer amodio, ta maitetasun da ori?*
- E. Eleisiac daucaz Eracusle jaquitunac eranzun daiquenac itaune

oni. Gureztat asco da eguiazco pecatuben damubaz, ta viotza Jaincuagana benetan birutubaz Confessinoera urreratutia. Ezgara larritu biar teologu ascoren eztabaidac enzunda. Espiritu Santubac dino, Jaincuaren bildurra dala bere amodiuaeren asieria. *Ti-mor Domini initium dilectionis*. Orregaitic uste izateco da, beti daguala amodio muetaren bat, eguiazco conversinoe, edo biurreria daguan viotzian.

*Amaicagarren Icasbidia*

*Aozco Confesinoia*

I. *Cer da Confesinoia?*

158

E. Da Sacerdote aprobau, edo ontzat emonda daguan bati eguiten jacon pecatuben aguertamena, edo declaracinoia, absolucinoia artzeco ustiaz.

I. *Ceimbat gauza, ta cercilidade biar dira ondo confesetaco?*

E. Biar dira bost: lenengua baco chac aleguinaz bere pecatubac aztertu, edo burura ecartia.

2. Bigarrena artzeia damuari sendo bat: cerren ofendiu dogun gueure Jangoicua.

3. Irugarrena euquitia asmo vici, ta cinzo bat, ez gueiago pecaturic eguiteco, ta pecatu bide guztietatic aldeguiteco.

4. Laugarrena, esatia artez, ta osoro pecatu mortal guztiac gueure artian dazauguzan leguez.

5. Bostgarrena Confesoriac emoten deutsan penitencia achaquian, ta atzerapen andi baga eguitia.

I. *Confesore ontzat emonda dagozanen artian, cein autu biar dogu?*

E. Jaquituria, ta virtuteric gueien daucana, ta arduratzaca eguia, ta onduen jagocuna, esango dabena.

I. *Obe ete da beti Confesore bategaz confesau?*

E. Bai: cerren obeto, beste guztiac bardin diriala, osatuco dau gaisua Medicu artu, te ezagun batec, eztazaubanac baño. Alambere ondo izango da noisian bein arduratzaca besteren bategana juatia, bategaz bere lotsa andi, edo lotutasunen bat badaucagu Confesore artubaz. Au ez eguinagaiti jazoten dira aimbeste confesinoe sacrilegiozco pecatubac lotsaz confesau baga ichita.

I. *Ceintzuc mercei eztabe absolucinoeric obetu artian?*

E. Dotrina eztaquienac.

2. Bere lagunaz baquetu gura eztabenac.

3. Jaubiari ostuba biurtu nai ezteutsanac, ta lenago sarritan esquinita luzamentubetan dabiltzanac.

4. Becatuco ecandu, edo usadio charrac quentzeco aleguiña eguiten eztabenac.

- Pecatu bide, edo ocasinoetic urte gura eztabenac.
- I. *Ceimbat beste leta, edo condicinoe euqui biar ditu confesinoiac onac (sic) izateco?*
- E. Dira iru ezagunenac: izan biar da humildiac, cinzuac, ta osuac.
- I. *Cer esan gura dau Confesinoe humildiac?*
- E. Esan gura dau, gueure utseguñac aguertu biar ditugula lotsa moduren bategaz: cerren Jaincua ofendi dogun; ta ez esan ipuinac balira leguez.
- I. *Cer esan gura dau Confesinoe cinzuac?*
- E. Esan gura dau, confesa orduban eztitugula ez guichitu, ez gueitu biar pecatubac, ezpada esan cinzotasun andiaz dirian leguez.
- I. *Cer esan gura dau Confesinoe osuac?*
- E. Esan gura dau osoz confesau biar ditugula pecatu mortal guztiac, batpere ichi baga.
- 159 I. *Pecatu venialac confesetaco bago obligacinoeric?*
- E. Ondo da; baña ezta gauza biarra: eta alan berariaz, ta lotsaz ichico balitz bere pecatu venial ciertu, edo jaquina, ez lego que confesinoe deungaric.
- I. *Asco da aguertutia eguin ditugun pecatu mortalen mueta, edo especie alcarri ez jagocazanac*
- E. Ez, esan biar da, ceimbat ciran albadau, baita (beintzat cinzoro ebilli gura dabenac) euren juaetorri, circunstancia, edo cercilidade pecatuba aci edo asco gueituten dabenac. Orregaitic esan biar da, ez bacarric ostu dogula, ezpada ceimbat alditan, baita ceimbat bere, ascora igoten badau. Bestela celan jaquingo dau Confesoriac cer penitencia emon, ta cer erantsi? Araguizco pecatuben bat eguin dabenac, pensamentuz baño eguin ezpada bere, esan biar dau zan ezcondubaz, Persona consagraubaz, libriaz.
- I. *Cer esan biar dogu lotsaz, edo bildurrez pecatu mortalen bat, edo esan biar zan circunstanciaren bat isildu daruenac gaiti?*
- E. Esan biar da Diabrubic samia catigatu, ta estututen deutsela, ez aguertuteco Confesoriari.
2. Eguiten ditubela sacrilegio pillo asco, atara confesau, ta comulguetan dirian artian.
3. Salvauco ecin diriala, isiltzen egon dirian dempora guztico Confesinoe oso, edo general bat eguiten ezpadabe.
- 160 I. *Celan puztu, ta animau biar dira errucarri onec euren pecaturic ezainenac, ta icaragarrienac aguertutera?*
- E. Sinistu eraguiñaz, ecin esan leiquela Confesoriac confesinoian enzunico pecaturic, laba gori baten sarutco balebe bere; ezteutsala muquertasunic, ta arpegui len baño illlunagoric eracutsico.
2. Eguinda dagozala Confesoriac pecatu andiaquac enzutera, ta



- beretzat izango dala gozamentu andia, estadu negargarrizco atatic ateratia.
3. Urten biarco dabela Juicioco egunian, ta mundu guztiaren aurrarian, orain guizon bati bere belarrira esan gura ezituban pecatubac.
  4. Confesau eraingo deutzazala Infernuban Luciferrec, Demonio guztiac danzubezala.
- I. *Ceimbatec daquiez isilduten dirian, ta ezcutuban eguin cirian pecatubac?*
- E. Edolabere bai iruc: Jainco juzgauco gaitubanac; Diabru salatu, edo acusauco gaitubanac, ta Aingueru Jaola edo Guardaco negarrez daucagunac.
- I. *Cer modutan confesauco dau erraztuen isildu daben pecatuba?*
- E. Juanic arduraric guichienaz esango deutzan Confesore jaquitun bati (erbestecua bada bere) ta esanaz: Jauna lotsa andi bat daucat, neure pecatubac aguertuteco, ta lagundu beguit bedorrec. Verba onec enzunda, itanduco deutzan Confesoriac amodio andiaz, cer pecatu dirian; ceimbat dempora isilletan dituban, ta bere laguntasunaz errebesauco dituzu dirianac, ta gueratuco zara quezca baga, ta baquetasun andiaz. O ceimbat arima errucarri doiazan infernura lotsaz ichirico pecatubac gaiti! Ceimbati gomutetan jaquez umetan eguinico cirimonia, ta ibilqueta charrac, ta dagoz esatera azartu ecin da, ezta baida, ta quezca andienetan; quendu nairic buruti esanaz bere artian etziriala pecatu mortalac izango; baña ecin arantzia guztic (sic) quenduric! Eta deunguena da, gueitubaz juaquela lotsia, ta eriotzaco confesinoietan bere irunsi oi diriala.
- I. *Pecatu mortal dudacuac confesau biar dira?*
- E. Bai, confesoriac juzgau daizan, ta jarri ez gaitazan Confesinoe deunga bat eguiteco arriscuban.
- I. *Cer eguin biar da gauzac zucen confesetaco?*
- E. Ondo, ta astiro ingurau concienciaco gira bira, ta bazterrac.
- I. *Ceren gainian eguingo dogu billacuntza, azterri, edo esamina au?*
- E. Jaincuaren, ta Eleisaco aguinduben gainian.
2. Gueure estaduco eguimbide, edo obligacinoien gainian
  3. Izaten garian lecuben gañian
- I. *Eleisan sartuta cer eguin biar dogu Confesoriaren oñetara eldu baño lèn?*
- E. Iru gauza: Jaincuari escatu ondo confesetaco gracia.
2. Aztu eztaquiguzan, pecatubac barriro gogoratu.
  3. Viztu viotza damu andi bat artzera.
- I. *Cer eguin biar dogu Confesoriaren oinetan garianian?*
- E. Iru gauza: egon biar dogu modestia andiaz, Confesoriari beguiac ezarri baga.

2. Gomutau Fede vici bategaz, an gagozala Jesu Cristoren oinetan leguez, ceinen lecuban daguan Confesoria.
  3. Ceññatu arreta andiaz, ta gorputza macurturic, esan viotz osotic, ta damu andiaz, *Ni Pecataria*; eta guero berac acusau gura badau, esan: onembeste edo aimbeste egun dira, ni confesau nintzala, compliu neban penitencia, ta eguin nituban, edo ez, dana dan leguez, Confesoriaren aguindubac. Badacart damuba, neure Jaincua ofendiu dodalaco. Acusetan naz; emen esaten dira bere utseguñac.
- I. *Eta lenagoco Confesinoietan azturico pecatubac, esan biar ete dira urrengo gomutau jacuzanian?*
  - E. Bai, ta esan biar dira aztubac ciriala.
  - I. *Eta pecatu mortal, edo dudacoren bat confesauta laster gomutetan bajacu, confesau biar ete da comulgau baño lenago?*
  - E. Alan eguin darue Cristinau onac, ta eztago escandaluric, Confesoriaren oiñetara atzera biurtu arren; cerren au eguin darue dirian onenac, ta gueien esan daiquena da, dala conciencia beguiratucua.
  - I. *Cer eguin biar dogu gueure Confesinoia amaituta?*
  - E. Enzun gogo, ta vorondate osuaz Confesoriaren aguindu, ta consejubac. Artu poz andiaz emon deuscun penitencia. Barristau pecatu guztien damuba, ta esan absolvietan gaituban artian *Neure Jesu Cristo Jauna*. etc.
  - I. *Cer eguin biar dogu Confesoriaren oiñetatic urtenda?*
  - E. Lau gauza: emon Jaincuari esquerrac artu dogun mesediagatic.
    2. Aibat lasterren eguin emon jacun penitencia.
    3. Goguan erabilli Confesoriaren encargubac.
    4. Baldin errazoeren bategaitic beste aldi bateraño luzatu badeuscu absolucinoia, biurtu beragana aguindu euscun demporan.
  - I. *Cein da ondo confesetaco bitartecoric onena?*
  - E. Aldi bacoichian confesetia, confesauta beriala ill biar baguendu leguez.

*Amabigarren Icasbidia*

162 *Satisfacinoia, edo Ordia.*

- I. *Cer da Satisfacinoia?*
- E. Da Jaincuari, edo lagunari eguiten jacon biurrera, edo barristacinoe bat emon gueuntsan naigabe, edo injuriaren bategaiti.
- I. *Confesinoe on bat eguñteco biar dogu artu asmo sendo bat, biurtuteco Jaincuari penitenciaren bitartez pecatubacaz quendu gueuntsan onria, edo emon gueuntsan naigabia?*

- E. Bai, ta asmo au baga eztau valio Confesinoiac.
- I. *Cegaitic eguin biar da penitencia, Confesinoian pecatubac parcatu badira?*
- E. Cerren eztan beinguan parquetan, pecatubai zor jaquen castigu demporazcua, cein igaro biarco dogun edo Mundu onetan, edo Purgatoriuan.
- I. *Celan emoten jaco Jaincuari pecatuben orde, edo satisfacinoa?*
- E. Penitenciaco eguitecoc (sic), baturic Jesu Cristoren eriotzaco erabacimentu edo meritubacaz.
- I. *Ce eguite dira orrèc?*
- E. Confesoriac emon daruazan penitenciac: nola dirian oracinoiac, barubac, ta limosnac, ta onen icenian adietan dira beste necaldi, ta gauza on guztiac.
- I. *Celacuac izan biar dau penitenciac?*
- E. Pecatuben ereduacuac aleguinez, diño Concilio Trentocuac.
- I. *Ce penitencia dira onac murmuraguille, biraguille (sic) ta lagunaren contra ernegu, edo maldicinoe deungac botaten ditubenentzat?*
- E. Yto daguiela aserria lenengotic.
2. Arrastau daiela lurra miñagaz eguiten daben bacochian.
  3. Eguin daiela acto Contricinoecua belaunico, ta besuac zabalic.
  4. Emon daiela limosnaren bat, dirudunac badira.
  5. Gomutau eraguin euren miña eguiña dala Jaincua alabetaco, ta ez gaisqui esaca iñarduteco; Jesu Cristo atseretaco, ta ez ciquinduteco verba loi, ta ernegariacaz.
- I. *Cer penitencia emon biar jaque areriotasunian, ta gorrotuan vici dirianai?*
- E. Baquetu deitezala areriuacaz; eguin daiela eurac gaiti oracinoe, naiez guztiai enzuteric emon baga, astu ditezala artu daben naigabe, edo injuriaz; gomutetan diriala ceimbat gueiago parcatu deutesen eurai Jainco sarritan ofendiu dabenac.
- I. *Cer jocolari deunga, edo biar eztan beste joquetan dabenai?*
- E. Irabazten daben erdia emon daiuela premian dagozanai.
- I. *Cer ordi, edo edalai?*
- E. Ifini edango daben neurria, nola dan igaro eztitecela arratsalde bacochian quartillu batetic.
2. Eragotzi tabernan sartu ditezala San Carlosec dinuan leiguez.
- I. *Araguitsu, edo deshonestuai, cer penitencia emongo jaque?*
- E. Onen zauriac eztira osabide, edo erremedio arinacaz osatuco, eta alan emon biar jaque.
1. Ordu laurengo egunoro Oracinoa Infernuco tormentuben gai-

nian, gomutau ditecen, cer negar garratzac etorrigo jaquezan beti betico, beinguan igaro cirian atseguin ciquinac gaiti; erio-tziaren gainian, gomutau ditecen celan arren jaqui izango da (sic) orain gozatu gura leuquen gorputz ustela.

2. Eguin daiezala baruren batzuc albadaguie, acto contricinoeco asco egun artian, sarri confesau ta guztien artian biarrena, aldeguin lagun, ta ibillera zatar, ta peligruczuetatic.

I. *Andiac dira oraingo Confesoriac emon daruezan penitenciac?*

E. Ez, dirian Confesore beguiratubenac emoten ditubenac bere.

I. *Cer penitenciac emon eruazan Eleisiac lengo demporetan?*

E. Ona emen batzuc.

Juramentu guzurrezcua eguitebanari, berrogui (sic) eguinian ur ta ogui utseco baruba, ta zazpi urteco penitencia. Jaiegunian biar eguiñagaiti bacochecho ur ta oguico iru baru.

Eleisaurrian edo Jaiegunetan danzan ebiltzazanai iru urteco penitencia.

Eleisan barriquetan egoten cirianai amar eguneco ur, ta oguico barubac.

Eleisaco baruren bat austen ebanei, oguie eguneco baru gogorra.

Gurasoen bati maldicinoia ezarte eutsanari berroguei eguneco ur ta oguico baruba. Lotsia gogortasunaz galtzen eutsenei, iru urteco penitencia, ta zazpicua escuba jasoten eutsenei.

Bere Cura Jaunaren aguindubei barre eguiteutsanari, berroguei eguneco ur, ta oguico baurba.

Seña vorondatez galdu daben Andracumiari amar urteco penitencia.

Bere Emaztiagaz bide oquerreco ciquinqueriaren bat eguin daben Senarrari berroguei eguneco penitencia.

Seigarren Mandamentuco pecatuban jausten zan Mutil, edo Nescatilliari, urte osoco penitencia.

Andra ezcondu besteren bategaz pecatu eguitebanari, amar urteco penitencia. Onelacuac cirian beste pecatu mueta ascoren penitenciac, ta batzubetan ucatuten eutsen comunioia erio-tzaco ordu-raño milla penitencia eguin arren.

I. *Cer aguietan eutsen penitenciaco demporan?*

E. Batzubei egon citezala Eleisa ataian soca bat samatic ebela, escatuteutsela Eleisara joiazan Cristinaubai erregutu eiuela eurac gaitic Jaincuari, beste batzubei isteutsen Eleisan sartzen sermoiac enzuteco, baña ez Meza orduban.

I. *Cer atera biar dabe Pecatariac penitencia andi onèc enzunda?*

E. Penitencia laburrac emoten deutsela oraingo Confesoriac; Jaincuac lenguai beste satisfacinoe escatuco deuscula guri bere; ta ez

gariala baquetu, edo contentau biar Confesoriac emoten deuscu-  
zan penitencia laburraz, ezpada gueure vorondatez eguin biar  
ditugula besteren batzuc gueure pecatu, ta indarren ereduban; ba-  
ña beti Confesoriaz itunduta.

- I. *Beraz gauza alperra, ta caltegarria da confesore nasai, edo peniten-  
cia arinac baño emon ez daruacenen ondoren iblitia?*
- E. Bai, cerren Purgatorioco necaldi, eod tormentubac, ceintzobetara  
garuezan Confesore onelacuac, dirian chito icaragarriac, ta mun-  
du onetan eguin aldaiqueguzan penitencia garratzenac, ta gogo-  
rrenac baño, azcoz gogor-garratzaguac.
- I. *Ceibat penitencia modu emon daruaz Confesoriac ascotan?*
- E. Bi: batari dericho Medicinala, edo osacarra; bestiari satisfactoria,  
edo ordegarria.
- I. *Cer dira penitencia Medicinalac, edo osacarra?*
- E. Dira pecatuba eragozteco, edo barriro pecatura ez biurtuteco  
emoten dirianac, nolan dirian urlia nescatilla, edo mutillegaz ez  
verbaric eguiteco, edo ez bacarran egoteco; alaco echian ez oinic  
ifinteco, tabernan ez sartzeco, jausten bada onelaco, edo alaco pe-  
catuban limosnaren bat emoteco, edo biaramonian confesetaco,  
eta onelaco beste asco.
- I. *Ceibat demporaren barruban cumpliu biar dira penitenciac?*
- E. Baldin penitenciac luci ac badira, nola diran illi bian, edo lauban  
egunoro acto contricinoeco bi esatia, lurrari mun eguitia, eta alan  
beste asco, egon biar da Confesoriaren esanera, ta intencinoera;  
baña estacinoe bat, lau edo bost Ave Maria, edo beste onelaco  
beingo, edo birritaco penitencia bada, ta esan ezpadeutsa Confe-  
soriac noz, lau edo bost egun luzatutia, ezta ardua andico gaucia;  
alambere onduen izango da aibat lasterren eguitia.
- I. *Cer contu atera biar dau Pecatari batec penitencia eguiteco?*
- E. Izan dala guizon dollor bere Ceruco Erregueri jarqui jacona; ta  
ibilli biar leuque buruba beraturic, edo lotsaz leguez bere aurrian,  
batez bere gomutauric cer paciencia, ta erruquitasun andiaz icha-  
ran deutsan, penitencia eguiteco, beste asco pecatu guichiagogaz  
dauczala Infernuban provechu, ta onera bagaco penitencia ga-  
rratzac eguiten. Goguan erabilli, cer penitencia latzac eguin citu-  
ban Jesu Cristo errubagaco, edo inocentiac gure pecatubac gaiti,  
ta atera emendic, cer eguin biar dogun guc, erru guztia gueuri (sic)  
izanda.
- Eztala ñor Ceruban sartuco Jesu Cristoren irudira vici ezpada.  
Eta celan vici izan zan Jesu Cristo? Beti nequepian, oracinoian,  
baru artian, erruquizco, edo misericordiac eguinetan, munduco  
baralla, ta atseguin bideen iguesi.

*Amairugarren Icasbidia**Indulgencia*

165

I. *Cer da Indulgencia?*

E. Da confesinoeco sacramentubac parcatu dituban pecatubei zor jaquen dempora bateco castiguben parcacinoia.

I. *Eleisa Ama Santiac emon daiquez Indulgenciac?*

E. Bai, ta beti emon izan ditu Apotoluben demporatic oraindaño. Eta ala San Pabloc emo eutsan Indulgencia Corintoco guizon ciquin, edo deshonestuari.

I. *Celan emon eutsan?*

E. Bere penitenciac demporia laburtubaz, ta parcatubaz bere damu, ta negar andiac icusiric, ta cristinauben erregubei enzutia emonic.

I. *Nortzuc emon daiquez indulgenciac?*

E. Gueure Aita Santubac Eleisa guztian, ta Obispo Jaunac euren Eleisetan.

I. *Ceimbat indulgencia mueta dira?*

E. Bi, bata da osua, edo Plenaria, bestia da banarocua edo particulara (sic).

I. *Cer da indulgencia osua, edo plenaria?*

E. Da indulgencia mueta bat, ceinen bitartez parquetan jacun guztiz gueure pecatubai zor jaquen pena demporaco guztia, ain modutan, cein da batec irabacico baleu era onetaco Indulgencia, ta beriala illgo balitz, igongo leuque artez Cerura, Purgatorioco subetatic igarotzaca.

I. *Non emoten ditu indulgencia oso onec?*

E. Bacarric gueure Aita Santu Erromacuac.

I. *Cer adietan dozu Indulgencia banaroco, edo ez osuaz?*

E. Adietan dot indulgencia bat, ceinec eztaben parquetan pecatubari zor jacon penaren zati bat baño; onelacuac dira berrogeui eguneco Indulgencia, larogueicua, ta urtebetecua.

I. *Cer adietan dozu berrogeui, ta eun eguneco Indulgenciaz?*

E. Adietan dot, lenengo Cristinaubac Eleisaco Canonen aguinduz, berrogeui, ta eun egunian egui eruen penitenciac parcacinoia. Eta alan eztau esan gura, parquetan jacuzala berrogeui, edo eun eguneco purgatorioco tormentuac, ezpada anchinaco berrogei, edo eun eguneco penitencia eguinda parcatuco jacuzan beste baño. Eta au gueratuten da Jaincuaren Juicio veneragarrientzat.

166

I. *Beraz eztago cer penitenciaric eguin, baldin ain erraz parquetan jacuz Purgatorioco pena guztia, Indulgenciac irabaciaz?*

E. Ez orrelacoric: Indulgencia da gure argaltasunaren laguntasun bat, eta ez achaquia bat gueure nasaitasunarentzat guc ofendiu dogun Jaincuari ordia emon baga egoteco.

- I. *Cer eguiten dau bada Eleisa Ama Santiac gauza onetan?*
- E. Ez gaitu libretan gueure aldetico penitencia eguitetic, ezpada gure penitencia osuagua, edo obiagua izan dedin, batcen deu-tsaz Jesu Cristoren, eta Santuben satisfacinoe ta eguin valio andicua.
- I. *Celan jazoten da ori?*
- E. Guizon batec asmau al penitencia eguin arren, ezteutsa satisfacinoe osua emongo Jangoico ofendiu dabenari. Cer eguiten dau bada gure Eleisa Ama Santiac?
- Apliquetan, edo egozten deutzaz gure penitencia laburrai Jesu Cristoren, Ama Virginiaren, ta Santuben satisfacinoe ugariac, onèn bitartez gueure utsa beteteco.
- I. *Celan euqui leie parte Cristinaubac Jesu Cristo gueure Jaunaren, ta Santuben irabaci, ta satisfacinoietan?*
- E. Guztien artian dagan batasun, edo uninoiagaiti.
- I. *Cer eguin bair da Indulgenciac irabazteco?*
- E. Iru gauza: egon biar da Jaincuaren gracion. Eguin biar dira artez, ta osoro, Indulgencia irabazteco esquetan jacuzan erregu, Eleisaco estasinoe, limosna, edo gauza guztiac.
- Euqui biar dau damu eguiazco bat, ez bacarric pecatu mortalena; baita pecatu, ta utseguiteric chicarrena bere, aleguinaz ez gueiago eguiteco asmuaz.
- I. *Erraza da Indulgencia plenaria, edo osua irabazia?*
- E. Da gauza chito gacha: cerren guichic daruezan irabazteco biar dirian prestaqueta onec.
- I. *Bada celan dacuscuz aimbeste Cristinau confesetan, Indulgenciac irabazteco ustiaz?*
- E. Cerren uste daben, baña deungaro, confesau, ta comulgau, eta Eleisia icusi, edo visitau ezquero guztia daguala eguinda. Ceimbatec darue pecatu chiquinen damu eguiazcua, ta eurac bere penitencia eguiteco gogo benetaco bat? Chito guichic.
- I. *Cegaitic ecin irabaci leique Indulgenciaric pecatu mortalian dagozanic?*
- E. Cerren ecin parcatu leite pecatuben penia, pecatuba bera parcatu baga.
- I. *Cein da gauzaric onena: irabazia bacoachac Indulgencia beretzat, edo Purgatorioco arimentzat?*
- E. Obiago da Jaincuaren aurrian Arima gaiso Purgatoriuan dagozantzat irabazia: cerren dan amodiozco, edo caridadeco eguite andi, Jaincuac chito ascò gura dabena.
- I. *Eta bildur izan biar da beretzat ecer emparau eztaquion, guztia Purgatorioco Arimentzat ichita?*
- E. Eztago cer bildur izan: cerren gure bitartez Cerura doiazan arima zorionecuac erregutuco deuzen Jaincuari arimaco ondasunez bete gaguizan.

2. Cerren caridadiaren bitartez irabazten dogu gueuretzat meritu gueiago.
3. Eta cerren Purgatoriora baguaz eztan faltaco guretzat noc erre-gutu, Cerura bialdu guenduzan arimac baño ezpadira bere.
  - I. *Celan irabacico ditugu Indulgencia asco?*
  - E. Bulda Curutzetacua artubaz, ta eguinaz, an esquetan jacuna.
  - I. *Irabaci leite Españan Indulgenciaric Bulda бага?*
  - E. Ez, cerren au da Aita Santubaren vorondatia.
  - I. *Ceimbat mesede dacarguz Bulda onec?*
  - E. Chito asco, baina enzunenac dira oneecc.
    1. Buldia daucanac jan leiquez, Fraile, edo Sacerdotiac ezpadira, garizumaco, ta urte guztico egunetan arrautsa, ta esne gauzac.
    2. Erromara jua baga billatu leique Promes, edo vоторic gueinen (sic) aldantza, edo comutacinoia, eta alan edocein Confesorec trucauco deutsa beste gauza onen batzubetara, limosnaren bat Buldiaren escubidia dauquenentzat emon ezquero.
    3. Jan leique urte guztico vigilia, edo baru egunetan oquelia Confesore, ta Medicubaren consejuz.
    4. Absolviuco dau Confesoriac edocein pecatu, edo escomuni-noetic, baldin eguiazco damu, ta gogo barriacaz confesau, edo autortuten baditu.
  - I. *Cer atera biar dogu Icasbide onetatic?*
  - E. Euqui Indulgenciac irabazteco arreta andi bat: baña eruan orretaraco biar dirian, ta esan ditugun prestaerac.
    2. Ez penitencia eguitiari larga Indulgencien achaquiaz.
    3. Artu bulda Curutzecua, ta eguin valio daguiian Comisario Jau-nac aguinduten deutcuna.
  - I. *Cer gauza dira orrec?*
  - E. Lenengua escribiu artzen dabenac, beretzat badau bere icena, ta besterentzat badau bestiaren icena, barruban aguiiri dan utsune berariazco baten.
    2. Bigarrena, eguin sei arraia, iru firmiaren alde bacochian, baldin Bulderubac curutceren batzuc eguin ezpadeutsaz.
  - I. *Celan eguin leitez iru erraia albo banataco aec?*
  - E. Icustzuz.

[D.F. de N.]

*Amalaugarren Icasbidia*  
*Oliacinoia, Ordia, Ezcontzia.*

168

- I. *Cer da oliacinoia?*
- E. Da Sacramentubat Jesu Cristo gueure Jauna (sic) eguina, ta ichia



gaiso ardurazcuei arimaco, ta gorputzeco biar dituben laguntasun guztiac emoteco.

- I. *Celan emon daruaque arimaco laguntasuna?*
- E. Emonaz gaisuai indarra, ta adoria Diabrubaren tentacinoe, ta eriotzaco icariaren contra.
  2. Quendubaz lenagoco pecatuben azuzqui, ondar, ta emparaubac.
- I. *Celan emoten deutsa gorputzeco laguntasuna?*
- E. Emonaz paciencia neque, oñaza ta naigabe gachac dacartzanac eruateco.
  2. Emonaz gorputzeco osasuna, baldin arimiaren osasunari ondo bajatorco.
- I. *Celan emon daruaque Sacramentu onec gaisuei indarra, ta adoria?*
- E. Euren Fede, edo sinistamena viztubaz.
  2. Ezarriaz euren viotzetan Jaincua icusi, ta gozatuteco gurari, gose, ta gogo vicia.
- I. *Cegaitic deiuten da Sacramentu au Oliacinoia, edo Azquen bustzeia?*
- E. Cerrén au dan Cristinaubac azquenengo artu daruena.
- I. *Icharan biar da azquen azqueneraño, Sacramentu au artzeco?*
- E. Ez; bada artu biar da, cer artzen daben gaisuac daquiala, ta ez egon concorturic, illaguinic, ta ezaguera бага dagozan artian.
- I. *Cer eguin biar da ondo artzeco?*
- E. Confesau pecatu mortalían badago.
- I. *Eta ecin confesau bada verbia juañ jacolaco?*
- E. Orduban eguin biar ditu Acto contricinoeco viciac, eta albadagui, emon quiñu, edo señaleren batzuc bere guria eracusteco.
- I. *Cer eguin biar dau gaisuac, Sacramentu au artzera doianian?*
- E. Biar dau jarri bere pecatu guztien damu andi baten; artu icharapen, edo confianza oso bat Jaincuaren erruquitasunian, ta bere vorondate Santubari guztiz ichatsi, edo etzigui.
  2. Opaeguin bere gacha, oñaza, naigabe, ta miñ guztiac bere pecatuben orderaco.
  3. Artu vorondatez eriotzia, Jaincuac bialdu gura badeutsa.
  4. Artu emoten deutsezan erremedio, ta osabidiac, gomutaubaz Jesu Cristori ill aurrian emo eutsen edateco samin, ta garra-tzaz.
  5. Beguiac oriotuteco dempora escatu euracaz eguin izan dituban utseguite guztien parcacinoia: eta bardin beste sentidu guztietaco orio bustzectan.
- I. *Cetan utseguin darue gaisoric gueienac?*
- E. Lau gauzatan: Paciencia guichi, ta umore charra euquiaz.

2. Sacramentu au artzeco naguitasuna, ta atserapena eracutsiaz.
3. Osasuna, gueiegui gura izanaz.
4. Vicitza oni, ta ondasunei asco ichachita egonaz.
- 169 I. *Cer da ordia?*
- E. Da Sacramentu bat, ceinec Eleisa guizonei emoten deutsen indarra, edo poderiua Eleis gaucetan jarduteco, ta onec ondo, ta biar leguez eguiteco gracia.
- I. *Nundic jatorque indar, edo eguial au?*
- E. Jesu Cristogandic, ceinec indar ori emon eutsen Apostolubei, ta andic ona batzuc bestiai alcarri.
- I. *Beraz beti Mundubac dirauban artian iraungo dau Ordiac?*
- E. Bai, ta celan iraun biar daben azqueneraño Jesu Cristoren gorpuzac Sacramentu Santu adoragarrian, alan iraun bere biar dau bera consagretaco indarra.
- I. *Beraz Sacerdotiaren Ordia da chito andi ta Onragarria?*
- E. Bai, eta alan ecarri biar jaque Sacerdotiai lotsa, ta erreverencia chito andi bat, gaistuac, ta vicitza deungacuac balira bere.
- I. *Cegaitic ori?*
- E. Cerren Jesu Cristoc berac bere (sic) vici izan zan artian anchinaco legueco Sacerdotiac honrau eruazan, ta orainguen aldian irudi utsac ciran.
2. Cerren gaurco egunian bere jasten dan Cerubetatic euren escubetara diran deunguenac izan arren.
- I. *Cer conseju emo eruan Jesu Cristoc onèn gainian?*
- E. Ez eguiteco curac eguin daruezan gauza deungac; eta jarten baci-ran Pulpituetan Sermoeguinen, eguiteco eurac cinuena. Bildots baten narrupian ezcutau leitiala Otso amurraturen bat, ta gorde-teco onelacuen atzamarretatic.
- I. *Beraz Sacerdotiac bere condenetan dira?*
- E. Bai, ta gueiegui; eta alan ez beti euren ispilluban gueure burubac icusi, ezpada Jesu Cristoren Evangeliuian, cein dan gure eguite guztien zucebiddia.
- I. *Ce poderio emoten dau onez osteruncian Sacerdote Ordiac?*
- E. Parquetia pecatubac euren oinetara datoza penitente benetacuai, ta parcatutzat emotia Ceruban.
2. Catigaturic, ta loturic istia ondo prestauroic eztuazanan.
- I. *Cegaitic esaten da dauquezala Ceruco gultzac?*
- E. Cerren edegui daiquezan Ceruco atiac ascorentzat, ta ichi beste batzubentzat.
- I. *Beraz bildur izan biar dau confesetara doianac ondo prestauroic ezpada?*
- E. Bai, ta errazoe bigaiti: lenengua, cerren Confesoriac esan arren,

Nic absolvietan zaitut zeure pecatubetatic Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian, eranzuten daben Cerutic Jaincuac: Nic condenau, ta lotuten zaitut ceure pecatu guztiacaz.

2. bigarrena cerren eguiten deutsan injuria chito esquerguia Jesu Cristoren odolari.

I. *Cer atera biar dogu icasbide onetatic?*

E. Ecarri erreverencia andia Sacerdotiai; Ainguerubac ecarri daruaquen leguez.

2. Ez beguiratu euracan, ezpada Jesu Cristoren irudia.

I. *Cer da Matrimoniua edo Ezcontzia?*

E. Da Sacramentu bat, ceinec santututen dau guizon, ta emaztiaren arteco batasun edo laguntasun zucena, ta emon daruaque gracia euren umiac azteco Jaincuaren bildurrian.

I. *Ce prestaeracaz artu biar da Sacramentu au?*

E. Egon biar da Jaunaren gracian, ta consejuristic onena da, eguin daiela ezcondu aurreco egunetan Confesinoe general eguiazco bat.

Artu biar da Sacramentu au modestia chito andiaz lotsagabequeria guztiac aldenduric.

Eztau ezconduco danac euqui biar eragozbide, edo impedimenturic.

I. *Ceimbat modutacuac dira impedimentu, edo eragozbide onec?*

E. Bitacuac: batzuc eragozten dabe ezcontzia: baña ezcondu ezque-ro, valio dau ezcontziac; alambere eguiten dau pecatu mortal eragozbide onetan ezconetan danac.

I. *Ceimbat dira eragoz bide onec?*

E. Dira lau: Garbitasuneco, Sacerdote, edo Erreligioso izateco esquinia, edo votua.

2. Besteren bati emonico ezcontzaco verba deseguin baguiac.

3. Avendu, edo garizumaco demporia: baña gaurco egunian onegaz adietan da, eztala ezcontza bullazcoric eguin biar dempora Santu onetan, ezta Eleisaco bedeincacinoe, edo frementacinoeric bere.

4. Eleisiac eragoztia.

I. *Cer eguin biar dau Castidadeco votua eguin dabenac ezcondu gura badau?*

E. Beguiratu Jaincuaren aurrian ondo dan edo ez bere promes, edo esquinien nasaibidiac topetia. Escatu oracinoian, arren eracutsi daguiola, cer eguin biar daben. Aguertu guero viotza Confesore jaquitun bati, ta ezcontzaco errazoe andiac badaucaz, ecarri dispensia Erromatic.

I. *Biri ezcontzaco verbia emon deutsanac, eguiten dau pecatu?*

E. Bai, ta chito andia: cerren saltzen daben bigarrena; eta alan lenen-

go verbiari eutsi biar jaco, ta bigarrena utsa da. O ceimbat calte eguin daruezan mutil madaricatu ascoc! Emon daruaque verbia ascori; darabillez engañauta Nescatilla zoro ez guichi. Dabilzt irugaz, edo laugaz tratu gaistuan. Guztiai ondo verba eguin, ta galdu ariman, ta munduraco. Ni arritu, edo zurtuten nabena da, celan sinistia emon daruaquen arima bagaco mutil infame onelacuai.

Nundic daquie besteren bat lenago verbaturic daucan edo ez?

- I. *Cer jazoten da onelaco ezcontzetatic?*
- E. Cerren sartu etzirian bide, edo ate onetic, madaricatu daruaz Jaincuac: euren amodio araguizcua laster deseguiten da, ta vici oi dira lera, ta atralaca gogorrian, Infernuraco azten ditubela euren umiac.
- I. *Ceintzuc dira bigarren moduco eragozbidia?*
- E. Dira amabost: enzunenac, ta jaquin biarrenac dira orain eracutisico diranac; baña euracaz ezconduten dana, eztago ondo ezconduta.
- Lenengua da Senidetasuna.
- 171 I. *Ceimbat senidetasun mueta dira?*
- E. Iru guretzat. Bide oquerretic, edo ezcontzaco verbatic datorrena, ta oni deituten jaco Onestidateco eragozbidia.
- I. *Cer adietan dozu bide oquerretic datorren Senidetasunaz?*
- E. Adietan dot, ezcontza uts edo valio ezebanen batetic datorrena; eta eragozbide au eltzen da laugarren oin, edo graduraño.
- I. *Cer adietan dozu ezcontzaco verbatic datorren senidetasunaz?*
- E. Adietan dot, Mutilen batec emon badeutsa Ezcontzaco verbia Nescatillaren bati, ecin à ezconduco da inoiz onen aistiaz, eta Nescatilla bere Mutillaren anaiaz; bardin adietan da, euren vorondatez verbia urratu, edo deseguingo balitz.
- I. *Bigarren senidetasuna cein da?*
- E. Da coñatatzatic datorrena.
- I. *Cer da coñatatzaco senidetasuna?*
- E. Da araguizco batasun, edo eguite osotic jaioten dana.
- I. *Ceimbat modutara jazoten da araguiaren batasun edo eguite oso au?*
- E. Bitara; bide deungatic ta bide zucnetic.
- I. *Cer da bide deungaco araguiaren batasun au?*
- E. Da seigarren Mandamentubaren contra eguin dan pecatu nagusitic datorrena; eta eragozbide au eltzen da bigarren graduraño: alan, ecin ezcondu leitez ez neba arrebaz, ez lencusu lencusina lenenguacaz, ez lloba, izeco ta osaba urcuenacaz.
- I. *Cer da bide zuceneco araguiaren batasuna?*
- E. Da ezcontza barruban euquiten dan artu emon araguizcua: eta au

eltzen da laugarren graduraño; alan ecin ezcondu leite alargun bat bere emazte, edo senar illaren seinide (sic) laugarren graduban sartuta daganaz.

I. *Cein da irugarren senidetasuna?*

E. Da berez, edo naturalezaz datorrena: nola dan Aita Seme, Ama alava, Neba Arreba, Lencusu lencusina, Lloba Osaba, edo onela Aide berezcuen artecua. Eztago iñor eztaquianic senitasun au eltzen dala laugarren grado edo oñeraño.

I. *Cer da indarreco ezcontzia?*

E. Da nai ta ez, edo bildugarri (sic) andiren bategaz eguin dan ezcontzia, ataraco escubideric ezeguala.

I. *Cer da gaistaqueriaco eragozbidia?*

E. Da iru adetic datorrena: Eriotzatic, Adulterio, edo Ezconduben pecatu bide oquerrecotic, edo aldabetara (sic) bietatic.

I. *Noz da, edo cer da Eriotzaco eragozbidia?*

E. Senar Emazteren bat illten dabenian bic alcarregaz itunduta, ezcontzeco asmuaz.

I. *Ce da Adulterio bacarreco eragozbidia?*

E. Senarra vici eban artian Emaztiac besteren bategaz egui eban pecatuba, ill onduan ezconduteco asmo, ta tratubaz. Edo senarra ill бага, ta fede deunguiaz egui eben bigarren ezcontzia. Bardin Senarraren eguiña.

I. *Cer da eriotza, ta Adulteriotic datorren eragozbidia?*

E. Da ezconduren bategaz pecatu eguin, ta laguna illtia ezontzeco asmuaz, biac itundu ezarren.

Eztot gauza onen gainian ecer gueiago aitatuco: cerren da gauza milina, edo delicaua. Leiala da conciencia: aguertu au Confesoriari quezcaren bat daucanac.

I. *Cer eguin biar dau deungaro ezconduta daganac?*

E. Billatu Confesore jaquituria andico bat, ta eguin onec esango deutsana. Ezpabere beti vicico da pecatu mortalian.

I. *Nun artu biar da Ezcontzaco Sacramentuba?*

E. Bacochar bere errico Cura Jaunaren aurrian, edo onèn baimenaz beste Abaderen baten bitartez; eta biac erri bitacuac badira gura daben Errico Curiaz.

I. *Cer eguin biar da lenago?*

E. Iru Eleis dei euren errietan, ta bardin numbait lantza, edo serviciuan dempora luceren baten egon badira. Ceimbat dempora biar daben, esango deutsa Cura Jaunac.

I. *Ceintzuc dira Ezconduben eguimbiar, edo obligacinoiac?*

E. Dira bost enzunenac: Senar Emaztiac alcarren artian baque, ta batasun santuban vici izatia.

2. Batac bestiaren argaltasun, ta utseguñac pacienciaz eruatia.

3. Euren lan, edo biarretan alcarri lagundutia.

4. Batac bestiari leialtasun andi bat gordetia.

5. Euren Umiac Jaincuaren bildurrian aztia.

I. *Celan acico ditu Jaincuaren bildurrian?*

E. Euren Seiñen viotz bigun, ta samurretan sartubaz Jaincuaren amodiua, pecatubaren gorrotua, ta gauza on guztietaraco gurari vici bat.

I. *Nortzuc eguin darue pecatu ezcondutian?*

E. Ezcontzeco eguin biarrac jaquin бага ezconetan dirianac, ta ez guichiago asmo, edo intencinoe garbia eztaruenac; eta alan eguin daruez pecatu asco eldu baño lenago frutu onetatic jan daruenac; edo etorquizunacaz gomutauta pensamentu, ta gozamentu loietan vorondatez egoten dirianac.

I. *Pecatu asco eguin oi dira ezcontza egun, ta Echetan?*

E. Bai: verba zantarrac, pensamentu ciquinac, danza, ta quiñu charrac izan oi dira, gueien erreguiñau daruenac. Eta esan daiquegu negarrez San Francisco Salesec dinuana, gaurco eguneco Eztegu guichitan aurquituco dala Jesu Cristo. Diabru Asmodeo gaistua izaten da euren Aguintaria. Eta celan bedeincatuco ditu Jaincuac onelaco Ezcontzac?

I. *Eta peccaturic eguin leique Senar Emaztiac alcarregaz?*

E. Bai, ta andiac, gueienac uste izan ezarren. Bacocho orditu leite bere Mastian arturico ardauaz. Ascoz beguiratubaguac dira Aberiac Jaincuaren irudira eguiñac diran Guizonac baño. Zorionecuac inocencia, edo jaquiñez Santuban vici dirianac. Zorionecuac doncellatasuna gordetera deitubac diranac. Ceimbat naste, ta caltetic libretan dira!

#### *Amabostgarren Icasbidia*

173 *Oracinoia, edo Escaria*

I. *Cer da Oracinoia?*

E. Da gueure viotza Jangoicuagana jasotia, biar ditugun gauzaren batzuc esquetaco.

I. *Ceimbat erara eguin daiquegu Oracinoia?*

E. Bitara, viotzez, ta aoz; ta alan Oracinoe batari dericho barrucua, ta bestiari aozcua, edo vocala.

I. *Asco da auaz Oracinoe eguitia?*

E. Ez viotzac lagundu ezpadeutsa: ezpan utsetaco escabidiac eztitu artzen gure Jangoicuac.

I. *Badaucagu Oracinoe eguiteco obligacinoeric?*

E. Bai; eta da Cristinauben eguimbide estubenetic bat iñolabere ichi ecin leiquiana.

I. *Cegaitic ori?*

E. Iru errazoe gaitic: Jaincuac aguinetan dabelaco chito lecu ascotan.

Cerren gagozan biarturic ezagubide, ta honria emotera gueure Jaunari; ta Oracinoia dalaco, bera honretaco bitarteco guztiz ona.

Cerren izanic Jaincua chito averatsa, ta ondasun guztien iturria, ta gu Erromes gaiso ecer eztaucagun batzuc, berac emon biar deuscu guztia, ta artzeco escatu biar da.

I. *Celan eguin biar da Oracinoia?*

E. Umiltasun andiaz, icharapen, edo enzungo gaitubalaco uste osuaz, ta iraunaz, edo barriro esquinaz (sic) bein edo beste jaretsi ezarren esquetan doguna.

I. *Celan eguin leique viotzeco Oracinoia edochein Cristinauc?*

E. Egunian edolabere orretaraco ordu lauren bat artubaz, dala goisaldian, dala gaberuntz.

I. *Cer gauzatzuc meditau biar ditugu?*

E. Gueure azquenquiac, edo etorquizunac, nola dirian Eriotzia, Juciua, Infernuba, ta Ceruba. Jaincuaren escubetic artu ditugun mesede guztia, ta cein ona, ta erruquiorra izan dan guretzat. Eta gueien Jesu Cristo gueure Jaunaren Pasinoe, ta Eriotzia.

I. *Cer ordenaz aztertu, edo meditau gueinque bere Pasinoia?*

E. *Astelenian*, celan garbitu eutsezan Apostolubai euren oñac, ta celan ichi euscun Sacramentu Santu Altaracuan bere gorputz vene-ragarria.

*Martitzenian*, celan ifiniric Judasec Judeguben escubetan, lotueben gaistaguin andi bat leguez, ta Getsemanico Ortuban igaro cituban larritasun, naigabe, ta icerdi odolezcuac.

*Egubaztenian*, celan eruanic Pilatosgana gau guztian izan zan Soldautzar gogorren siñugarri; an emoeutsezan ucabilcada, belardon-doco, osticada, ta botaca negargarriac.

*Egubenanian*: Celan Erodesgana eruanic euqui eban zorotzac (sic); guero ostera biurturic Pilatosgana, azotau eraguieban azurretaraño, Borreru madaricatu gogortzarrac adicatu, ta aspertu artian.

*Bari Cuban*: celan buruban sartu eutsen elorritzco Coroe aranzaduna, ezarri eutsen Curutce astun bat bere soñian, ta erueban Calvarioco Mendiraño jausi, ta jagui ebillela.

*Zapatuban*: celan Curutzian ultze gogorracaz josiric, jaso eben gorra lotsari andian ifintebela, bere Ama Curutzepian eucala. Emen erregutu eban bere Arerio, ta Borrerubac gaitic; emo eutsen bere egarrian Infernuco Boticario aec eguinico edari min bat; ta beguac Ceruruntz jasoric ichi eban bere Espirituba Aitaren escubetan, ta ill zan.

*Domecan*, celan Obipetic urten da viztu zan illen artetic, ez gueia-go illteco.

- I. *Ceimbat ondasun ateraco ditugu Pasinoe santuco azterri, edo mediatacinoetic?*
- E. Asco: baña jaquiñenac, ta biarrenac iru. Humiltasun andia; Amodio vici bat Jesu Cristoganuntz; ta Penitencia gura andi bat.
- I. *Celan humiltasuna?*
- E. Icusiric ceteraño beratu, ta umillau zan Jaincuaren Semia.
- I. *Celan Amodiua?*
- E. Ezaguturic, ceteraño amau guinduzan.
- I. *Celan Penitencia guria?*
- E. Ateraric contu au: baldin nire pecatubac gaitic aimbeste necaldi artu, ta penitencia eguin badau, cer eguin biar eztot nic?
- I. *Ceimbat gauza, circunstancia, edo cercilidade aztertu guinaiz Cristoren Pasinoian?*
- E. Oneec: Ceinec daruan aimbeste neque? Cegaitic daruazan? Ceiñegaiti? Cer era, edo modutara? Eta ceteraño?
- I. *Eta Oracinoe demporan ecin viotza batu badogu, ichi biar ete jaco lan valioso oni?*
- E. Ez leuque Diabrubac beste gauzaric nai; bada badazau gueure Aterio onèc, dino Santa Teresac, galduta daucala oracinoian irauin, ta jarduten daben arimia.
- I. *Cegaitic dago munduba ain galduba?*
- E. Euren artian astiro gomutetan eztitubelaco Etorquizunac, ta Cristoren tormentu, edo necaldiac.
- I. *Cer esaten deuscu onen gañian Jesu Cristo gueure Maisubac?*
- E. Eguin daigula beti oracinoe; esan gura dau gueure lan guztiac eguin daiguzala bere gloriaraco.

*Amasei garren Icasbidia*

*Aita Guriaren, ta Ave Mariaren Azaldamentuba.*

175

- I. *Cein da Escari, edo Oracinoe guztien artian onena?*
- E. Aita guria, edo Jaincuaren escaria, esan gura dau, Jesu Cristoc eracutsi euscuna.
- I. *Nogaz verba eguiten dogu Aita guria esatian?*
- E. Gueure Jaincuaz.
- I. *Cegaitic emoten deusagu Aitaren icena?*
- E. Cerren berac emo euscun gueure izate, ta vicitzia, ta berac gorde-ten deuscun. Eta Jaincuagan gueure icharapen, edo uste guztiac ezarri daiguzan bere Umiac, ta Ceruco Jaubegai, edo herederubac leguez.
- I. *Cegaitic esaten eztozu Aita neuria, ta esaten dozu Aita gueuria?*



- E. Cerren guztioac garian alcarren anaiac, ta alcargaitic erregutu biar dogulaco.
- I. *Cegaiti dinozu Cerubetan zagozana?*
- E. Cerren egon arren Jangoicua arcuntza, ta bazter guztieten, alam-bere Ceruban dago bere jauregui, edo Palaciuana leguez. Eta guri eracusteco, Oracinoeco orduban gueure viotzac jaso biar ditugula Cerura, nundic jatorcuzan ondasun guztiac.
- I. *Ceimbat escabide dagoz sartuta Aita gueurian?*
- E. Zazpi.
- I. *Cein da lenengua?*
- E. Santificau bedi zure icena.
- I. *Cer esque eguiten jaco verba orretan?*
- E. Izan dedilla ezagutuba, onrauba, ta maitetuba Mundu guztiagandic.
- I. *Celan ori?*
- E. Escatubaz, Fedebaguiac biurtu ditezala bere icen Santuba ezagututa gure Cristinautasunera.  
Juramentu guzurrezco eguillac, ta blasfematzaillac ichi daiuela, bere icen Santuba deungaro erabiltiari.  
Cristinau guztiac onrau daguiela vicitza santubaz.
- I. *Cer esan gura dau escari onec: Betor gugana zure Erreinuba?*
- E. Esan gura dau: aguindu daiala gure viotcetana bere graziaz ta guero bete gaizala bere gloriaz.
- I. *Cer esan gura dau escari onec: Eguin bedi zure vorondatia nolan Ceruban, alan lurrian?*
- E. Esan gura dau: ecarri daigula lurrecuac gueure Jaincuari Cerucua ecarri daruaquen obediencia, bere aguindu guztiac gordiaz.
- I. *Cer esan gura dau laugarren escari onec: Egun iguzu gueure eguneco oguia?*
- E. Esan gura dau, emon daigula gorputz, ta arimaco vicitziarentzat egunoro biar dogun janari, edo oguia; onèc dira, bere gracia, Jesu Cristoren gorputz Santuba, ta bere verbia.
- I. *Cein da gorputzeco oguia?*
- E. Da gure vicitziari iraun eraguiteco biar ditugun gauza guztiac.
- I. *Cer esan gura dau bostgarren escari onec: Parcatu iguzuz gueure zorrac, guc gueure zordunai parquetan deutsegun leguez?*
- E. Beti escatu biar deusagula gueure pecatuben paracinoia; ta parcatu daiuezala gueure gaisquinic, ta Arerioric andienai, esanaz gueuc bere parquetan deutsegula.
- I. *Beraz bere contra esquetan dau, Areriuari amodiori (sic) ezteutsanac?*

- E. Bai: esango baleutsa leguez: Ez egidazuz, Jauna, parcatu neure pecatubac, baldin neuc areriuai parquetan ezpadeutset; ta artu eguidazu gorroto andi bat, nic gorrotoric badeutset.
- I. *Cer esan gura dau Seigarren escari onèc: Ez ichi jausten tentacinoian?*
- E. Esan gura da, quendu daiguzala Diabrubaren tentacinoiac, edo emon daigula gracia goitu (sic) ta galdu ez gaguizan, pecatu eraguiñaz.
- I. *Cer esan gura dau zazpigarren escari onèc: baña bai librau gacheric?*
- E. Esan gura dau, atera gaizala vicitza onetaco miseria, ta negar bidetatic; baña gueien betico eriotzatic, cein dan gach guztien artian andiena.
- 177 I. *Cein da Ama Virginia onrretaco, ta bere bitartetasuna topetaco erreguba, edo Oracinoia?*
- E. Da Ainguerubaren Agurra, edo Ave Maria.
- I. *Ceimbat verba esa eutsazan San Gabriel Ainguerubac Ama Virginiari Jaincuaren partez barri onac emoten juan jaconian?*
- E. Onec: *Agur Maria, graziaz betia, Jauna da zugaz.*
- I. *Cer esan gura eutsan onegaz?*
- E. Barri onac zuretzat Maria, bada zure Sabel garbian erabillico dozu Jaincuaren Semia Guizon eguinda; graziaz betia zara, ta Jauna benetan dago zugaz.
- I. *Ceintzuc dira Santa Isabel bere lencusiniac esaeutsazanac?*
- E. Bedeincatua zara Andra guztien artian, ta bedeincatuba da zure sabeleco frutuba Jesus.
- I. *Noz esaeutsazan verba onec?*
- E. Icustera juan jaconian Ama Virginia, igarriric, cer erabilen bere Sabel garbian; eta adierazo eutsan, zala Jaincuaren Ama, ta zorionecuagua beste munduco guztiac baño.
- I. *Ceintzuc dira, Eleisiac gueitu, ta beretzat artu dituban verbac?*
- E. Santa Maria, Jaincuaren Ama, erregutu eizu gu becatarioc gaiti, orain, ta gueure eriotzaco orduban. Alan izan dedilla.
- I. *Certaco gueitu ditu verba onec?*
- E. Bere bitartetasuna topetaco, adierazuaz guztia daiquiala, izanic Jaincuaren Ama.
- I. *Beraz euqui biar deusagu devocinoe chito andi bat Ama guztiz zorioneco oni?*
- E. Bai, ta iru errazoc gaiti.
1. Lenengua daucazan anditasunac gaitic: bada da Aita Jaincuaren Alaba maitatuba, Semiaren Ama, ta Espiritu Santubaren Egolecu, edo templuba.
  2. Da Ama, ta Doncellia aldabatera.

3. Da Aingueruben, ta Guizonen Erreguiña.

Bigarrena; cerren Aingueru, ta Guizon guztiac baño gracia guei-  
go eban bere ariman lenengo egunetatic.

Bere eguite miragarriac gaiti umiltasuna, garbitasuna, obediencia,  
Jaincuaganaco bardinic izan eztaben amodiua, Guizonen erru-  
quia, ta pecatuari eutsan gorroto besteric ez leguezcua.

I. *Beraz ezteutsa eguiazco devocinoeric bere oñats, ta eguite onetatic jarraitu gura ezteutsanac?*

E. Ez: cerren ecin maite izan leiquez, bere Semiac ecin icusi dituba-  
nac; eta alan izan biar dogu umildiac, garbiac, erruquiorrac, ta ar-  
tu Jaincuari maitetasuna, ta pecatubari gorroto, ta iguin vici  
bat.

I. *Ceintzuc uts eguin darue onetan?*

E. Bere devocinoe ichura bategaz deungaro vici dirianac.

Uste dabenac salvetaco asco dala, Errosariua egunoro esatia, bere  
Cofradian sartzeia, Escapulariua erabilitia, bitartian vici diriala  
euren gurarira.

I. *Alambere cein da, Ama Virginia onrretaco devocinoeric enzunena, ta onena?*

E. Errosariua.

I. *Cer da Errosariua?*

E. Da Aita gure, ta Ave Mariazco larrosa ederracaz eguiten deutsa-  
gun Coroe zori (sic) garri bat.

I. *Celan esan biar dogu Errosariua?*

E. Jaincuaren aurrian jarri, ceiñatu, esan neure Jesu Cristo Jauna,  
viotza garbituteco gueure utseguite guztietatic, ta Coroia dericho-  
na bada, zazpi *Aita gueuria*, ta irurogueta amabi Ave Maria, ta  
guero Aita gure ta Ave Maria Aita Santubaren intencinoera.

I. *Cegaitic esaten dira zazpi Aita gueuria?*

